
Euskaltzainak Bilduma

Argitaratuak:

1. *Gratien Adema*. Zaldubi
Saindu batzuen biziaz. 2007
2. *Pierre Charritton*
Pierre Broussain. 2007
3. *Pierre Lbande*
Yolanda eta beste euskarazko idazlanak.
2007
4. *Gratien Adema*. Zaldubi
Artzain beltxaren neurtitzak. 2008
5. *Antonio Arrue*
Idaztiak & Hitzaldiak. 2008
6. *Domingo Agirre*
Gutun bilduma. 2008
7. *Txomin Peillen Karrikaburu*
Biziaren Hiztegiak. 2009
8. *Gorka Aulestia*
Estigmatizados por la guerra. 2009
9. *Jean-Louis Davant*
Zuberoako literaturaz. 2009
10. *Gratien Adema*. Zaldubi
Kantikak. 2009
11. *Santiago Ezkerra Beltza*. Lizarrusti
Bizitza eta lanak. 2009

Euskaltzainak izeneko bilduma berrian euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiarako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere alboratu gabe.



Euskaltzaindia
Real academia de la lengua vasca
Académie de la langue basque



**SANTIAGO
EZKERRA
BELTZA
LIZARRUSTI**

BIZITZA ETA LANAK

11

**SANTIAGO EZKERRA BELTZA
LIZARRUSTI**

BIZITZA ETA LANAK
Argitalpenaren paratzailea: Andres Iñigo



**EUSKALTZAINAK BILDUMA
EUSKALTZAINDIA**



ANDRES IÑIGO ARIZTEGI
Nafarroako Ituren herrian jaio zen 1945eko otsailaren 17an. 1970ean unibertsitateko diploma lortu zuen eta ondotik lizentzia eta doktoregoa Filosofia eta Letretan. Lanbidez irakaslea izan da. Hasiera batean bederatzi urtez Iruñeko San Migel Aralarko ikastetxean aritu zen. 1978an, Nafarroako Diputazioak sortu berri zuen Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean Euskara irakasle plaza oposizioz lortu zuen eta 29 urtez ikastetxe horretan aritu da. Hamazazpi urtez (1980-97) Eskolako zuzendari izan zen eta Euskara katedraduna 2007an jubilatatu zen arte. Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1987an eta euskaltzain oso 1999an. Egun Erakunde honetako Jagon sailburua eta Onomastika batzordeburua da. Batzorde honen barruan 2005ean hasita abian den Euskal Corpus Onomastikoa proiektuaren zuzendaria da eta Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria 1997az geroztik. Bere doktore tesia *Toponomástica Histórica del Valle de Santesteban de Lerín* (1996) eta argitaratu dituen lan gehienak onomastika alorrekoak dira, bai antroponimiakoak bai toponimiakoak. Biografietan, aipatzekoak dira *Jose Mari Satrustegi, Nafarroako euskararen ikurra* (2004, Patxi Salaberrirekin batera), *Jose Mari Satrustegi: ereile eta lekuko* (2005), "Juan Goikoetxea Zabalo, euskaltzain urgazlea, jaio zeneko mendeurrenean" (2005) eta "Patxi Ondarra Erdozia: bizitza eta lanak" (2006).

SANTIAGO EZKERRA BELTZA *LIZARRUSTI*

BIZITZA ETA LANAK

Santiago Ezkerra Beltza *Lizarrusti* (1925-2009)

Bizitza eta Lanak / Santiago Ezkerra Beltza *Lizarrusti* ; argitalpenaren paratzailea,
Andres Iñigo. – Bilbo : Euskaltzaindia, 2009

XVI, 254 orr. : ir. ; 24x17 cm. – (Euskaltzainak ; II)

L.G.: BI-2393-09

ISBN: 978-84-95438-99-7

I. Iñigo, Andres. II. Título. III. Serie.

© Santiago Ezkerra Beltza oinordekoak
© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde zuzeneko eta idatzizko baimenik gabe.

Diseinua: Ikeder, S.L.
Aurreinprimatzea: Ikur, S.A.
Inprimatzea: Baster, S.L.L.

ISBN: 978-84-95438-99-7
Lege-gordailua: BI-2393-09

SANTIAGO EZKERRA BELTZA *LIZARRUSTI*

BIZITZA ETA LANAK

Argitalpenaren paratzailea:
Andres Iñigo

EUSKALTZAINDIA

BILBO
2009

AURKIBIDEA

ATARIKOA:

Andres Urrutia, euskaltzainburua	XV
--	----

SARRERA

“Santiago Ezkerra Beltza, <i>Lizarrusti</i> (1925-2009)”: Andres Iñigo ..	I
---	---

ARGAZKIAK	23
-----------------	----

ARTIKULUEN BILDUMA:

a.— <i>Zeruko Argia</i>	33
-------------------------------	----

“Kristau-Ikasbidea” atalean *Lizarrusti* sinadura
daramatenetik bi lekukotasun:

1954, I	35
---------------	----

1954, II	37
----------------	----

“Aurren txokoa” atalekoak –ipuinak- (*Aitona* izenpetuak):

1954, Ondo esnatu	39
-------------------------	----

1954, Usoa eta txinurria	40
--------------------------------	----

1954, Ollazazalea eta eulizale egaztia	41
--	----

1955, Azaria eta burrioa	42
--------------------------------	----

1955, Artza eta erlea	43
-----------------------------	----

1955, Trikua eta erbia	44
------------------------------	----

1955, Iru ipuitxo	46
-------------------------	----

1955, Illargia eta otsoa	48
--------------------------------	----

1955, Iapa	49
------------------	----

1956, Armiarma eta erleak	50
---------------------------------	----

1956, Arranoa eta egaztiak	51
----------------------------------	----

1956, Txoria eta erlea; Bi zakur	52
--	----

1956, Ontza baselizan	53
-----------------------------	----

1957, Seigarren eguna	54
-----------------------------	----

Bestelakoak (<i>Lizarrusti</i> , <i>Lazkoz</i> , <i>Idoya</i> izenpetuak):	
1957, Liburuak (<i>Lizarrusti</i>)	55
1957, Baita Ingalaterran ere (<i>Sinatu gabe</i>)	56
1957, Azkarate eta Etxandi'tar, Joxe (<i>Idoya</i>)	57
1958, Euskaldun eta judutarren hizkuntza (<i>Lizarrusti</i>)	59
1958, Euskeraren alde I (<i>Lazkoz</i>)	61
1958, Euskeraren alde II (<i>Lazkoz</i>)	63
b.— <i>Príncipe de Viana</i>	65
(Denak <i>Lizarrusti</i> izenpetuak, salbu <i>S. Ezkerra</i> markatuak):	
1974, Gaurko bizi-modua	67
1974, Madriden errege egunean	68
1975, India	69
1975, Belar erretzale sariketa	71
1975, Gose lagundia?	72
1975, Ego-Ameriketako Andes Mendiak	74
1975, Euskal pillota	76
1975, Egia	77
1975, Azkatasuna	78
1975, Obe al da atzerritarra laguntzea? (<i>S. Ezkerra</i>)	79
1975, Berdintasuna	81
1975, Zuzenbidea	82
1975, Bei errapea bai, adarrak ez (<i>S. Ezkerra</i>)	83
1975, Indarrek jabetzeak, lapurketak, erailtzak	84
1976, Ondapen ereileak (<i>S. Ezkerra</i>)	85
1976, Mingaña	86
1976, Ontasun banaketa	88
1976, Zer da 'Politika'?	89
1976, Euskaldunaren izaera	90
1976, Referendum	92
1977, Ez da azkatasunik	94
1977, Apaizgaiak	95
1977, Noiztik eta nundik dator euskera	96

1978, Beartsu-salketa, menpeko-erosketa	98
1980, Euskal mendigoizaleak	100
1981, Lan-oporrak Arjentinan	101
c.— Goiz Argi	103
(Denak <i>Lizarrusti</i> izenpetuak, salbu <i>S. Ezkerra</i> markatuak):	
1976, Etxeko-andreak	105
1976, Ondapen erilleak	106
1976, Gure nortasuna gorde	107
1976, Ondasun banaketa	108
1976, Madriletik	109
1976, Etxarri Aranazen negarra	110
1976, Eman da zabal zazu	111
1976, Batasunean indarra	112
1976, Giza eskubideak	113
1977, Buru argienak erbestera	114
1977, Auzo-lan	115
1977, Gosea	116
1978, Nor noren serbitzari?	119
1978, Gauza zikiñak	120
1978, Odei beltzak gure gain	121
1978, Bakoitzak zugaitz bat landatu	122
1978, Tutu-umea	124
1978, Ikastolak	125
1978, Euskalerritik kanpo bizi diran euskalduneri deia (S. Ezkerra)	126
1978, Aur galtzea, Herodes berri bat	127
1978, Indarkeria eta demokrazia (S. Ezkerra)	129
1978, Aurraren nazio-arteko urtea	131
1978, Oitura ezetsigarriak (S. Ezkerra)	133
1978, Gaurko irakaspenaren egi-eza	134
1978, Berriz, Konstituzioari buruz (S. Ezkerra)	135
1978, Errusiako urrea eta Euskalerriko Fueroak	136
1979, Euskalerraren garaikundea	137

1979, Españako konstituzioa eta euskera (S. Ezkerra)	I38
1979, Berriz baserrira	I39
1979, Berriz ere, auteskundeak (S. Ezkerra)	I41
1979, Indarkeria	I42
1979, Terrorismua	I43
1979, Iñauteriak	I45
1979, Langillearen Sindikatua	I46
1979, Auteskundeak	I47
1979, Udal-auteskundeen ondoren, danok lanera	I48
1979, Gizadiaren etorrera	I49
1979, Zein ausarta ez jakiña!	I50
1979, Euskera	I51
1979, Euskera batua	I52
1979, Lan-Saria	I53
1979, Gaiztakeriak	I54
1979, Ez atzeraegi, ez aurreraegi	I57
1979, Aurrak eta pelikulak	I59
1979, Tarretik okerragora, ez!	I60
1979, Eztabaidak argia dakar	I62
1979, Zergatik orain?	I64
1980, Abertzale naiz	I65
1980, Ezkongaiak	I67
1980, Napparroa Fuegoekin Euzkadin	I68
1980, Kezkak eta amurrazi-aldiak	I70
1980, Real Madrid - Real Sociedad	I72
1980, Euskeraren alde	I74
1980, Jaungoikoaren eskubideak	I76
1980, Beldur-jaurkera	I77
1980, Absurdoak	I79
1980, Kutsapena	I80
1980, Erri abeslaria, erri bizia	I81
1980, Eziera	I82
1980, Gizadiaren ondamena	I84
1980, Euskera aberastu	I86

1981, Jesukristo	188
1981, Euskalerrian euskeraz	189
1981, Euskalerria eta bere mendiak	190
1981, Pillota	192
1981, Demokrazia	193
1981, Zalapartak	195
1981, Errusiatik iges	197
1982, Gogamenak	198
1982, Zer dio laterkerak	199
1982, A la vejez viruelas	201
1984, Euskalerria	202
1985, Euskaldunak Madriden	204
1985, Orkoyen-Ororbia	206
1985, Baserriak, larri	207
1985, Santo Domingo de la Calzada	208
1986, Egiazko Euskalduna	210
1986, Gertaera	212
1986, Umeak	213
1986, Ezkongaiak	215

GUTUNAK:

a) Santiago Ezkerrak Norbert Tauer jaunari:

[1] 1955	221
[2] 1955	222
[3] 1956	223
[4] 1956	224
[5] 1956	226
[6] 1956	227
[7] 1956?	229
[8] 1957	230
[9] 1957	232
[10] 1957	234
[11] 1957	235

[12] 1957	236
[13] 1957	237
[14] 1957?	239
[15] 1958	240
[16] 1958	241
[17] 1959	242
[18] 1959	243
[19] 1959?	245
[20] 1960	246
[21] 1961	247
[22] 1965	248
[23] 1972	249
[24] 1977	250
b) N. Tauer jaunak S. Ezkerrari	
[25] 1965	251
c) S. Ezkerrak J. M. Satrustegiri	
[26] 1978	252



Santiago EZKERRA BELTZA *Lizarrusti*

Atarikoa

Aitor dut. Ez nuen Santiago Ezkerra Beltza ezagutzen, haren heriotza gertatu arte. Orduantxe ohartu zidan Andres Iñigo euskaltzainkideak nor eta nolakoa zen Santiago Ezkerra Beltza euskaltzain urgazlea.

Haren bizitzak ematen dit lehen abiapuntua, gogoeta labur honetarako, alegia, gizasemearen nondik norakoak sarritan ustekabekoak direla erakusteko. Erlijio-bizimodutik herri-bizimodura badago jausia, eta ez nolana hiko gainera. Halakoxea ere, ziur nago, Santiago Ezkerra Beltzari gertatu zitzaiona.

Erraza ez, gogorra eta nekeza baino. Areago, urte horietan, egun baino egoera hertsiago batean.

Lehenari helduta, bigarrena datorkit burura, bizitzaren gorabeherak azpimarratzeko, Santiago Ezkerra Beltzak beti eutsi ziolako bere euskalduntasunari eta euskaltzaletasunari.

Horixe erakusten dute bizitza erlijiosoan eginiko lanek nahiz gerokoek ere, horiek ematen baitigute euskaltzale baten irudia; irudi aktiboa, idazle eta zabaltzaile baten irudia.

Andres Iñigo euskaltzainkideak jarri dizkigu, modu txukun eta zehatzaren bidez, haren testuak eskura, Santiago Ezkerra Beltzaren lekukotza gera dadin.

Euskaltzaindiak, ez bairik gabe, bere egin du argitalpena, *Euskaltzainak* bilduma aberasten duela idazle nafar baten testigantzarekin. Eskerrak, hortaz, liburu hau argitaratzeko bidea egin dutenei: etxekoei nahiz bestelakoei, eta, zer esanik ez, Andres Iñigori, ostera ere erakutsi duelako nafarra eta euskalduna izatea ezaugarri preziatuak direla, euskararen eta euskalgintzaren munda ontzeko eta osatzeko.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

SARRERA

Santiago Ezkerra Beltza, *Lizarrusti* (1925-2009)

I.

Bere bizitzaren hiru etapak

a) 1925-1938: haurtzaroa eta Etxarriko oroitzapenak

Santiago Ezkerra Beltza 1925eko maiatzaren 6an jaio zen Etxarri Aranazko Xantuaren etxean (*Xantubaa*n deitutakoan). Maiatzaren 7an bataiatu zuten Andre Maria parrokian eta aita ponteko izan zen Santiago bere osabaren izena jarri zioten –handik gutxira behin betiko Argentinara joan zenarena–. Silberio Ezkerra eta Leontzia Beltza ziren gurasoak eta sei seme-alaba izan zituzten: Joxe, Maritxu, Juli, Anjelita, Santiago eta Dorita. Hauetaz gain, umezurtz gelditu ziren beste bi lehengusu ere, Zefe eta Domingo Gartziaandia bere etxean bizi ziren. Baina Ezkerra Beltza anai-arrebak ere oso gazterik gelditu ziren umezurtz. Santiagok urte bat besterik ez zuenean ama hil zitzaion, hain zuzen ere, alaba gazteena jaiotzean. Handik bost bat urtera, aita ere galdu zuen zorigaitzoko istripu berezi baten ondorioz. Izan ere, egun batean, Iruñetik herri-ira itzultzean, trena Etxarriko geltokian gelditu gabe aitzina zihoala konturatu zenean, salto egin, trenbideko orratza buruarekin jo eta larri-larri Iruñeko ospitalera zeramatenean bidean hil zen. Harrezkeroztik, sei seme-alabak eta bi lehengusuak beste lehengusu batzuen etxeetan banatu zituzten. Santiago Jakaneko Maria izebarenera eraman zuten. Etxe honetan hazi eta bizi izan zen hamahiru urte arte.

Haurtzaroko zenbait oroitzapen gogoan izan zituen bere bizitza osoan, hala nola, nekazaritza lanak, umeen arteko bihurrikeriak, familiako kontuak, garai hartako bizimodu eta lanak, ehiza kontuak, herriko giroa, gerra garaiko oroimen gogorrak... eta beste hainbat pasarte. Hona “Nere bizitza” eskuizkribuan gogoratzen dituen horietako zenbait:

Nekazaritza lanak:

«Amabiren bat urte nittuela, Dorita arrebarekin larberetara joaten nintzan txerri jana biltzera (...) Neguan arbiak biltzeko egunetan, izotz eta elur egunetan, gurdi idi pare batekin, arbiak biltzera joaten nintzan. Gurdia ezponda baten ondoan jarri, arbiei elur-izotza labanarekin kendu, arbi zañak garbitu, eta gurdia bete arte aritzen nintzan, esku muturrak otzaz daldalka nittuela».

«Jorraketakoan, goizeko lauetan edo jeikitzen nintzan, eta nere lengusu Juan Martiñekin, aitzurra eta arrantz sarea artu, eta arbi eta erremolatxa jorrara joaten giñan. Illuntzean, ibaira itzultzen giñan arrai sarea biltzera. Sarean (“botrino”), arraiak, amurraiak, zapoz-igelak eta beste arrai mota batzuk arrapatzen genittuen».

«Erriko soroak bi zatitan berexita zeuden. Arresi batek bereixten zittuen, bargatik asi eta beeraño soro guziek. Arresi alde batera, gari, garagar, olo eta gañerako uzta indartsuenak ereiten ziran; eta beste aldean, baba, txitxio, arbi, erremolatxa, lur-sagar (“patata”), trebol, alfalfa, belar eta gañerako uzta aulenak. Urren-go urtean, uzta lekuz aldatzen ziran, lurrak atsedean artu zezaten».

Behizain eta txerrizain:

«Beste egun batzutan, zaku batean artu bazkaria, eta egun guziraiko beiak zaintzera joaten giñan. Batzuetan, Arizalkora, Bakaiku aldera».

«Txerriak, Konzezio basiliza ondoko bargan izaten genittuen. Neguan, belauntarañoko elurrarekin, zakutxo bat arto pikorrarekin joaten nintzan Konzezio gora txerri billan. Beren zotoletan biltzen nittuen, eta bazkatzera ematen nien (...) Txerriak il baño len, menditik etxera jexten genittuen gizentzeko».

Artazuriketa:

«Urrillen soruetako artuek biltzen die. Gurdiyek bete, eta etxiaatzen die. Soruen, lastuek txutik uzten die. Artabuubek kendu, eta gurdiyen sartzen die etxiaa iaamateko. Lastue etxien gordetzen giñuben aberiei jatiaa emateko. Arta koxkorak lurpiala botatzen genittuben ongarritaako (...)

Bein etxien, ganbaan, pilla batzuten, jartzen die gaubien txuitzeko. Ganbaan, artuen aurrien, lurrien jartzen giñen, eta kontu kontari jooten giñen artatxuike-tan. Biyertien, bat sukeldien yooten zan gaztañek danboliñen sartzen genittuben, gaztain bakoitzaai koxkaat ein ondorien, erretzeko. Txerrikiyek yoosteko uraitzen dien su geñen yooten zien kate batzutatik zinzilikatzen zan danboliñe, eta alde batiaa eta bestiaa muittuz, txipli-txapla, pun! gazteinek ein artio uraitzen zien, gioo ogiye eta arduekin jateko (...)

Biyertien, bestiek ganbaan yooten giñen artatxuketan. Arta buubei bizerrak kentzen genizkien, eta iru orri bakarrik uzten genizkiyoon, gioo arta buu bat bestien orriyekin lotuta, arta porkak eitteko. Gioo arto porkak txintxilika jartzen zien etxe zeruko egurren iltze batzutatik gordetzeko. Arto guziyek txintxilikatu ondorien, jexten giñen guziyok sukeldiaa, eta arduekin eta ogiyaakin gazteñek jaten genittuben. Zeñen ongi pasatzen genittuben egun aik...!».

Abere saldoen ohitura:

«Guai direla irurogei urte artio behintzat izan zan oiture au Etxarrin. Egunioo-egunioo, erriko abelzain batek, goizeko bedratziyek aldiaa, turrube jotzen zeen erriko karrika guzietan, eta bakoitzeko biztanliek, turrube aitzen zebienien, beren biorrak, beyek oo auntzek erriko plazaa (enparantzaa) atiatzen zittubien abelzaiñok basuaa yaamateko, egun guziaako bazkatziaa. Danbolin txuloti Epeeye aldiaa, oo Artasoo aldiaa, oo Boordazelei, oo Bordaburu aldiaa iaamateko (...)

Abelzaiñak, bizkerreti txintxilika zakan zorruaatien egun guziako bazkaaye artzen zeen eta abere guziyek bildu ondorien, beis, abere guziyek bilduta, etxiaa ekartzen zittuben. Bein erriyen, turrube jotzen zeen abixetzeko aberiek an zeela, eta jendie plazaa atiatzen zan bakoitzek bee ganaduek biltziaa etxiaa iaamateko».

Meza laguntzaille izan zeneko oroitzapenak:

«Amar urte edo neuzkanean, meza lagun izan nintzan. Erriko sakristan Lino Mendiolarekin elizako ezkillak jotzen nittuen; nik bi ezkil txiki eta sakristanak bi ezkil aundi. Jai aundienetan jotzen zan. Ez dakit oraindikan joko duten. Oso politta zan. Orrelako ezkil joera penagarria da galtzea».

«Don Braulio Aguinaga Etxarriko Bikarioaren ordezko (“coadjutor”) apez bat zan. Eskuin eskuko erdiko beatza mozturik zeukan (buxtelo zan). Kristau ikasbi-dean edo mezakoan edo itz egiten bagenuen edo nastutzen bagenuen, beatz motzarekin kopetan jotzen ginduzten. Sakelan, beti goxo batzuk (“caramelo, almendras”) izaten zittuen, karrikan mutikoei (aurrei) emateko. Bañan goxoak eman baño len, eskuan musu eman bear genion; bestelakotan, etzigun goxorik ematen».

«Errian norbait iltzen zanean, elizkizunetan oitura berexi bat zan. Il zana erriko dirudunen bat bazan, iru apezten arte ematen zuten meza, organoarekin, abeslariekin, meza nagusia ematen zan. Illa erriko kaxkarren bat edo beartsuen bat bazan, berriz, apez bateko meza, abeslari eta organo gabe, ematen zan. Besteen meza garestiago zan (...) Erresponsokoa, elizako erdi aldean, gizeki eta emakumeen artean, apezak erresponso bat errezatzen zuen. Erritar bakoitzak, meza mutillek esku artean zeukaten zaku txuri batean, ogi opil bana botatzen zuten. Erresponso ondorean, meza mutillek ogi zakua sakristaura eramaten zuten, meza bitartean, meza mutillek sakristaura sartzen giñan. Ogi goxoak berexten genituen, eta mezarako ardo goxo pixka batekin, ogirik goxoak jaten genittuen. Meza bukatu ondorean, ogi zaku ura apaizaren etxera eramaten genuen».

Ume garaiko jostaketak:

«Orma txoriak arrapatzeko, etxetako orma zuloetatik gora igotzen giñan, txulo aietan arkitzen ziran txoriak arrapatzen. Igotzea erraza xamarra zan, bañan jexteko... ai, ene! aiek bildurrak eta otzikarak».

«Neguan, elurra belaunetaraño genuela, eta talletuetatik izotz ziriak zinzilikatzen ziranean, zepoekin, txoriek arrapatzera joaten giñan. Zepoak, elur gañean bei kaka batekin estalita, zepo erdiko orratzan arto pikor bat jarri, eta bei kaka tartean pikorra bakarrik ikusten zan. Txoriek, arto pikorra ikustean, artoa ozkatzzen zuten eta, pikorra jatean, zepoa ixten zan txoria lepotik arrapatuz».

«Udan, gari bilketak egin ondorean, soroetan gari izpiak gelditzen ziran. Errian oittura zan abereak, abelzain batekin, egun guzirako, abereak zaintzera abereak soroetan gari izpiak bazkatzen zeuden bitartean. Zakutxo batean eramaten genuen bazkaria, eta abereak bazkatzen zeuden bitartean, mutiko pilla batzuk biltzen giñan akittu jokuan jolasten. Akittu jokua laban batekin egiten zan. Galzten zuenak, besteen urrungo abereak ekarrarazi bear zittuen».

«Udan, beroaren berotasuna epeltzeko, ibaira joaten giñan igerikara. Ibaian, mutiko aundiagokoen artean igerikatzen genuen. Alako egun batean, aundiagoko mutiko batek ibai ondoko erreka batera bultzatu zidan. Ez nekien igerikan. Gora eta beera nebillen uretan, ittotzeko eran, ura txurrut! eta txurrut! edanez. Ni baño zarragoko mutiko bat ibaitik atera zan, eta era artan nengola ikustean, erreka uretatik atera ninduen. Jazteko soñekoak estali zizkidaten (...)

Beste egun batean, errotarako (Auzmendi errotarako) erreka batean, mutiko sail bat igerikan geunden. Aietako mutiko bat (etzekien igerikan) ittotzeko zorian zegon uretan, gora eta beera... Azkenean, al zuen bezela, erreka ertzera eldu zan, eta zuma bateri arrapatuz, nekez, errekatik atera zan. Erreka ertzean arkitzen ziran beste mutikoek, ikustean mutikoa uretatik atera zala, esan zioten:

– Gracias a Dios, te has salvado...

Eta uretatik atera zan mutikoak erantzun zioeten:

– Si, gracias al zumeriko; que las intenciones de Dios bien jodidas estaban».

Mutikoen arteko bihurrikeriak:

«Egun guzian, aspertzeko epea genuen. Nola kendu asperkeria? Erkideko kaleko Anttonioren Esteban eta ni Bakaiku aldeko bide-berrian biltzen giñan. Estebanen etxean artzaia ziran. Lepotik txintxilikatzen zitzaizkion joaletxo batzuk zittuen artzai txakurtxo bat zeukan. Beiak basoan bazkatzen zeuden bitartean, gu bide berrian etzanda. Bide berriko alde batetik bestera, arantzazko esi batzuk jartzen genittuen, eta berebillariek, berebillak (kotxeak) geldiarazi eta esiak kendu bearra zuten. Gu, bitartean, baso sasipetan izkututzen giñan. Bañan Estebanen txakurra beti gure atzetik zebillen. Guk izutzen genuen eta berriz txakurra guregana. Bildur giñan berebil jabeak arrapatuko ginduzten».

«Egun batean, nere lagun batzuk esan zidaten ia joan nai nuen Mariñelaren serreira jolasera. Nik esan nien ezetz. Mutikoak, gudarien su-izkilluzko bala batzuk ostu zittuzten eta serreira joan ziran jolasera. An zeukaten sua piztutzeko makina batean sartu zittuzten bala aiek, eta zerrauts artera joaten ziran balak. Berotasun arekin zerrautsa sutzen asi zan, eta gau erdian, serrei osoa sutan kixkaldu zan. Mariñelarenak mutiko aiei Iruñeko epaitegira eraman zittuzten, eta giltzapean sartu zittuzten. Egun aietan, ni Altsasuko Kaputxinoetara joan nintzen lekaide ikasketak egitera».

Ehiza kontuak:

«Urrillan usoak Errusiatik egoaldera jexten dira. Etxarriko Arrigorriagako bargan, uso eiztariek, lurpeko etxetxo batean estaltzen ziran usoak arrapatzeko. Etxetxo inguruko aritzetan, zuaitz adarre lotuta, usoa jartzen zuten begiek estalita. Usoa, anketatik lokarri batekin etxetxoetara eltzen zan. Eiztariek erne zeuden noiz igarotzen ziran usoak. Orduan, lokarria mugiarazten zuten, eta zuaitzeko uso itxua egaka asten zan. Zeruko usoek, zuaitzeko usoa mugitzen zala ikustean, goitik beera, egak bilduta, buruz jexten ziran, eta ordu artantxe, akeita eta joku artean igarotzen zuten denbora. Orduan, eiztariek pin! pan! pun! usoak iltzen zittuzten (...) Maiatzan, berriz, Errusiako izotz-elur urtuetara igotzen dira. Ezkurra usoen jakia da. Garai ortan, ezkurra, elurpean, egosturik dago, eta goxoago da usoendako. Usoek, bada, ezkur egostuetara igotzen dira».

Txerri hiltzea:

«Ilbeltzan edo iltzen ziran txerriak. Txerriak iltzeko egunerako urdilizalearekin itz egiten zan, albeiteruak aztertzen zuen txerria gaitzen bat ba ote zeukan (trikina edo), eta esandako egunean, txerria iltzea erabakitzen zan. Egun artan, aurrek ez genuen ikastetxerik. Etxe atean prest zeuden urdilizalea, iru edo lau gizon, eta emakume bat bere pertzarekin txerri odola pertzan biltzeko. Urdilizaleak, ao zorrotzkozko ertza bat bere aztalari lotzen zuen, eta lau lagun artean, mai baten gañean etzantzen zuten txerria. Urdilizaleak burdin zorrotza (laban zorrotza) txerri lepoan sartzen zuen (bitartean, txerria, kirriski), eta laban zorrotz bat txerri leporaño (biotzeraño) sartzen zion. Lau lagun artean, txerria mai gañean eusten zuten, eta lepo zauritutik, odola borborka, andreak zeukan pertzean erortzen zan. Andrea, bere eskuekin, buelta eta buelta, nasi eta nasi odola, idortu etzedin (...)

Bein txerria illik, ondoan egindako su gar batzuetan kixkaltzen zan txerria, illak erretzeko. Tella puska batekin, arramaskaka, garbitzen zan txerria ur beroan, eta ondorean, labanarekin, goitik beera ebakitzen zan txerria, garbitzeko. Gorputz zatiak berexten ziran bakoitza bere alde. Txerria puskatu ondorean, gibela puska bat, kostilla puska bat eta abar, apezari, sendagillari, erakusleari, puska bana opariz eramaten genien (...)

Emakumeek bazeukaten neiko lan sukaldean urdai azpikoak piper antzean gatzarekin biltzen eta estekiak egiten. Txerri odolarekin zopa goxo bat egiten zuten, eta lan guziak bukatu ondorean, mai inguruan guziak bildurik, gosaria egiten genuen zoparekin eta aragi puskak erreta. Urdai azpikoak apaindu ondorean, eta tripekiak egin ondorean, (lukainkak, txistorrak eta abar), denak ganbarako edo sukaldeko zerutik, iltze batzuetatik zinzilika jartzen ziran idortzeko».

Garai hartako ohiturak eta bizimodua:

«Jakaneko etxean esnezko bei batzuk genittuen eta laurogei zentimotan, esne asko eramaten genittuen etxeetara, esne jetxi berria, oraindikan bero-bero. Esneak, egosi ondorean, apar lodi bat egiten zuen. Apar ori, ogi tartean, gozamenarekin, jaten genuen».

«Garai aietan, erriko biztanleak, bakoitzaren etxe atean, ogiaren edo esnearen diru ordaintza uzten zuten okiña edo esne saltzalea etorri baño len. Okiñak eta esne saltzaleak, zenbat diru, hainbeste esne edo ogi uzten zuten. Beste garai batzuk ziran aiek. Gaur egun ez leike oitura ori gorde. Edozeñek diru ori ostu lezaken».

«Garai artan, Etxarrin, iru berebil bakarrik zira, sendagillearena, Antonino Imazena eta albaiteorenak. Gaur, karrika guziek berebilez beterik daude».

Gerra garaiko oroitzapen zirrargarriak:

«Españako guda denboran (1936-1939), Francoren gudariak Etxarriko zazpi gizon gaxo giltzapetu zittuzten. Nik beraiekin, giltzapeko leioetatik, itz egiten nuen, eta dendatik errekiña eramaten nien. Alako egun batean, izketan esaten zidaten: Gizona... I ongi ago or, gu emen ilko gaittuk. Eta ala gertatu ere. Gau batean, kamioi batean sartu eta Urbasara eraman zittuzten. An, leze baten ertzean, begiek estalita, su-izkilluz, lezera bota zittuzten. Eta gizonak, oraindikan bizirik eta garraxika zeuden. Gudariak, arri kozkorak artu eta goitik beera bota zizkien. Bada ori baño basati aundiagorik? Ori egiten zuten “Santa Cruzadaren” izenean. Esku batean gurutzeta eta beste eskuan su-izkillua zutela... Ildako oiek euskal abertzaleak ziran».

«Urte aietan Benedikto Barandalla zan erriko alkatea, erreketean kapitana. Errian bizi zan ere alkatearen anai bat, Paskual Barandalla. Alkateak, Paskual Iruñeko kaputxinoen baratzean estali zuen, baratzari bezela. Erriko bizergille ere, errepublikanoa zalakoz, Berroetako bide berri bazterrean, ilda, utzi zuten, txakurrek aztalak jaten».

«Francoren guda urtetan, Francotarrak Bilbao artu zutenean, erri guzia barna agerraldi bat egin zan. Agerraldi ortan arkitzen zan ere Kaleko Anttonioren Esteban, Juxto Artiedaren etxe aurrean, Mamaiuren etxe aurrean geundela, su-izkillu batek Juxto Artiedaren etxeko telletuan jo zuen, eta agerraldilarien gañera erori zan. Kaleko Anttonioren Estebanek, bildurrarekin, bi eskuek aurpegi aurrean jarri zittuen arpegia estaltzeko asmoetan. Zoritxarrez, su-ziria eskuetan lertu zitzaion, eta begi bat eta eskuko iru beatz galdu zittuen».

b) 1938-1961: Kaputxinoetan egindako ibilbidea (Aita Aurelio Etxarri Aranazkoa)

Hamahiru urte zituelarik, 1938an, Altsasuko kaputxinoen ikastetxera fraide ikasketak egitera joan zen. Hango komentuan egin zituen bost lehenbiziko urteak, etxera joan gabe, ez eta oporretan ere, salbu “gose urte” deitutako 1941eko udan. Ongi gogoratzen zuen Santiagok gose urte hura. Komentuan bazkaltzeko patata purea eman ohi zieten, baina urte hartan patatak izoztu zirenez gero, purea ozpindu antza gelditzen omen zen eta, jakina, bigarren koilarakada sartzerako eztarrian trabatua gelditzen zitzaien ematen zien azkuragatik, eta plater guztiak mukururaino beteak bueltan sukaldera. Ondotik, sardinak. Hauek bai jan, baita hezurak ere, sardexkarekin xehatu eta barrura. Oraingoan plater guztiak garbi eta dirdiratsu sukaldera. Halakoa omen zen pasatzen zuten gosea, non ikasleek elkarren artean ogi puskak liburuekin truketzen zituzten. Altsasu inguruko zelaiak, maldak eta mendixkak izaten ziren arratsaldeetako pasealeku arruntak eta zenbaitetan paseo luzeagoak egiten zituzten Urbasaraino. Gose urte haiek gogoraraziz zioen, ibilaldi horietan arbi soroetatik pasatzen zirenean, ikasle batzuk fraide zaindaria-rengandik atzerago gelditzen saiatzen zirela, hark ikusi gabe arbi batzuk hartu eta jateko. Urri aldeko ateraldietan ere, ikusten zituzten hur guztiak harrapatzen omen zituzten.

Altsasuko bost urte haietan Humanitate ikasketak amaituta, 1943an Hondarribiko komentura joan zen Filosofiako bi lehenbiziko ikasturteak egitera. Bigarren Mundu Gerra urteak ziren eta betiko gelditu zitzaizkion gogoan han ikusitako zenbait irudi, besteak beste, gudari alemanak Hendaiako itsas ertze-ko malkorrak lehertzen, gotorleku txikiak edo *fortinak* eraikitzen eta, gerra galduaren amaieran, hezur eta azal zeuden gudari haiek, errendituak eta apalki, muga pasatuta, bere burua Espainiako poliziaren eskuetan jartzen. Hurrengo urtean Zangozan egon zen nobiziadua egiten. Handik Lizarrara joan zen Filosofia amaitzeko falta zitzaion hirugarren ikasturtea eta Teologiako bi lehenbizikoak ikastera. Teologiako azkeneko biak Iruñean burutu zituen. Azkenik, 1950eko abenduaren 17an apaiztu eta 25ean eman zuen Meza Berria.


Apaiztu ondotik, lehenbiziko ikasturtean Lizarran egon zen, kaputxinoek ohi zuten bezala, pastoralerako eta predikuetarako prestaketa berezia egiten. Hasieratik argi agertu zion Probintzialari sermoiak euskaraz egiteko lortu nahi zuen prestakuntza¹. Hain zuzen ere, zeregin hauetan aritu zen bereziki kaputxino gisa egin zuen ibilbidean. 1951 eta 1954 bitartean, Zangozan, Iruñean eta Altsasun aritu zen. 1954tik 1957ra Iruñean. Hemen, aipatutako lan horiez gain, buru-belarri ikusten dugu *Zeruko Argia* aldizkariaren antolaketa

¹ Horrela zioen 1951-06-26an Probintzialari idatzi zion gutun batean: «Le expongo un deseo mío cuya utilidad más o menos práctica la apreciará su Reverencia. Desearía arreglarle la voz con el P. Francisco de Lazcano, al mismo tiempo que me perfeccionaba en el vascuence».

lanetan eta garai honetakoak dira ezagutzen ditugun bere lehenbiziko idazkiak. Hurrengo hiru urteak, 1957-1960, Lekarozen egin zituen eta, azkenik, 1960an Zangozara igorri zuten eta han zegoela, 1961eko ekainaren 13an kaputxinoen ordenatik atera zen.

Esan bezala, Iruñean egon zenean parte-hartze zuzena izan zuen kaputxinoek 1954an berrabiarazi eta kaleratu zuten *Zeruko Argia* aldizkarian eta artikululu franko idazteaz gain, antolaketa lanetan aritu zen 1957ko uztaila arte. Zenbait zenbakitan, aldizkariaren beraren iragarki orrian hau irakurtzen ahal da: Director redactor: P. Bonifacio de Beizama; Director artístico: P. Aurelio de Echarri-Aranaz.

***Edozein gauzetarako, zure kartak beti izen
aurretara bialdu.***



Kaputxinoen Aldizkari Ofizialak 1955eko alearen 8. orrian ere aipamen hau dator:

«La ardua tarea de dirección y administración ha corrido a cargo de Victor de Urbiola y Aurelio de Echarri Aranaz».

Eta 1957ko abuztu-iraileko 42. zenbakidun *Zeruko Argian* hau ageri da:

«Orain arte, emen *Zeruko Argian* zintzo, zintzo, beti lan da lan ari izan dan Etxarri-Aranazko Aurelio Aba Lekarozko konbenturako autatua izan da ta ara joana da».

Jakina den bezala, *Zeruko Argia* Aita Kaputxinoek 1919ko urtarrilean sortutako aldizkaria zen eta fraide hauek Iruñean zuten inprimategian egiten zen, hots, Iruñean Kaputxinoek zeukaten “Neketako Ama-Birjiñaren Irakorlan”. Espainiako gerra zibila iristearekin batera argitalpena geldiarazi zuten. Hortaz, hemezortzi urtez argitara eman ondotik beste hemezortzi urte pasatu ziren, 1954. urtean berriz kaleratu zuten arte.

Epe berri honen lehenbiziko zenbakitik hasita, aldizkariaren “Kristau-ikasbidea” atala Santiago Ezkerraren ardurapekoa izan zen. Sail horretako artikululuak dira, gure ustez, euskaraz idatzi zituen lehenbiziko lanak, bere idazkietan gehien erabili zuen “Lizarrusti” izengoitiarekin sinatuak. Aldizkari

bereko beste atal batzuetan ere idazten zuen, ipuinen atalean batik bat, “Aitona” izengoitia erabiliz. Ageria da umeak euskaraz irakurtzera motibatzeko izan zuen interesa. Horren lekuko dira Norbert Tauer jaunari Pragara idazten zizkion gutunetan bai *Zeruko Argian* bai *Umeen-Deyan*, *Xabierto* eta *Junipero TBO*etan argitaratzeko behin eta berriz eskatzen zizkion ipuinak.

Zeruko Argian urte hauetan egin zuen lanak izan zuen nonbait bere oiartzuna eta errekonozimendua euskararen munduan. Izan ere, 1957ko uztailaren 26an euskaltzain urgazle izendatu zuten eta urte horretako irailaren 26ko datarekin Akademiaren izenean Ignazio Maria Etxaide euskaltzainburuak eta Nazario Oleaga zadorlariak (idazkariak) sinatutako urgazle diplomak horrela dio: «Euskaltzaindiak aita Aurelio Etxarri Aranaz-koa euskararen alde orain arte egin dituen lanen esker-erakutsiz eta gerokoen bizgarri, euskaltzain urgazle izendatu du»².

Lekarozen pastoral lanetan aritu zen gehienbat, ez baitzuten hango ikastetxeko irakasle izateko igorri. Hala ere, eskola ordutik kanpo aritu zen bai euskara, bai gaztelania ematen:

«Nik ikastetxe ontako batzuei euskerazko ikaskaiak ematen dizkiet. Badira ere euskeraz ikasi nai duten asko, baina nik bakarrik ezin guztientzat. Nik uste badatorrela guretzat argia. Euskera piztu eta bizkortuko da»³.

«Lekarotzen (...) Alduideko Nano eta Mitxel Arizpe anaiei erdera erakusten nien»⁴.

Lekarozen egon zen hiru urteetan izandako adiskideen artean Elizondoko Mariano Izeta erlojugile eta euskaltzalea eta Alduden arrain-haztegia zuen Arizpe familia aipatzen ditu. Mendi ibilaldietan askotan hurbiltzen zen Aldudera, besteak beste, Lekarozen familia horretako Nano eta Mitxek Arizpe anaiei gaztelania irakasten aritu zelako. Eta, zioenez, mugara iristean poliziei zahatetik ardo trago bat eskainiz gero, pasatzeko arazorik ez. Lekarozen egon zeneko kontrabandoaren mundua ere aipatzen du. Berak dioenez, Baztanaldeko jendeak kontrabandoa egitea odolean daraman zera da eta, zenbait pasadizoren artean, kontaktzen du Lekarozera ikastera joaten ziren kontrabandisten mutikoen fitxetan aiten ogibidearen galderaren erantzuna “industrial” izan ohi zela. Gai honen inguruko entzun edota ezagututako istorioak kontaktzen ditu, besteak beste, kontrabandoa pasatzean erabiltzen ziren “kontraseñak” etab. Dena dela, informazio iturri txarra ez zuen, bere adiskidetzat jotzen

² Izendapena fraile egitean hartu zuen Aurelio Etxarri Aranazkoa ordezeko izenarekin erregistratu zenez gero, eta, iduri duenez, Akademiara bere sekularizazioaren berri inork gaztigatu ez zuenez gero, Euskaltzaindian orain dela urte gutxi arte ez da jakin izan aita Aurelio hura, 1961az geroztik Santiago Ezkerra Beltza zela.

³ N. Tauer-i, 1957-12-20ko gutunean.

⁴ “Nere bizitza” eskuizkribuak.

baitzuen Dantxarinean bizi zen Daniel Castro kontrabandista aipatua, Fidel Castroren lehengusua zena. Aduanako poliziez ari ziren behin batean, honela esan omen zion Daniel Castrok:

«Etzaidatela ezer esan. Bestela, emen gertatu diran gauz zikin askoren berri agertuko dut»⁵.

Garai hartan kontrabandoak Baztanen zuen eragina azpimarratzeko hau dio:

«Egunez, Baztango errietan ez da kasi jenderik ikusten soro lanetan. Elizondon diru-etxe asko dira. Diru asko mugitzen da erri aietan. 1955 urte aldean atera ziran Gordini berebillak. Baztango hamalau errietarako laurogei kotxe Gordini erosi zittuzten. Nundik hainbeste diru? Kontrabandotik»⁶.

1960an Zangozara igorri zutenean komentuko untxien zaindari lana eman zioten, berrehun bat omen zituen, eta bere ardurapeko untxi haragiarekin maiz samar hornitu behar izaten zuen sukaldea, bai ongi hornitu ere. Komentuko lanaz gain, inguruko herrietara ere aitorpenak egitera, meza eta hitzaldiak ematera joaten zen nonbait. Eskualde hartako herrietara bizikletan joaten ziren eta oso gogoan izaten zuen, galtzerdirik gabe eta sandalia hutsetan ibiltzen zirenez gero, negu gorrian pasatzen zuen hotza.

Zangozan zela, 1961ean, kaputxino izateari uko egin eta ekainaren 13an ordenatik atera zen. Pentsatzekoa da erabaki hori ez zela bat-batekoa izan eta, segur aski, Lekarozen zegoela eskatu izanen zuela sekularizazioa eta, horregatik, igorri izanen zutela Zangozara eta komentuan apez lanarekin zerikusirik ez zuen arduretan jarri zutela Erromatik baimena iritsi zen arte⁷. Ordena uztera zerk bultzatu zuen ez badakigu ere, urte batzuk geroago *Príncipe de Viana* aldizkarian idatzi zuen “Apaizgaiak” artikuluan argi adierazten du bere desadostasuna mutikotan apaizgaitegian sartu eta apaiz egiteko sistema edo prozesuarekin, sistema horren aldaketaren beharraz mintzo baita.

⁵ Ibid.

⁶ Ibid.

⁷ Kaputxinoen Aldizkari Ofizialeko (“Boletín Oficial de los PP. Capuchinos”) 1961. urteko 147. orrialdean horrela dator: «Baja en el personal. Canonicis monitionibus sine emendatione peractis, superiores provinciales coacti sunt dimissionem ab ordine petere R. P. Aurelii Ab Echarri-Aranaz, qui, decreto Sanctae Sedis diei 7 Junii anni 1961 (Prot. N. 58/55), ad statum laicalem reductus est, sublatis omnibus oneribus ex professione religiosa et ex sacris ordinibus exortis, exceptu coelibatu». Aldizkariaren aurkibidean modu gogorrean adierazten da sekularizazioaren baimena, honela hain zuzen: «Aurelio de Echarri-Aranaz, degradación, p. 147».

c) 1961-2009: Madrilen

Komentutik aterata, hasiera batean Bilbon egon zen hilabeteren bat edo, baina berehala Madrileko bidea hartu zuen. Berak ongi gogoratzen zuen bezala, hiri honetara uztailearen 25ean –Santiago egunean, hain zuzen– iritsi eta, bere santuaren eguna ospatzeko egin zuen bazkaria, Cibeles plazako ostatu batean juxtu-juxtu erosi ahal izan zuen txistor otarteko bat. Hasiera hartan, zail egin zitzaion lan finko bat aurkitzea. Urte pare batez, Madrileko auzoetan eta inguruko herrietan josteko makinak, etxeko zenbait tresneria, bitxiak eta abar etxez etxe saltzen ibili zen. Bi urte horien buruan, Iruñeko Lorente jaunak Madrilen zuen “Ediciones Castilla” inprimategian proba-zuzentzaile lana egiteko hartu zuten eta handik bizpahiru urtera lan hori bera egiten segitu zuen Ribadenegra izeneko inprimategian, jubilatatu zen arte. 900 langile inguruko inprimategi honetan argitaratzen ziren, besteak beste, *Semana*, *Hola*, *As* aldizkariak, Telefonikaren gidak, etab.

Esan bezala, Santiago Ezkerra Madrilera 1961ean joan zen. Han ezagutu zuen Almaden (Ciudad Real) hiriko Txaro Fernández andrearekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituen: Begoña, Santiago, Ana Mari eta Arantza.

Lanbidea, etxea eta hazitako familia Madrilen zituenez gero, hiri honetan bizi izan zen 2009ko martxoaren 22an zendu zen arte. Hala ere, oroitzapenez eta sentimenduz ez zen inoiz Euskal Herritik eta Etxarri bere sorterritik aldentu *Lizarrusti* idazlea. Inguru hori eta Aralar eta Beriain mendilerroa, batik bat, beti izan zituen begi aurrean. Horren seinale ezin argiagoak dira liburu honetako zenbait idazki eta, bereziki, hiltzen zenean Etxarriko hilerrian hilobira zezaten bere familiari idatzia utzi zion agindua.



II.

Euskaltzalea eta idazlea

a) Euskaltzalea

Santiago Ezkerra oso euskaltzalea zela huts egiteko batere beldurrik gabe esan daiteke. Hala erakutsi zuen apaiztu eta berehala Probintzialari idatzitako gutun hartan euskaraz trebatu nahi zuela adierazi zionean, hala egiaztatzen du *Zeruko Argia* aldizkarian izan zuen ardura sutsuak. Eta ezin argiago adierazten du aldizkari horretan berean, jadanik Lekarozera joana zenean, *Lazkoz* ize-nordearekin (eta ez ohi zuen *Lizarrusti*-rekin) idatzi zituen “Euskararen alde” izenburuko bi artikuluetan. Honela dio:

«Jaungoikoa animetan sartzeko bidea izkuntza da. Jaungoikoak bakoitzari bere izkuntzan itz egin nai dio, esan nai diona obeki ulertu dezan (...) Zer ulertu dezakete berena ez dan izkeran?»⁸

«Euskera gordetzeko euskaldun bakoitzaren alegiña bear da. Bakoitzak bere inguruan euskeraren alde lan egin bear du. Baño batez ere, etxean amak, elizan apezak eta ikastetxean (eskolan) irakasleak. Oiek nai izan ezkeroz, euskera indartu leike. Negargarria da etxe askotan gerta dana. Gurasoak euskera besterik ez dakite, eta umetxoak itz bat ere ez euskeraz (...) Elizkizunetan apeza jatorrizko izkera erabiltzera bearturik dago. Bakoitzari bere izkuntzan itz egin bear zaio eta euskaldunei euskeraz. Eta erderazko itzen bat edo beste dakitelako, apezak erderaz egiten baditu eliz-itzaldi, bederatzi-urren eta kristau-ikasbidearen azalpenak, kristau oiek mamia galdu eta azala besterik ez dute gordeko, ezpait dute ondo ulertzen esaten zitzaiena (...) Bere kristauei erderazko izkuntzan itz egin eta erakusten dien apezak ez dira bizi beren kristauntzako (...) Au egiten ez duen apeza alperrik dago dagon errian»⁹.

Ordena utzi ondoren argiago eta sutsuago mintzo da gai honetaz utzi dizkigun idazki ugaritan. Hona hemen zenbait pasarte:

«Abertzalea naiz, eta nere bizitzan, nere egintzetan, orrela agertzen naiz. Euskaldun jaio nintzan, euskalduntzat bizi naiz eta euskaldun iltzeko asmoa dut. Euskal-odola daramat odol-zañetan, eta odol oneri esker daukat daukaten bizitza. Euskaldunak ziran nere aurrenekoak eta euskaldunak nai nituzke izatea nere ondorengoak, nere seme-alabak eta nere umeen umeak (...) Orregatik nere biotzak, nere begiek euskal edozein gauzetara naramate. Naiz Euskalerritik urrun bizi, biotzarekin Euskalerrian bizi naiz; nere umiekien euskeraz bakarrik mintza-

⁸ *Zeruko Argia*, “Euskararen alde I” (1958).

⁹ *Zeruko Argia*, “Euskararen alde II” (1958).

tzen naiz; nere etxean euskal usaia usaitzen da (ikurriñ, edergaillu, eta abar); berebillean noala Euskalerriko berebillen batekin topos egiten badut, poztutzen naiz eta pii...!, pii...! ezaugarri ematen diot aberritarrari»¹⁰.

«Emen da, nere ustez, euskaldun askoren uts eta okerra: etxean eta lagunekin bere izkuntzan ez egitea. Edonun eta edozeñekin euskeraz itz egin bear genduke. Dakigun euskeran: bai bizkaieraz, bai giputzeraz, bai naparraz, edota bai prantzieraz. Guztiok bat gera. Ez lotsatu euskera traketsen besterik itz egiten ez badakigu ere... Beintzat itz egin, eta erakutsi gure umiei. Eta gero aberastu gure izkuntza. Ama magalean bizi dan aurrak ez du etsitzen an ikasitako itzekin. Geiago ikasi nai du, bere izkera aberastu eta zabaldu nai du. Eta arrazoia dauka. Eta nolaz aberastu eta ugartu dezakegu gure euskera? IRAKURRIZ. Irakurri egunero zerbait; irakurri astero GOIZ-ARGI. Liburuetan dago jakintza. Beti itzen bat edo beste ikasiko duzu liburuetan»¹¹.

«Ni lotsatu egingo nintzake, esango banu, euskalduna naizela, euskera jakin gabe. Zer? Euskalerrian jaioa naizelako? Euskal abizenak dauzkadalako? Euskal abizenak izan dezaket, euskal odola ere izan dezaket nere gorputz-zañetan; bañan euskeraz ez badakit, nere ustez beintzat, ez nintzake euskal osoa izango, euskal sustrai bearrenezko bat falta zaidalako»¹².

b) Idazlea

Abertzaletasunak euskaraz idaztera bulkatu zuen eta bere buruarekin hartutako konpromiso hau, berak aitortzen duen bezala, azken muturreraino eram zuen. Izan ere, beti euskaraz idazteaz gain, idazteak bizia ematen diola baitio. Hona zer dioen:

«Oso atsegiña zait idaztea. Gogamen geldi eziña naiz. Sakelan beti idazkia eta papera (ingia) daramazkit, karrketan, nere eguneroko ibilladietan, oatzean nagonean, eta nun-nai, gogamen bat edo ikusten edo entzuten duten zerbait, ez aztutzeko, paperan jartzen det. Urrutikuskiñan edo egunkarietan jakingarrien bat irakurtzen badet, gertu dauzkat idazkia eta papera berria artzeko. Idazteak bizkortzen nau, bizitza ematen dit. Erraza da idaztea. Gogaltzen dana idatzi bear da. Gero, zerbait urratu eta zuzendu bear bada, bada denbora zuzentzeko. Nik beti euskeraz gogamentzen det. Gu ez gera “esponja” bezela izan bear. “Esponjak”, biltzen duen guzia beretako bakarrik gordetzen du. Berekoia da. Guk ez giñake gerekoiak izan bear. Dakiguna besteendako izan bear litzake. Guk, gure aurrenekoei eskerrak, dakigu dakiguna. Aiengandik izan ez balitz, gu ere ezjakiñak izango giñake. Ez gera gerekoiak izan bear. Edozein leku eta ordu egokiak dira idazteko»¹³.

¹⁰ *Goiz Argi*, “Abertzale naiz” (1980).

¹¹ *Goiz Argi*, “Euskera aberastu” (1980).

¹² *Goiz Argi*, “Egiatzko euskalduna” (1986).

¹³ “Nere bizitza” eskuizkribuak.

Artikulu bilduman ere ugari dira idaztearen aldeko pasarteak. Hona, adibide gisa, horietako pare bat:

«Eta abertzalea naizelako alegintzen naiz, al dan eran, idazkiaren bitartez, euskera eta euskal gaiak gorde, sendotu eta zabaltzen... Badakit ez naizala idazlari iaioa, badirala ni baño obeki euskeraz itz egin eta idatzi dezaketanak, bañan bakoitzak al dezakena egin ezgeroz, bere gogo ona agertu ezgeroz, uts guztiak barkatzen zaizkio. Eta guzti au gutxi dalako ustean, geiago egin nai nuke, al izan ezgeroz»¹⁴.

«Orregatik, izkuntzak ez daitezke atzean gelditu; obeagotu, aberastu egin bear dira, itz berriak sortu bear ditu. Eta izkuntza guztien artean, gure euskera kuttuna ez da berexia. Gu ere, bakoitzak al duan eran, gure izkera aberastu, obetu eta indartzen saiatu bear gera. Nik, egia esan, ez dut ongi itz egin eta idazten nere amaren titietan edan duan euskera; urte asko daramazkit etxetik kanpo. Bañan, ala eta guztiz ere, noizean bein eta bakanka GOIZ-ARGI'n, len ZERUKO ARGIA'n bezela, zerbaitxo idazten dut; nere umiekin beti euskeraz itz egiten det; eta euskaldunen bat topos egiten ba det, bai arekin ere euskeraz itz egin»¹⁵.

III. Idazlanak

Bi epe bereiz daitezke Santiago Ezkerrak idatzitako lanetan. Lehenbizikoa, fraide izan zenekoa. Bigarrena, ordenatik atera ondotik egindakoa.

Lehenbiziko garaikoak dira idatzi zituen hiru liburuxka eta *Zeruko Argian* kaleratu zituen artikuluak. Horiekin batera, argitaratu ez ziren beste material batzuk. Ikus ditzagun banan-banan:

a) Liburuxkak:

Migel Goiaingeruari bedratzi-urrena. Aita Kaputxinoen inprimategia, Iruñea 1956, 20 orrialde. Aralarko done Mikelen aldeko debozioa bultzatzearen egina. Bederatziurrenen egitura du: otoitzak, eskaerak eta egun bakoitzeko gogoetarako esaldi bat.

Zeruko Argia aldizkarian ardura izan zuen garaian, liburuxka honen propaganda sartu zuen egileak behin baino gehiagotan. Honako hau¹⁶:

¹⁴ *Goiz Argi*, "Abertzale naiz" (1980).

¹⁵ *Goiz Argi*, "Euskera aberastu" (1980).

¹⁶ *Zeruko Argia*, 1956, 29, 82. orrialdetik hartua.

SAN MIGEL'I BEDRATZI - URRENA

Ona emen liburutxo eder bat... Aralar mendira igotzen ziran euskaldun guztiak, eta baita ere errietan gelditzen ziranak, euskerazko San Migel'i Bedratzi - Urrena eskatzen zuten... Egin gabe zegoen. Orain argitaratu da. Ogei orrialde ditu... Egun bakoitzarako gogalpen edo meditazio mots bat dauka Euskera errazean egiña. Txukun argitaratua, batez ere, azalak oso ederrak.

Egilea Etxarri Arana'tar Aita Aurelio da.

Maite al dezun Euskalerraren zaindaria dan Migel Goiaingerua? Erosi ezazu MIGEL GOIAINGERUARI BEDRATZI - URRENA. Oso merke arkituko dezun.

ARALAR MENDIKO SAN MIGEL ELIZAN.

Meza saildua. Aranburu inprimategia, Iruñea 1958, 32 orrialde. Meza entzuteko lagungarria. Baztango euskararen ezaugarriak kontuan hartuz idatzitako testua gehi sei kantu.

Bederatzi-urren beharrezkoenak eta eliz oitiz batzuk. Itxaropena argialetxea, Zarautz 1958, 122 orrialde. Euskarazko bederaziurrenak zekartzen liburutxo inon aurkitzen ez zenez gero, argitalpen honen xedea hutsune hori betetzea izan zen. Egileak sarreran dioenez, Jaungoikoaren nahia bakoitzari bere hizkeran hitz egitea da, eta, hortaz, negargarria zen euskarazko liburutxo ez izateagatik, zenbait apez bederaziurrenak gaztelaniaz egitera beharturik egotea.



Norbert Tauer-i idatzitako gutunetan ikusten ahal den bezala, behin baino gehiagotan ematen dio argitalpen honen berri, bai eta liburu honek jaso zituen iruzkin txalagarriak, besteak beste, Basarrirena *La Voz de España* egunkariko “Atalaya montañera”n, Miguel Angel Astizena *La Gaceta* egunkarian eta Joxe Artetxerena *La boja del lunes* egunkarian.

Hiru liburu horietaz gain, *Urte guziko homiliak* izeneko bilduma ere prestatu zuen, liburu batean argitaratzeko asmoz. Oraindik gordeta dago Kaputxi-noen Iruñeko artxiboan Lizarrustik prestatutako bilduma oso hori. Denera, makinaz idatzitako 415 orrialde dira; honela banatuak:

-Sarrera G. I. Larrañagak, Pingliang-eko gotzainak egin eta sinatua, Hondarribian 1959ko abuztuaren 24an. Larrañagak dio oso baliagarri eta interesgarriak direla material horiek predikuak euskaraz egin nahi dituzten apez gazteentzat, euskal mintzaira kamustua duten apezentzat eta apostolutza lanak euskaraz egin behar dituztenentzat. Eta amaieran honela dio:

«Jaungoikoak beza bedeinka Lizarrustiren lan hau euskeraren eta euskaldunen kristautasunaren eta fedearen eusle eta sendogarri izan dedin».

-Ondotik 339. orrialde arte Lizarrustik prestatutako homiliak dira.

-339-394 orrialdeetan Iraizozko Polikarpok egindako 16 hitzaldi berezi tartekatu zituen.

-395-415 orrialdeetan, aurkibide zehatza dator.

Nihil obstat Fr. Felipe de Fuenterrabia “censor de la Orden” eta Fr. Florencio de Artabia “ministro provincial” kargudunek 1960ko martxoaren 15ean sinatu zuten. *Imprimatur*, berriz, Juan Ollo Iruñeko elizbarrutiko Bikario Nagusiak urte bereko martxoaren 16an.

Lizarrustik bere sarreran argitzen du erabili zituen Ebanjelioko euskarazko testuak Polikarpo Aita kaputxinoak euskaratuak zirela. Liburuaren eskaintza ere idatzia dago. Honela dio:

«Nils M. Holmer eta Vania Abrahamson Sueziko euskal berri eta euskalzale jator eta guztiz ospetsuei, biotz biotzez adiskidetasun agiritzat eskeintzen diet».

N. Tauer-i idatzi zizkion zenbait gutunetan ikusten da Lizarrusti ilusioz beterik zegoela liburu honen argitalpenarekin. Honela dio horietako batean:

«Bada urte t´erdi liburu prest daukatela (...) bañan zensurako gora-berak dirala, diru kontua dala... atzeratu zait (...) Eztakit illabete onetan edo otsaillan argitaratuko ote didaten»¹⁷.

Arrazoi hauek edo beste batzuk zirela medio, kontua da Lizarrustik ez zuela argitalpen hori ikusterik izan. Oraindik gehiago, 1961eko ekainaren

¹⁷ 1961eko gutuna.

30ean –Lizarrusti ordenatik atera eta 17 egun geroago– iritsi zen komentura Iruñeko Gomez argitaletxeko nagusia zen Felipe Gómez Alonso jaunaren gutuna. Bertan dio ezinezkoa ikusten duela liburu hori argitaratzea. Bi arrazoi nagusi ematen dizkio, bata, edizioaren kostua altua izanen zela eta salmenta, berriz, murrizta; bestea, liburuaren edukiarekiko zalantza¹⁸.

b) Artikuluak:

Gorago aipatu dugun bezala, *Zeruko Argia* aldizkari berrituan bere ardurapekoa izan zen “Kristau-ikasbidea” atala. 1954ko urtarrilean I. zenbakitik hasi eta 1956ko apirilean atera zen 27. zenbakira arte 24 artikulua idatzi zituen “Lizarrusti” izengoitiarekin sinatuak. Bistakoa denez, Jesukristoren biziarekin eta kristautasunarekin zerikusi duten gaiak azaltzen ditu eta horietako batzuk, hala nola, Gurutze Santua egitea, Kredoak, Trinitatearen misterioa..., behin baino gehiagotan tratatzen ditu. Denetan metodologia bera erabiltzen du: lehenik printzipio baten azalpena, ondoren adibideak, gertaerak, ipuinak eta galde-erantzunak, azaldutako printzipioari indar gehiago emateko.

Atal horretaz aparte, beste zenbait artikulua ere idatzi zituen. “Umeen txokoa” atalean “Aitona” ezizena erabiliz 14 ipuin argitaratu zituen, 1954ko irailaren eta 1957ko azaroaren bitartean¹⁹. Beste batzuk ere idatzi zituen, horietako lau euskararen balorazio eta aldarrikapenaren alde, eta batik bat, Elizak euskaldunei euskaraz egiteko beharra azpimarratuz, bi “Lazkoz”, bere hirugarren deiturarekin izenpetuak, bat “Lizarrusti” izenarekin eta beste bat “Baita Inglaterran ere” izenburukoa sinatu gabe, baina N. Tauer-i berea dela aitortzen diona. Azkenik, Joxe Azkarate euskaltzale aniztarraren goraiipamenekoa “Idoya” izengoitiarekin sinatua.

Bigarren epekoak dira, hots, kaputxinoen ordenatik atera ondokoak, hiru aldizkari hauetan idatzi zituen artikulua: *Príncipe de Vianan*, 1974 eta 1981 bitartean, *Goiz Argin*, 1976 eta 1986 bitartean, eta *Guaixen* 2001etik zendu zen arte. Ia beti “Lizarrusti” izenpetuak eta noizbehinka “Santiago Ezkerra”. Gai asko ukitzen ditu artikulua horietan, besteak beste, kultura, gizartea, giza-balioak, ohi-turak, heziketa, euskara, euskaldunen izaera, Euskal Herria, Nafarroaren euskal izaera, demokrazia, giza-eskubideak, elkartasuna, justizia, askatasuna, indarkeria, ustelkeria, natura, osasuna, elikadura, gosea, etorkinak... Horietako gehienengorantz bere kezka bizia azaltzen du, bai eta pentsaera eta ideologia pertsonala ere.

¹⁸ Honela dio gaztelaniazko testuak: «Según información que me han dado (ez du esaten nor eman dion) no parece que el libro corresponda a la corriente, en contenido y desarrollo, a la técnica dominante en obras de esta naturaleza, en las que más que la forma expositiva se busca abundancia de ideas y esquemas en las que pueda escogerse para luego acomodarlas y desarrollarlas libremente».

¹⁹ Ikusten denez, interes handia zuen ipuinekin. Norbert Tauer-i idatzi zizkion gutun frankotan behin eta berriz eskatu zizkion hango ipuinak *Zeruko Argian* argitaratu ahal izateko.

Bigarren epe honetan “Erdara-euskara hiztegia” prestatu²⁰ eta argitaratu nahian ibili zen, baina lehenago “Urte guziko homiliak” izeneko bildumarekin gertatu zitzaion bezala, asmotan gelditu zen. Ikusten denez, saiatu zen argitaratzeko ahaleginetan, baina, ematen duenez, ez zioten aukerarik eskaini. Hala dio Jose Mari Satrustegiri:

«Antolatuta daukat Erdal-Euskal Iztegi bat. Gutxi gora-bera, seireunen bat orrialde aundi izango ditu. Berreun ta ogei ta amabost orrialde garbian jarrita dauzkat. Lantegian, tarteka-tarteka egiña det. Saiatu naiz gaur erabiltzen diran erdal itzak ere jartzen, euskera gaurkotzen. Argitaratu nai nuke; ori da nere asmoa. Bañan ez dakit zer irarkoletara jo eta nola argitaratu ere. Nik ez daukat dirurik argitaratzeko. Etxe auek begiratu ditut, bañan iñun ere baietzik ez: Auñamendi, Itxaropena, Ediciones Guipuzcoanas, Leopoldo Zugaza (Durango), Cinsa. Zuk mesede au egin dezakezu, begiraturaz argitaratu lezaken etxeen bat? Ala baldin bada, esaidazu»²¹.

Liburu honetan bere artikulua bilduma zabala eskaini nahi izan dugu. Hautaketa bat egin beharrean aurkitu garenez gero, bilduma honetatik kanpo utzi ditugu azken urteotan Sakanako *Guaixe* aldizkarian argitaratu dituenak, horiek baitira ezagunenak sakandarrentzat. Gainerako guztiak bildu ditugu, salbu *Zeruko Argia* aldizkariko “Kristau-ikasbidean” argitaratu zituenak. Azken hauek oso antzekoak direnez gero, idatzi zituen hogeita lautik bi aukeratu ditugu lekuko gisa. Azkenik, Euskaltzaindiko Azkue bibliotekan aurkitu ditugun Norbert Tauer, Pragako hizkuntzalariari idatzitako gutun guztiak gehitu ditugu.

IV.

Transkribatutako artikuluei buruzko oharrak:

Aipatu dugun bezala, Santiago Ezkerraren lehenbiziko idazkiak *Zeruko Argian* 1954an argitaratutakoak dira eta azkenekoak *Guaixen* 2009 arte ateratutakoak. 55 urte zeharreko idazki horietan, ordea, ez da bilakaera nabaririk begiztatzen. Euskaltzaindiari dagokion hizkuntza gidaritza aitortzen bazion ere, ez zuen bat egin Akademiak 60ko hamarkadaz geroztik hartutako erabaki garrantzitsuenekin, grafia kontuetan batik bat. Hara zer zioen:

²⁰ Hiztegi horren berri ematen du Goiz Argin argitaratutako “Batasunean indarra” (1976) eta “Abertzalea naiz” (1980) artikuluetan, bai eta 1977an N. Tauer-i idatzitako gutunean.

²¹ 1978ko gutuna.

«Ona emen Euskaltzaindiaren lana: Euskaltzaindia izkera garbitu, zuzendu, erraztu, orraztu, indartu, edertu eta gordetzeko antolatua da, eta ez zikindu, zaildu, nastu eta ondatzeko. Euskera batua, bai; bañan nolako batasuna? Zer neurri eta bide artu bear dira batasun ori lortzeko? Nork eman bear ditu neurri oiek? Euskaltzaindian arkitzen diran izkeran oituenak edo. Oiengan izan bear da euskerarenganako ardura. (...) Zenbait aldizkari irakurri ditut euskeraz, eta aspergarrri izan zaizkit idazkerarengatik. Eta baztar batean gorde ditut geiago irakurri gabe. Ez naute siñestarazten aietan idatzita agertzen diran ainbeste **h** eta **a**-ek. Idazkera oiek euskera ikasi nai dutenei erraztasunak emateko garaietan... Euskerak badu naiko zailtasun guk geiago zailtzeko»²².

Hortaz, bere garaiko idazlea dugu Lizarrusti eta, gainera, garai hartan gelditu zena, eta, esan bezala, hasieratik amaierara arte idatzi zituen lanetan ez zaio bilakaerarik nabaritzen, grafia kontuetan bereziki. Hori dela eta, liburu honetan ageri diren artikuluen transkribaketetan egilearen testua osorik errespetatu dugu, batik bat *b*-rik gabeko hitz guztiak, hitzen gorputz fonikoak, bustidurak, palatalizazioak, hitz laburtuak, etab.

Hala ere, artikulua guztietan –salbu *Príncipe de Viana* aldizkarian Etxarriko hizkeran argitara emandako “Lan-oporrak Arjentinan” eta “Nere bizitza” eskuizkribuetako “Artaxuriketa” eta “Abere saldoen ohitura” pasarteetan, bai eta Gutunen bilduman ere-, zentzuzko iruditu zaigu egokitzapen bat edo beste egitea. Koherentzia puntu bat aplikatu nahi izan dugu, batik bat egileak berak, irizpide faltagatik, hitz berak forma bat baino gehiagotan idatzi izan diutelako eta frankotan artikulua edota paragrafo berean. Kasu horietan forma bakarrera eta zuzenenera egokitu ditugu denak. Esaterako:

-Datak: 22'an, 22-an, 22.an eta 22an, azkenekora.

-Apostrofoa eta gidoia daramaten hitzak: *Jesukristo'k*, *Jesukristok*; *ba'da*, *bada*; *10'garren*, *10garren*; *Etxarri-n*, *Etxarrin*; *bai-ta*, *baita*, *Euskal-erri*, *Euskalerrri...*, bigarren formatara.

-Marrak. Aditzetan batik bat: *nekatu-ta*, *nekatuta*; *al-dauka*, *al dauka...*, bigarrenetara.

-*Ta / eta*. Lehenengoa gehiagotan ageri baldin bada ere, bigarrena ere erabiltzen du maiz eta anitzetan biak artikulua edo esaldi berean: «*ta edozein leku eta ordu ona da euskeraz idazteko*». Koherentziaren mesedetan bigarren forma aplikatu dugu kasu guztietan: «*eta edozein leku eta ordu ona da euskeraz idazteko*».

-*Y / i*. Biak erabiltzen ditu eta anitzetan hitz berari aplikatuak: *geyago*, *gehiago*; *ayendako*, *aiendako*; *bayetza*, *baietza...* Kasu guztietan *i* hobetsi dugu.

Aldiz, izen propio, deitura, hagianimo, toponimo eta herritar izenetan berak erabilitako kasuan kasuko formak errespetatu ditugu, esaterako: *Madrid*

²² Goiz Argi, “Euskera batua” (1979).

eta *Madril*; *Lekarotz* eta *Lekaroz*; *Naparroa*, *Naparra* eta *Naparru*; *Giputz* eta *Gipuzkoa*, *Prantzi* eta *Frantzi*, *España*, *Ballekas*, *Olanda*, *japondarra*...

Irakurleak ikusten ahal duen bezala, Santiago Ezkerrak erabiltzen duen euskarari bi oinarri nagusi nabaritzen zaizkio:

Bata, *Zeruko Argian* garai hartan idazten zuten kaputxinoen eragina, eta lexiko aldetik nahiko neologismo zalea. Erabat modu arruntean erabili izan ditu azkenaldi arte gisa honetako hitzak: *akeita* (kafea), *Ats Santu* (Espiritu Santua), *aurdun-mugaketa* (abortoa), *aurdun-mugalari* (abortista), *beso-langile* (eskulan-gile), *buruñurdun* (kaputxinoa), *enparantza* (plaza), *ingi* (papera), *ingi lodi* (kartoa), *irakorla* (inprimategia), *izkitegi* (alfabetoa), *izparringi* (aldizkaria), *izparringilari* (kazetaria), *jai-aldilari* (turista), *errekiñ* (tabakoa), *lan-ola* (bulegoa), *laterri* (Estatua), *lepaldun* (erantzule), *neurkin* (metroa), *su-gurdi* (trena), *tele-ikuskiña*, *urrut-ikuskiña* (telebista), *tximist-gurdi* (tranbia), *urrut-ikusgai* (betaurrekoa), *urrutizkin* (telefonoa)...

Bestea, Sakana aldeko eta, batik bat, Etxarri Aranatz bere sorterriko zenbait ezaugarri eta bereziki lexikoa, hala nola: *aillatu*, *allaatu* (heldu, iritsi), *aidian* (airean: ipurdi aidian ibili), *atari* (ate), *aztapo* (oztopo), *bezin* (bezain), *buxtelo* (buztan motz), *erdoittu* (herdoildu), *erio* (estutasun), *gizeki* (gizaki), *iñeztura*, *iñusturi* (tximista), *larbera* (balar mota bat), *pertza* (animalien janaria egosteko ontzi metalikoa), *porka* (multzoa, mordoa), *samalda* (multzoa, pila), *topos egin* (nahi gabe norbait aurkitu), *triku* (sagarroia), *turruba* (tutua), *txontxolongorri* (txan-txangorri), *uds* (ura), *urdilzale* (txerri hiltzaile), *zali* (egurrezko goilara), *zirritu* (zirrikitu), *zotola* (txerri txabola), *zuletu* (zulatu)...

Dena dela, herri hizkeraren defendatzaile sutsua bazen ere, oso gutxitan idatzi zuen hain maite zuen bere sorterriko hizkeran. Ikus daitekeenez, haurtzaro garaiko oroitzapenetako “artazuriketa” eta “abere saldoen ohiturak” deskribatzen dituzten pasarteetan, eta *Príncipe de Viana* aldizkarian argitara emandako “Lan-oporrek Arjentinan” artikuluan soilik.

V.

Eskerrak

Andres Urrutia euskaltzainburuari, *Nafarroa Oinez*’09 Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolan ospatzen denez gero, Santiago Ezkerra Etxarriko euskaltzain urgazle zendu berriaren lanak prestatu eta bere sorterrian aurkezteko agertu zidan interesagatik. Gema Insausti Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkarietzako bulegariari, materialak prestatzen emandako laguntzagatik.

Azkue liburutegian aurkitzen diren S. Ezkerraren gutunen berri eman zidan Josune Olabarria bertako langileari. Tarsicio Azcona aita kaputxinoari eta Jose Luis Erdozia euskaltzain urgazle etxarriarrari, eskura jarri dizkidaten zenbait material eta informazioengatik. Azkenik eta bereziki nire esker ona Koro Lopez de Sabando Ezkerra, Santiagoren ilobari, Euskaltzaindiarekiko izan duen begiruneagatik, bere osaba zenaren zenbait material eta informazio gure eskura jarritz.

Andres Iñigo

Argazkiak



Xantuaren etxea (*Xantubaan*) Santiago Ezkerraren sortetxea zenaren aurreko alde



Xantuaren etxea (*Xantubaan*) Santiago Ezkerraren sortetxea zenaren atzeko alde



Altsasuko Kaputxinoen komentuko eliza



Altsasuko Kaputxinoen komentuko ikastetxea eta futbol zelaia



Santiago Ezkerra Kaputxinoen Hondarribiko komentuan 1944an,
bere bi arrebarekin. Ezkerrean Juli, eskuinean Dorita



Ezkerra-Beltza sei anai-arrebak Santiagok Meza Berria eman zuen egunean (1950-12-25).
Ezkerretik eskuinera, zutik Juli, Dorita eta Anjelita;
exerita Maritxu, Santiago, Joxe eta bi iloba.



Ezkerra-Fernández familia Madrilen, Begoña alaba zaharrenaren Jaunartze egunean.
Atzean Santiago semea eta Santiago aita. Aurrean Txaro emaztea,
Begoña eta Ana alabak. Argazki honetan falta da Arantza alaba gazteena.




Santiago Ezkerra bere Madrileko etxean Juli arrebarekin 2006ko urtarrilean



Beriaín mendia Etxarri ingurutik ikusita

Artikuluon bilduma

ZERUKO-ARGIA



1954an berriz abian jarritako Zeruko-Argia aldizkariaren azala

Kristau-Ikasbidea I

Zeruko Argia! Aspaldikoa da... Len itzaldu zan... Berriz piztu da, ikusten dezutenez. Len bezela orain ere Kristau-Ikasbidez zati bat izango du illero, gure gogoetan beintzat. Zeruko argia egiz danendako gauzen bat bada, auxe Kristau-Ikasbidea da.

Gaurko egunetan, baztar guztietan, mutiko koxkor eta adiñekoak, gizekiak eta emakumeak, asko jakin nai dute. Ortarako, ikastetxe nagusitara edo unibersidadetara joaten dira. Ezta danendako lekurik... Nork gauz bat, nork beste bat, danak ikasi nai dute. Gaur jendeak asko daki. Ikusi besterik ez dezute... Galdegin dezaiozute aurren bati ia badakien zeñek diran futbolista onenak, zinetan lan egiten duten oberenak, eta onelako ainbeste gauza...

Ikusiko dezute zeñen aguro erantzungo dizuen...

Eta ez gauza oietan bakarrik; baita ere beste gauz batzuetan asko ikasten da. Baño zenbat aldiz lenbizi ikasi bear genukena azturik degu! Zenbatek ez dute ezagutzen Jesukristo gure Jauna! Begira... Aldi batean, bi kaputxino joan ziran erri batera misio bat ematera... An bazan lurpean mina bat. Arutz ere sartu ziran prailleak. An, barruan, lanean zeuden gizon zikin batzuek... Kaputxino oietako bat asi zan gizon oiei itz egiten, eta danak estaltzen ziran lotsaturik edo izaturik. Azkenerako, gizon moltso bat bildu zan kaputxinoaren inguruan. Orduan galdegin zien ia bazekiten zein zan Jesukristo... eta aietako batek itza jaso zuen eta erantzun zion: ez jauna, ez degu ezagutzen. Emen gurekin beintzat eztu lanik egiten.

Bear badezu, galdegin zazu or, beste alde ortan; ia or ezaguera ematen dizuten... Emen beti gizon berberak lan egiten degu. Beste gizon ez-ezagunik ezta beñere emen sartu. Au adituz, kaputxino ezezaguna arriturik gelditu zan. Gizon gaxo aiek zer uste ote zuten? Nor izango ote zan Jesukristo; minetako nagusien bat edo zer?

Eta auek bezela gizon arkitzen dira munduan! Asto zar batzuek bezela beti lanean, beti begiak lurrean, nekez beterik, ezertarako begiak zeruratu gabe; onela bizi dira... Eztira oartzen anima ere badutela eta zeruratu bear dutela. Eta au zergatik gertatzen da? Kristau-Ikasbidea beñere ikasi ez dutelako, edo ez dutelako gogoan izaten, edo ikasi badute erabat aztu dutelako. Eta zein errukigarriak ez dira olako gizonak!... Olako gauzik, Jaungoikoari eskerrak, ezta ikusten gure errietan. Baño nork esango dit gu ere aiek bezela ez gerala biziko? Ez dezake inork esan. Gu aiek bezela, ezurrezko eta aragizko gizonak gera; guk ere aiek izan zituzten arrisku edo peligro berberak ditugu. Orrega-

tik saiatu bear gera guztiok, zarrak eta gazteak, kristau ikasbidea edo dotriña ondo ikasten. Guztiak degu ikasbearra. Gurasoak batez ere, beren aurrak elizara bidali bear dituzte, eta etxean ere erakutsi. Auxe bera egiten zuten orain baño len gurasoak, naiz erregeak izan.

Orain 700 urte izan zan gure aldameneko errian (Frantzian) Españako emakume bat erregiña. Blanka Kastillakoa zuen izena; San Luis Frantziako erregearen ama... Erregiña onek ondo erakusten digu zer egin bear duten gurasoak beren aurtxoekin. Ez bakarrik bere umiei erakusten zien Jaungoikoaren lege zarra eta zeruko bidea; baita ere auzoko umiei. Danei erakusten zien erregiña berak elizarako bidea, kristau onbideak edo birtuteak, nola ezagutu bear zuten Jaungoikoa, eta bere izena gorde.

Auxe bera egin bear dezute orain zuek, gurasoak zuen umiekin. Eta ikasi ondorean eztegu aztu bear. Ortara dator kristau ikasbidearen azalpen au. Illero agertuko da emen. Illero irakurtzen badezute, jakingo dezute zer egin bear dezuten, eta zer ez dezuten egin bear. Baño jakin bear dezute, kristau ikasbidea ikastea bakoitzaren lana dala. Ezta naiko apaizak ortaz itz egitea; guk gure aldetik, al deguna egin bear degu. Bestela Jaungoikoak eztingu lagunduko, ez ditu adituko gure otoitzak.

Begira zazute zer gertatu zaion gizon bati. Erri batean bazan gizon bat beñere joaten ez zana elizara kristau ikasbidearen azalpena entzutera. Egunen batean elizan arkitzen bazan eta apaiza pulpitora igotzen bazan, gizon ura belaxe elizatik ateratzen zan erorbide emanaz an zeuden guztiei... Eta ola egin zuen bizi zan egun guztietan. Il zanean, elizara eraman zuten, illen elizakoa egiteko; eta Meza bitartean ikusi zan nola aldareko Jesus gurutziltzatuak esku bat gurutzetik lasatzen zuen belarriak itxuz. Au ikusirik apaiza, izaturik, jende aldera itzuli zan eta onela itz egin zien: Ikusten danez, gizon onek, bizi izan zanean, etzuen entzun nai Jaungoikoaren itza, begira nola orain Jaungoiko berak ezditun entzun nai gure otoitzak gizon orrentzat. Eta elizkizun guztiak alde batera utzirik, artu zuten gizon ura eta txakur bat bezela soro baten erdian utzi zuten.

Ez nuke nai nik onelako gauza zuei gertatzea. Orregatik bada, entzun zazute beti biotz onekin Jaungoikoaren itza, kristau ikasbidearen azalpena, eta Jaungoikoak entzungo ditu gure otoitzak eta argi egingo digu zeruko bidean. Beti izango da gure Zeruko Argia.

Lizarrusti

Zeruko Argia, 1954, 1-2, urtarrila, 4-5. or.

Kristau-Ikasbidea II

GURUTZEA NOLA EGIN

G.- Zenbat modutara egiten du kristauak ezaungarri edo señaile au?

E.- Bi era edo modutara egiten du kristauak gurutzearen ezaungarri au

G.- Zein dira?

E.- Gurutze Santuaren eta Aitaren.

G.- Zer da Gurutze Santuaren egitea?

E.- Gurutze Santuaren egitea eskuiko beatz aundiaz iru gurutze egitea da: lenbizikoa bekokian (kopetan), aoran bigarrena, bularretan irugarrena, Jaungoikoarekin itz egiñaz.

G.- Ea nola egiten dezun Gurutze Santuaren.

E.- Gurutze Santuaren olaxe egiten da: Gurutze Santuaren + señaileagatik - gure + etsaiengandik - zaitu (gorde) gaitzazu + gure Jaun eta Jaungoikoa. Amen.

AZALPENA

Bai, onela, esan degun bezela egin bear litzake... Baña zenbat arrigarrizko gauza ez dira ikusten! Askotan ikusi ditut gizonak elizan sartzen... eta nola?

Ur bedeinkatua artzen dute eta iñusturi edo tximixta bezin azkar egiten dute 'Aitaren'. Gurutze Santua ez beste edozein gauza dirudi... Deabruaren kiñu bat besterik ez da... Joaten dira alki-aldetara eta kalean, karrikan, lasterka eta korrika dabiltzan gizon oiek, badirudi belaunetan erreuma dutela... Ez dakit zer gertatu zaien elizan sartzean; ez dezakete belauna lurreraño makurtu...; zerbait kuxkurtzen dute, gorputza eta belauna aidian gelditzen zaie... Au egiñik, beren tokitara joaten dira, eta an, arpegia besapean estalita, eztakit zer gauzak egiten dituzten... Gurutzea ez beste edozein gauza...

Zigorrada edo kastigu ikaragarria.- Apaiz bat eritegi edo ospital batera joan zan. Gaixo guzien artean ikusi zuan bat bare samar eta pakean zegola... Urbildu zitzaion, bada, oni eta onela itz egin zion: Jakin det zu oso makal zaudela, eta miñ aundiak dituzula... Gaxoak erantzun zion irriparez: Jauna, jaso zazu, mesedez gorputz-gañean dedan maindire (izare) au... Apaizak jaso zuan eta biotza ikaraturik ikusi zuan aren bular sendoa besorik gabe: bi besoak mozturik zeuzkan...

- Ez izutu, Jauna, esan zion, gaixoak. Jaso zazu orain anketako maindirea. Apaizak geldi-geldi, bildurrez beterik altxatu zuan anketako maindirea, eta ikusi zuan anak ere belaunetik bera moztuak zeuzkala...

- Gizajoa!, esan zion apaizak... Zutaz errukitzen naiz.

- Ez, Jauna, ez. Ez errukitu nitaz. Zorion-agurra egin zaidazu... Begira zergatik nagoen onela: gudan, gerran, sartu baño len au berbera egin nuen nik gurutze batekin. Banijoan nere lagunakin gudara... Bidean gurutze bat arkitu genuen. Nere lagunak bere arrokerian itz zakarrak eta biraoak esan zituzten. Nik aiek baño geiago izan nai nuan... Artu eskuetan nere ezpata eta besoak puskatu nizkion... Baño ala ere lurrera ez erortzen, anak josirik baizituan. Orduan anak txikitu nizkion eta orduan lurrera erori zan... Aurrera joan giñan eta ez nintzan ezertarako oroitu gurutze artaz. Baña alako egun batez bala zurrunbillo batek nere belarri ondoan txistu egin zuan. Orduan gogoratu nintzan nere erriko elizaz... nora erakusten zigun erriko apaizak Kristau-Ikasbidea, Dotriña..., nola joaten giñen aurrak giñala kanposantura illen alde otoitz egitera, erregutzero... eta eriotzaren bildurra ezur-muñetaraño sartu zitzaidala... Biotz-biotzetik eskatu nion Jaungoikoari mundu ontan nai zituan zigorkada guziak emateko, baño ill-ondorean nitaz errukitzeko...

Jaungoikoak entzun zuan nere otoitza, erregua, Gurutze Santu ura erabili nuan bezela utzi nau Jaungoikoak. Orregatik oñazeak aundiagoak eta orduan eta aundiagoa nere poza... Oñaze aundiak bialtzen badizkit, erabat bar-katu nai didalako izango da.

Oztutzen zaizue odola au adituz? Zer da au egunero ikusten deguna berterik? Gizonak Gurutze Santua nolana egiten dutenean auxe berbera egiten dute: anak eta besoak nolabait moztutzen dizkiote Jesus gurutziltzatuari... Eta au egiten dute ez bakarrik zarrak; baita mutiko koxkorak ere. Oiek uste dute gizonak eta mutillak bezela gurutzea gaizki egiñaz gizon antzeko egiten dirala... Ez... Ori ustea oker aundia da...

Orrek lasotasuna eta arintasuna besterik ez du esan nai. Ori egiten duanak pin-pin txori eta txontxolon gorri bat dirudi, beti saltoka, burua alde guzietara biurtuz... Zuek aurrak eta ez aurrak Gurutze Santua ondo egiten badezute, orduan bai gizon kristau antza artuko dezutela. Gurutze Santua egin bear da, bada, eta Kristau Ikasbideak erakusten duan bezela.

Lizarrusti

Zeruko Argia, 1954, 5-6, maiatza-uztaila, 38-39. or.

Ondo esnatu

Gauero otoitzak egin eta gero oe goxoan sartu eta argia itzali eta gero lo... Goizean ama edo, joaten da zuregana; esnaazten zaitu eta... bearbada esaten dezu: «Oraindik lo geiago egingo nuke...». Baño aita-amen esana egiteko jekitzen zera; zure gorputza esnatu da eta anima...?

Animako gauzetarako ere esnatu bear zera: Jaungoikoaz oroitu (akordatu) bear zera; aun on-ona izateko asmoak artu bear dituzu; aita eta amaren esanak egiteko asmoa egin; Jesus ona maitatzeko asmoa artu; bere aldekoa beti izango zerala esan.

Apaizak, aitak eta amak erakutsitako otoitzak txintxo egin, iñoiz ere utzi gabe.

Orduan Jaungoikoaren aurrean aundia izango zera; gaiztoak diran gizon aundiak baño aundiagoa.

Jesusek eta Ama Birjiñak asko maitatuko zaituzte.

Aurtxo bat bere etxeko loretegitik eldu zan pozez, lasterka eta deadarka. ¡Ene zer txoritxu polita arrapatu deten! Lore baten gañian zegon. Bere egoak zillarrezko eta urrezkoak baziruditen. ¡Ura edertasuna!... Urbiltzen nintzaion ixil ixil, polliki polliki... jauzka edo salto bat eman nuen... arrapatu nuen, eta ona nun gorde detan: kolkoan. Kontuz gordeko det ez dezan egaz egin. Jatera goxoak emango dizkiot eta edateko esnea.

Orrela itz egiten zion aurtxoak bere aitari. Aitak, aurraren poza ikusirik, erantzun zion: -Ederki zio, ederki zio. Erakus iguzak txoria; ikusi dezagun zeñen polita dan. Aurtxoak sartu zuan eskua kolkoan, eta tris batean kanporatu zuan txirulurua. Baño ¡ai ene! Ego eder aiek etziran lengoak... auts polita beatzetan gelditu zitzaion. Egoak auts gabe zimelak eta zakarrak ezereztarako gelditu ziran.

¡Au naigabea! esan zuen aurtxoak samintasunez beterik... Ain polita zan eta... Au ezta len lore gañean zegon txoritxu polita. Ez det maite; oso zakarra da: eta au esandakoan, amorraturik lurraren kontra bota zuen txirulurua.

¡Nere maitea! esan zion aitak. ¿Noren kontra ago asarre? Txiruluruak ez dik ezer kulparik ego zakarrekoa izateko. Ire eskuak oso latzak izan ditu auts polita ura ikutzeko. Orrexegatik galdu dek auts polita txiruluruaren edertasuna... Ikasi zak, nere biotzekoa. Ez jarri ire biotza agiri diran edertasunetan eta zorionean. Emengo zoriona oso aula eta bat batekoa dek. Lur ontako gauzak txiruluruaren auts ederrak bezela arrastaka eramaten ditek gure biotza. Zoratzen eta galtzen gaituk. Txoria dalakoan txirulurua artu dek. Orregatik ago orain biotz galdurik.

Auxe berbera gertatzen zaiguk emengo gauzetan biotzeko zoriona billatzen degunoi...

(Ojea y Márquez)

Usoa eta txinurria

Bein batean gertaera au gertatu zan. Txingurri bat, egarriz itotzen, iturri batean erori zan. Itotzeko zorian zegoala, ara nun bertako zugaitz batetik uso bat jetxi zan. Urrikaldurik pikotxa sartu zuen uran. Txingurriak eutsi zion eta bizirik gelditu zan. Belaxe etorri zan iturrira eiztari bat; eta ikusi zuenean usoa zugaitz gañean, asi zan lasto batzukin tranpa jartzen. Txingurria oartu zan. Bildurtu zan eiztariak usoa arrapatuko ote zuan. Eta ¿zer asmatu zuen? Lenbailen sartu zan eiztariaren ator edo alkandora azpian eta ozkaka asi zan. Alako oñaze egin zion eta eiztariak lastoak utzi zituen. Oien otsetara, usoa oartu zan eta izuturik igesi egin zuen.

Ipui onek erakusten digu zeñen ona dan ongi egiten digunei ongi egitea. ¡Zenbat gizon bizi dira biotz gabekoak, esker gaiztokoak! Ez bakarrik Jaungoikoari, degun guzia zor izanez... baita ere beren lagun projimoari, mesedekak kaltearekin ordaintzen dizkiote.

Aitona

Zeruko Argia, 1954, II, azaroa, 128. or.

Ollazalea eta eulizale egazia

¡Gizajoa! zion ollazaleak beste egaztiari. I euliz eta arrez bizi aiz.

- Etzaitut bekaizten edo inbidiatzen, erantzun zion egaztiak; nik pakia det; zu berriz beti bildurrez zabiltz janari goxoa izan dezazun. Bildur naiz zure biziaz...

Esan eta gertatu. Ollazalea, uso bat arrapatzeko naian, preso artu zuten. Orduan beste egaztiak, gertatu zana ikusirik esan zion:

- ¿Askoz obe ez ote da, ollazale adiskide, lurpean arrak arrapatzen egotea aidian egakan ego ederrak erakusten, eta zurea eztana ostutzen baño?

Alaxe da. ¡Zeñen oker eta gaizki bizi diran emen bapo bizi nai dutenak eta orretarako gauza gaiztoak egiten dituztenak! Egunen batean Jaungoikoak giltzapean idukiko ditu inpernuan.

Aitona

Zeruko Argia, 1954, 12, abendua, 143. or.

Azaria eta burrioa

Burrioak zugaitz batean egin zuen bere kabia, eta an bizi zan bere txitekin. Egun batean azaria etorri zan eta esan zion burrioari gose zegola; emateko txita aietako bat. Burrioak eman zion bat eta azariak jan zuen.

Beste egun batean ere etorri zan azaria eta esan zion burrioari:

- Gose niok; ekar zak beste txita bat.

Orduan burrioak erantzun zion:

- Ez diat emango. Ez dizkiat umeak iri emateko. Nai badituk umeak jan, izan itzak ik.

Eta azariak erantzun zion:

- Begira. Ez badidak ematen, aiendako jana eske joaten aizenean, zugaitza botako diat eta ume guziak jango dizkiat, eta isatsarekin jotzen zituen zugaitzak esanaz:

- Ikusten dek zer isatsakadak ematen ditudan?

Burrioak etzekien zer egin azaria aldentzeko, eta azkenean esan zion:

- Azari, aizak. Gaur zeruan eztei bat badek. Eramango aut. Nai badek joan, an jan dezakek nai dituken ollaxko eta txistor guziak.

- Bai... esan zion azariak. Ik badituk egoak igotzeko, baño nik ez; eta nola igoko nauk?

- Begira... Oso erraza dek. Nik igoko aut nere ego gañean -erantzun zion burrioak.

Eta eramán zuen azaria mendi tontor batera. Andik zerura eramango omen zuen. Eta antxe utzi zuen. Eta burrioa goitik bera zijoanean azariak karraxi egin zion:

- I... Èsan zak noiz itzuliko aizen...

- Ostots edo trumoi aundizko egun batean- erantzun zion burrioak.

Etorri zan ostots aundizko egun bat eta azaria burrioak esan zion mendi tontorrean egon zan itxoin eta itxoin... Burrioa etorri zan; artu zuen azaria ego gañetan eta egatu zan. Oso gorafio igo ziran, eta oso goian zeudela, burrioak alde batera egin zuen eta azaria goitik bera bota zuen. Azariak kosketa ederra artu zuen, eta lurretik jaso zanean erdi-illik, esan zuen:

Emendik bizirik ateratzen banaiz geiago eztut nai ezteirik zeruan.

Burrioa bezela saiatu bear dira gurasoak beren umetxoak gordetzeko bide onak erakutsiz eta ejemplu onak emanaz.

Eta aurrak azariaren antzekoak diran lagun gaiztoakin ez dute ibilli bear, gaitz egingo die eta.

Artza eta erlea

Bein batean erle batek artza ozkatu zuen. Artza sumindu zan eta erle artaz eta bere lagun guztietaz ordaña artzeko asmoa izan zuen. Salto batez erle toki gañean jarri zan, eta ostikoka erle-etxea autsi zuen, eta ez etxe eta ez janari utzi zituen erleak. Erleak orrelako makurkeriaz asaldaturik, bat-batean, artzaganatu ziran, lertu arte zistatu zuten, eta antxe utzi zuten artza ezin mugituz... Artza, ikustean oraiño bizirik zegola, esan zuen bere baitan: Ai ene! Zenbatez obeago izango nuen lenbiziko erle-ozka ura ezer esan gabe eta sumindu gabe eraman banu! Orduan nere aserrekeria ezi ez nuelako orain emen neok erdi illik...

Emen ikaskai on bat degu. Gutxiena ongi eramaten ez duenak, min aundia-gokoak eraman bearko ditu. Eta Mikea Profetak diona gogoratzen digu guztioi: «Pekatu egin dedalako eramango det pozez Jaungoikoaren sumintasuna».

Aitona

Zeruko Argia, 1955, 15, martxo, 187. or.

Trikua (sagarroia) eta erbia

Landa edo soro batean triku arra eta triku emea bizi ziran. Alako egun batean, goiz-goiz jeiki zan triku arra eta onela itz egin zion triku emeari:

- Egin zaidazu gosaria, baztar oietatik bueltatxo bat egin bear det eta...

Triku arra atera zan kanpora eta antxe erbi batekin topatu zan. Eta erbiak esan zion:

- Egun on, triku adiskidea! Nora zoaz ain goiz?

Trikuak erantzun zion:

- Emen nabil lasterka, alderdi batetik bestera, bueltatxo bat ematen.

Erbiak esan zion:

- Nai dezu apostu bat egin?

- Bai. Eta zertaz?

- Lasterkan.

- Ederki -dio trikuak-. Eta zer jokatuko degu?

- Bost duro eta botella bat pattar.

- Ederki -erantzun zuan trikuak-. Egiñik dago apostua, baño orain ez; biar bai.

Ortan gelditu ziran erbia eta trikua.

Triku arra joan zan, bada, etxera, eta esan zion triku emeari:

- Badakizu erbiarekin topo egin detala eta apostu bat egin degula nork irabazi lasterka?

- Baño, zer egin bear dezu? -dio triku emeak-. Nola irabaziko diozu erbiari lasterka?

Triku arrak erantzuten dio:

- Ikusiko dezu nola konponduko geran. Zu etorriko zera nerekin goiz-goiz, eta biok joango gera soro goldatu batera. Eta jarriko zera golde-erretako mutur batean, eta ni erbiarekin beste muturrera joango naiz. Andik biok aterako gera. Ni an geldituko naiz. Erbia zugana lasterka etortzean, zuk karraxi egingo dezu esanez: «Emen nago ni!»; ikusiko dezu nola irabazten degun.

Goizian goiz jeiki ziran bada triku arra eta triku emea, eta goldaturik zegon soro batera joan ziran. Triku emea jarri zan golde-errekako alde batean, eta triku arra erbiaren billa joan zan.

Etorri zan erbia eta esan zion trikuari:

- Egun on, triku adiskidea! Non nai dezu apostua egin?

- Emen, erreka zuzen ontan -erantzun zion trikuak-.

- Joan ziran bada biak golde-errekaren asierara apostua asteko.

Eta trikuak esan zuan:

- Ala, goazen!... Asi!...

Erbiak lau metroko salto bat eman zuen, eta aidian joan zan, aizea baño ariñ eta azkarrago. Errekako beste aldera iritxi zanean, agertu zan triku emea eta esan zuan:

- Emen nago ni!

Erbiak, arriturik, esan zuen:

- Alde ontara irabazi didazu...

Orain, berriz, alde artara.

Eta triku emeak erantzun zion:

- Goazen bada.

Eta berriz laster egin zuen erbiak len baño azkarrago. Azkenera etorri zanean, an estalirik zegon triku arrak salto bat eman zuen erbiaren aurrekaldean eta esan zuen:

- Ara, emen nago ni, adiskide!

Eta erbiak nekaturik esan zion:

- Bai irabazi didazu. Baño oraiño ez... Goazen, beste apostu bat.

- Goazen bada -erantzun zion triku arrak-: Asi gaitezen: bat, bi... eta iru...

Laister!

- Emen nago ni!

Au ikusirik erbia galdutzat uztera zijean. Baño esan zuan:

- Hau azkena, goazen berriz alde artara...

Eta triku emeak erantzun zion:

- Goazen, bada, laister, denbora galdu gabe... Bat..., bi... eta iru... Laister!

Asi zan erbia laixterka, baño oso nekaturik zegon ainbeste laisterkan. Apostuko asiera-lekutik gertu zegola, triku arra agertu zan salto batean erbiaren aurrean eta itza jaso zuan:

- Ara, emen nago ni, adiskide!

Eta erbia antxe bertan lertu zan alako neke aundiaz. Eta triku arrak eta emeak artu zuten bost durokoa eta pattar botella eta etxera joan ziran.

Trikuaren ipuiaren gertatzen dana munduan gertatzen da bein baño geiagotan: Gaiztakeri-gabekoai berea dana gezurraz eta maltzurkeriz kentzen diete gaiztoak eta gizon argiak eta aundiak bezela agertzen dira gizonen artean. Baño guzia ikusten duan Jaun bat badegu eta Jaungoiko Jaun orrek gaizto oiei zigorrada edo kastigu aundia emango die eta gaiztakeri-gabeak aunditzat artuko ditu zeruan.

Aitona

Zeruko Argia, 1955, 18, uztaila, 232. or.

Iru ipuitxo

GIZON ZARRA ETA ERIOTZA

Bein batean aiton batek menditik egur karga bat zekarren etxera. Zugaitz-zañ batean aztapo egin eta lurrera erori zan egur eta guziekin. Jeiki ondorean, egur ondoan eseri zan, eta bere bizitza neketsu eta zoritxarraz negarrez erio-
tza ditu zuen. Eriotza bereala etorri zitzaion, eta gizonaren aurrean jarrita esan zion an zegola prest nai zuen guzirako. Orduan gizon zarrak erantzun zion. Deitu zaitut egur auek asto gañean jartzen laguntzeko, ezpaidaukat inor laguntzale.

GIZONEK ERIOTZA URRUTI DAGONEAN DEITZEN DUTE; BAÑO AURREAN DUTENEAN EZ DUTE NAI.

AITA ETA SEMEAK

Nekazari bat eriotzeko orduan arkitzen zalarik, semeak bere ondora deitu zituen. Eta onela itz egin zien: Jaungoikoaren naia da gaitz onen ondorean ni iltzea; orregatik, il baño len, orain arte esan ez dizuten gauz aundi bat esan nai dizuet: nere soroan dirutza baliotsu bat daukat. Nai badezute arkitu ondalan egin bearke dezute. Eta geiago ezer esan gabe, mundu ontatik joan zan.

Semeak, aitari lur eman ondorean, joan ziran sorora eta an da emen ondalan asko egin zituzten. Baño etzuten beñere arkitzen aitag esan ziena. Urte artan soroak beste urtetan baño askoz geiago eman zuen. Anai zarrenak, au ikusirik, esan zuen: orain konturatzen nauk nun dagon aitag esan nai zigun dirutza: gure lana dek.

MUNDU ONTAN DIRUTZARIK OBERENA LANA ETA DIRUA GERORAGOKO-TZEA DIRA.

EMAKUME ETA OTSOA

Otso bat bazebillen baserri baten ondoan janari billan. Alako batean aurtxo bat negarrez zegola entzun zuen, eta bere amak esaten ziola: ezpa-aiz ixiltzen otso janari emango aut. Ala ere, aurtxoa etzan ixiltzen, eta amak otsoaren bildurtasuna aurrean jartzen zion. Otsoak entzun zuen amak ziona, eta

poza zeriola, itxoin zuen aurtxoa janaritzat bota arte. Eta onela egondu zan denbora luzean, gosez illik. Baño aurtxoa ixildu zan, ez deitzeko otsoa esanaz. Eta amak erantzun zion. Ene maitea, otsoa etortzen bada, ill arte joko det.

Au entzun zuenean otsoak, bildurturik, ospa egin zuen bere baitan esanaz: nork siñistu emendik aurrera emakumeen itzak? Gauza bat eskeñi, eta gero beste gauza bat egiten dute... Eta asperturik, beste toki batera joan zan janari billa.

EMAKUMEA AIZEA BEZIN ALDAKOR DA; EZ GOGOAN ARTU BETI BERE ITZAK.

Aitona

Zeruko Argia, 1955, 19, uztaila, 248. or

Illargia eta otsoa

Otsoa oso gose zegoen. Etzekien zer egin abereren bat arrapatu eta jateko. Ontan, azariarekin topo egin zuan eta esan zion:

- Aizu, azari. Jan egin bear zaitut. Goseak iltzen nago eta zerbait jan bear det.

Azariak erantzun zion:

- Baño ikus zazu oso me nagola. Ezurra eta larrua besterik ez naiz.

- Ez... Joan zan urtean oso gizen zeunden.

- Bai... Joan zan urtean oso lodi nengon, baño orain lau umetxo azi bear ditut eta ez tet ezer arkitzen oientzat esnea izateko. Esne gutxi ematen diet.

- Nik ez det ezer ikusi bear ortan -erantzun zion otsoak-.

Bazijoan lenbiziko ozka egitera, baño azariak esan zion: geldi egon zaite, Jaungoikoaren izenean, otso jauna. Erakutsiko dizut putzu bat gaztaiez (gaz-taz) beterik. Goazen putzura eta ikusiko dezu ez dizudala gezurrik esaten.

Otsoa eta azaria gazten billa joan ziran. Etxe bateraño eldu ziran... Orma edo pareta asko igaro ondorean, putzura etorri ziran. Putzuan illargia ikusten zan, gazta zirudiela... Begiratu zuen putzua azariak eta onela itz egin zion otsoari:

- Ene, otso adiskide!... Gazta oso aundia da. Atoz, ikusi zazu. Begiratu zuen otsoak. Ikusi zuen illargia eta gazta zala uste zuen.

Baño otsoak -ala-, olako, esan zion azariari:

- Ederki, azari adiskide. Jetxi zaite eta atera zazu gazta.

Azaria jetxi zan gazta billan eta an zegoen ontzi edo barrika batean sartu zan. Eta azpitik esaten zion otsoari:

- Ene, otso adiskide! Zeñen aundia den gazta! Geiegi da neretzat bakarrik. Ez dezaket jaso. Jetxi zaite laguntzera...

- Baño ez naiteke jetxi -erantzun zion otsoak-. Nola sartuko naiz? Igo zazu zuk bakarrik.

Eta azariak erantzun zion:

- Ez zaitezela baldarra izan... Sartu zaite beste ontzian eta ikusiko dezu nola era ortan erraz jeixten zeran... Eta orduan azaria sartu zan ontzi batean. Otsoa berriz bestean sartu zan. Eta otsoak pisu aundiagoa zeukalako, otsoa bera jetxi zan eta azaria gora igo zan pisua neurtzeko batean bezela. An gel-ditu zan otsoa gazta billan, eta azaria pozez bere umetxoak ikustera joan zan.

Olaxe galtzen gaitu mundu ontako gauzen geiegi zko gogoak.

Askok diru asko dute, aberatsak dira... eta beti geiago nai dute. Ez dira beñere asetzen. Zu, aurtxo maite, daukazunarekin poztu zaite, eta ez dezu buru austerik izango. Pakean biziko zera.

Iapa

Baziran amabi txito gorri-zuri. Iapa oien anai beltza zan. Beti bakarrik zebillen; eta arrapatzen zuana bakarrik (besteen laguntza gabe) jan nai zuan.

Egun batean, ollo amak zizare bat arkitu zuan... Eta klokloka beste ume-
txoak deitzen zituen bitartean, Iapak (oso argia bai zan), jan zuan. Eta ain
txokolate goxotasuna artu zion, beste batzuk billa joan zan...

Mokokatu zuan... urrutitu zan, eta nai zuana arkitu zuenean, istillu aundia egin zuan. Janariarekin estali zan bere anaitxoak jan etzezen... Eta jan eta jan asi zan (asi zan esan det, zizare ura izugarri luzea zalako). Eta motza izango balitz bezela, Iapak arriturik ikusi zuan baztar batean zegon pillari edo aril batetik geiago luzatzen zala... Gañera, Iapak, samintasun aundiz beterik, ikusi zuan zizare arek etzuela lenagoko zizareak bezin gusto goxoa. Au latza eta illeduna zan, naiz kolore gorri polita izan...

Joxepa an zebillen, burua galdurik, galdu zuen artille arilla ezin arkituz... Ontan, ikusi zuan Iapa jan eta jan... Maltzurra! -esan zion Joxepak-. Nere artillea zikintzen ari aiz... Eta nekez atera zizkion ao barrendik sartu zituen metro t'erdi ariak.

Txitoaren amak dana ikusi baizuan, pareta baten gañetik esan zion:

-Ori eskuitxia eta diruzalea aizelakoz gertatu akik... Daukagun guztia anaien artean zatibanatu edo partitu bear diagu... Diotenez, Iapa egun ortatik obeagoa izan zan bere anai-arrebakin.

Orrela izan bear zerate zuek ere, aurtxo maiteok. Ez zerekoiak izan, baik daukazutena besteen artean partitu, eta orduan onak izango zerate.

Aitona

Zeruko Argia, 1955, 23, abendua, 312. or.

Armiarra (amarauna) eta erleak

Baratz eder batean exerita zegon bere amabi urteko semetxo batekin aberats aundi bat. Mutikoak armiarra-sare batean armiarra agertu zala, eta zerbait arrapatu naiean ikustean, galdetu zion aitari:

- Zergatik bizi da bakarrik amarauna eta beretzat bakarrik lan egiten du, eta erleak berriz pillo batean bizi dira eta dana danentzako lan egiten dute? Amarauna edo armiarra guziak bat artu eta danentzako sare bat ez al dezakete egin?

- Egia da maitea, erantzun zion aitak. Baño Jaungoiko gure Jaunak zer egiten duan ederki badaki abere; bakoitzari bere sena eta joerak edo zaletasunak eman dizkio, eta bakoitzari konbeni zaion bezela, bateratzen ditu edo banatzen ditu. Armiarra berez maltzurra da. Deabruaren irudia da. Bere sarea egiteko eta an errege bezela bizitzeko bizkortasun aundiz lan egiten du. An itxoiten (esperatzen) du euli gaxoa bere atzaparrakin arrapatzeko eta odola kentzeko.

Zein bizi txar eta zoritxarrekoa izango litzeken gizarte edo soziedade maltzur eta aserrekor batean, bakoitza bere auzokoaren odol billa ibilliko balitz!

Ez dek ikusten or bertan galtzeko bidea arkituko lutekela?

Erleak berriz danak batean lan egiten dute eta, bere lagunzaleak dituk: berez otxanak, mantxoak, dituk ez ditek eztena sartzen norbaitek zirikatzen eta aserreetzen ezpaditu. Ontan Jaungoikoaren antzekoak dituk. Jaungoikoak, gure pekatuakin zigortzera (kastigatzera) nolabait guk beartu gabe, ez dik zigorrada edo kastigua ematen.

Onak izan bear degu, bestela Jaungoikoa gurekin aserretuko da.

Aitona

Zeruko Argia, 1956, 24, urtarrila, 11-12. orr.

Arranoa eta egaztiak

Bein batean arranoak, egaztien errege bezela, agindu eta batzarre aundi bat bildu zuan. Egazti klase bakoitzak bere ordezkoa bialdu zuan. Asi ziran itzaldia egiten aldizka, bakoitzak bere onbide eta gauz onak goratuz. Ollaza-leak goraipatu zuen bere izugarrizko abiadura egatzen; urre txindorrek edo errege-txoriak bere eresi izugarri pollita; beleak eta txoak beren aztiantzak edo adibinazioak; eperrak bere maltzurtasunak edo tranpak; eta onela batak bestearen ondorean itz egin zuten arrokeriz beterik.

Danen ondorean, itza jasoz, guztien erregeak arranoak, onela itz egin zuen: -Zori ona guztioi. Oso ederrak izan dira guztien itzaldiak, baño gauz bat jakiñarazi nai dizuet. Zuek esan dezuten guztia ezta ezer nere begien zorroztasunaren aldean, eta nere egatze arin eta goiaren aldean. Eta norbait ezbaian, dudan badago, jarri dedilla, nere lepo gañean. Bat-batean jasoko det lurra arkakuso bat bezin txiki ikusten dan toki bateraño. Itz auek entzunik, guztiak ixill-ixill gelditu ziran. Baño errege-txoria, txikia danez, egakada batean arranoaren lepo gañean jarri zan eta esan zion: ikusi dezagun. Goazen biok gora, eta ikusiko degu egia dan edo ez zure esana.

Igo ziran, bada, eta laño gañean zeudela, arranoak burua biurtuz errege-txoriagana onela itz egin zion: -Esan zak, zer ikusten dek? -Nik, nere errege ori, lurra doi-doi ikusten det. -Bada nik -erantzun zion arranoak- argi eta garbi ardi txuri bat buztana (isatsa) moztuta ikusten det. Au egia ote dan ikusteko, jetxi gaitezen eta ikusiko dek ala dala.

Iñeztura edo tximista bezela jetxi ziran. Baño eiztari maltzur batek ardi inguruan tranpa jarri zuan. Arranoa bere arrokeri eta begi zorrotz guztiarekin antxe loturik gelditu zan, eta lepoa moztu zioten.

Arrano gaxoa! -zion errege-txoriak-. Gezurrez goratu dezu zeorren begi zorrotza. Ardi buztan motza ikusi ziñun eta etziñun ikusi ardi ondoan zegon tranpa.

Ona emen, zer gertatzen zaien gizon askori. Uste dute arranoaren begiak dituztela eta satorrak besterik ez dira. Bere arrokeriaz begiratzen dituzte gauzak eta begi zorrotzez beren biotzak eskatzen dietena ikusten dute. Baño ez dute ikusten animaren etsaiak jartzen diezketen tranpak eta uste gabeen sulezean, inpernuan arkitzen dira.

Aitona

Zeruko Argia, 1956, 26, martxoa, 44-45. orr.

Txoria eta erlea

Gose eta otz arkitzen zan negu gorrian txori bat. Erletegi baten leiora joan zan eta erle bati eskatu zion sartzen utzita jaten emateko, ia ilean zegoela eta; ordaiñez agintzen zion erlekumeai ederki abesten erakutsiko ziela. Erleak erantzun zion: guk jan guzia guretzat bear degu; orretarako lan da lan aritu giñan udazkenean. Beste aldera, gure umeak eztute abestu edo kantatzen erakutsi bearrik; guk obeto erakutsi dezaiekegu.

Gizonak erleengandik ikasi bear dute langille izaten gose eta otzik ez egoteko. Gurasoak umeai erleen antzera langille izaten erakutsi bear die gizon trebeak izateko.



Bi zakur

Etxe batean baziran bi zakur, bat eizekoa eta bestea etxezaizakoa. Etxeko zakurrak besteak eizean arrapatutakoen ezur guztiak jaten zituen. Eizeko zakurrak, ontaz oarturik, esan zion. Ori gaizki zegok; i egun guzian emen etzanda, ni berriz laisterka miñgana zintzilikan; ala ere ni baño obeto bizi aiz, nik baño ezur geiago eta aundiagoak jaten dituk. Etxeko zakurrak erantzun zion: adiskide, ez neri ezer esan gero; esaiok nagusiari; berak erakutsi dik lan egin gabe bizitzen.

Zakur au bezelatsu dire gazte asko; baño ez dute berak errurik, beren gurasoak baizik, ezpaidite lan egiten erakutsi. Nork bere lanetik, al badu, bizi bear du.

Aitona

Zeruko Argia, 1956, 27, apirila, 55. or.

Ontza baselizan

Santo Kristoren baseliz batean gauero ontza bat sartzen zan... Lanparako argia itzali, eta olioia edaten zuen. Erabaki zuten errikoak gabean bat gelditu elizan, eta ontza iltzea. Koruan gelditu zan bat eskopetarekin ontzaren zai. Gau-erdian etorri zan ontza eta Santo Kristoren sorbalda gañean jarri zan. Koruan zegonak ikusi zuen, eta

- Santo Kristo, baztartu... Aratxeago, Santo Kristo... Aratxeago, nik esan ezkerro...

Eta orduan tiroa bota, eta Santo Kristori besoa autsi zion.

Eta ontzari bearrean, Santo Kristori jo ziola ikusi zuenean, onela itz egin zuen:

- Barkatu, Santo Kristo, barkatu. Baño zuk ere kulpak ba dituzu. Gizona, asarre bizian ikusita, zergatik etzera baztartu?

JAR-ALKIA AUNDITU BEARRA

Lenago Aiuntamentuko bost ziran, eta gero zazpi jarri zituzten. Elizeko jar-alkiak aunditu bearra... Eta ontarako, bi gizon alderdi bakoitzatik jarri eta asi ziran indarka jar-alkia luzatzen. Eta autsita gelditu ziran.

Mendiko aritzik obeena botatzea joan ziran jar-alki eder bat egiteko. Eta mendian zeudetelarik, oartu ziran aizkorik gabe joan zirala. Eta asmatu zuten, aizkorik gabe, aritza zañetatik ateratzea. Zion batek:

- Ni igoko naiz aritz gallurreraño eta zinzilika jarriko naiz; eta zuek guztiok nere oñetatik zinzilika beeraño. Eta nik esaten dutenean, asi guztiok bilin-balan. Ontan, goikoak esan zien:

- Itxoin piska bat, nik txuarekin eskuak bustitzeko... Eta danak lurrera, sasi batzuen gañera erortzen zirala... sasipetik erbi bat atera zan. Eta norbait il eta aren anima zala uste zuten. Amairu ziran joan ziranak; eta asi ziran kontatzen nor ill ote zan, baño amabi besterik etziran ateratzen (kontalariak bere burua ezpaitzuen kontatzen). Eta ill zana nor ote zan jakiteko, erabaki zuten beren emazteak plazara ateratzea... Eta an ezagutu zuten amairuak an zirala.

Aitona

Zeruko Argia, 1956, 29, uztaila, 86-87 orr.

Seigarren eguna

(Ipar-Amerikako ipuia. Marie Noel)

Sortu eta bereala, txakurrak Jaungoikoaren eskua lamizkatu zuen, eta Jaungoikoak buruan laztantzen dio.

- Zer nai dek, txakurra?

- Jaungoiko guziz ona, zurekin zeruan, agotz pixka baten gañean, atari aurrean, egon nai nuke.

- Ori ez ditekek -erantzun zion Jaungoikoak-. Ez diat txakurren bearrrik, oraindik lapurrak ez dizkiat egin eta.

- Noiz egingo dituzu, Jauna?

- Beñere ez. Nekaturik neok. Bost egunez lan egin diat. Lanean jarraituko banuke, baliteke nere lana ondatzea. Aldegin zak emendik, txakurra. Or dek mundua. Zorionekoa izan adi.

Txakurrak, arnasa sakon artuta, zion:

- Zer egingo det munduan, Jauna?

- Jan, edan, aunditu eta ugarituko aiz. Zer geiago nai dek?

- Jauna, zu ere ez ziñezke munduan egon?

- Ez naitekek, erantzun zion Guzieldunak. Gauz asko egin bearrak zeuzkat: zerua, aingeruak, izarra, lan aundia ematen diate.

Txakurrak burua makurtu eta ausartu zan esatera: Jaungoiko ona, munduan zu bezin nagusi onik arkituko al det?

- Ez, erantzun zion Jaungoikoak. Ez dek.

Txakurrak, ixil-ixil, eskatu zion:

- Nai bazenuke, Jauna... Beñepein len ikusi zenezakezu.

- Ez ditekek inñolaz ere, erantzun zion Guzieldunak. I baño obeagorik ez diat beñere egingo. Besteenbat egingo banuke, ondapen bat izango auke.

- Ene Jaungoiko on ori, berriz zion txakurrak. Ez du inporta ondapen bat bada ere, nik dijoan toki guztietara jarrai badezaioket.

- Ederki. Ire naia beteko diat.

Eta bere lantegira itzulita, gizona egin zuen Jaungoikoak. GIZONA, EGIZ, ONDAPEN BAT IZAN DA ESAN ZUEN JAUNGOIKOAK. BAÑO TXAKURRA POZIK DAGO.

Liburuak

LUZAIDE orrikkak.- Ona emen euskerazko beste idazti bat. Asko poztu gaitu berri onek. Barkarlos erriko Bikario Jaun Azpiroz'tar Joxe Mari eta bere koadjutore Satrustegi'tar Joxe Marik erritik kanpoan bizi diran erritar guztientzat orrikkak auek argitaratzen dituzte illabetero. Guzia ango euskeraz. Lau orri ditu idazti onek. Emen agiri dira: Luzaidek ematen dien AGURRA, erriko berri jakingarrienak, erriko kantak beren letra guziekin, kanpotik bialtzen dituzten kartak, errian izan diran ezkontza, jaiotza, eriotz eta abar. Zorionak euskeraren alde ain ederki lanean ari zeraten apaiz gazte oiei. Bada-kigu aurtxoekin eta erritar guziekin beste euskerazko lan eder batzuk ere egiten dituzutela: Parrokiko liburutegia, sariketak, eta abar. Aurrera beti oraingo asmo bizkor oiekin gure izkuntza goxoaren onerako!

Ona emen errikoak bialdu zuten eskutitzen bat edo beste. WYO. U.S.A. - «Barkatu hoin berant horoitzea zutaz; aspaldi errezibitu nituen zuk igorri berriak. Segur, plazer eguin baitaute ukaita hoin chebeki sort berriok guti leitiak. Ernerik leitu ditut; bainan luma-guiderrari lotzeko beti nagui naiz. Ideya ona obra orren muntatzea, berriari eta herritarrei yosiago ukanen gira, zeren hemen galdurik bezela gabiltza desertu hotan, nehor guidarik gabe; egun guziak berdiñak eldu dira. Suertez, yoan den igande bathez ukan naiz Mezan 80 kilometra yoanik. Damurik dugu chanza hori bakan. Beraz, gain gainetik estimatu dut, eta eguinen antzina; bainan ikusten dut ez direla lanik eta gasturik gabe eguiten; orrengatik nik ere nabi nuke parte arthu. Igor zer dauzutan obligacione. Beraz Yainko maiteari galdeguinez osagarria bethi, gelditzen niz, eskerrak biurtuz deneri bihotzaren erditik. Zuen irakurle fidel... ».

Ez altzaizue ederra iduritzen Balkarlosko apaiz gazte auek egiten duten lana? Au bai dala erritar guzien lokarria! Euskalerriko apaiz guziek onela saiatuko balira, elitzake galduko nola-nai euskaldunen siñismen sendoa eta gure izkuntzarekin batean gure oitura garbi eta ederrak. Zorion bero-beroenak, bada, zuei Azpiroz'tar eta Satrustegi'tar Joxe Mariei!

Lizarrusti

Zeruko Argia, 1957, 38, apirila

Baita Ingalaterran ere

BAITA INGLATERRAN ERE... Euskera onartua da EUSKALERRITIK kanpora. Leku askotan maite dute, Alemanian, Japonen eta beste toki batzuetan erakusten da euskera. Pozgarria zaigu jakitea Ingalaterran ere erakusten dala euskera. Ingalaterrako ESSEX urira euskera erakustera joan dea Leitzako neskatx bat: Martinez'dar Pakita. ZERUKO ARGIAREN arpededuna degu Pakita. Ederki, Pakita, eta Jaungoikoak bedeinka zaitzala.

Eta emen gaudenok zer egiten degu? Euskaldun askorentzat ez al da lotsagarri jakitea kanpotarrak euskaldun berak baño geiago maite dutela euskera? Kanpotarrak dirua ematen euskera ikasteagatik; eta guraso euskaldun askok ajolarik ez. Aurtxoentzat gurasoak izan bear lirake erakusle. Ortarako ez dute dirua eman bearrik; lan erraza daukate. Baño negargarria da leku eta etxe askoetan ikusten dana... Gurasoak aztapoka erderaz itz egiteko, eta umetxoak itz bat ere ez euskeraz... Au lotsagarri da. Eta noren kulpaz? Gurasoen kulpaz guzia. Gurasoak saiatuko balirake etxean aurtxoak euskeraz itz egin zezaten, aurtxoan ezpañetatik euskerazko itz goxoak entzungo genituzke. Erdera ikasi dezatela; baño lenengoz GURE IZKUNTZA: EUSKERA. Aurtxoetan dago euskeraren etorkizuna. Aurtxoak euskera galtzen badute, alperrik da jakintsu batzuk euskera ikastea. Era ortan euskera erabat galduko da. Eta guk, euskaldunok, ongi ikusiko degu au? Guk, al izan ezkeroz, utziko genuke gure ama laz-tana iltzen? Saiatu gaitzen, bada, guziok gure izkuntza gordetzen.

GURASOAK, ZUEN AURT XO EI ERAKUTSI EUSKERA. EKIN ETA JARRAI!

(Sinatu gabe)¹

Zeruko Argia, 1957, 4I, uztaila, 274. or.

¹ Norbert Tauer-i 1957ko irailaren 14an idatzitako gutunean egiletasuna aitortzen dio: "Baita Ingalaterran ere" irakurgaitxo ori neonek idatzi nuen.

Azkarate eta Etxandi'tar Joxe

Baztango *Aniz* errian 1878 urteko garillaren 23an jaio zan. Bere sorterrria eta Baztan ibarra biotz beroz maite zituen. Eta bere sorterrria ain gogoz maite zuelakoz alik obekiena jartzen saiatu zan. Ortarako baita ere bere aldetik al zuena jarri. 1910 urtean bere etxe bat erriarentzat utzi zuen ikastetxe bat jaso zezaten. Orain bi urte dirala ikastetxe berria egin zuten. Ordu arte, bere etxea izan zan erriko ikastetxe-lekua.

1928 urtean bere soroetako bat erriarentzat trukutsean utzi zuen pillota-joku bat jaso zezaten: *Mendiarte* pillota-jokua.

Eta ez ori bakarrik; baita bere sakeletik dirua jarri ere pillota-jokua jasozeko; eta bear zan dirua ortarako billatu ere bai.

Erriarentzat oial-garbitoki bat egiteko ere berak utzi zuen zelai bat. Aurrago errirako urak ekarri zituen.

Pillotazale jatorra izan zan beti. Nork esan zenbat idatzi zuen gai ontaz? Naparru, Gipuzkoa eta Madrideko egunerokoetan "Juan de Ursua" ziñez ezaguna zan. Naparruko "Federación Navarra de Pelota"ren buru izan zan. Berak sortu zuen (eta buru izan zan) "Club Deportivo Baztán" deritzaiona.

Idazlari trebea zan. Ez bakarrik pillota gaietaz, baita beste gai batzuk ere ibiltzen zituen: euskera, Euskalerriko oiturak, euskal dantzak, mendi berritze gaiak, Baztan ibarrako diru banakaritza gaiak, eta abar.

Euskalzale fiña zan. Erriz erri euskal itzaldiak euskaldunen biotzak berotzeko esaten etzan beñere nekatzen. Ortarako sasoi bikaña zeukan.

Azkeneko orduetan, euskera galtzen zala ikusirik, negarrari ematen zion. Eta naiz bere etxean beti euskeraz itz egin, ala ere bere seme-alabei esaten zien: «Nere miñik aundiena da ikustea zuen artean zenbait aldiz erderaz itz egiten dezutela. Etzazutela beñere euskera utzi. Nere urreneko guztiak euskera ikasi dezatela nai nuke. Esker au eskatzen dizuet».

Bere bizitza guztian kristau sendo eta osoa izan zan. Batez ere azkeneko egunetan arrigarrizko kristautasun bizia nabari zuen.

Bein batean norbaitek esan zion zertarako ainbesterako kristautasuna... zertarako beti elizeko santuak jaten egon... Ona emen eman zion erantzupena:

«Beti uste izan det Jesukristo guztiz bearrezkoa zaigula. Bera gabe ez dezakegula bizitza ontan ezer gauz onik egin. Ega gabeko txoritxu batzuk gera. Baño orain, iñoiz baño ziurrago nago Jesukristoren beartasun ontaz. Jesukristori loturik bizi bagera, zoriona geren baitan izango degu. Pozik nago Jesukristoren ondora noalako».

Gu ere uste ortan gaude. Uste degu Jaungoikoak bere seme laztan onen anima bere babesean artuko zuela, il eta bereala.

Jaungoikoak ez dezake aztu Azkarate eta Etxandi'tar Joxek eskeñi zion oparia: bazituen iru alaba eta bi arreba monja. Oietako bat urte askoz Tulebrasen dagon "Real Monasterio del Cister" deritzaion konbentuan abadesa. Oien otoitz goxo eta xamurrak nolaz ez entzun Jaungoikoak?

Eztarrira jo zion miñ-bizi gaizto batek eraman zuen. Pazientzi aundiz eraman zuen gaitz au. Etzuela mundu ontan gauz aundirik Jaungoikoari eskeintzeko, zion. «Zertarako ditut dauzkaten diruak? Ala ere, naiz gutxi izan, nere oñaze eta miñ oiek beintzat Jaungoikoari eskeintzen dizkiot, berak nai duen bezela eramanaz».

Era ontan, santu bat bezela, Jaungoikoaren besoetan lokartu zan.

Bere il-ondoreko elizkizunetara, alderdi guztietatik, ezagun eta adiskide talde aundia etorri zan bere animaren alde otoitz egitera.

Baziran errian 40 automobilletatik gora. Ain maitatua izan zan ezagutu zuten guziengandik. Ezta iñoiz Anizen ainbeste jende ikusi. Il zan egunean, urte askoz Elizondoko alkate izan zan Marin'dar Blasek itzaldi txalogarri bat egin zuen Azkarate zanaren onbideak goraipatuz.

Guk ere, ZERUKO ARGIAREN artzalle eta euskaldun guztiok negar egin dezagun euskaldun jator batek utzi gaituelakoz. Eta otoitz bero bat egin dezagun Azkarate zanaren animaren alde.

GOIAN BEGO, Anitz, Donosti, Iruña eta beste errietan bizi diran seme-alaba eta lengusuei atsekabeen laguntzen diegu.

Idoya

Zeruko Argia, 1957, 45-46, azaroa, 327-328. or.

Euskeraren piztuera**Euskaldun eta judutarren izkuntza***“El Bidasoa” aldizkaritik laburtua*

JUDUTARRAK, azkenego ogei gizaldi auetan itz egiten etzuten izkuntza piztu dute. Beren izkuntza piztutzeko alegin ortan berrogeita hamar urte iraun dute. Judutarren artean etzan itz egiten; Palestinan arabitarren izkuntza itz egiten zan. Judutarren izkuntza idatzietan bakarrik arkitzen zan, batez ere Biblian eta otoitz liburuetan.

EUSKERA.- Elerti-arauzko (literaturazko) euskera bizkor bizi da. Badira idazlari bikañak, bai neurtu gabeko idatzi-lerroetan baita olerkietan ere. Edozein gaietaz idazten da. Ez litzake zalla izango Ikastetxe Nagusietarako izkuntza egokiaz artzea. Baño, zoritxarrez, errietan galtzen ari da, eta okerre-na euskaldun askoen biotzetan euskal-zaletasunik ezta. Apaizek elizan eta amak, etxean, nai izan ezkeroz, piztu eta indartu lezakete euskera.

Judutarrak euskaldunak baño askoz okerrago zeuden. Aien izkuntza etzan itz egiten, euskera bai ordea. Biblian arkitzen zan judutarren izkuntza etzan gauza gaurko gaiak erabiltzeko. Oso zalla zan izkuntza artan filosofi, teoloji, fisika, kimika eta beste gaiak erabiltzea. Gañera, atzetik asi eta aurrea idatzi eta irakurtzen da. Judutarren izkuntza oso zalla da. Baño gogoz artu ezkeroz, aztapo guztiak berdindu ditezke.

Judutarren izkuntza piztutzeko lanak *Benyehouda* izeneko judutar batek 1890 urtean asi zituen. *Benyehouda* Parisen ikasten egona da. Parisetik Palestinara joan zan frantsesez judutarren izkuntza erakustera.

Lenengoz, bere umiei erakutsi zien. Azkar beste famili asko joan zitzaizkion beren umiei ere aurrenekoen izkuntza erakusteko eskatuz.

Benyehouda pozik asi zan lanean. Ortarako ‘Aurtxo-loretegitxo’ bat egin zuen. An biltzen zituen ikastera joaten zitzaizkion aurtxo guztiak, eta lore usai gozodun eta jolas artean judutarren izkuntza erakusten zien. Egunean eta famili geiago etortzen zitzaizkion beren umetxoak zekarzkitela. Eta ‘Aurtxo-loretegi’ geiago egin bearrean arkitu zan. Aurtxo oiek aurrenekoen izkuntz-zaletasuna beren etxetara eramaten zuten, eta gurasoak ere ikasten saiatzten ziran.

Nork esan *Benyehoudak* bere izkuntza gaurkotzeko egin zuen lana? Itz berri asko asmatu bearra izan zuen.

Ikastetxe bat egin zuen, eta ikastetxe ontan ikasi zutenak mundu guztian barna zabaldu ziran ‘Aurtxo-loretegi’ berriak egiñaz.

Benyeboudak, bere ikasleen laguntzarekin, munduan diran libururik onenak judutarren izkuntzara itzuli zituen. Iztegi zabal bat ere egin zuen.

NOLAZ AÑALAKO LANA? - Judutarren beren izkuntzaganako zaletasunari eskerrak eta norberaren alegiñaz.

‘Aurtxo-loretegietan’ ikasi zutenak bein eta berriz, Ikastetxe Nagusietan aurrenekoen izkuntza, izkuntza nagusia bezela jartzeko eskatzen zuten. Azta-po aundiak arkitu zituzten; baño azkenerako, nai zutena iritxi zuten.

ETA EUSKERA? - Parisen judutarren ordeko dan judutar ospetsu batek dionez, euskeraren alde ori eta geiago egin diteke. Euskera indartu eta bizkortu diteke. Ortarako, euskaldunen biotzetan euskal zaletasuna piztu bear da. Ontan Euskal erriko apaiz batzuk ejenplu ederra eman digute. Aurretik zaletasun ori gurasoen biotzetan sartu dute, eta gero umetxoei euskera erakutsi.

Euskaldun askoen etxetan arrigarrizko gertaera gerta da: gurasoak ez dakite edo ez dira moldatzen erderaz; umetxoak, berriz, itz bat ere ez dakite euskeraz. Eta noren erruz? Gurasoen erruz. Gurasoak bere umiei (etxean beintzat) euskeraz itz egingo balie, aurtxoak ere itz egingo lukete. Baño lotsagarri da euskaldunen artean gerta dana...

Euskaldun guztiok, elkartu gaitezen. Ni eta zu saia gaitezen gure izkuntz ederra piztutzeko.

Lizarrusti

Zeruko Argia, 1958, 49, urtarrila, 12. or.

Euskeraren alde I

Aspaldi ontan lerreiten nengon, gai ontaz zerbait idazteko asmotan. Oni ere etorri zaio bere txanda. Orain dirala ogei eta amarren bat urte zerbait esan zan ontaz. Ala ere, on izango da gauzak berritu eta gogoratzea.

Eliza Ama Santak, Jaungoikoa biotz guzietara eramateko gogo bizian, izkuntza guztiak -bat ere debekatu gabe- ontzat artzen ditu, garrantzi aundia emanez. Ontan Jaungoikoaren gogoia bete besterik ez du egiten.

Jaungoikoa animetan sartzeko bidea izkuntza da. Jaungoikoak bakoitzari bere izkuntzan itz egin nai dio, esan nai diona obeki ulertu dezan.

Judutarrei beren jatorrizko izkuntzan itz egin zien; eta Legea erriko izkeran idatzi eta eman ere.

Jesukristok ere, mundu ontan zegolarik, bide berbera jarraitu zuen. Eta Pentekoste egunean Apostoluei izkuntza askotan itz egiteko erraztasuna eman zien, erri bakoitzari bere izkeran itz egin zezaien. Zer esan nai du onek? Bere naia erriari jatorrizko izkeran itz egitea dala.

San Pablo Apostolu sutuak guzia guzientzat egiñik, guziak Jesukristogantzeko gogo bizian esan zuena besterik etzezaken esan: «Itzen indar eta muña ezpadakit, itz egiten diotanari arrotza natzaio; eta itz egiten didana ere arrotza neretzat» (I Cor., I4-II). Eta beste leku batean (I Cor. I4-9): «Darabilzun izkera ulertu-eziña bada, nola jakingo da zuk diozuna? Alperrik itz egingo diezu».

Auxe da ere Eliza Ama Santaren gogoia. Eta oni buruz, legeak ematen ditu. Trentoko Batzarre Nagusian erabaki au artu zuen: «Gotzaiek kristau-ikasbidea zuzen beren diozesisko izkuntzetara itzuli dezatela; eta erriko apaizek jatorrizko izkuntzan erakutsi dezatela. Baita ere, igande eta jai-egunetan, elizkizunetan, eliz-itzaldiak eta oarrak jatorrizko izkuntzan egiteko. Eta izkera berean animei zeruko bidea erakusteko».

Siñismen Zabalkunde Batzarrak, Eliza Ama Santaren gogoia agertzen digu esaten duenean: «Misiolariak ez dute beren jatorrizko izkera beste errietan zabaldu bear, gogo gaizkatasunari baño beren aberriaren irabazmen eta aurre-rapideai geiago begiratzen diela agertu ez ditezen; baizik saia bitez dijoazten tokietako erri-izkera ikasten eta jatorrizko izkera ortan egiten kristau-ikasbi-dearen azalpena eta ikastola eta orrelako batzokietan izaten diran itz-eginkizun agiriak, guziei onuragarri izateko eta guziek entzun eta ulertu dezaten. Bereolaxe liturjirik ez diran otoitz guziak jatorrizko izkeran egingo dira eta izkera bere ortan abestuko dira abesti eta ereserkiak. Gañera, gutztiz eragozten

zaie misiolariet nolanai dala, erritarrak beren jatorrizko ez dan izkeran aitortzera beartzera».

Nunbait anima bakarria balitz izkera berezia duena, anima ori salbatzeko bialdua anima orren izkera ikastera bearturik egongo litzake. Eliza Ama Santak nai eta agintzen du erriet beren jatorrizko izkeran itz egiteko. Au berez agiri dan gauza da.

Eta berriz ere 1778ko urteko epaillaren 7an agertzen zuen: «Garrantzi aundikoa danez, siñismena zabaltzera dijoaztenak, ainbeste lan artean lan egin gabe egon ez ditezen, askotan erabaki da agindu zitzaizkien errietara eldu eta bereala misiolariet bertako izkera ikasten saiatu ditezela; eta beren neke eta alegin guziak ortara zuzendu ditzatela».

Beljika eta kanadatarrak gu bezelako estutasunetan arkitzen ziran. Eta XVgarren Benedikto Aita Santuak onela zion Kanadako Begin Kardenalari: «Elizkizunetan darabiltzan apezak saia ditezen bi izkerak ikasten, eta naikeri txarrak alde batera utziz, bi izkuntzetan itz egin dezaten».

Eta Beljikako Marcier Kardenalari ere: «Batez ere erri berezi artean ibilli bear dan apezak sakon eta ongi jakin dezala erri bakoitzeko izkera; bestelaz alperrik izango dira bere lan guziak».

Agiria dago, bada, Elizaren gogoia. Nai du erri bakoitzari bere jatorrizko izkeran itz egin.

Eta zer esan nai du gure egunetan Elizak artu duen erabakiak? Erraztasun aundiak ematen ditu elizkizunetan jatorrizko izkera erabiltzeko. Au barrungo abotsak agintzen du. Zer ulertu dezakete berena ez dan izkeran?

Lazkoz

Zeruko Argia, 1958, 54, 104-105. orr.

Euskeraren alde II

Gure artean nola?

Aurretik, Oñatiko Euskal Batarrean XIIIgarren Alfonso Erregeak esan zituen itzak emango ditugu.

«Gorde zazute zuen izkuntza, aneizko euskera agurgarria, gizadiak daukan bitxirik bikañenetakoa, zuen aurrenekoetatik artua eta zuen urrengoei oso-oso utzi bear diezutena».

Orain Españaiko Agintari Nagusia dan Francisco Francok ere itz bero eta ez-titsiak izan zituen Salamankan euskeraren irakastola jarri zanean.

Eta nork ez daki Euskalerriko lau Aldundiak (Diputazioak) egiten ari diran aipagarritzko lana euskeraren alde? Naparruko Diputazioak igazko urtean 250.000 laurleko eman zituen euskera laguntzeko. Naparruko euskalerrria guztia barna euskal-sariketak egiten ari da. Euskerazko liburuak ere argitaratzen ditu; eta abar.

Bizkaiko Aldundiak 60.000 laurleko eman ditu euskerazko Biblia argitaratzeko.

Bizkaiko eta Guipuzkoako Diputazioak ere euskerazko liburu eta aldizkariak argitaratzen dituzte.

Iruñan, Donostin, Bilbon, Gazteizen, Irunen, Tolosan eta abar, euskera erakusten da. Gazteizen gogo-jardunak (ejerzizioak) euskeraz egiten dira; eta ango egunkari "El Pensamiento Alavés"-en euskeraren salla bada. Eta ango erradioz eta Donostiko erradioz ere euskeraz itz egiten da.

Ikusten danez, guziek euskera maite eta zaintzen dute. Baño ez da naiko goian daudenen alegiña. Euskera gordetzeko euskaldun bakoitzaren alegiña bear da. Bakoitzak bere inguruan euskeraren alde lan egin bear du. Baño batez ere, etxean amak, elizan apezak eta ikastetxean (eskolan) irakasleak. Oiek nai izan ezkeroz, euskera indartu leike. Negargarria da etxe askotan gerta dana. Gurasoak euskera besterik ez dakite, eta umetxoak itz bat ere ez euskeraz. Eta zenbat baserrietan ikusi ditzakegu bi edo iru erderazko aldizkari, eta euskerazkorik ez.

Elizkizunetan apeza jatorrizko izkera erabiltzera bearturik dago. Bakoitzari bere izkuntzan itz egin bear zaio eta euskaldunei euskeraz.

Eta erderazko itzen bat edo beste dakitelakoz, apezak erderaz egiten badi-tu eliz-itzaldi, bederatzi-urren eta kristau-ikasbidearen azalpenak, kristau oiek

mamia galdu eta azala besterik ez dute gordeko, ezpait dute ondo ulertzen esaten zitzaiena.

Bizkaiko erri batean gertatu zan. Aurrek ikastetxean kristau-ikasbidea erderaz ikasten... Erriko apeza an sartu eta aurtxo bati galdegin zion:

- Zer esan nai du «Amar a Dios sobre todas las cosas?». Eta aurrak erantzun:
- Jaungoikoa lokarri guziekin lotzeko.

Eta zenbat onelako gertaera...!

Gañera, bakoitzak errazago eta estutasun gutxiagorekin agertzen dizkio bere biotzeko barrunbeak bere arteko apez bateri, bere izaera obeki ezagutzen duelakoz. Ala diote ere XVgarren Benedikto Aita Santuak bere "Maximum illud" idatzian, eta XIgarren Piok "Rerum Ecclesiae" idatzian: «Ezin esan zenbat balio duen siñismena animetara eramaten duen apeza beren artekoa izatea; sortze berbera, izkuntza eta oitura berberak dauzkana. Eta askotan atzerriko apez batek ez dezakena, sortze berberako apezak egiten du».

Bere kristauei erderazko izkuntzan itz egin eta erakusten dien apezak ez dira bizi beren kristautentzako; ez dute betetzen Jaungoikoaren eta Eliza Ama Santaren naia. Eta ez dezakete nai aña on egin animetan. Badakigu errazago zaigula askotan erderaz itz egitea; baño apeza animentzat jarria da eta oien onerako lan egin bear du, eta al duen obekiena egiten saiatu bear da. Au egiten ez duen apeza alperrik dago dagon errian.

Gogoan izan dezala, bada, apezak zeñen garrantzi aundiko dan euskera, euskaldunei zeruko bidea erakusteko. Euskera ondo jakiten saiatu dedilla, eta EUSKALDUNEI EUSKERA ITZ EGIN DIZAIELA.

Lazkoz

Zeruko Argia, 1958, 55, uztaila, 115-116. orr.



“PRINCIPE DE VIANA”



SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASQUEO

DEPUTACION FORAL DE NAVARRA

Publicado semestralmente
N.º correspondiente 26-82

Impreso en la Imprenta de Navarra
Sociedad Anónima

Amargosa arena. — Pamplona, Durol. 1976. 216x285. 100 p., 170 gr., 1000 lras.

DIRECTOR: S. GILBERTO

URTE BERRIARI BURUZ

Jerusalem'en gertatzen diren erlijiozkoak Uri Saizidua den Jerusalem auzoan. Ga ilialiak gileta «Getermani» eta «Giletas» berberak dituzte.

Eta berberak, kamelillo bat urteko buru, gure onduzko elia, Kamelillo, puztu baldar baten, belantzean la etanik gelditu da, Jerusalem' atzeko emanez. Sinestazuna deuskatzen amestatu Uriari, nola atzeko emane?

Ainbeste tabernatan eta elakotan kamelilloari buruz irakurtzen dena, buruzko atzean: «Ez saitez kamelillo izan». Bai; ez gelditu bati zen kamelilloa aurrekoari igardia, kanpotar baturu ihaz-naia betetzen eta ilialdiko belarrak auzotzen.

Eta nagusia, ar? Anaitar zen - senik, manerter gertatu agerpen zituzten. Bere kamelilloak jaxki bezain laister, arto arto, ta mozu emaz iloz hararti. Eta urtik - urtik jarri zen Jerusalem begira. «Moro» endako iragumen Uri Saizidua da Jerusalem). Ta, «Altas» ko Mektizen urteko stipulaz'ri begiak sartu zituen.

Gero, belantzean gelditu zen, begiak etalita, moztu gabe, espaltetan atziz-eguzkiaren azarari.

Gerozago, bidia berriro arturik, kamelillo galdien juan zituzten, zuri mojan jantzia, Uriko karrika moztetan galdio arto.

Gizonari buruko neurria berru nai dituen denbora auzan, ez da



Jerusalem' inguruan Uri Saizidua, kamelillo, espaltetan, Mektizen... (Caption text is partially obscured)

atzendu - gizaok «debatu» gizon auzo irudia. Oialko ihazpiaz eman zizun bertako artoan, kamelillo zehitzen manerter gertatu baten. Itazpaz eguzkiaren, Mendebal orrian gertatu dituzten gertakizunak.

Itzazpaz bidian auzogartia bat gertatu den urte berri bakotzaren auzorak, buruzarrien dia gilerari, gizona «buruzdu» izanik.

Ezazpaz atzetan, baidan aditu beaz gertatu, buruzaren ezaten digun delak: «Ez saitez kamelillo izan». Kamelilloa belarraren auzotzen dena, sinestazuna gizon auzotzen gertatzen bati gora gu ere, auzotzen gure itazpaz jarria.

Sarta ta il artotzen, bidia bidia digu. Ilialdita, buru edo labor: bere arto dazko bakotzak. Eta bidia, auzotzen izan be'ite. Zeritaz ber, ez da bati elakoz izaten. Oritik, gertatu ta moztetako baturu.

Urteberriko asteroan, kamelillo ar denagun artotzen be al dugun zende on bati.

Itzu denagun Arrenganako bidian be'guz.

Ondean, bati, jarri denagun erditel arto!

NAVARRA'KO «AUTORREIA», URTEA

Navarra'ko «Autorreia» berru bidia gertatu auzo bidian dazko. Bidian bidia, baturu baturu orrian dazko. Bidia bidia, baturu baturu orrian dazko. Bidia bidia, baturu baturu orrian dazko.

«Autorreia» berru bidia gertatu auzo bidian dazko. Bidian bidia, baturu baturu orrian dazko. Bidia bidia, baturu baturu orrian dazko. Bidia bidia, baturu baturu orrian dazko.

ONDAPEN EREILEAK

Ezazpaz bidian, baturu baturu orrian dazko. Bidian bidia, baturu baturu orrian dazko. Bidia bidia, baturu baturu orrian dazko. Bidia bidia, baturu baturu orrian dazko.

«Autorreia» berru bidia gertatu auzo bidian dazko. Bidian bidia, baturu baturu orrian dazko. Bidia bidia, baturu baturu orrian dazko. Bidia bidia, baturu baturu orrian dazko.

EUSKALERRIA:
1976
Eribide ren
ERRI-EGUTEGIA

Príncipe de Viana aldizkariaren ale baten lehenengo orrialdea, S. Ezkerrak sinatutako artikulu batekin

Gaurko bizi-modua

Opor-egunak (bakazioak) iges dijoazkigu. Uda egun gozo oien ondorean, berriz aurrez aurre eguneroko lan eta bizimoduekin elkar ikusiko gera.

Bizimodua gora eta gora dijoala eta, bat baño geiago larri dira. Noraño joko ote du? Noiz geldituko ote dira garestiketa oiek? Nork dakar? Noren kulpa da?

Irakurle, zuk bezela, nik ere ez nekien nun zegon koxka, zergatik ote zan bizitzaren garestiketa au, nork dakarren.

Ona emen: "Sociedad de consumo" deritzanak dauka kulpa guzia.

Eta zer da "Sociedad de consumo" ori? Oraindikan ez dirala urte asko, gure artean beintzat, gure aurrenekoak etzuten ezer bearrezkorik erosten dirun gabe. Idi pare baten bearra zutela baserriko landak erabiltzeko? Ortara-ko bear zan diru guzia izan arte, etzan idirik baserrian. Orain, berriz, beste aldera da. Aurrerapen edo inbentu asko da gaur egunean, errazbide asko sortzen da: automobilla dala eta teleikuskiña dala eta, soñekoak bakarrik garbitzen dituzten makinak dirala eta...

Teleikuskiña, irratia, egunerokoetan eta aldizkari guzietan ezagutzera emango zaizkigu. Esango digute oso onak dirala, obeagorik eztala, erraxago bizitzeko bearrezkoak zaizkigula, eta abar.

Bai, oso onak dira gauz oiek, bañan oietako asko etzaizkigu bearrezkoak. Alaz ere, izan nai genituzke. Garestiak dira. Gaurko soldatekin ez dezazkegu erosi. Zer egin, bada, erosteko? Ez bildurtu; erosi nai badituzu, ordaintzeko erraztasunak emango dizkizute. «Erosi ezazu, eta al dezunean eta nai dezun bezela ordaindu» -diote askok.

Eta badaukazunean, obeagoa agertu dala eta, esango dizute zarra utzi eta berria erosteko, naiz garestiago izan. Eta gauzak beti gora eta gora. Noiz arte?

Len, bearrezko gauzak etziran erosten diru gabe. Gaur, bearrezkoak ez diran gauzak diru gabe erosten dira. Ori da "Sociedad de consumo" deritzana.

Lizarrusti

Príncipe de Viana, 1974, 101-102, uztaila-abuztua, 3. or.

Madriden errege egunean

Amabosten bat lagun bazijoazten farrez, karrika gora, Karabantxel aldera. Erdi mozkor zeuden guziak. Bidean gurdi astodun bat zeramaten ondar-biltzalle bazuekin topoz egin zuten. Ondar-biltzalleak bost litroko koñak ontzi bat zeukaten, muturrean zulodun makil bat zuela.

Len Madriden ondar-biltzalle asko ziran; etxe zarretan bizi ziran bere asto, gurdi eta txakurrekin; orain, oien orde, kamioiak dabilta.

Esan ditugun ondar-biltzalle oiek beste amabost lagunekin topoz egin zutenean, koñak eskeñi zieten esanaz:

- Torizute, eta edan ezazute, gaur Errege-Eguna da eta; edan lasai!

Eta asi ziran txandan, kolok-kolok, koñak edaten. Guziek edan ondorean, ondar-biltzaileak esan zioten astoari:

- Aizak, Periko, etorri zaik txanda; edan ik ere!

Eta bi lagun artean asto ezpañak aldendu, ortzak zabaldu, eta koñak ontzi muturra astoaren aon sarriz, astoak zurrutako ederra edan zuen, ezpain zearretik koñak zeriola.

Amabost lagun aiei, astoari ontzitik zuzen koñak ematen ziotela ikusirik, nazka eman zioten, eta itzulka asi ziran, aon sifoi bat balukete bezela.

Ondar-biltzalleak, au ikusirik, onela mintzatu ziran:

- Zer, astoak koñak edateak nazka ematen al dizute? Bide guzian edaten etorri dek eta.

Eta an gelditu ziran guziak lurrean ardo zagiak bezela.

Lizarrusti

Príncipe de Viana, 1974, 105-106, azaroa-abendua, 6. or.

India

Guziok dakigu India erri aundia dala. Txina ondoren, biztanle geiago dituen erria. Txinak 800 milloi biztanletik gora, eta Indiak seireunetik gora. Esate baterako, Europa guziak aña biztanle. Eta Txinan beartasun aundiak badira, Indian askoz geiago. Oitura zarrak asko begiratzten dituzte, aiei lotuta bizi dira. Ortik datorkie atzerapen guzia. Beiak jaungoikotzat dituzte, eta ez dira ausartzen beiak ikutzera ere, eta askoz gutxiago beiak il eta jatera. Ori pekatu larria da inditarrendako.

Askotan entzun oi degu, noski, irrati, aldizkari eta egunkarietan egun, ordu eta minuto bakoitzean ainbeste eta ainbeste iltzen dirala gose eta beartasunez; eta laguntza eman bear zaiela. Laguntza au nolako izan bear litzake beartasun ori erabat kentzeko? Eraunsi eta euriketak edo itsaso amurratuak erriak ondatzen dituztenean; euri bearrak eta eguzki goriak baztar guziak legortu eta kixkortzen dituztenean, eta, berotasun ori dala bide, belar, abere eta biztanleak barra-barra iltzen diranean; lur dardarak mendiak lertu eta etxeak ankaz gora bota eta biztanleak mara-mara iltzen diranean; mundu guziko errietan bilketak egiten dira (bai sendagaietan, bai soñekotan, bai jakietan, eta abar).

Ongi dago guzi ori, bañan diotsat: Naiko al da ori? Laguntza oiek erabat urratzen al dituzte beartasun oiek? Nere ustez, ez. Ori iduripen bat besterik ez da. «Gaur ase ta biar gose» esan leike dala ori.

Eta ortan lagundu bearrean, zergatik ez lagundu beste alde batera? Eta nolaz? Ona emen.

Indian beartasun gorria dala esan degu. Zergatik? Lantegi edo fabrika gutxi dalakoz; landak bear bezela landatu eta ereiten ez dalitelakoz. Zergatik ez erakutsi eta bizi-moduan jarri, bakarrik bizi ditezen? Zergatik ez erakutsi nola erein babarrunak, artoa, garia, lur-sagarrak, barazkiak; nola landatu udarak, sagardiak, intxaur-ondoak, urrak, maastiak eta ainbeste eta ainbeste gauz? Zergatik ez erakutsi txerriak eta txerrikoa jan ditekela, beiak ez dirala jaungoikoa, abereak baizik, eta ardiak, antxumeak eta beste ainbeste abere bezela jan ditezkelak? Eta zergatik txerriki estetetan sartzeko lantegiak ez jaso eta erakutsi nola egiten dan ori? Zergatik landak erabiltzako bear diran tresnak (traktorrak, aitzurrak, segak eta abar) egiteko lantegiak ez jaso ango biztanleak ikasi dezaten nolaz egiten diran gauz oiek? Zergatik ez erakutsi nolaz egin landak bustitzeko mendietatik edo ibaietatik ura dakarten erreka edo 'kanal' txukun eta gaurkoak egiten? Zergatik ez bialdu (beren borondatez ara joan nai dute-

nak) erakusleak, sendagilleak, albeiteroak, zurginak, kiskusgillak, injenieroak eta abar? Ez al dira joaten asko Alemanira, Prantzira, Ameriketara edo beste leku batzuetara lanera? Alaxe joan ditezke ere Indira. Eta an ongi badijoazaie, urte askotarako egon ditezke.

Eta nolaz egin guzi au?

Ortarako, erri agintariak elkar itz egin bear lukete. Esate baterako, Indiako agintariak ara erakustera dijoztenei, bost urteko lanagatik, erraztasunak eman eta soldata erdia eman lezaieke, eta beste erdia sortzen diran erri agintariak. Ori bai litzekela laguntza iraunkorra, osasungarria, eta ez egun baterakoa.

Lizarrusti

Príncipe de Viana, 1975, 107, urtarrilla, 3. or.

Belar erretzale sariketa

Paris inguruan, “Pipe Club”ek antolatuta, belar-erretzale sariketa egin da. Sariketa, ea nork denbora geiagoan pipa pizturik euki zan. Sariketa ontan emeretzi gizeki eta iru emakumek parte artu zuten. Bakoitzak pipa berria zuen -guziek berdiña-, bi poxpola -biak pipa piztutzeko- eta iru gramu erre-belarrekin bakarrik. Sariketari bakoitzak bazuen bere koxka. Batzuek luze ats-artu eta gero kea botatzen zuten. Denbora geiagoan pipa pizturik iraunarazten zuenak, arek irabazten zuen sariketa.

Lenengo pipa amazazpi minuto ondorean itzali zan. Eta orrela, bat beste ondoren, besteak ere itzali ziran. Bañan begi guziak emakume batengan zorrotz ziran. Eta emakume aren pipa ordu bat igaro arte etzan itzali. Txapel-dun!

Gero diote gizekia emakumea baño geiago dala...

Lizarrusti

Príncipe de Viana, 1975, 108, otsaila, 3. or.

Gose lagundia?

Egunero entzun degu munduan gose eta beartasun aundia dala. Giza-semeak eultxoak bezela iltzen dira. Bañan berri ori, noski, ez dezakenak edo gutxi dezakenak bakarrik entzun oi du.

Zenbat dira munduan, daukaten diruarekin zer egin ez dakitenak! Askotan entzuten degu edo irakurtzen degu arek edo beste arek bere ezta egunean alako milloi pilla dirua ondatu dituela soñeko, bitxi eta jatekotan. Beste batzuk dirua jolasetan ondatzen dute.

Guziok dakizute, noski, nor dan Aristoteles Onassis. Munduan diran gizon aberatsenetako bat. Jakingo dezute, lenengoz, Tina Livanosekin ezkondu zala. Gero onen ezkontza autsi eta Ipar-Ameriketarako agintari zan Kennedyren emazte zan Jacquelinerekin ezkondu zan berriz. Onassisek, gutxienez, 32.000 milloi dolar baditu. Erraz esaten da. Onassisen il-naian idatzia dago: «Onassis ilko danean, alargunak 100 milloi dolar ondoretuko ditu. Gañerako dirutza -32.000 milloi- bere bi semeendako (Alejandro eta Cristina) izango dira». Bañan semea -Alejandro-, egazki batean zijoala, il zan.

Ezta elkartean idatzita dago: «Alakoen batean Onassisek bere emaztea uzten badu, ezkontza urte bakoitzagatik 10 milloi dolar eman bearko lizkioke Onassisek. Bañan emazteak senarra uzte badu, bost urte baño len, orduan emazteak 20 milloi dolar artuko lituzke. Eta bost urte ondoren bakoitzak bere alde joko balukete, orduan emazteak 20 milloi dolar artuko lituzke, eta urrengo beste amar urtetan 120.000 dolar urtero, jateko».

Onassisek diru pilla ederra ordaintzen du bere emazte Jacquelineren gauzetan: bizi-erretxe, urrutizkin, tximist-argi, automobil eta bera zaintzeko dauzkan gizonetan. Soñekotan bakarrik, illero, 10.000 dolar dauzka Jacquelinek, eta illemozkintzan 8.000 dolar.

Diotenez, bein batean Jacquelinek Ipar-Ameriketan usai-goxozko ur-ontzi bat erosi nai zuen; eta Onassisek ortarako bakarrik egazki bat etziolako jarri, Jacqueline mutur egon omen zan bere senarrarekin.

Bañan au ezta ezer beste gastu batzuen ondoan; Onassisek sei egoitzetxe bikain, jauretzea dirudien itsas ontzia eta Skorprios deritzan ugarteau dauzka. Londres eta Nueva Yorken bi jatetxetan bi bizi-erretxe, bear duenerako. Eunta berrogei baño geiago lagun bera morroitzeko Paris, Londres, Nueva York, Montevideo, Montekarlo, Glytada eta Skorprios ugartean. Itxas-ontzietan, nagusienetakoa da. Baditu arrolioa garbitu eta apaintzeko lantegiak, baditu egazkiak, eta baditu ere itsas-ontzitegiak mundu guzian barna.

Diotenez, jaietara ateratzen dan gauero 60.000 pezta ondatzen omen ditu. Bere emaztearen ezta urte buruan 800 milloi pezta eman zizkion Nueva Yorken zelai bat erosi zezan.

Eta bere il naian idatzita dago ere, il ondorean, bere gorputza izoztuta gordetzea nai duela, alakoen batean ber-piztu baleike.

Zer geiago esan leike?

Eta batzuk onelako ugaritasunean bizi diran bitartean, beste asko gorriak ikusten, esteak esteekin bat egiñik, ezurrak agirian dauzkatela, begi zuloak leze beltzak balira, belarriak elefanteen belarriak balira, zinzilika, oñak me eta makur, antxumeen anakak balira... zer jan eta zer edan ez dakitela...

Dirudun oiek ez dituzte entzuten ainbeste beartsuen negarrak, aldizkari, egunkari eta erradioen deia; eta entzuten badute, sorrak egiten dira; etzaie biotza biguntzen. Nun da gizatasuna?

Munduan diran aberats guzien artean ez ote leike Gose Lagundi bat sortu? Aberats oiek illero diru purrusta bat eman lezaket Gose Lagundirako. Gose Lagundi ontan bilduko litzaken diru guzia onela erabili leike:

50%: 1) janaritarako, 2) sendagaietarako, 3) soñekotarako.

50%: 1) lantokiak jasotzeko, 2) ikastetxeak jasotzeko, 3) erakusleei ordaintzeko.

Ez al dute uzten askok beren diru guzia, bai saritarako (Premio Nadal, Premio Nobel...), bai jakintza azterketarako, eta abar? Eta zergatik ez Gose Lagundi bat sortzeko?

Ona emen onengoendako deia. Nor izango da bere izena len ematen duena?

Lizarrusti

Príncipe de Viana, 1975, 109, martxo, 3. or.

Ego-Ameriketako Andes Mendiak

Andes mendien goitasunak biztanle berexi bat sortu du, beste biztanleak ez bezelakoa. Bere biotza ez da europear baten biotza bezelakoa. Peru laterrian, amalau milloi biztanle dira, eta erdiek -gutxienez- Andes mendietan bizi dira.

Mendi oiek oso altsuak dira: bi mille t'erditik, zazpi mille metroko goitasuna. Oietatik, eun eta irurogeita amalau, elurdunak. Badira otz eta bero, eta baita legortasun aundiak.

Ez da erraz an bizitzea. Gorputza artara egiña egon bear da. Lenengo nekea ezin ats-artzea da. Oxigenoa bat da mendian eta zelaian; bañan, arnats-aizearen gutxitzeak ats-artzea zailtzen du. Orregatik, gorputzak ats-artzea maizago egin bear eta izerdi geiago ixurtu bear. Bularrak eunetik ogei geiagoko odolarekin lan egiten du. Orregatik, beste edozeñek bost milloi deritzan "glóbulo rojo" baldin baditugu, mendi aietako biztanleak zazpi milloi dituzte.

Beste gauz arrigarritzko bat ere gertatzen zaie artara egiñak ez direnei: betiko edo talde baterako antzu gelditzen dira. Eta au bai abere eta bai emakumetan ere. Peruko iri nagusia Pizarrok Jaujan ezarri nai zuen; bañan Liman (itxas bazterrean) jarri zuten, Jaujan txerriak, olloak eta beorrak antzu gelditu eta umerik ematen etzutelakoz.

Bertan jaiotako emakumeak, berriz, ez dute orrelako korapillorik. Bertan jaiotako emakumeak izakera berexia du. Umegaiak mendi gañean eta itsas-bazterrean "oxígeno" berdiña dute, bañan ori gertatzen da amak aur-lagun edo 'plazenta' aundiagoa duelakoz, eta orregatik odol geiagok ezatzen du umea.

Alaz ere, mendi goiean itsas-ondoan baño aur geiago iltzen dira, eta umegaiak ere pixu gutxiago du. Baliteke ori sendagille gutxi diralako mendian goietan, eta emakumeak bakarrik aur-egin bear duelakoz izatea. Mendi gain aietan otz gogorrak egiten ditu, eta otzak ama eta umea gaitz izurritsuetatik gordetzen ditu. Peruko mendian altsuetan eun milletik gora aur jaiotzen dira urtero.

'Bozio' deritzaion gaitz asko izaten da ere Andes mendi gañetan; bañan, ori ezta oso goi bizi diralako, baizik iododun gatza gutxi dalako.

Beste gauz arrigarri bat ere gerta da Perun bizi diranen artean. Mendi goietan eta itsas-bazterretan bizi diranen biotzak, ez dira berdiñak. Gizon jakintsuek uste zuten lenbizi mendi gañetako biztanleak biotz-gaitza zutela, eta ezta orrelakorik. Biztanle aiek ez dute biotz-gaitzarik; bañan, gu ez bezelakoak dira. Ona emen ezberdiña: mendi aietako biztanleen biotzeko ezkerre-

ko urdail erdikoak europear biztanleenak baño luzeagoak dira. Arek amaika zentimetroko luzaera dauka, eta europearrenak berriz zortzi t'erdi. Eta eskui aldeko urdail erdikoa, berriz, europearrena baño txikiagoa, motxagoa da.

Luzaro bizi nai badegu, ez ote da obe leku otzetan bizi, leku bero eta legorretan baño?

Lizarrusti

Príncipe de Viana, 1975, 110, apirila, 3. or.

Euskal pillota

Askotan, nere baitan, ara eta ona erabilli izan oi det gogoeta au: Zergatik ez eraman euskal pillota jokua Errusi, Txina eta Japonera? Laterri aietan joku zaletasun aundia dute. Erri Agintari Nagusien artean ontaz elkar itz egin lezaketete. Pillotokiak jaso leitezke, eta pillotariak ere bialdu, bertakoei erakusteko nolaz egiten diran pillotak, pillotarako tresnak (share, pala eta abar), eta nolaz jokutzen dan pillotara.

Bein batean, nere lantegitik etxeruntz nentorrela, Madrیدهko "Plaza de España"ko zubipean japondar mutil batekin topo egin nuen eta esan nion:

- Barkatu, Japondarra al zera?

- Bai.

- Españolaz ba al dakizu?

- Bai, pixka bat.

— Barkatu kaxkariña banaiz. Pillota jokua ezagutzen al dezu?

- Bai... Pillotokietan eskuz, palaz eta abar jokutzen dana... Joku ori euskal jokua da... Igarekin batean, jokurik osasungarriena. Joku ontan gorputz zati guztiak erabiltzen dira: begiak, oñak, besoak, gerria, lepoa eta abar.

- Zer iduritzen zaizu? Zure erri aldean onartua izango al litzake joku au?

- Bai; nere ustez, oso onartua izango litzake, eta asko zabalduko litzake.

- Nolaz eraman genezake alderdi artara?

- Nik uste, beste edozein joku bezela.

- Ea, bada, gure naia betetzen dan...

Eta onela itz egin ondorean, elkarrek agur egiñaz, bakoitzak geren alde jo genuen.

Txinatar batekin ere ontaz itz egin nuen. Eta onek txartela ere eman zidan bere arkibide eta urrutizkiñarekin, edozein gauzetarako.

Ona, bada, egin-naia. Naparru, Giputz, Bizkai eta Arabako Diputazioak, esate baterako, lauak bateatuta, ez al lezaketete bide au artu, eta ortarako bear diran bideak erabilli?

Au bai euskal oituren zabalkunde bikaña izango litzakela...

Lizarrusti

Príncipe de Viana, 1975, III, maiatza, 3. or.

Egia

EGIA. Zer da? Egia da gauza bakoitzari bere izenaz deitzea, gauza zer dan esatea; egia esatea, gauzak gertatu diran bezela esatea da, esan bear badira; bes-tela ixiltzea obe da. Ezta egia esatea, gertatu dana ezagutzera eman nai bade-gu, konbeni zaiguna ezagutzera eman eta konbeni etzaiguna ixiltzea. Ori egia erdiz esatea da; eta egi erdia gezurtzea da.

Askotan esan oi die Aita Santuak Erroman bildutako mundu guziko izparringilari-egia argi eta garbi ezagutzera emateko. Ori da izparringilarien eginbearrin bearrezkoena. Onen bidez, izparringilari-egia gizadien lokarri dira, giza-semeak elkar lotuta, bat izan ditezen pakean eta egian. Bañan eginbear ori ez badute betetzen, orduan lokarri izan bearrean, sua geiago bizkortu eta indartzen duen arrolio edo petrolioa izango dira; giza-semeak geiago eta geia-go nastu, erdoitu eta usteltzen dituzte. Egia bizitza da, eta gezurra, berriz, eriotza. Eta ez uste guk gezurra esatearekin, besteak siñistuarazten ditugula. Guk ixillik egoetan ez du esan nai baietza ematen degula, latiñezko esaerak dionez. Askotan, gauzak ixiltzea zentzutasuna izatea da, denbora egokiena itxaroz.

Eta egia nun dago? Nik uste, gaur egun, Diojenes zan jakintsu ura bezela ibilli bearko gerala gizasemeen artean, eguerdian, krisaillu batekin egi billan. Nun ote da? Geren baitan ote? Besteen baitan? Nik uste, ez batan eta ez beste-an. Gizadia gezur aundi bat besterik ez da. Eta ez esan ukalea naizela, egia bait da. Geren baitatik asi gaitezen eta barrun begira dezagun. Zenbat gezur ez ditugu esaten... bai itzez bai egitez? Geren gauza onak argitara ematen ditugu; okerrak, berriz, erre-autspean gorde, lur-sagarrak edo patatak gazte giñanean erretzen genituen bezela. Gure arpegia ixpillua da, bañan bi aldetakoa: batetik ikusten dan ixpillua, eta beste aldetik, gauza izkutuan gordetzen dituen ixpillu alde beltzua.

Besteen baitan ote da egia? Ezta ere. Besteak atzipetzen edo engañatzen saiatzen gera, besteak gu añakoak izan ez ditezen edo guk egiten deguna jakin ez dezaten. Orrela majo joan gaitezke zaldi gañean, bizi geran arte. Orrela bapo bizi gaitezke, naiz bestean beartasun eta estutasunean bizi. Gaur-egune-an geren begiekin ikusten deguna bakarrik siñistu dezakegu, ez esaten digute-na. Askotan, egia gezur-soñekoarekin jantzita ematen zaigu.

Lizarrusti

Príncipe de Viana, 1975, 112, ekaina, 3. or.

Azkatasuna

AZKATASUNA. Zer da? Nun da? Azkatasuna Jaun-Goikoak eman zigun gauzarik aundiena da. Ain aundia da, Jaun-Goiko berak ez duela nai izan gu azkatasun gabe gelditzea. Eta eman zigunak kendu nai ezpadigu, nork kendu dezaiguke? Azkatasuna gauza bat edo bestea egitea, bide bat edo bestea artzea, era batera edo bestera pensatzerako eskubidea izatea da. Gauz aundiagorik bai ote?

Eta nun da azkatasuna? Gaur egunean ez da azkatasunik gizonen artean; guziok elkar lotuta bizi gera, era batera edo bestera. Zer esanak, bizierak, gezurrak, lotuta gaizka. Jaio orduko, azkatasundunok lotuta jaiotzen gera; ez daukat azkatasunik, lotuta nago.

Ez daukat eskubiderik nai nuken lanetan lan egiteko. Naiz dirua izan lan-tegien bat jartzeko, askotan ezin, legeak debekatzen ditelako. Au edo ura esan nai nukela, gauzetan argi egiñaz, gauzak zuzendu eta konpondu ditez-en...; eta ezin, aoan muturrekoa daukagulako. Beste laterri batera joan nai nukeala, eta ezin, igaro-bide edo pasaportearen bearra dutelako. Eta ezin ibi-lli alde batetik bestera nai nuken bezela, lotuta bait nago, ezpait-daukat azka-tasunik. Zer degu ba Errusian, Kuban eta abar? An bizi diranak ez ditezke nora-nai mugitu, ez dezakete nai dutena idatzi, naiz egia izan. Zer gertatu zaio Soljenitsin gizon idazle jakintsuari? Eta zer gerta izan zaie beste ainbes-teri? Ez dezakete nai duten bezela pentsatu, eta gutxiago argitara eman. Eta nik ez bestela pentsatzeak besteari zigor emateko eskubidea ematen al dit neri? Ez orrelaxe. Orduan azkatasuna kenduko nioke; eta ni ez naiz azkatasu-na emaille Jaun-Goikoa. Sortaldeko aleman askok beren etxetara etorri nai lukete, bañan etzaie uzten, eta urtean bein bakarrik ikusi dezazkete beren emazte, ume eta senideak. Ez dute azkatasunik.

Bañan ez uste azkatasuna aisakeria dala. Azkatasuna bide zuzenean ibil-tzeko eskubidea da, bañan lokarri gabe. Aisakeria, berriz, itz berberak esaten duen bezela, naiz bide makurretan, aisa eta lasai ibiltzea da, naiz besteen esku-bideak oinpetu eta gauza guziak zilipurdika izan.

Lizarrusti

Príncipe de Viana, 1975, 113-114, uztaila-abuztua, 3. or.

Obe al da atzerritarra laguntzea?

Ala dirudi... Egunero, eta nun-nai, oi da ezpa. Gauzak egunean eta garestiago. Asko danean, asko dalakoz; gutxi danean, gutxi dalakoz; eta atzerririk ekarri bear diralakoz.

Nork askatu korapilloa? Nork ulertu gertatzen dena? Joan diran bi urte auetan, errietako ardalariak ez dakite nun sartu ardo berria, eta zer egin, kupeltegi guziak muturretaraño bait dituzte ardo zarrarekin. Eta ala ere, ardoa ez da merketzen, garestitu baizik. Eta gañera ardo txarra, ur gorrixka, bear dan ardoa izan bearrean. Edaten degun ardo geiena, kimika utsa besterik ez duen ardoa, burua nastutzen duen ardoa. Ez ote dakigu zein dan ardo ona? Ez al degu geok biltzen ardoa? Ez gera sueziatarrak.

Txerri-arbi gutxi izan dala eta gozamina gutxitu dala? Tafallatik Iruña bidean, gurdiak eta traktorak, txerri arbiz beteak, baztarretuta egon bear dirala? Txerri-arbia soroetan usteltzen dala nekazariak bildu nai ez dutelakoz, saltzeko merkeegi dalakoz? Eta zer? Ez galdu burua orregatik. Badu konponketa. Etxeko nekazaritza lagundu bearrean, nekazari tresnak eta ongariak merke eta erraztasunekin saldu, zergak gutxituz, ortarako arakotu bear lirazken milloi diru pillak obe da, noski, onuragarriagoa da, atzerriko nekazariari eman, dirutza orrekin kopetako izerdia garbitu dezan. Errazago da ori, noski, bañan galgarriagoa ere bai. Etxeko diru ardura izatea al da ori? Etxe ondaketa bai, beintzat. Nundik dator diru ori? Norena da? Zurea, nere, irakurle. Ortarako zergaz josita gaude. Eta ala ere, digutenez, gerria geiago estutu bear gauzak zuzentzeko. Noiz arte? Geiago oraindikan? Bai, bai... Txerri arbi gutxi bildu bada, eta gozamina exkax bada Kubatik edo erosiko degu gozamina; ez gera gozamenik gabe geldituko.

Zer gertatzen da gure arrantzalariekin? Arrantza berriz itsasora bota? Ene! Eroturik ote daude arrantzalariak? Lan gogorra da arrantzaleen lana. Ur zarata artean, ekaitz artean lana egin bear. Eta iñoren laguntzarik ez. Oiek bai dirala izugarritzkoen egilleak.

Eta zertarako ainbeste lan, ainbeste izerdi eta ainbeste esku latz eta baba eta azal il eskuetan. Ainbeste neke ondoren, lurreratzen dituzten xardiñak, gure etxeko-andreak saletxetan berrogei peztetan, gutxienez, erosten dituzten xardin berberak, arrantzaleei sei pezta ordaintzeko? Ai ene, arrantzale gizajokak! Ori da ematen dizuten lan-saria...

Bai, zuek arrantza berriz itsasora bota dezakezute, eta alperrik izango da zuen lana. Bañan zer? Ez larritu... Jateko, arraia bear da. Atzerrian arraia erosi

eta kito. Eta onela etxeko arrantzalea lagundu bearrean, atzerriko arrantzalea lagunduko degu. Eta gero zor aundiak ditugula, egunean eta geiago... Ori al da zorrak leuntzeko era? Ezta ori bide ona, alajaña!

Bei esnea txekorrei eta txerriei, ase arte, ematen zaiela, eta erriko karriketant ixurtzen dala? Bai... Eta nolaz ori? Erraxa da jakitea. Gure umeendako ogeita zortzi peztetan erosten degun esnea (ez bei-esne aparduna, baizik gantza gabeko esnea) amasei peztetan saldu bearrean, obe da txalak esne orrekin gizendu.

Ez da ajolik neiko bei-esne ezpada erriendako... Atzerrian, bei-esne saltzeko nai aundia dute. Andik ekarri eta kito... Eta gañera, esne ekartzaleei zergak gutxitu aberri mugan, eta esne talde bakoitzagatik pezta bat eman.

Gero, beiak gutxiagotu dirala, aragia exkax dabillela.. Eta nolaz ezta gutxituko, azitzea asko gusta bait da, eta sarale eta belarrak egunean eta garestiago bait daude? Kaltegarria da beiak azitzea. Ezta ezagun nekazarien izerdia. Ainbeste lan eginez geroz, nai luke zerbait irabazi.

Eta olíoa zer? Eta beste ainbeste gauz zer? Auzoko etxea, aldameneko etxea zaindu eta txukundu bearrean, asi gaitezen geren etxea begiratzen. Bestelaz, beti ipurdi aidian ibilliko gera.

Ezkerra

Príncipe de Viana, 1975, 115, iraila, 3. or.

Berdintasuna

BERDINTASUNA. Zer da? Nun da? Itz berberak esaten du: guziendako neurri berbera, guziek berdin gaur batzuetarako eta bestetarako, lege berbera guziendako. Onak ez du esan nai guziek berdiñak izan bear gerala. Ori ez diteke. Guziok konbentuetan sartu eta bizi bearko ote gera? Orduan ez litzake mundurik. Guziok sendagille, ingeniero, lege-gizon izatera bearturik ote gaude? Ez. Ez gaitzke guziok gauza bat izan. Guziek aberats, eta beartsurik ez? Ezta ere. Jesukristo berak esan zigun: «Beartsuak beti zuen artean izango dituzute». Mundua mundua dan ezgeroz, beti izan dira aberatsak eta beartsuak. Nik aberats izan nai nuke, bañan ezin. Egunero, eta egunean amalau ordu, lan egin bear dexente bizi nai badet. Ez dezaioket dirudunari esan: «Emaidazu daukazuaren erdia neretako, zu eta ni berdiñak bait gera».

Bañan bai eskatu dezakegula berdintasuna guziendako beste gauzetan. Oker gauzen bat egin detela, norbait il detela, zerbait ostu detela, eginkizun eta diru-bideren bat zikin erabilli detela? Goikoa banaiz, bekoa banaiz, guziendako lege bat bakarra, guziek berdin. Zeruak guzien gaiñ berdin euri egiten du, eta baita eguzkiak ere berotu. Zer gertatu zan joan zan urtean Ipar-Amerikan Agintari Nagusi Nixonekin? Arendako ere egiña zan legea.

Eta legea guziendako bat izanaz, guziak zuzenago ibilli gaitzke; bestelaz, gaizki gabiltza eta gauzak zuzendu ditezen asmorik gabe.

Berdintasuna nun da? Ezta agiri inñun ere, ez an eta ez emen. Nun-nai ezberdintasuna. Batzuk gose eta beste batzuk ase. Batzuk ezer jatekorik ez, ezer jaztekorik ez, eta beste batzuk jateketa bikañak, zenbat gusta zaien begiratu gabe. Batzuek lertu arte lanean, eta beste batzuk aizean edo elur gañean jolasean. Badirudi, batzuek lanerako bakarrik jaio dirala, atsedean artzeko denborik gabe, etxetik lanera eta lanetik etxera joateko beste eskubiderik gabe, asto zarrak balira bezela eta ez gizasemea. Beste batzuk, berriz, ez dakite zer dan lan egitea, zenbat gusta dan izerdi egitea babarrun urdaidun eltzekia bakarrik jateko. Erri aundienak aberastasun ugari, eta beste erri batzuk, sugetak bezela, beti arrastaka. Batzuk soldata bikañak, eta beste batzuk soldata apurrak.

Eta zergatik ez berdindu gauzak pixka bat? Orrela gizasemearen bizitza aixago eta zoriontsuago izango litzake, elkar lagunduz, eta ez elkar ostiko emanaz eta aztapo jarriaz, gabiltzan bidean.

Lizarrusti

Príncipe de Viana, 1975, 115, iraila, 3. or.

Zuzenbidea

ZUZENBIDEA. Zer da? Nun da? Izen berberak esan dizu zer dan ori: bide zuzenetik ibiltzea, bakoitzari berea dana edo dagokiona ematea. Bide zuzenetik bagabiltza, ongi goaz. Bañan ba ote da zuzenbiderik? Nun ote da? Nik ez det ikusten beintzat. Nora-nai begiratzen badet, ez-zuzenbidea ikusten det nere inguruan.

Legeak guzientzat berdín ez erabiltzea ez-zuzenbidea da; bakoitzari bear zaion soldata ez ematea ez-zuzenbidea da; erri bat beste erri baten gauzetan sartzea ez-zuzenbidea da; batzuk besteen zorrak ordaintzea ez-zuzenbidea da; bateri azkatasuna debekatu edo lotzea ez-zuzenbidea da; besteei bere gorputz edo ontasunetan kalte egitea ez-zuzenbidea da; bakoitzari daukan arrazoa ez ematea ez-zuzenbidea da.

Ba al da zuzenbiderik? Nun ote da? Zuzenbide gutxi eta ez-zuzenbide ugari nun-nai. Zenbat aldiz ukabilkan edo boxeoan arrigarrizko gauzak ikusi ez ditugu? Batek irabazi eta merezi ez duena txapeldun gelditu. Eta ontaz esan bezela, beste gauz askotaz berdín esan genezake.

Pakean eta zoriontasunean bizi naí badegu zuzenbidea bear degu eta ez makur-bidea. Au da guzien arteko oñarrietako bat.

Lizarrusti

Príncipe de Viana, 1975, 116, urria, 3. or.

Bei errapea bai, adarrak ez

Egunero irakurri dezakegu izparringi eta aldizkarietan, eta bai entzun ere deadarra: «Nora goaz? Ez degu beñere olakorik ikusi: ainbeste lotsagabekeri, ainbeste lizunkeri, ainbeste billuzkeri, ainbeste lizunkerizti, ainbeste aldizkari eta liburu zikin, ainbeste ustelketa. Zertan daude erri agintariak? Ez al dituzte ikusten ainbeste itsusgarri zikinkerik? Zertarako ez dute erabaki artzen, eta debekatu eta zigortu lizunkeri guzi oiek? Kaltegarri eta ondapen da gure umiendako».

Auxe da, gutxi gora-bera, egunero entzun oi deguna. Arrazoia dezute. Bañan, ontasunak eta kalteak ikusi ditzagun. Goazen arira.

Nundik dator zikinkerik guzi ori? Nork dakar?

Usteltasun guzi ori erriz-erri eta baztarrak-bazter dabiltzan jai-aldilariak ('turistak') dakarte. Majo datorzkigu (Estaduari, guri ez) jai-aldilari oiek dakarzkiguten diru pilletak Erri-urreta ugaritzeko. Aurtengo udan bakarrik 36 milloi jai-aldilari etorri zaizkigu, gure erri baztar eta txoko politak ezagutzera, gure itsaso ondarretan bustitzera beren ur epeletan, gure eguzki goxo eta berotsu artu eta gorputz azala belztutzera. Esan dezaiegun jai-aldilari oiei ez etortzeko, debekatu dezaiegun gure laterrian sarrera. Ongi legoke ori. Orrela, lizunkeri guzia eta usteltasun guzia errotik, sustraietatik, aterako genuke; garbi biziko giñake; gure oiturak ez lirake nastu eta ondatuko.

Jarraibide elburukoa izango litzake ori; bañan nork kendu katuari kuskulluak? Nik uste, Erri agintariak ori nai izango luketela. Bañan ori kenduez geroz, bei errape gabe geldituko giñakela bei esnea jesteko, dirutza ederra laterri kutxetan sartzeko. Zer egin bada? Erri agintariak korapillo zail batez loturik daude.

Eder litzake isats batekin gure arteko zabarkeri guziak garbitzera; bañan or dago koxka. Bei errapea konbeni bazaigu, kaltezko gauzak ere geren gain artu beariko, bei adarrak ere ontzat artu beariko. Ez dezakegu berexi eta on zai-guna bakarrik artu, baizik eta mintzen gaituzten gauzak ere bai. Ala beariko.

Ezkerra

Príncipe de Viana, 1975, 116, urria, 3. or.

Indarrez jabetzeak, lapurketak, erailtzak

Oituta gaude... Gaur egunean ez gaitu arritzen. Nun-nai irakurri eta entzun oi ditugu olako gertaerak. Eta ez emen bakarrik; baita mundu guziaz zear ere. Zenbat eta zenbat gogora dezazkegu... Batean, diru-etxe bat dala, bestean, bitxi sal-toki bat dala, eta abar. Baztar guzietan lapurketak, ebasketak, indarrez jabetzeak.

Eta zergatik gerta dira gauz oiek gure egunetan? Nun da gaur arrigarri eta kaltegarri oien sustraia? Nork egiten dituzte lapurketa oiek? Batzuetan, lapur oiek erri eta iri baztarretan jaiok dira; etxe txarretan, txaboletan bizi diranak, sendi galdu eta ondatuetan aziak, txikitandik asi eta beti etxetik kanpo bizi diranak, aur ziranean ikastetxetara joan ez diranak, beartasun gorrietan eta gosez azi diranak.

Neonek orrelako etxe asko ikusi ditut Madriden. Zenbat aldiz ikusi det: orrelako etxetxo txiki batean gela eta sukalde bat besterik ez senide eta sei umiendako. Eta an konpondu bear jan, lo eta guziaz egiteko. Kanpoko atea erdi zabaldu eta atzea ezin itxiz. Zer ikasi dezakete ume oiek? Gauz onik ez.

Beste batzuetan, lapur oiek, naiz ongi aziak izan, naiz etxe onekoa izan, ogen eta zuzengabekeri asko ikusi dituzte beren inguruan. Onak ziran, bañan gero okertu dira. Ikusi dute ez dutela bear luketen azkatasuna, ez dutela bear luketen bizi-bidea, ez dutela bear luketen bizitz alai eta osasuntsua; beti estutasunean, egunean eta estuago lepoko lokarri korapilloa, egunean eta zor aundiagokoekin, egunean eta zallago bizitza, egunean eta garestiago gauzak, egunean eta lan geiago egin bear ala-ola bizitzeko. Atzo bat gusta zana, biar bi balio. Eta lan-sariak beti azpitik, beti txikiak, beti motxak, puxkaka-puxkaka altxatzen dizkigute. Eta gero esaten digute urtean ainbeste eta ainbeste garestitu dala bizitza, badakigunean ori ez tala egia, baizik askoz geiago garestitu dala. Eta bitartean, ainbeste alper beren inguruan. Batzuk ainbeste eta beste batzuk ain gutxi. Batzuk lanean lerturik, izerdi paltsetan, eta beste batzuk berriz itsas ertzetan, jostaketetan, oturuntza bikañak egiten, an-emenka zelai eta landa-etxe bikañak. Eta besteok gauza guzietan zergak, egunean eta geiago. Erri xeak diru eman abenda-erri kutxarako, eta jakin gabe zertarako ematen duen dirua, zertan erabiltzen dan dirua; errira ekartzen diran eta erritik eramaten diran gauzetan beti zorretan; egunean eta zor aundiagoak; eta beti beera.

Erria ez da itxu. Gizarte ezberdintasun eta ogen guzi oiek ikusten ditu, eta amurrarazi egiten du. Ezta, bada, arritzekoa an-emenka ikusten baditugu ainbeste lapurketa, ainbeste indarrez gauzetaz jabetze. Ez errundu lapurrak, gizarte berbera baizik. Eta ontan gauzak oker dijoazte, bide txarra daramagu. Gerrikoa estutu bear badugu, guziok estutu dezagun, ez batzuk bakarrik.

Ondapen ereileak

Ebanjelioak dionez, «ereile bat azi ona ereitera atera zan...».

Nekazaritza bizitza latza beti. Ereintza, lan gogor eta neketsua. Lendabizi, lurra landu bear: lurra arrotu, lur-zoiak apurtu, belar gaiztoak zañetatik atera. Ondoren, azi ona erein. Baña askotan, ereile on eta zintzoa lo dagon bitartean, etsaia, ereile gaiztoa, gezur-ereilea sortu izan oi da, azi on tartean azi txarra, zalgi belarra, olua ereiten.

Baña ereintza gaia ez dugu artu bear bakarrik nekazaritza gaietan; baita gogai gaietan ere.

Euskalerrian beti ereile onak izan ditugu, geren gurasoengandik asi eta erakusle, zuzendari eta erri agintarienganaraño. Euskalerrria beti ondo landua izan da, eta arnari bikañak eman ditu gai guztietan. Euskalduna beti langillea, beti zintzoa, beti zuzena, beti uskurzalea, siñismenduna izan da.

Baña aspaldi batetik onera, zirikatzaileak sartu zaizkigute gure etxean, nastu eta ondatu naiean; zapatzea nai digute, ondatu nai digute, lege gaizto eta makur eta oitura zikiñekin.

Atzerritik, suge ibillera antz, sator langilleak, azpi jaleak, sartu zaizkigute, eta or gabiltza nasturik, burua galtzeko zorian, ezin biziz, estu eta larri. Urte latzetan bizi gera. Saiatu gaitezen uztarri neketsua gure lepo gañetik kentzen.

Eutsi euskal nortasuna, euskal izaera, euskal oiturak. Beti uztarpetuek, beti lotuak izan bear? Ekaitzak aterpea dakar. Ez etsi. Ekin eta jarrai. Atertuko du; argia ikusiko dugu; gure etsaiak garaituko ditugu, azke izango gera, eta Euskalerrria berriz Euskalerrri izango da.

Ezkerra

Príncipe de Viana, 1976, 119, urtarrila, I. or.

Mingaña

DAUKAGUN GAUZARIK OBERENA ETA OKERRENA

Mingaña... Gerekin nora-nai daramagu. Edozein gauzetarako bearrezkoa zaigu, eta ala darabilgu. Mingañaren bitartez, gauz aundiak, ikaragarritzko gauzak egiten dira. Ez gaitezke mingaña gabe bizi. Mingañaren bitartez, elkar ulertzen gera, elkarrekin itz egiten degu. Mingañaren bitartez, geren barrunbeak agertzen ditugu, dauzkagun oñaze eta miñak sendagilleari agertzen dizkiogu, sendatu gaitzan. Mingañaren bitartez, aurtxoak amari jakiak eskatzen dizkio. Mingañaren bitartez, aurtxoak goxoki, laztanki, 'aita', 'ama' itzak esanaz, bere gurasogandik babesa eta maitasuna eskatzen ditu. Mingañaren bitartez, besteen ontasunak goraiпатzen ditugu. Mingañaren bitartez, Jaungoikoa goraiпатzen degu. Mingañaren bitartez, zeru-lurren aunditasunak aitortzen ditugu. Mingañaren bitartez, geren txikitasuna eta ergeltasuna aitortzen degu. Mingañaren bitartez, gauzak gozutzen ditugu. Mingañaren bitartez, gauzak ikasten ditugu.

Zeñen zurki egin zuen ipui-idazle ospetsu izan zan Esopok, bere nagusiak, dirua emanaz, arkitzen zuen jakirik oberena erosteko agindu zionean... Bai; mingaña ekarri zion. Eta berriz bialdu zion jaki oberena erostera, eta berriz ere mingaña ekarri zion. Nagusiak, arriturik, galdegin zion:

- Berriz ere mingaña ekarri didazu?

- Bai; mingaña da munduan dan gauzarik oberena, zion Esopok.

Ala izan ere; bañan... goazen aurrera.

Mingaña... suge miztoa. Gerekin daramagu munduan dan gauzarik okerre-na. Ezin dezakegu azkatu. Bai latza, bai pozoitsua dala mingaña... Oso kaltegarria. Erauntsi eta lurdardara guziak baño miñ eta kalte geiago egin dezaken gauza. Ondamen guzien oñarria mingaña... Estalita dago, eta orrexegatik bere ortzakada arrisku geiagokoa, kaltegarriagoa. Mingaña dala bide, Jaungoikoaren Semea ukatu, saldu eta gurutzean iltzez josia izan zan. Mingain ustela dala bide, Jaungoikoa ukatu eta biraotzen da. Mingaña dala bide, datozte munduan diran gezur, nasketa eta guda guziak. Mingaña dala bide, sortzen dira anai-arreba arteko berekoitasun, griña gaizto, gorroto, ezin ikusi eta ainbeste eta ainbeste gauza zikin. Mingaña dala bide, sendi arteko sator-lan guziak. Mingaña dala bide, ezkontza-austeak. Mingaña dala bide, geren senide, lagun eta ezagunen salketak. Mingaña dala bide, lege austeak eta ondamen guziak...

Bai... Suge mizto pozoitsua estaltzen degu geren baitan. Eta nola darabilgu! Motz lotuko bagenu... Bañan or dabil, aske, txerriak bezela zikinkeri eta loikeri guzian.

Zenbat jakinduri Esopo ipuilari ospetsuak bere nagusiak agindu zionean erosteko jakirik okerrena... Mingaña ekarri zion. Nagusiak, arriturik, galdegin zion:

- Nolaz ori? Berriz mingaña? Len esan didazu, munduan dan gauzarik oberena mingaña dala. Zertan gera?

- Bai; alan da. Mingaña tarte eta zirritu guzietan sartzen da. Dena zule-tzen du; dena ondatzen du.

Begira dezagun nola erabiltzen degun mingaña: onerako ala ondamenera-ko.

Lizarrusti

Príncipe de Viana, 1976, 119, urtarrila, 3. or.

Ontasun banaketa?

Dirutza eta lana. Bata bestea gabe ezin izan. Aberatsa ezin bizi langillea gabe. Langillea ezin bizi aberatsa gabe. Batak bestea bear.

Landunak zertarako ditu bere lantegiak, bere lan-olak, ez baldin badu nork eraman, nork lan-egiñarazi eta nork mugiarazi? Berak bakarrik, iñoren laguntza gabe, jasanarazi lezazke? Alperrik lituzke. Landakiak erdoitu eta lantegia pipiak jo eta ondatuko litzake. Langillea bear, bada, bere dirutza ugari-tzeko. Bestelaz, zertarako luke bere dirutza?

Eta langilleak zertarako lituzke bere beso zaintsuak, ezpadu nun lan egi-tekorik? Zerekin jango luke? Nola bizitzeko litzake lan egin bear, bada?

Bat bestea gabe ezin bizi.

Eta au ala izanik, zertarako ainbeste gora-beera, ainbeste lanarte, ainbeste opor, ainbeste istillu lan gaitan nagusi eta langille artean? Zer dakarkigute naspil guzti oiek? Gauza onik ez. Oiek ez dira pake eta zorion bideak. Orre-la ez da aurrerapiderik, kalte eta ondapenak besterik.

Daukanak, geiago nai; eta ez daukanak, lasai bizitzeko aña nai. Eta guziak gose. Aberatsa ez da diruz asetzen. Langilleak, apurrak ematen bazaizkio mai-peko txakurrari bezala, ez du bizitza gozatzeko eskubiderik. Zar-bidera elduz gero, eriotza gero. Eta orrek langillea amurrazi eta sutzen du.

Zergatik bi alderdiek ez elkar-izketan sartu eta ontasun banaketaz eraba-ki artu?

Eziñekoa dela? Bakoitzak gerenkoa bagera, bai. Baiña, esaerak dionez: «Nai izatea, al izatea da».

Orduan ontasunak ugariago eta obeagoak izango lirake. Guziak adiskide, maikide izango giñake, elkarren gorroto gabe.

Lizarrusti

Príncipe de Viana, 1976, 120, uztaila, II. or.

Zer da “politika”?

ERRI-ZAINTZA, GIZAKERA, ERATASUNA

Zer da ‘politika’? ‘Politikoak’ izan bear gera?

Beti entzun oi degunez, politika erri-zaintzat erabiltzen degu; erri agintarien gora-berak, erri agintarien elkar izketa leun, goxo eta gezurtiak, erri agintarien arteko konponketak. Bañan, ori politikaren arpegi bat, besterik ez da.

Egiatzko politika bakoitzaren eratasuna, bakoitzaren gizakera da. Ontan, bai, politikoak izan bear gerala guziok; eta ez degu ortan begiratzen.

Beste politika gezurtia da. Erri agintarien artean, gaur konbeni bazaie era batera ibilli, eta gauza bat ola dala esatea, biar konbeni ez bazaie, beste alde batera joko dute. Atzo txuria ziotena, gaur beltza dala esango dute, eta bi aldetarako arrazoiak aterako dituzte. Eta guk diogu: orduan, atzo gezurra esan zuen edo gaur gezurra esaten du. Ez da besterik.

Bañan, egiazko politikan, gizakeran, eratasunean, ez da olakorik. Gizakera betikoa da, egiazkoa da. Eta egunero ibilli bear degu geren artean. Beste politika utzi dezagun artarako ikasi eta artara jarrita daudenendako: erri agintariendako. Aiek gezurtiak izan ditezela; gu, egitiak izan gaitezten.

Zenbat aldiz gerta oi zait eta, bai, zuei ere: elkar-izketa bero aldi batean, ikusi det bestea ez tala atzera itzultzen, ez tuela atzera jotzen bere gauzak ikuste-eratik, naiz arrazoi asko eman. Orduan zer egin? Itzaldiz aldatu beste alde batera jo, beste edozein gauzaz itz egin, edo, ez asarratzeagatik, besteari arrazoi eman, naiz geren baitan ez siñistu, ez uste izan bestea egi garbian dagola, baizik uts egiten duela.

Eta norbaiten izakera ezpazaigu konbeni, itz gutxi erabilliko ditugu arekin; ez dizkiogu geren barrungo gauzak, geren buru-austeak, gerta zaizkigun gauzak nolana agertuko, adiskide maite bateri agertuko genizkioken bezela; azalez eta gainka, bakarrik, itz egingo diogu.

Eta naiz gauza batez, gertaera batez, egia jakin, gerendako gordeko degu, ez degu ezagutzera emango, konbeni ez dalakoz edo agertzea arriskugarri dalakoz, kalte ekarraraziko digulakoz. Eta geren inguruko, geren lagun eta ezagutuen artean berexiko ditugu geren kidekoak diranak, gutxi gora-bera gure oiturazko eta antzekoak diranak.

Au da, bada, guziok erabilli bear degun bizitze-politika, erabilli bear degun eratasuna.

Euskaldunaren izaera

Euskalduna beti zintzoa, beti leiala izan oi da. Bai norberaren gauzetan, bai besteenganako gauzetan ere. Euskalduna ezta beñere alperra izan; beti langillea. Ez besteen aurrean bakarrik, baita bakarrik dagonean ere. Euskalduna bere gain artzen dituen eginbearretan lepaldun da. Badaki zer egin bear duan, eta artan saiutzen da. Ez du beñere uko egiten. Euskalduna osoa da, ez ustela. Ipar-Ameriketako agintari eta artaldunek oso ondo ezagutzen dute euskaldun izaera eta zintzoera, artzaitzarako batez ere euskal artzaiak eskatzen dituztenean. Naiz mendi eta zelaietan bakarrik egon artzaintzan euskal gizonen bat, euskal artzaia, badakite bere artaldeak artzaiarenak balira bezelaxe zainduko dituela. Ortan ez dauka zalantzarik. Euskaldunak izen aundia du Ipar-Ameriketan; ustela balitz, ez luke inork nai izango, ez luke deituko.

Zenbat aldiz entzun izan oi dut: «Euskalduna ez da agerkaia; bakartia da. Baña bein uste ona artu ezgero, ez duzu adiskide obeagorik bizitza guztirako». Eta egia da benetan.

Eta ala izanik euskalduna, ala nai ditu izatea besteak ere. Ez du erooten jende alperra, jende ustela. Euskaldunak ez du itza besterik bear. Naiko du itz ematea. Euskalerrietako merkatuetan egunero gerta dana da. Badira bi base-rritar bei edo beorren bat sal-eroste artu-emanetan. Soka-tiran bezala ikusiko ditugu, batek alde batera, besteak bestera: «Ainbeste diru eskatzen dut». «Ainbeste diru ematen dizut». Eta abar. Eroslea, nai ez luken antza agertuz, aldentzen da piska bat, baña berriz itzultzen da beiagana, ederra, bularpezaintsua, isats mea eta errape onekoa dalakoz. Atsegin zaio beia. Eta diotsa bere baitarako: «Eta nik utzi eta besteren batek eramaten badit?». Eta zearkazearka, bei aldera bueltatxo bat ematen du. Azkenerako, dio saltzalleari: «Azkenez, ainbeste diru ematen dizut. Ondo al zaizu?». Sal-neurri batean elkar gelditzen dira, eta ez da geiago bear. Ez da bear ingietan (paperetan) kontratu eta letrak izenpetzea. Itz eman da, eta naikoa da. Esan oi dan bezala, «euskaldun itza da». Geiago ez daiteke esan. Itz eman duan euskaldunak badaki zertara beartu dan. Eta itz emana, kontratu bat izenpetzen duanak baño zintzoako beteko du. Ala da euskalduna.

Era berean begiratzen ditu besteen gauzak ere. Eginbearren baterako itz ematen badu, badaki zer bete bear duan. Eta bai zintzo bete-bearra egin ere. Eta alakoak nai lituzke besteak izan ditezen. Baña zenbat alperkeri ikusten du bere inguruan, zenbat jende ustel, zenbat tipula, zenbat fiatu ez daiteken jende, zenbat maltzur!

Baña ez oinpetu, ez zapatu euskalduna, bere nortasuna, bere izaera... Gaiñerakoan lertuko da eta barra-barra, ezker eta eskubi, su eta ke, aurrera dator-kiona garbituko du. Ontan, Gobernuak begiratu bear luke norekin dabillen: ez jende ustelarekin, baizik jende garbiarekin, jende zintzoarekin, jende langillearekin. Eta zaitu, gorde, babestu, zintzotasun ori.

Eta guk, euskaldunok, zer egin bear dugu? Saiatu, eta guzien gain sendotu eta gorde gure nortasun eta izaera. Nortasun onen oñarria izkera da. Izker-ra galdu ezgero, guzia ondatu da. Agirian dago. Izkera da guzien lokarri eta uztarri.

Lizarrusti

Príncipe de Viana, 1976, 122-123, iraila-urria, 4. or.

Referendum

ATZO, ERENEGUN ETA BIAR GAUZA BERA?

España guztian bi "referendum" izan ditugu orain arte. Eta zer esan nai du "referendum" itz orrek? Autespena esan nai du; zerbait autatzea.

Len esandako bi autesprenak 1947 eta 1966ko urteetan izan ziran. Eta zer autatu zan autespren aietan? Ez dakit zuk, irakurle, jakingo duzun zer autatu zan bi autespren aietan; nik, beintzat, ez dakit; ez dut beñere jakingo ere; eta ez dut uste españiar geienak jakingo ere. Esan ziguten BAIETZ edo EZETZ autesteko, eta kito. Eta geiago oraindik: norbait arrapatzen bazuten ezezko txartelak zabaltzen edo ezetz autesteko esaten, bazekien zer etorkion ondoren: zemaizten zaion lantegian lansaria kenduko ziotela, lantegira autatze agerpena ereman bear zuela eta abar.

Beste gertaera au Madrideko Moratalaz alderrian gerta zan 1966ko autespenean. Nere lankide baten aita maiburu zan; semeak, onen emazteak eta beste bost senidek ezezko txartela sartu zuten mai gaiñeko kutxatxoan. Eta gabeen semeak aitari:

- Aita, ezezko txartel asko izan al dira?
- Ez; bi bakarrik.
- Ori ezta egia. Geiago izan dira.
- Ao ixillik. Ik zer dakik? Ez al diat nik jakingo ik baño obeki, maiburu izan banauk?
- Eztala egia esaten dizut. Beintzat zazpi ezezko txartel izan dira: bat nerea, bestea nere emaztearena, eta beste bost nere lengusuenak. Guziok ezezko txartela sartu bait dugu...

Ori al da azke autespena? Nork artzen du autespena egiteko erabakia? Erri agintariak. Eta nork izendatu ditu gure erri agintariak? Erri biztanleak noski? Ez orixe. Beren kidekoak, ator urdiñak edo izan ziralagatik. Eta ez diote España "democrática" dala, demokrazi garaietan gaudela? Eta España lendakariak urrutikuskintzan esan zigun urrillan, España guztian, autespren nagusia izango genuela. Zertarako? Atzo bezala egiteko?

Autespen nagusia izatekotan, autespren agiria izan bear litzake edozeñek aztertu lezakeana, ez antolatzen dutenak bakarrik. Eta onela izan leike: norberaren agerpen txartelean autapidea idatzita, fotokopia bat aterata. Eta gañera, zertaz egin bear dan autespren nagusia erriari argi eta garbi eta xee ezagutzera emanaz.

Orain arte esaten zaizkigun gauzak itz leun eta goxoak besterik ez dira. Beti asko eskeñi eta gutxi eman. Guk bear eta nai duguna, itz gutxi eta egipen geiago da. Eskeintzaz asperturik gaude.

Lizarrusti

Príncipe de Viana, 1976, 124-125, azaroa-abendua, II. or.

Ez da azkatasunik

Gizakumeak ez du azkatasunik. Bizitzan, gizakume zenbaki bat besterik ez da. Jaio orduko billatokietan billakatzen da. Lotuta jaiotzen da. Bizi dan arte, badu ere norberaren agerpen txartela, beatz-begi aztarnarekin. Iltzen danean, il dalako agerpen txartela jasotzen zaio ere. Zertarako du gizakumeak Jaungoikoak eman dion gauzarik garrantziena: azkatasuna? Eta nor da, zer eskubide dauka gizonak, gizonari Jaungoiko emaleak kendu nai etzien ontasunik aundiena kentzeko? Gogai gaitan, muga; lankizunetan, muga; eta edozein gauzetan, muga.

Gizakumea, nora-nai jotzen badu ere, mugaturik arkitzen da, korapildurik dago. Langilleak ez dauka eskubiderik bere kidekoekin elkartzeko eta dagozkien sindikatuak antolatzeko. Jartzen dioten sindikatuan batzartzera bearturik dago. Eta zertarako ditugu dauzkagun sindikatu oiek geren bakoitzaren eginkizunak ez badezazkegu beñere zuzendu eta osatu? Gaurko langilleak ez dauka bear lukean laguntza eta babesa. Gobernu sindikatuak landunen sindikatuak dira, ez langilleen sindikatuak, ez azke sindikatuak.

Eta "convenio colectivo" diotsatenak zer dira? Gezur bat besterik ez. "Convenio" oien bidez, langilleari goxo bat ematen zaio gosea luzatzeko. Ez dugu orren bearrik. Bear dan bezala bizitzeko aña lan-saria nai dugu. Eta azken legetan agintzen danez, debekaturik daude lan-aldi ondorengo lan orduak ere. Eta nor bizi leike dauzkagun lan-aldi sariekin? Oiek ez dira konponketak. Zergatik ez jo erroraiño, batez, eta bear diran bezala gauzak zuzendu?

Eta "seguro obligatorio de enfermedad" diotena zer da? Beste orrenbeste. Zergatik "obligatorio" (beartua)? Nun da gizakumearen azkatasuna?

Egunkarietan zer edo zer idazteko ere loturik dago, debekaturik dauka, ez dezazke bere gogamenak agertu. Ez dezake aztertu eta epaitu erri agintarien auzilanak. Eta zergatik ez epaitu gure ordezkioan bait dira, gure diru eta ontasunen banakariak bait dira.

Jakintza billakatzetan ere muga jartzen diote. Konbeni zaiena bakarrik barrendu dezake. Jaioterri batetik bestera joateko ere igarobidea beariko duzu; bestelaz ezin. Edozein batzarre egiteko, lendik baimena eskatu bear. Eta konbeni bazaie, baimen ori debekatu egingo dizute. Orduan noren mendean gaude, zertarako dugu Jaungoikoak emandako azkatasuna?

Ez gera abere; azkatasunduna gera, eta azkatasundunari dagokion bezala bizi nai dugu. Ori irixten saiatu gaitzen goikoak, bekoak eta erdikoak, guziok elkarturik. Batasunean dago indarra; berextasunean, berriz, indargea.

Apaizgaiak

Apaizgaiak len, apaizgaiak orain. Eliza Ama Santaren lengo oitura eta oraingoa. Eliza Ama Santa ezin zar izan, ezin atzera gelditu, berritu egin bear.

Negargarria zan orain dirala ogeiren bat urte arte gerta zana zenbait apaizgaiekin, batez ere lekaide etxetan. Amar, amaika edo amabi urteekin lekaide-etxetara sartzen ziran. Adin ortan zer daki mutiko koxkor orrek zer dan bizitza, zer dan mundua, zer dan apaiztasuna? Gai auetan itsu dago oraindik. Eta itsutasun ortan biziko da amabi urte igaro arte, apaiz egin arte. Etzan errira, bere etxera, joaten ez Eguerri egunetan, ez Aste Santu egunetan, ez udako lanarte egunetan ere. Etzituen ezagutzen gizarteko nekeak, bizitzaren laztasunak, gogo-uts arriskuak, gogo zirikaldiak...

Zergatik ez bizi gizaratean, zergatik ez bizi beste giza semeak bezala, emakume artean, edozein ikuskizun ikusiak (bai on eta bai txar), zimeltzeko, gogortzeko, gero indartzeko? Gero ez al du bizitza ori eraman bear? Alaz ere, zuzendariren batek lokarri auek zerbait askatzen bazituen, ori gaitz-bidetzat artzen zan. Eta apaizgaia beaxtasunean, irudidun bizitza batean, azia zan. Eta bizitza au kaltegarria gero erabilliko zuen bizitzarako. Apaiz egin, eta bat-batean bestaldeko bizitzari jarraitu bearke zion. Eta nolaz aurre egin? Ezin. Nai eta nai ez, dinbili-danbala ibilli bearke askotan: emen erori eta an altxatu. Eta apaiza beti zutik ibilli bear bizitz estutasun artean, beti zintzo, beti artaldearen zuzendari eta erakusle. Ez al da negargarriagoa gero alaka egitea?

Ortan zegon utsa eta okerra. Edozein gaietan, ez da naiko ezagutzea baka-rrik bakoitzaren gaia, baita besteen gaia ere, besteen joka-bidea, besteen utsak eta okerrak biurtu, zuzendu eta berenganatzeko.

Zergatik, ba, ez utzi apaizgaien apaizgaietan sartze ori ogei urtetaraño, esate baterako, eta orduan munduko biziera eta lakioak ezagutu ondorean, zer erabaki artzen duan jakin ondorean, apaizgintza bere gain artu duena apaiztegietan sartu? Baziran garai artan orrela egiten zuten zenbait. Eta bai bikañenak eta jatorrenak izan ere!

Eliza Ama Santa, bada, gaurkotu egin bear gai auetan. Eta ala egin ere. Ez al da ohea apaiz asko eta argalak izan bearrean, gutxiago baña sendoagoak, sutsuagoak, artzai zintzoagoak izan? Orduan apaizak esan lezake, Jesukristori jarraituz, berak ziotsana:

«Mundu ontan bizi naiz, baña ez naiz mundu ontakoa. Gatza naiz, giza-semea -onen gogo- usteldu ez dedin».

Noiztik eta nundik dator euskera?

Noiz jaio zan euskera? Nun jaio zan euskera?

Ona emen bi galdera erantzunik izan ez dutenak. Lenagoko gizonen jakintza asko saiatu da ontaz argi egin naian, eta badabil orain ere lanbide buru-autsgarri ontan. Gizon jakintsu aipagarri asko dira (eta ez bakarrik etxe-koak, baizik eta batez ere atzerritarrek) ordu asko darabiltzkitenak lan da lan gai ontan. "Paleolítico superior" deitzen duten aldi artan itz egiten zala azterkatu dute, bañan oraindik ez dute jakin noiz izan zuen sortzea. Eta ez uste "Paleolítico superior" aldi ori oraingoa dala. Aldi orrek milloi urte asko ditu izan zala. Gutxienez amar milloi urte bai. Eta izkuntza bat ezta nolanai sortzen; urte purrusta igaro bear da izkuntza bat sortu eta sendotutzeko.

Euskaldunak, bada, ez gera oraingoak, aspaldikoak baizik. Odol zarra daramagu geren zañetan. Ardo zenbatenez zarrago eta obeagoa, goxoagoa. Orrela ere gure odola, gure izaera. Ardo zarra, maiteki gordetzen da. Guk ere gure odol, izkuntza eta izaera sortzea eman ziguten gorputzak bezela gordeko ditugu. Orregatik naigabea ematen dute euskal odola eta abizenak dauzkaten batzuk euskeraganako agertzen duten ezetztasuna eta ajolagabekeria, eta okerra dana, gorrotoa. Orrekin beren zañetako odola ukatzen dute, beren gurasoak ukatzen dituzte. Seme endekatuak eta galduak dira.

Eta euskerak ba ote du beste izkuntzaren batekin berdintasuna eta antza? Oraindikan beintzat ez degu jakin.

Len esan bezela, or dabilta gizon jakintsuak lan da lan ortaz argi egiteko naian. Ziotenez, Kaukasi, Europa erdiko eta goizaldeko izkuntza batzuekin bazuen euskerak bere antza pixka. Ala iduritu zitzairen, bañan ezta alakorik, orain arte beintzat. Itzen batean edo beste baliteke. Esate baterako, Japonarren izkuntzan badute iri bat Yokoama deritzana. Japondar neskatilla bateri galdegin nion nik bein zer esan nai zuen itz orrek. Eta erantzun zidan: «*Yoko* itzak Jaungoikoa esan nai du; eta *ama* itzak, ama esan nai du». Eta nik: «Orduan, euskerarekin badu antza zuen izkuntzak. Euskeraz, Jaungoikoa da *Yainko*, eta amari *ama* esaten diogu». Ortik *Jaungoikoaren Ama* eta *Yokoama* berdiña. Bañan antza orrek eztu guzia esan nai. Orregatik, euskerari "lengua isla", uartea, deitzen dute munduan diran izkuntza guzien artean bakarra dalakoz, iñorrek in antzarik ez duelakoz. Esan genezake, bada, euskera paregabea dala.

Orregatik saiatu bear giñake euskera gordetzen, eta aztu bai zaigu, euskera ikasten. Guk dauzkagun erraztasunak askok balituzkete... Erakusten da euskera Zaragoza, Paris, Alemaniako Gotinga eta Pekingo Ikastetxe Nagusi

edo Unibersidadetan. Guk ez degu ara joan bearrik. Gure inguruan, gure artean dauzkagu erakusleak. Aspaldiko batean Sueziako Lund iri Ikastetxe Nagusian irakaslari zegoen Nils M. Holmer gizon jakintsu eta adiskideak esaten zidan: «Zuek, bertan jaio eta bizi zeraten euskaldunok etzarete konturatzen zer urreta eta dirutza daukazuten euskeran. Ez dezute bear aña onesten». Eta zer erantzungo nion? Arrazoia zeukala. Kanpotarrak ainbesteko onespenean badute euskera, euskaldunak aiek baño gutxiago izango?

Eta nundik dator euskera? Noiz sortu zan ez baldin badakigu, nekez jakin genezake nundik datorren edo nun dan euskeraren abia. Beti esan oi izan zaigu euskaldunak, bai itzen bai liburuetan, Euskalerrria deitzen degun txoko ontan izan dala, eta Naparrun dirala eunen bat urte, Tafallako inguruetakoaan ere euskera itz egiten zan eta baztertu da euskera Naparrun, mendi tartean estali da. Gure eginbearra? Ekin eta jarrai euskera bear dan lekuan jartzen. Baditugu euskeraz ongi dakiten gurasoak: baditugu ere euskaldun ikastolak euskera ikasi dezagun ikastetxeak. Ez utzi biarko; asi gaur lanean gure umiei euskera erakutsiz.

Lizarrusti

Príncipe de Viana, 1977, 132-133-134, uztaila-abuztua-iraila, 5. or.

Beartsu-salketa, menpeko-erosketa

EMAKUME TXURI-SALEROSKETA

Etxeko-andrea egunero joaten da bakura (merkatura) jakiak erostera. Diru pilla eraman eta jaki gutxi etxeratu. Jakiak beti gora, dirua berriz beti exkax. Egunen batean ikusiko degu etxeko-andrea esku-gurditxo bat diruz betea daramala erosteko, eta etxerakoan eskugurditxoa baztar batean utzi eta erosketa eskuetan dakarrela.

Bañan ez gera ortaz mintzatuko gaur. Badira gauza okerragokoak munduan.

Garai batean, jakiña zan menpeko sal-erosketa. Orain ere gerta da ori, naiz ez ainbestekoa izan. Jauntxo bakoitzak menpeko asko zituzten beren baitan. Abereak bezela erabiltzen zituzten: gaur erosi eta biar saldu. Orduan gizona etzan bere buruaren jabe. Eliza Ama Santari eskerrak, asko itzaldutako gizona oitura txar eta apalgarri au. Gero ere, batez ere afrikar gizon beltzekin salerosketa aundiak egin dira. Amerika guzia, zear ikusi dezazkegu gizon beltzak; Afrikatik eramanez dira guziak an menpeko izateko.

Len esana, gaur egunean ezta orrelako salerosketarik. Bañan badakigu gizadi bakoitzak bere oitura berexiak dituala. Okerragoa ote gaur egiten dana? Badakigu, batez ere errietan, ogibide gutxi dala. Neskatoak aberatsen etxetara mirabetzera joan bear... Badira ortarako lan-olak (ofizinak). Atzerrian asko irabazten dala eta, arako bidean jartzen dituztenak. Ostatu eta bideko gastu guziak ordaintzen dizkietenak... Eta, bein Ingalaterran edo beste edozein lekuetan, geroz zer? Zer lan da esaten ziotena: etxe garbiketa, aurzaintza? Bai zera! Neskatoa, bizi-bide on bat bazuelako ustean, bere etxea utzi eta bidean jarri da, gizajoa, itxuturik, zer bizimodu eskeñiko ote dioten jakin gabe. Bere gorputza besteen eskuetan jarri bear, aragikeriatan ibilli bear, bizi nai badu. Emakume galduen lana egin bear, nagusi aberats eta dirudunaren naia egiñez. Ordu ezgeroz emakume galdua da, griña zikiñen jostailua.

Eta zorigaitz guzi oien oñarria, bizi-bidea, ogi-bidea...

Bai ogi-bideak, geren umeak jatera eman eta azitzeko beartasunak buruz eramaten gaitu leze illun orretara. Gaur, langillea, beartsua, aberatsaren mendean dago. Aberatsak nai duena egin bear, nai eta nai ez. Aberatsen errape ugaritsua gera gu langilleok, beartsuok. Geren indar eta odol-ixurtzearen

ordez, apurrak ematen dizkigute, gosez ez iltzeko aña dirua. Etzaie konbeni beartsuak iltzea; bestelaz, nork emango lioke ainbesteko dirutza? Bai nekazari, bai arrantzale eta bai edozein langillek ez dauka zerekin bizitzekorik. Beti aberatsen mendean bizi bear, egia da.

Bañan ori ezta arrazoi abereak bezela bizitzeko. Gizakiak gera eta gizakien gisan bizi bear giñake. Badira landak, zelai zabal esituak, eizean ibiltzeko basoak, beren basa-pizti eta guziekin, eizean eta jolasketan ibiltzeko dauzkatenak. Gero esango dute “desarrollo industrial”, “inversiones de capital extranjero”, “desarrollo turístico”, “creación de puestos de trabajo”, “progreso económico”, eta makiña bat itz polit. Bañan norendako? Aberats batzuen dako bakarrik. Eta nola? Beartsuei, langilleei abereak bezela lan egin araziz eta beren maietako ogi apurrak bakarrik emanaz, Ebanjelioko txakurrari bezela.

Lotsagarria da ori. Etxeko-andreak Jesukristoren arrai eta ogi ugaritze miraria egiten ez badu, nekez maia jarri lezake. Guk ez al daukagu jateko eskubiderik? Ez al gera gizakiak?

Eta munduan, jateko bakarrik al gaude? Ez al daukagu jatzeko eskubiderik? Eta etxe batean ez al da beste bearrik? Nork ordaindu aurren ikastetxe erakusketak, tximist-argia, ura, etxe-saria?

Bai, diru geiago bear dexente bizitzeko. Ez degu eskatzen arro-arro bizitzeko saria, bañan bai arrastakan ez ibiltzeko saria. Eta diru ori izan nai badegu, zer egin bear? Mandoak bezela, zamariak bezela, beti lurrera begira, lan eta lan, egunero amalau orduko lanean. Ori al da bizimodua? Menpekoan gera. Noiz arte iraunko du biziera onek? Orrela, gure izerdi eta lana dala bide, norbaitzuk, gure nagusiek, gure jauntxoak, ugaritu dezakete beren dirutza. Lasai bizi ditezke, arrantzan, eizean, jostaketan... gu lanean gauden bitartean. Ogi apur batzuk emango dizkigute, eta kito. Eta ixil egon bear, gañera. Bestelaz... anka emendik.

Eta gero diote umeak alde batera utzita daudela. Nola ezta izango? Umeak beren aita aste burutik aste burura bakarrik ikusten dute. Goizean, goiz lantegira joaten danean, umeak lo daude. Eta illuntzean etxeratzen danean, umeak lo daude. Aitaren berotasun gabe azitzen dira. Aitak ezin erakutsi, ezin zuzendu bear bezela. Bere etxean arrotza da aita. Lanean lerrein eta ondorean, zertarako gogoa izan dezate? Eztauka ezertarako gogorik. Afaldu eta len-bait-len oatzea artzeko gogoa besterik ez dauka, atsedean piska bat izan dezadan.

Menpeko salerosketa, emakume txuri salerosketa zillegi ez bada, legezkoa al da beartsu salketa, langille salketa? Zillegi al da ematen zaion saria? Ezta berdintasunik langilleak egiten duen lana eta ematen zaion sariarekin. Gero nastuketak, gorrotoak, lapurketak dirala... Eta nola ez izango?

Euskal mendigoizaleak

Betidanik izan da Euskalerrian mendi zaletasuna. Euskal gaztediak ongi ezagutzen ditu Euskalerriko mendiak: Anboto, Gorbea, Aitzgorri, Txindoki, Aralar, Ory, Iru Errege Maia.

Mendi zaletasuna kirol garbi eta osasungarria da, batez ere gaurko egunean. Gaur, bizi geran iri aundiak, ainbeste berebil eta lantegiekin, aize ustelaz beterik daude. Arraiak urpetik ur gañera ats artzera ateratzen diran bezela, gu ere ats artu bearrean arkitzen gera. Bular auspoak zabaldu eta bete bearrean arkitzen gera. Eta nun aize garbiagoa mendi gañetan baño?

Alaber, kirol ederra da mendi zaletasuna.

Gaur berri on bat datorkigu euskaldunendako. Amabi laguneko euskal talde batek (Erro'tar Xabier eta Kike de Pablo oien artean), loreillean, munduan dan mendi aundieneko gallurreraño igotzeko saioa egingo dute. Orain arte, bederatzita laterrietako amazazpi mendigoizale taldeek iritxi dute Everest mendi gallurreraño igotzea. Mendi au 8.848 neurkin jasotzen da.

Beste bein egin zuen saioa euskal talde onek. Orduan eguraldi txarra aurreratu zitzairen eta tontorreko 350 neurkiñeraño bakarrik urbildu ziran. Angel Rosen eta Uriarte izan ziran goren joan ziranak. Urrengo urtean, 1975garren urtean, asi zituzten oraingo saioaren gerkunak.

Rosen eta Uriartek gorriak ikusi zituzten 8.500 neurkiñetan. Uriartek eskuiko bi beitz izozturik zeuzkan.

Nepaldarren agintariek 1982ko urtean beste saioa bat egiteko baimena eman zieten. Ortan zeuden. Bañan, aurten Erri Arteko Kirol Nagusi Saioa Errusian dala eta, errusiarrek aurten Everestera igotzeko zeukaten baimena beste aldi baterako utzi dute. Eta aien ordean euskaldunek egingo dute.

Erro'tar Xabier eta Kike de Pablok badaramazkite zenbait illabete India eta Nepal aldeetan bear diran gauzak antolatzen, ea nola eraman dezazketen Lukla egazki kaietik 5.830 neurkiñean arkitzen dan etzauntzaraño bear dituzten amabi mille kiloko jaki, sendagai eta gañerako tresnak.

Ekin eta jarrai. Kemen izan zazute eta zuen gogoak bete ditzazutela. Everest gallurrean, zuen oroitzapenez eta zuen ekiñaldiaren sariz, mundu guztia- ren aurrean agertu eta ezagutzera eman dedilla Euskalerria- ren ikurriña.

Lizarrusti

Príncipe de Viana, 1980, 144, martxoa, 15. or.

Lan-oporrak Arjentinan

(ETXARRI-ARANATZEN ITZ EGITEN DEN MODUAN)

Iraillaren 16garren egunetik Urrilaren 9garren eguniaño Arjentina lurraldiyen ibilli nintzen. Ameiru luze orduko bidie egazkiyen. Ori bei dela ibillaldi polite! Ibiltzeko, ezta ez berebil (kotxe) ta ez tximist-gurdirik egazkiye bezelakoik. Aren ixiltasune, aren leuntasuna... Lasai ibiltzen da egazkiyen.

Amar kilometro t'erdí lur geñeti eta bedratzireun kilometro leisterka.

Madrideti atia giñenien egazkiko argiyek itzeli zittubien ikusteko zein polite den Madrid gaubez leñotatik ikusita. Ori bia ein zubien ee Brasilgo Bahia erria allaatu giñenien. Oso politte da Bahia re... Goizeko ordubiten allaatu giñen Bahiara. Jetsi giñenien, an zoon bertako mutil beltz bat akeita (kafie) berue nai zeneendako eskeintzen. Ta zein goxo sartzen zan kafie goizeko ordubiten...

An ordu bet ioondu giñen. Gio, iru ordu ondorien, Paraguayko Asunción irira allaatu giñen. Emen beste iru ordu t'erdí ioondu giñen. Ta goizeko bedratzi t'erditen atia giñen Arjentinako Buenos Aires aldía.

Arjentinan gee baa. Buenos Aires erkiye España guziye beño aundiyo da. Buenos Aires iriyek amabi milloi laun, gutxi gora bia, dazka; ta oso zabala da. Etxiek, geyenak, txikiyek die ta zabaltasun aundiye daka. Buenos Airesen ai giñela, esan noon nere emaztia:

- Ori den Buenos Aires. Iya ikusten denen nun akaatzen den... Eta etzan ikusten azkenko punte. Buenos Airesen (eta Arjentina guziyen), berebillek, bakoitzak nai deen bezela ibiltzen die, ez emen bezela. Aundiyenak, inyer geiyoo dakabienak die nausi. Oiek lerreiten ditubie bestiek. Ango polizien soñekuek pobriek die, ta jendie iaamaten ditubien autobusek ee zaarrak die.

Arjentina guziyen, goizeko zortziten baru austen debie, bazkaldu amabiten ta afaldu atsaldeko zortziten.

Buenos Airesen lan eitten debienak goizter jeitzen die. Aun batien, goizeko zazpi t'erditaako gelditt nintzen nere gurasoekin been etxien. Goizeko lauten, karriken aitzen nittuben jendiek izketan ta kotxiak ibiltzen. Esnaatu nintzen, erlejube beiratu neen ta erlejube ordubiten nakan, beñe erlejube geldittuta nakan. Lasterka jeiki nintzen, garbittu ta jantzi nintzen ta atezayaangana jetxi nintzen.

- Ze ordu da? -galdein noon.

- Lauek -iaantzun zuuten.

Beraakin pixkaat izketan ioondu nintzen ta gio kanpua atia nintzen.

Ni Montevideo karrrikako 84garren ostatu batien noon. Oñez, karrika ortako zortziereun (800) etxiaño fan nintzen; an Córdoba karrike artu neen ta zazpi mille (7.000) etxiaño fan nintzen. Karrika oi utzi ta bestiaat artu neen lengusuben etxiaño. Autza allaatu nintzenien, zazpi t'erdiyek zien.

Au esaten duuzubiet ikusteko zeñen luziek dien Buenos Airesko karrikek. Ba die amalau kilometroko karrikek.

Arjentina geyena mei bet bezin leune da. Orregatik ango berebillek (kotxiak) ba dazkabié eskuzko frenue, beñe ez debie ezertaako bier. Ori bee re kotxie ezta muitzen.

Bide berriyek luziek, leunek eta xuxenak die. Ibeiyeek ee oso aundiyeek die. Emengo ibei aundiyeenak anguen onduen errekek die. Arjentinako Iper aldien (Corrientes erkien) ioondu nintzen egunik geyenak. Paraguay ta Brasil onduen doo Paso de los Libres. Emendi Brasilgo Uruguayana erria askotan fan giñen, batzutan gauzek ioostia, launekin afaltzia ta tenisen jokatzia. Ta erri ontan uste ez neena afaldu neen meiku baten etxien: babarrun gorriyek; eta oso ongi egiñek geñiaa.

Beste aldi batien fan giñen Iguasuko “cataratas” (ibei saltuek) ikustia. Zazpireun kilometro die nengon lekutik Iguasua. Lau egun ein genituben berebilleen autza fateko. Oso ikusgarriyek die Iguasuko kataratak. Ikusten deneendako ez da neikue esaten doobiena. Ikusi ein bia jakiteko zeñen polittek dien.

Onuzkuen, bide berri bazterrien, indio batzuk ee ikusi genittuben biak eskuz eindako saski betzuk saltzen.

An dena erdias itz eitt debie, beño ango izkera emengue beño goxuo da, ta emen itz eitt diten itz asko an ez tie esaten, ta gauz askoi ez doobie emen bezela otseitten. Ango bazkaayek ee ez tie emengue bezelakuek. Ango zeleyetan bei ta txekor asko azitzen da. Orriatik aragi aso jaten da iketz erre geñetan erreta. Soruek oso zabalak eta aundiyeek die. Oitako soruatien iondu nintzen; zazpi mille ektariekue zen ta bost mille buru zazkan. Beye bei ta txekorrak oso merke dee. Oaiñ paatzen debien bezela, aziendadunek galdu eiten debie. Ango dirubek oso gutxi baliyo au. Beira zazubie: emen, Ipar-Amerikako dolar batek laurogei ta amasei (96) pezta baliyo au, gutxi gora bia. Ta an, dolarrak zazpi mille t'erdi (7.500) peso baliyo au. bazkaaye eitteko gauza batzuk ioostia fan nintzen ta mille peso (ango dirube) itzuli biar zizkibieten. Ta baakizubie zer eman zuubieten? Aurraandako karameluak.

San Martin jeyo zan etxien ee iondu nintzen ikusten. Etxe txiki ta zarra da. Esan zuubieten libuu batien nee izena jarri nai neen, ta jarri neen: Santiago Ezkerra Beltza, de Etxarri Aranaz, Navarra (España).

Au da, itz gutxitan esanda, nee lan-oporrak Arjentinan.

GOIZ-ARGI

1977 Urtarrilak 22 - XVIII urtea - 325'gn. zenbakia - solneurria 15 pezo



Goiz-Argi aldizkariaren ale baten azala

Etxeko-andreak

Naiz etxeko-andre ez izan, zuek bezala ikusten dut nola egunean eta gorago doazten gauzak. Bai. Baduzute naiko buruauste, erosteko gauzetan. Eta gero, bikaiñak dirala diote gizonak asmatutako tximist-zenbagailluak... Ni ez naute ainbeste arritzen. Zuek, etxeko-andreok, oraingo eta betiko etxeko-andreok, baiña, batez ere, gaur eguneko etxekoandreak, baduzute zuen baitan tximist-zenbagaillu bana. Eta egunean eta lan geiago du tximist zenbagaillu orrek, sal-eroste etxe eta merkatuetara joateko orduan. Berak esaten dizute, iñork entzun gabe, zer erosi eta zer utzi dezakezuten. Bai, izugarritzkoa da bakoitzak daukazuten tximist zenbagaillu ori; baiña alperrik duzute. Atzoko gauzetan erantzupen zuzena emango dizute, baiña gaurko gauzetan txoratu egiten zaizue. Zer gertatzen ote zaio? Erio ote dago? Zartu egin ote da? Bai zera... Bizkor dabil, eta txintxo. Non da, bada, koxka? Ona! Atzo zenbat lur-sagar ekarri zenituzten? Bi anei lursagar? Eta zenbat ordaindu zenduten? Amalau laurleko anei bakoitza? Ba... gaur motx gelditu zerate diru-kontuetan. Diru gutxiegi artu duzute. Gaur amalau laurleko bearrean, ogei laurleko balio dute. Ez al duzute ikusi sal-mai gaiñean, lur-sagar tartean, ziri bat txartel batekin ogei laurleko diotsana? Eta beste gauzetan berdintsu.

Bai, zuk eta beste arek berdín ikusi duzute, berdín esaten duzute, alaka berbera diozute... Baiña bakoitzak zeren alde jotzen duzute? Ez duzute batasunik, elkartasunik... Bakoitzak, bakarrik, indargekoak zerate.

Ba al dakizute zenbat kosta dan irurogei segundoko iragarpen bat telebis-tan? Milloi erdi laurleko. Eta nork ordaindu bear diru ori? Iragarkia agintzen duanak? Ai, gaixoa! Ez. Diru ori zuk eta erosten duan beste etxeko-andreak ordaindu bearko duzute. Zer egin, bada? Batu, elkartu, eta iragarkitzen dan gauza ez erosteko erabakia artu. Zerbait alditan, nere emaztearekin gai auetaz izketan orixe bera esaten diot!

Batasuna, indarra; berexasuna, indargetasuna.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1976, 284, martxoa, 6. or.

Ondapen ereilleak²

Ebanjelioak dionenez, «ereille bat azi ona ereitera atera zan...».

Nekazari-bizitza latza beti. Ereintza, lan gogor eta neketsua. Lendabizi lurra landu bear: lurra arrotu, lur-zoiak apurtu, belar gaiztoak zaiñetatik atera. Ondoren, azi ona erein. Baiña askotan, ereille on eta zintzoa lo dagoan bitartean, etsaia, ereille gaiztoa, gezur-ereillea sortu izan oi da, azi on tartean azi txarra, zalgi belarra, olua ereiten.

Baiña, ereintza gaia ez dugu artu bear nekazaritza gaietan bakarrik; baita gogai gaietan ere.

Euskalerrian beti ereille onak izan ditugu, geren gurasoengandik asi eta erakusle, zuzendari eta erri agintarienganaiño. Euskalerrria beti ondo landua izan da eta arnari bikaiñak eman ditu gai guztietan. Euskalduna beti langille, beti zintzoa, beti zuzena, siñismenduna izan da. Baiña aspaldi batetik onera, zirikatzaillak sartu zaizkigu gure etxean, naastu eta ondatu naiean; ez digute pakean utzi nai; zapaldu egin nai gaituzte, ondatu, lege gaizto eta makur eta oitura zikiñekin. Atzerritik, suge ibillera antz, sator langilleak, azpi jaleak, sartu zaizkigu, eta or gabiltza naasturik, burua galtzeko zorian, ezin biziz, estu eta larri. Urte latzetan bizi gera. Saiatu gaitezen uztarri neketsua gure lepo gaiñetik kentzen. Eutsi euskal nortasuna, euskal izaera, euskal oiturak. Beti uztarpetuak, beti lotuak izan bear? Ekaitzak aterpea dakar. Ez etsi. Ekin eta jarrai. Atertuko du, argia ikusiko dugu, gure etsaiak garaituko ditugu, azke izango gera, eta Euskalerrria berriz Euskalerrri izango da.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1976, 291, maiatza, II. or.

² Urte honetako urtarrilean *Príncipe de Viana* aldizkarian argitara eman zuen artikulua hau bera, zertxobait ukitua, "Ondapen ereilleak" izenburuarekin eta S. Ezkerra izenpetua.

Gure nortasuna gorde

Bakoitzak geure nortasuna, geure izaera, ondo begiratu eta zintzo gorde bear genduke: bai gizonak, bai emakumeak, bai laterritar bakoitzak ere. Bizikeran, jakiña da. Zenbait aldiz au eta ura egingo genduke, era ontara eta beste artara biziko giñake. Baiña... artara jotzen badugu, besteak bezalakoak gera, ez gera besteen eran bizi, irrigarriak izan gaitzke. Baiña nor zera zu, irakurle? Zu bestea al zera? Ez al zera zu zerorri? Bada, zu zerorri bazera, zergatik besteen erara bizi? Zere nortasunaz, zure izaeraz bizi zaite. Siñismen gaietan gogatsua al zera? Eta zer ajola zaizu zure auzokoa, auntz-adarra baiño biurriagoa bada ere?

Gogai eta uste gaietan ere badugu bakoitzak geure gogorapena. Ez dugu adimen bakarra guzientzako. Bakoitzak dugu geure adimena; egimendunak gera. Eta zertarako dugu, zertarako eman dizkigu Jaungoikoak adimen eta egimena, obeki iduri zaigun bezala erabiltzeko ez bada? Azke, lokarrigeak gera; ez gera abere samalda, aiek bezala, artzaiak nai duan leketara joateko. Ez gera abere adimen gabekoak. Nolaz utziko burua zanpatzen, larritasun eta estutasunetan bizitzen? Iñolaz ere ez. Adimen bideetatik, bai; argi bideetatik, bai; pake eta ontasun bideetatik, bai. Baiña illuntasun bideetatik, garbi ikusten ez ditugun gauzetatik, astoak bezala makilka, nai eta nai-ez, ez! Gu nor gera, eta geure nortasunaren arauz artu gaituzte, gure nortasuna begiratuz, eta ez bul-tzaka. Ezin gaitzke besteen gixan bizi.

Orixe berbera gertatzen da jantzi berri gaietan ere. Urtero jantzi berriren bat sortu bear. Eta urtero jantzi-berria eraman bear.

Euskaldunok badugu geure nortasuna, geure izaera, geure izkuntza eta geure oiturak. Gorde ditzagun maiteki, atzerri izaera eta oiturarekin naastu gabe.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1976, 296, ekaina, II. or.

Ondasun banaketa³

Dirua eta lana. Bata bestea gabe ezin izan. Aberatsa ezin bizi langillea gabe, eta langillea ezin bizi aberatsa gabe. Batak bestea bear.

Dirudunak zertarako ditu bere lantegiak, bere lan-olak, bere lakaiak, nork lan egiñik ez badu? Alperrik lituzke. Lankaiak erdoitu eta lantegia pipiak jo eta ondatu egingo litzake. Langillea bear, bada, bere dirutza ugaritzeko. Bestela, zertarako luke bere dirutza?

Eta langilleak zertarako lituzke bere beso zaintsuak, non lan-egiñik ez balu? Zer jango luke, nola biziko litzake? Lan egin bear, bada.

Bata bestea gabe ezin bizi.

Eta au ala izanik, zertarako ainbeste gorabeera, ainbeste opor, ainbeste istillu lan gaitan, nagusi eta langilleen artean? Zer dakarkigute naspilla guzti oiek? Gauza onik ez. Oiek ez dira pake eta zorion bideak. Ortik ez dator aurrerapiderik, kalte eta ondapenak baizik.

Dadukanak geiago nai eta ez dadukanak lasai bizitzeko aiña nai. Aberatsa ez da diruz asetzen eta langilleak ez du bere sabela betetzen. Eta guztiak gose: aberatsa diru-gosez eta langillea ogi-gosez.

Bata bestearen bearrean aurkitzen bada, zergatik ez biak elkartu, batera jo eta maikide izan? Arrazoa daduka langilleak bere eskubidean alde borrokatzean. Bere lana ez da bear bezala saritzen; apurrak ematen zaizkio, maipeko txakurrari bezala. Eta beti estutasunean bizi da. Badirudi, asto zarra bezala, lanerako bakarrik bizi dala, eta ez duala bizitza gozatzeko eskubiderik. Eskubide ori ukatu egiten zaio. Orixe da geren inguruan gure lankidekoeri gerta zaiena: zar bidera eldu ezker, eriotza gero. Eta orrek langillea amorrarazi eta sutu egiten du. Zergatik ez bi alderdiak elkarrizketan sartu eta ondasun banaketaz erabaki bat artu? Eziñekoa dala? Bakoitza geren koi bagera, bai. Baiña esaerak dionez: «Nai izatea aal izatea da». Orduan ondasunak ugariago eta obeak izango lirake. Guztiok adiskide, guztiok maikide izango giñake, elkarren gorrotorik gabe.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1976, 295, ekaina, 6. or.

³ *Príncipe de Viana* aldizkarian "Ondasun banaketa" izenburuarekin zertxobait aldatua argitaratu zuen.

Madriletik

NORTZUK TERRORISTA?

Madrileko "AS" kirol egunkarian, ekainillaren 9an, berri au irakurri dut: Donostiako REAL SOCIEDAD futbol-taldearen erakusle izandako Elizondo'tar Andonik eskutitz bat artu du. Eskutitza O.V.A. terrorismuaren eta separatismuaren aurkako bezala azaltzen dan erakundearena da. Onela dio eskutitzak: «Futbol-kirola eta politika separatista ez dituk bateratzen. Prest egon adi diploma bikain bat artzeko. Ire dendak ere izango dik bere saria».

Nortzuk dira terroristak? ETAkoak ala O.V.A.koak? ETari zigorra eman bear bazaio, zer O.V.A.ri? Eta gobernuak ETAkoak zigortzen baditu, zergatik ez beste oiek?

ATZERRIAN DAGOZENAK ETXERA?

Atzerrian bizi diranak beren etxeetara itzuli daitezkeala, etzaiela ezer gertatuko, beste edozein bezala begiratuak izango dirala? Bai zera! Ala diote Españako agintariak baiña... Norbaitzuk etorri daitezke, baiña ez edozein.

Joan zan urtean, Bilbao Athletic futbol-taldea Sagasti'tar Errupertoren atzetik ibilli zan. Naparra dugu Erruperto, aspalditik atzerrian bizi dana eta Errusiako ostikalari berexien "masajista" izana. Ortan gelditu zan guztia. Zergatik?

Orain, Madrileko "AS" kirol egunkarian, ekainillaren 12an, irakurri dut berri au: «Sagasti'tar Erruperto ez da Iruñako OSASUNAREN erakusle izango». Debekatu egin zaio bere jaioterrian bizitzea. Zergatik? Zertan gagoz? Bai ala ez?

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1976, 298, ekaina, 4. or.

Etxarri Aranazen negarra

Negargarria benetan. Ekainillaren 18garren egunean, arratsaldeko bederatzietan gertatu zan. Ogei kiloko lerkari bat lertu eta bost lagun xeetu zituan. Oien artean etxe bertako aitona eta illoba, eta beste bateko aita semeak. Goian bitez guztiak!

Andia mendian izkillu dunbada ekiñaldiak egin oi dituzte gudari-taldeek. Eta leku aietan lerkari asko da galduta edo... Artzaiek lerkari aiek bildu eta burni zartzat saltzen dituzte. Etxarri Aranazen il ziranetako batek bazituan bere etxe ondoan gordeta burni zarrak saltzeko, eta oien artean, lertu gabeko lerkari bat. Onek eraman zituan mundu batetik bestera bost lagun oiek.

Bereala Udaletxean uri-batzarra bildu eta Gobernuari espa jasotzeko erabakia artu zuan: Andia mendia lerkariz garbitzeko esanaz, eta mendi artan izkillu ekiñaldi geiago ez egiteko eskatuaz, jende asko biltzen baida inguru aietan (25.000 gizaki bai edozein igandetan).

Izkillu gaietaz, zer ikerpen dute gudari talde buruek, zenbat izkillu gai, lerkari eta abar lertu dituzten eta zenbat osorik, lertu gabe, gelditu zaizkien ez jakiteko? An ibiltzea arriskugarria danez, zergatik izkillu ekiñaldi oiek leku zabal eta agirian egin eta ez leku etsituan. Ala gerta dira gauzak, beti. Gaitza gertatu ondorean jartzen dira neurriak eta ez gerta aurretik. Nork itzuliko die bizia bost lagun gaixo aieri? Noren erruz izan da? Nork ordainduko kalteak?

Euskalduna eta elkartasuna gauza berbera dira, batez ere zorigaitz ordue-tan. Gaur zuri, biar neri. Sendi gaixo oien min eta zoritxarra guretzat ar deza-gun eta bakoitzak al dugun laguntza eskeñi dezaiegun beren nekaldia ariña-go egiñaz.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1976, 299, uztaila, 6. or.

Eman ta zabal zazu...

Ala zion gure Iparragirre guztiz ospetsuak. Eta ala izan bear ere. Bestealdi batean ere esan dut euskaldun bakoitzak gure euskal nortasuna eta izaera, bakoitzak al duan eran, ezagutzera eman bear dugula. Ez itzez bakarrik, baita egitez ere. Neretzat ez da egiazko euskalduna, euskaldun osoa, Euskalerraren alde zerbait egiten ez duana: bai kirolean, bai idatzietan, bai dantza eta abots-taldeetan, bai irakaspideetan.

Goiz-Argin irakurri berri dudanez, Kresala euskal dantza-taldeak bigarren saria irabazia du itsas aruzko Langollen errian, beste nazioetako batzalditar askoren artean. Kresala taldeak leen ere baditu sari bat baiño geiago irabaziak eta ez du azkenengoa izango. Iruñako "Coral Cámara Morondo"⁴ abes-taldea ere badaki zerbait ontaz, lenengo saria irabazi baizuan... Eta baita, Goizaldi, Etorri eta Oldarra taldeek ere.

Euskal talde oiek maizago agertu bear lirake atzerrian: ez bakarrik Europan, baita Amerikan eta Asian ere, eta zergatik ez Errusian? Euskal nortasuna eta Euskalerriko oitura zaar, sendo eta garbiak ezagutzera eman bear lituzkete etengabe.

Atzerritarrek jakin dezatela euskaldunok nor geran, badala munduan Penintsulako txoko batean abenda berezi bat, paregabekoa, langillea, zuzena. Ez du ajola Euskalerrria txikia izateak, industri gauzetan indartsua bada, kirol gaitan iaioa bada... Munduak ez gaitu bear bezala ezagutzen eta argitan jarri bear ditugu gure buruak erri eta nazio geranez.

Euskalerrriko jakintza-elkarteek asko egin dezakete alde ontatik. Jakintza bideak dira erriak beren artean geien lotzen dituztenak. Emengo jakintza elkarteek kanpokoekin lotuko baginduzte gurea eskeiñi eta aiena jasotzeko...

Dana dala, guretzat artu eta bizi egin bear dugu Iparragirre aundiak abesten zuana: «Eman ta zabal zazu...».

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1976, 306, iraila, 6. or.

⁴ Jakina den bezala, abesbatza honen izena "Coral de Cámara de Pamplona" da, ez "Coral Cámara Morondo". Luis Morondo izan zen sortzailea 1946an, eta zuzendaria 1983an zendu zen arte.

Batasunean indarra

Jakiña da. Bakoitzak geren alde jotzen badugu, bakarrik, gauz asko egingo dugu alperrik. Batasuna guztiz bearrezkoa zaigu. Euskaldun guztiok, era guztietakoak, bat izan gaitezten. Ez begira zer egiten duten besteek. Besteak or konpon. Guk geren etxeari begiratu bear diogu.

Eta zer dugu batasun orren ari-lokarri?: Izkera. Erri baten izkera, erri orren sustraia dugu. Zer gerta oi izan da euskerarekin? Julio Cejador ele-jakintun ospetsuak zionez, ibero enda idatziek badute zer esana España guztian itzegiten zan euskerarekin, itz sustrai berberak baidituzte. Ibero-endaren orduko izkitegiak euskeraren izkitegia du. Orregatik, Españako egiazko kon-daira ezin ezagutu ongi euskera alde batera uzten badugu. Eta au egia dala aztertzeko ibero-enda domoiñetan idatzitako idazki au dakar: «*ilditur esneg, ilditurr esnego, muni ilia*». Eta zer gertatu da España guztian euskera galtzearekin? Euskal zaletasuna, euskal nortasuna, euskal izaera, euskal batasuna galdu dala España guztian. Euskera dugu, bada, euskaldunen izkera, euskaldun guztiok lotzen gaituana. Izkera galdu ezkerok, guztia galdua dugu.

Orain arte, batez ere azken berrogei urte auetan, naiz euskal maitasuna geren biotzetan sutan eta gori eduki, ez genezakean gauz aundirik egin, zigorturik baizegoan, eta esan genezake debekaturik genduala geren artean itzegiteko, eta baita erakusteko ere. Baiña orain ez da orrelako korapillorik, orrelako lokarririk. Beste garai batzuetan bizi gera. Erraztasun geiago dugu geren euskal oitura eta izkuntza maite eta goxoa -Iparragirre ospetsuak nai zuan bezalamanan eta zabaltzeko. Baditugu ikastolak geren umeeri erakusteko. Argitalpena ere ugaritsu dira. Neronek ere prest daukat erdal-euskera iztegi bat argitaratzeko. Ez dakit non eta nola argitaratu nezaken. Baiña ez dugu naiko ikastolekin. Negargarria zan orain arte ikusten genduana: Tokioko Ikastetxe Nagusian euskera erakusten zan, Alemaniako Tubinga iriko Ikastetxe Nagusian Salamankako Ikastetxe Nagusitik irakaskintza kendu zioten Tovar'tar Antonio ele-jakintunak euskera erakusten zuan, Zaragozako Ikastetxe Nagusian ere euskera erakusten zan... Eta guzti au etzaizue arrigarria, lotsagarria iduritzen? Non erakusten zan euskera? Ez Euskalerrian, baizik euskera itz egiten etzan lekuetan. Eta zergatik ez Euskalerrian, euskera itz egiten dan lekuan?

Orain dugu arkuntza. Ez da euskera Euskalerrian erakusteko lokarririk. Badugu Euskalerrian (Oñatin) Ikastetxe Nagusia. Zergatik ez batu euskal lau erkiak (Naparro, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba) eta artarako bear diran bideak ibilli Euskal Ikastetxe Nagusia izan dezagun? Guztiok bat jotzen badugu, iritxi dezakegu, eta euskal gogoia bete izango da.

Giza eskubideak

Negargarria, lotsagarria eta guztiz bidegabekoa da aspaldiko urte auetan, eta gaur, Euskalerriri egiten zaiona. Euskalerrria beti pakean bizi izan oi da bere arteko lege, bere lan, bere izkuntza eta bere oiturekin. Baiña orain egun beltz eta latzak illuntzen dute Euskalerrri etxea. Nabari du norbaitzuk egin aal guztiak egiten dituztela Euskalerrria ondatu naian. Oztopoak, zapaldia, zigor-rak, zirrikaldiak, odol ixurtze eta deabru madarikatu gaiztoenak asma ditza-ken maltzurkeri guztiak jarriaz dabilta. Eta guzti ori zergatik? Erri berexia geralakoz? Geren gauzak eskatu eta nai ditugulakoz? Bakarrik bizi nai dugu-lakoz? Gauza oiek eman nai ez badizkigute, ortarako eskubiderik ez badugu, euskaldunekin ezer jakin nai ez badute, Euskalerrria ezbaiko gauza eta eragoz-pen bazaie, zergatik ez gaituzte bakarrik eta alde batera uzten, geren etxea geren gixan apaindu eta pakean bizi gaitezen? Giza bakoitzak badu Jaungoi-koak emandako bere eskubidea. Eta Butelezi Gotzaiak dion bezala: «Si no se le permite o no se le reconoce el derecho natural a asociarse con otros, sino que, por el contrario, se ve reprimido y prohibido, actuará clandestinamente contra el sistema vigente y contra la ley». Eta legezkoa deritzait Gotzai ber-berak diona: «Si a una persona no se le paga lo justo por su trabajo, se verá obligado a robar».

Geren zuzendari eta agintariek geurok berexi eta autatu ez baditugu nekez beteko ditugu aiek emandako legeak, ez gagoz artara bearturik, ez baiditugu etxeoak, atzerritar etsaiak baizik. Nik aberastasun aundiak baditut, ez al dut dagokidan banakaria jarriko eta ez eman nai didatena? Neronek jarritako banakariak nere ondasunetaz begiratuko du, eta, eskatu orduko, garbiketak eman bear izango dizkit. Baiña atzerritar banakariak ez ditu nere ondasunak begiratuko (ez baizaio ajola) eta asmatuko du nolaz ondatu eta lapurtu. Eta gaiñera, ezin banaketa garbiketarik egin eta ezin jakin geren ondasunek zer bide daramaten.

Eta etxea eraendu nai badigute, zergatik ez eraman gauzak biguinki, inda-rraz eta bultzaka bearrean? Oiek ez dira konponketa bideak. Eta atzerritarrak etxean sartzen bazaizkigu, dana naastu eta ondatu naian, zergatik atzerritar madarikatu oiek ez zigortu bear dan bezala? Ez-ezagunak dirala esatea ez da naiko. Eta atzerritar nastutzaille oietzaz agintariek ezer jakin nai ez badute, on litzake euskaldun berberak barra-barra garbituko balituzte.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1976, 316, azaroa 7. or.

Buru argienak erbestera

Laterri aberats eta aundienak laterri beartsuenetan buru argienak diru saretan arrapatzen dituzte. Auxe gerta da Sartaldeko Alemaniarekin. Marruekos, Tunez eta Turkian zabaltzen ditu bere sareak, bururik argienak, jakintsuenak, tekniko eta abar Alemaniarat eramanaz.

1955ko urtean eun buru argi eta jakitun atera ziran Indiatik; 1967an, 1.500; 1970an, 3.141. Eta guztiak Ipar-Amerikara jo zuten. Alaber, Filipinasetik, 1967ko urtean, 1.066 atera ziran, eta aurreneko bi urteetan 90 bakarrik atera ziran. 1950 eta 1970 tartean Argentinak 8.000 obenetako buru galdu zituan. 1960ko urtetik 1965ko urtera Ipar-Amerikan 37.800 asiatar, 2.100 afrikatar eta 39.700 Ego-Amerikatar gizon jakintsu sartu ziran.

Buru argi iges onekin kalte aundiena izan duten laterriak: India, Sri Lanka, Pakistan, Filipinas, Indonesia, Brasil, Mejiko eta Venezuela dira. Late-rrientzat galera eta kalte aundizkoa da buru argi oien igesa. Ala, UNCTADek dionez, 1970ko urtean Asiak 2.330en bat milloei dolar bear izan omen ditu jakintsu oien ikastarotan. Filipinas eta Indiak bakarrik 1970ko urtean 700 milloiko dolarren kaltea izan dute.

Gizon buru argi jakintsu geien oiek Ipar Amerikara jotzen dute. UNCTAD berberak dionez, Asiatik eldu zitzaizkion injenieroak Ipar-Amerikari 1.335 milloitik gorako dolarren irabazpenak eman zizkioten.

Buru argi jakintsu oien igesak beren sorterriaren aurrerapideari muturreko aundia jartzen diote.

Baiña ez bakarrik urrutietara begiratu; 1936 urte ezkerroz, zenbat espantatar bizi dira erbestean? Esate baterako, Severo Otxoa sendagille guztiz ospatua, Ferrater Mora espantatar jakintzari sakonenetakoa, Max Weber eta Ramón Sender idazlari bikaiñenetakoak, Sánchez Albornoz edeslaria, Salvador de Madariaga, eta ainbeste. Batzuek diruagatik, beste batzuek uztarripe-
tik iges egiñaz, askatasuna billa.

Eta galtzera norendako?

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1977, 323, urtarrila, 13. or.

Auzo-lan

Euskalerrriak beti oitura garbiak, jarraigarri oiturak, elkartasun oiturak, izan ditu. Euskalerrria beti bat izan da bere eginkizun guztietan; beti elkartuta, sendi aundi bat eginda bizi izan oi da. Eta baten poza, bestearen poza zan, eta baten miña, bestearen miña.

Euskaldunaren elkartasun onen ikasbidea errietako auzo-lan eginkizunetan dugu. Erri-bideak zabaldu, apaindu eta konpontzeko, auzo-lan egiten da. Bakoitzak al duan lana egiten du: batek, daukan idi pareta eta gurdia eramaten ditu; besteak, dauzkan lau mando edo beor; besteak, aita eta semea beren aiturrekin. Basoko zugaitzak moztu eta baso zelaia esitu bear bada, berdin. Eta alaber zugaitz gazteak landatu bear badira. Erriko alkateak erriko-mutil turrubaz erriari ezagutzera ematen dio erabakia, zer egunetan auzolan egin bear dan, eta guztiak batean, bakoitzaren eginbearra balitz bezala, ara joaten dira lanera.

Eta euskal batasun ori edozein gauzetan agiri da. Ala da euskalduna: Euskalerrria bat da, eta euskalduna ere, bat.

Oitura zar oiek gorde ditzagun. Bat izan gaitezen, beti elkarturik nai izate guztietan, bai poztasunetan bai neketan ere. Gaurko egunak egun latzak, egun neketsuak dira Euskalerrriarendako. Batu gaitezen erri miñan. Gaitz aldietan, estutasunetan, zori txarretan agertzen da egiazko maitetasun eta elkartasuna. Eutsi gure aberri izaera eta oiturak, bizkortu gure euskaltasuna. Euskalerrriko kondairan agiri zaigunez, inguruko erri gudaketan, euskaldunak ez ditu beñere nai izan besteren lurraldeak bereganatu. Bere lurraldearekin naiko izan du. Etsaia Euskalerrri mugaraiño lekutu, eta antxe bukatzen zan guda aldia.

Euskaldunak beti bakarrik bizi izan nai du, bere etxean, bere aberrian, bere gixan. Orain ere alaber. Kanpotik datozkigun etsaiak aldendu ditzagun, barruan dauzkagun etsaiak kanpora bota ditzagun, eta bakarrik, geren gixan, bizi gaitezen.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1977, 328, otsaila, 9. or.

Gosea

Ona emen bi itz: **gosea** eta **egarria**. Bat kaltegarria bada, ez gutxiago bestea. Biek gizadi kondairak, eta ala egiztatu dezakegu geren inguruan gertatzen dana begiratzuz.

Ogi gosea edo janik ezaren gosea. Egunero irakurri dezakegu egunkari eta aldizkarietan idatzita ainbat eta ainbat lagun (aur, gazte eta zar) zer jatekorik gabe, aulduta, il dirala mundu guztia zear urte bakoitzean. Au da gizadiaren arpegi illuna. Beste arpegian berriz, jateketa bikañak, bazkaldi oberenetakoak, jataldi ugari eta mamitsuak. Au ezberdintasuna! Batzuek ase eta beste batzuek gose. Ez al gera guztiok Jaungoikoaren semeak? Bakoitzak geren inguruan begiratuko bagenuke eta gure ingurukoaren gose beartasuna bakoitzak al duan eran arindu eta betetzen saiatuko baginake, ez litzake munduan ainbeste negar, ainbeste gorroto, ainbeste etsakeri ikusiko. Guztiok pakean, guztiok maitetasunean biziko ginake, eta ez otsoak bezala elkar jan naian.

Gogo gosea. Gure giza-espirituaren gosea. Egi gosea. Berri gosea. Jakinaia gosea. Jesukristok zionez, «Gizona ezta ogiz bakarrik asetzen; baita gogoari dagozkion jakietaz ere». Ez jatekoak gorputza il badezake, gogo jakiezak gogoa il dezake, eta gogoari ere jatera eman bear diogu. Eta zenbat ez jakin da munduan! Zenbat adimen on galtzen dira ez jakiñak izateagatik edo sakonagoko ikastaldiak ezin egin dezaketelakoz! Geiago jakin nai genuke, bañan askotan ezin. Zer gerta da Españan irakaspen gauzetan? Ikastetxe exkax dira ainbeste umeendako, eta ez bear aña erakusle. Eta askotan erakusleak ez bear bezala ikasiak. Ezta berdin jakitea, eta dakiena erakustea. Dakiena erakusten jakin bear du.

Gaiñera, ikastetxetan, ikasteagatik, egunean eta diru geiago ordaindu bear umeak. Batzuek al izango dute bañan askok ezin ordaindu, eta ikasi gabe gelditu bear. Ez al dute eskubide berbera batek eta besteak? Eta erbestean (Afrikan eta abar) irakaspenak utsik badira, zergatik ez emen? Zertan erabiltzen dira guztiori kentzen dizkiguten zergak? Norbaitek jakingo du zer sakeletara dijoazten.

Gure gogoak egi gosea du. Gezurrak ez du asetzen eta gezurra bakarrik ematen bazaio, auldu, indargetu, amorratu eta il egingo zaigu. Bañan geran leku eta egunetan, zoritxarrez, gezurra besterik etzaio ematen. Jaten duan egia bere begiek ikusitako egia bakarrik da, eta alaz ere jaki exkaxa. Gure gogoak ergel, makal, arrastaka dabilta, ezin zutik egonaz. Egunero egunkariak irakurri besterik ez dugu. Zenbat egi dakartzki? Irri-parrez esaten dan bezala, «izena eta sal-neurria besterik ez dakarte».

Pablo VI Aita Santuak, Erroman bere inguruan bildu ziran egunkari idazlariari esan zenez, «egunkari idazlariak berriak argi eta garbi ezagutzera ematera bearturik daude». Eta ez etzipetu jendea gezurrekin. Onek jendea makurtu eta gaiztotu egiten bait du. Au ezta pake bidea, burruka eta etsaikeri bidea baizik.

Askatasun eta zuzentasunaren gosea. Giza semea Jaungoikoak aske egin du, bai gorputz gauzetan, baita gogo gauzetan ere, eta etzaioke inork ukatu eta kendu giza semeari askatasun ori. Jaungoiko emaleak ez bait zion kendu nai, zenbatenaz gutxiago gizonak? Nun duzu, Euskalerra maite, zure askatasuna? Galdu egin al duzu? Kendu al dizute? Saiatu zaitez askatasun ori billan. Ekin eta jarrai. Bein eta berriz zure kopeta izerditan ikusiko duzu, bañan ez etsi negar malko asko ixuri bear izango dituzu, noski; zure soñekoak zarrastaka aundiak izango ditu; loiaz zikindua izango zera. Bañan ez etsi; erne egon. Ur geldia laster usteltzen da; ur lasterkaria berriz, beti garbi eta bizitiar. Badator argia.

Gure gogoak zuzentasun gosea du ere, bakoitzari dagokiona ematen. Bañan zuzentasuna ez da inun agiri, ez-zuzentasuna bai, ordea, nun-nai.

Elkartasun gosea ainbeste ezberdintasun eta asarreraren artean dagoan bearra. Gizona gizona danez geroz, elkartasuna izan da gizadiaren lokarri, beti elkartuta bizi izan oi da. "Ve soli!" -dio latin esaerak-. Eta egia da. Gizonak, bakarrik, zer dezake? Ez dauka ezertarako indarririk. Batasunean, elkartasunean da indarra. Billakatze onuragarrienak, garrantzi aundikoak, nortzuk egiten dituzte? Jakintsu batek bakarrik? Ez, jakintsu asko elkartuta. Gure errietako auzo-lanak zer dira elkar-lanak baizik? Elkartasunik ez badugu, ez gera beñere ezer izango. Erri aundia izan nai dugu, elkartu gaitezen gauza guztietarako: lan eginkizunetarako, bizi-toki eginkizunetarako, nekazari lanetarako, arrantza lanetarako, kultura lanetarako, eta abar. Euskaldun guztiok bat izan gaitezen izkuntza, oitura, izaera eta eginkizunetan. Guztiok bat bagera, aundi eta indartsu izango gera. Langille guztiok ere elkartu gaitezen geren eskubideak jakin eta irixteko.

Bañan bizi geran egunetan ez da elkartasunik. Bakoitzak bere alde bizi nai du, berekoitasuna besterik ez da. Eta ala dijoazte gauzak, okerretik okerrera, dana zilipurdika. Elkartasunik ez dan etxean beti burruka eta asarrea.

Ontasun gosea. Jan-edarien gosea, ontasun gosea, diru gosea, beartasun aundia da munduan. Zer nabari digute asteroko zozketa ("lotería") eta kiniekak? Zenbat diru ez da jokutzen astero? Kinieletan bakarrik 700 milloi laurleko gutxi gora-bera. Zer esan nai digu onek? Gose asko dala, beartasun asko dala, diru gose asko dala... Guztiok bapo bizi nai dugu. Batzuek ontasuna dariotela, eta besteak biliskorrik...

Azkenez, **pake gosea**, gogokeri eta indarkeriaren arteko gosea. Gogo barruan pakerik eztanean, ezta gorputz pakerik ere. Gaurko gizadi gogoa

makur dabil, usteldurik dago, nasturik, zikin, illun. Pakean bizi nai dugu, eta pakerik ez dugu ikusten gure inguruan; ez digute pakean uzten. Askatasuna, zuzentasuna, elkartasuna falta bazaizkigu, alperrik gabiltza pake billa. Ainbeste biotz eta gorputz dardarak gaurko gizadi burua nasturik dauka. Orregatik ainbeste gao, ainbeste ero, ainbeste zaintxuri gaitz, Euskalerrak ez du pakerik.

Nik ere Belengo estalpe inguruko aingeruen antz, Euskalerrri eta euskaldun guztiei opa nai nieke: «Pakea lurrean biotz oneko gizonei».

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1977, 363, azaroa, 15. or.

Nor noren serbitzari?

Erria, nagusi; erri-agintariak, morroi.

Auxe da egi borobilla. Nork agintzen du nere baitan, neronek baizik? Ez al da nor bere buruaren jabe? Ez al dauka bakoitzak bere nortasuna, Jaungoikoak emandako askatasuna? Eta askatasuna eman digun Jaungoiko berberak ez badezaiguke askatasun ori kendu (ori Jaungoikotasuna ukatzea bait litzake), nork orduan kendu lezaiguke? Inork ez, are gutxiago askatasuna eman ez digunak, ortarako aalmenik ez dualakoz.

Neronek, ontasun aundiak banitu, nere ontasunen banakaria antolatuko nuke, eta ez nuke onartuko besteek ezarritako banakaria. Nere etxean nork agintzen du: nik, etxeko jaunak, ala etxeko ez danak, arrotzak? Bidezkoa deritzait ori. Ez luke inork nai izango bere etxean arrotzak agintzea, bestek esatea zer egin bear duan bakoitzak bere etxean; zozokeria litzake ori, erokeria. Bakoitzak badaki zer beartasun diran beren etxean, zer dagokion; bakoitzak erabaki bearke ditu bere etxeko buru-austeak.

Erri batek, erri-talde batek badakizkike zer beartasun diran bere errian, errian bertan, erri-aldetar ez danak baiño obeki: erri-arteko bideak apaindu, lantegiak berritu, gaurkotu eta indartu, mendiak bear bezala zaindu, gaxotegiak, bizitz-etxeak eta ikastetxeak jaso, bear diran zergak jarri, langille bakoitzari dagokion lan-saria eman, epai-lege eta bear diran gañerako legeak erabaki, eta abar.

Eta nola bizi izan da euskalduna, gure Euskalerra maitea, orain arte diralako azken urte auetan? Etzan nor, etzeukan nortasun eta askatasunik. Jauntxo batek ukatu zizkion, eta bazirudin Atilaren zaldiak Euskalerra biotzez maite dutenak, egiazko euskaldunak, euskal nortasuna odol-zaiñetan daramatenak, Euskalerra begiratzen dutenak, ez Euskalerra zatitu, naastu eta ondatu nai dutenak.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1978, 361, urtarrila, 20. or.

Gauza zikiñak

Bai. Nere begiak oker dauzkat; bestelakotan, gauz beltz eta zikiñak ikusten ditut. Sindikato arazoetan, Suarez españar lendakariak UGT eta CC.OO. deitu zituen Monkloako paktoa (itunpena) izenpetzeko. Eta zergatik bi talde oiek bakarrik deitu zituan? Ez al da España guztian sindikar bi talde oiek besterik? Dakigunez, CNT, SU, CSUT, USO eta abar. Zergatik etzituan, bada, guztiak deitu? Or dago koxka. Zer billa dabil Suarez jauna? Nere ustez, ez du garbi jokutzen Suarez jaunak. Ez du begirutzen langilleen onura, nasketa baizik.

Eta UGT eta CC.OO. nortzuk dira biek bakarrik, gañerako sindikatuen iritzi artu gabe, bere izenean erabaki ori artzeko? Esango nuke langille talde saltzailleak dirala. Suarezek deitu zituanean, langilledi zaintzalle zintzo eta zuzenak izatekotan, ezezkoa eman bear zioten: edo guztiak batean, edo bestela iñor ez.

Eta zergatik eta zertarako ainbeste sindikato talde? Guztien jo-muga ez al da gauza berbera: langillediaren lan-gaiak, langilleen bete-bear eta eskubideak? Ortarako naiko genuke sindikato bakarrarekin. Guk, euskaldunok, euskal langille sindikato bakarra bear genuke. Besteak nai dutena egin dezatela.

Monkloako itunpenak dionez, gauzak bear dan bezala konpontzeko, guztiak gerria estutu bear dugu. Ala ote da? Nik uste ezetz. Ea Amezketako Permandoren astoarena gertatzen zaigun. Gauzak konpontzeko, Monkloako itunpenak lan-sariak geldiarazi ditu. Bañan ori al da bear dan neurri zorrotza? Ez, alajaña. Gerria estutu bear badugu, guztiak estutu bearko, eta ez langilleek bakarrik. Zer iritxiko dugu langilleen lansariak geldiarazten baditugu, eroskiak (jakiak, soñekoak, etxeak, ibilketak) eta abar egunean eta geiago gosta bazaizkigu? Orrela, beti ezberdintasuna izango dugu. Gauzak egiz zuzendu nai baditugu, gerria estutu dezagun, bai, bañan guztiak; ez betikoak, langilleak bakarrik, baizik eta gañerako bazkun, salostetxe eta izatasun guztiak. Ez bidezkoa deritzat batzuk meetu eta beste batzuk gizentzea, diru ez daukanak bere eros-bideak gutxitzea eta dirudunak beren dirutzak ugariagotzea. Ori ezta bidea.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1978, 376, otsaila, 23. or.

Odei beltzak gure gain

Bai, ortzean odei beltzak agertzen zaizkigu. Badatoz laisterka gure gainera beren sabel sakon, beltz eta zabaletan dakarzkiten arraultzak aiñako kazkabarrak botatzera. Eta ondamengarriak izango dira benetan.

Berrogei urte latz izan ditugu. Eta esaerak dionez, «ekaitz ondoren, barea». Ala uste genduan izango zala, baiña ez da ala. Ez da goizaldia agiri. Mendi-zulo illunean goaz. Bagabiltz, bagabiltz, baiña gure begiek ez dute mendi-zulo orren amai-argia ikusten.

Gauzak egunean eta korapilduago eta nastuagoak agertzen zaizkigu. Eta ez esan ukalea naizala. Geren inguruan begiratu besterik ez dadukagu. Goi-Agintarien artean ez da bear aiñako argitasunik, ezta bear litzaken zuzentasunik, bear luketen zirti-zartada, autsi eta barratu egiñez, gauzak bear bezala konpontzeko.

Goi-Agintari, Langille-elkarteak (“sindicalistas”) eta politiko talde guztiak mugontiarak (“oportunistas”) dirala nioke. Bakoitzak bere alde jotzen du, guztien onura begiratu gabe. Ez dute zuzentasunik; guztiak berekoitiak dira.

Errikotu lantegi aundienak (Seguridad Social, Unosa, Telefónica, RTVE, egazti elkarte eta burni-bide elkarteak) izugarrizko zorrak dituzte; nagusi bakarreko lantegiak zerga-izupean bizi dira. Dirutza ankaz gora eta zilipurdika dabil; barrungo diru iraulpena geldo dago, eta atzerri diru iraulpenak ez ditu bide garbi eta leunak ikusten beren dirua Españan iraultzeko.

Langatzeak egunean eta geiago dira. Adibidez, Badajoz lurraldean 300.000 kilo baiño geiago olio-aran goldaperatu dituzte; Málaga, Ronda, Antequera, Vélez-Nerja eta abar errietan millaka olio-ondo zaiñetatik atera dituzte, eta eun langilletatik larogei eta amar langabe daude: beartasuna eta goseak lapurketara bultzatzen ditu.

Orain arteko lan-elkarteak (“sindicatos”) txarrak izango ziran, noski. Aiek garbitu dituzte, baiñan aien ordezeko eragikor lan-elkarterik ez dute antolatatu. Eta or gabiltza langilledi guztia zer-mearka, nora jo jakin gabe.

Suarez eta Suareztarrek ez dute garbi jokutzen. Oroi, Gasteizen gertatu zana, Euskal Erakunde Orokorren (“Consejo General Vasco”) lendakaria autatzeko auteskundeetan. Ajuriagerra eta Rubial ziran bi autatuak lendakari izateko. Bost edo sei autespen egin ziran; eta aldiero biak berdin. Alako batean Madridetik urrutizkiñaz deitu zuten Ajuriagerraren aldeko auteslari bat, garbian autestzeko esanez. Ala egin, eta Rubialek autarki geiago atera Ajuriagerrak baiño. Au erderaz “pucherazo” deitzen da.

Bakoitzak zugaitz bat landatu

Chateaubriand frantziar idazle ospetsuak zionez, «oianak gizona baiño leenago dira, eta basamortuak ondoren».

Aurreneko gizaldietan izan ziran gizakunde aurreratuenak zelai emankorrenetan bizi izan oi ziran: Mesopotamia, Fenizia, Kartago eta abar. Leku oiek gaur egun basamortu dira. Emendik irakaspen bat atera genezake: oian-ezak ondarena dakar. Oiandun erria, erri aberats.

Aizea gure auspo bizitza emangarria da. Bizitzeko, oxijenoa bearrezko zaigu. Oianak aizea garbitzen du oxijenoa emanaz eta guk botatzen dugun “anhídrido carbónico” deritzana bere baitan artuz; au da: aize garbia ematen digu, aize ustela bilduz. Guk, bizitzeko, botatzen dugun aize ustelaren orde, aize garbia bear dugu gure biriketan.

Orregatik, Brasilen dan Amazonia oian zabalari “munduko birika” deitzen zaio, angu zugaitz artean aize geiena garbitzen dalako.

Gaiñera, oian ara eta ona dabillen auts ustela beregan biltzen du. Aize ustelak bizitza eta bizigai guztiak usteldu eta ondatzen ditu.

Aldi batetik onera zer ari da gertatzen gure inguruan? Leengo jakiak, leengo aragiak, leengo barazkiak, leengo arnariak, leengo urak, leengo aizea oraingoak baiño onuragarriagoak, osasungarriagoak ziran. Leen, baratza eta soroe-tan ongarri naturalak erabiltzen ziran; orain berriz, artifizialak, kimikadunak. Eta orregatik, gure gorputzak naasturik dauzkagu, gaitzez beterik.

Joan zan mendean 76 txori mota eta 27 ugaztun edo mamifero mota galdu ziran. Gauden mendean 53 txori mota eta 68 ugaztun mota galdu dira. Eta beste 345 txori mota, 200 ugaztun mota, 80 ur-lurdi eta arrastakari, eta 20.000tik 25.000ra landare galtzeko zorian aurkitzen dira. Era ontan zein da gure etorkizuna, nora goaz?

Oianak ezetasuna, euria, elurra dakar. Eta ezetasun orri esker gure mendiak, belardiak orlegiz jantzita ikusi ditzakegu; gure baratza eta soroeak arnari ugari ematen digute. Ezetasun orri esker, gure mendiak elur-txuriz estalita ikusi ditzakegu. Elur ori piskaka-piskaka mendi erraietan sartzen da ur-goxo putzu aberatsak bilduz, eta or gordeta daude gure egarria kentzeko iturriak sortuz; ortik sortzen dira tximist-indarra emango diguten ur-zurrutak, gure landareak bustiko dituzten urtegiak.

Gizadiaren aurrerapena tximist-indarrean dago, eta au urak ematen digu. Ura, arrolioa bezala, datozen urteetako aberastasuna da.

Eta zer beste onura dakargu zugaitzak, oianak? Zugaitzak, egurra, kortxoa, erretxina eta ezkurra ematen dizkigu. Egurrarekin kutxatillak, itsas-ontziak, gurdiak, maaiak, alkiak, oeak eta beste gauza asko egin ditzakegu; egurretik papera ateratzen da. Ezkurrarekin gure txerriak bazkatu ditzakegu. Laradieri esker, gure abere taldea ugaritu dezakegu, eta ori ere aberastasun aundia da. Papera da jakintzaren oiñarria, jakintza guztia paperean idatzita baidago, eta papera egurretik, zugaitzetik ateratzen da. Ortik dator egurraren, zugaitzaren, oianaren garrantzi aundia. Garrantzi aundikoa da, bai, zugaitza, oiana.

Gure mendiak, Euskalerriko mendiak, Jaungoikoari esker, oraindik pagoz, aritez, piñuz edo... estalita daude. Zein ederra dan mendiak orrela jantzita ikustea! Gorde ditzagun gure mendiak, ez utzi galtzen. Zenbait aldiz, ibillia naiz Toledo eta Ciudad Real aldean, eta negargarria da, benetan. Aldiero naitz gabetuta gelditzen naiz alde artako mendiak ikustean: soiñeko gabeko mendiak, zugaitz gabekoak, kalparra eta malkorra besterik ez dutenak. Zugaitzak lurrari eusten dio. Zugaitz gabeko mendian, aize eta euriak, piskaka-piskaka lurra aldean eta arrastaka eramane eta batera gabe uzten du. Eta lurrik gabeko lekuan ez da ez ezetasun, ez euri, ez elur, ez belar, ez zugaitz, ez ezkur, ezta ezer ere. An ez da bizitarik; basamortua da, lur illa da.

Zein ederra, zein bizigarria Urbasa, Andia, Aralar eta Irati mendietan ibiltzea! Mendigoizaleek bai dakitela nun dan aize garbi eta itzal goxoa: Urbasako pago baten azpian!

Larri gabilza lanik-gabeko asko dalako. Ona emen lanbide bat. Erri bakoitzak ikusi dezala ea inguruko mendietan zugaitz landaketa bear dan. Eta, bear baldin bada, lan eman dezaiela lanik gabe daudeneri. Guztientzat onuragarri izango da.

Arauz artu dezagun: bakoitzak zugaitz bat landatu.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1978, 392, maiatza, 19. or.

Tutu-umea

Oraintsuko albistea da. Orainarte, erokeritzat, eziñezkotzat artuko genduan orrelako albistea: baiña gaur ez. Gaur ez gera arritzen. Gaur sendakin-tza aurrerapideeri esker, sinistu dezakegu orain arte ezin zitekean gauza orain egin daitekeala.

Aurdun izan ez daitezken emakume asko dira. Umea izan nai lukete, baiña ezin: batzuetan, emakumeak balio ez dualako, Falopioren ume-toki atea itxita dualako; beste batzuetan gizakiak balio ez duelako.

Orain dala illabete eta erdi, tutu edo "probeta" batean sortutako Louise Brown-en jaiotzaren berri eman ziguten egunkariek. Ori dala eta, mundu guztian ezaguna egin da aurtxo au.

Kristau bat baiño geiago arritu eta gaizpideratuko ziran noski albiste au jakitean, eta galdera au egingo zuten: «zillezkoa al da ori? Ez al dijoa Jainko Lege eta jaiotzetikoaren aurka?».

Badakit irakurle bat baiño geiagok erlijio ondalaritzat artuko nauala, baiña ikusi eta aztertu dezagun.

Jaiotzetikoari begiraten badiogu, zillezkoa dala esan bearrik ez da. Jainko Legearen aurkakoa dan jakin nai badugu, ordea, ona emen zer dion Jose Mari González Ruiz teologoak: «Senar-emazteek umeak izan nai badituzte baiña auek sortzeko biderik ez badute, ori lortzeko zientzi-bideak baleude, umeak izateko zientzi-bide oietara eltzea zillegi dala esan genezake».

Ortan nago ni ere, ori da nere iritzia.

Ona emen, emakumea askotan zergatik ez daiteken aurdun gelditu: azki edo "óvulo" deritzaiona "trompa de Falopio" an ar-aziarekin elkar bildu eta ontzen da. Naikoa da ar-azi bat eme-azia oparotzeko ("fecundar"). Baiña ateak itxita badaduzkate, ez daitezke elkarganatu eta ez daiteke oparotu. Orduan zer egin du zientziak? Emaztearen azki ondu bat artu eta senarraren ume-azia aurkitzen dan ontzitxo batean sartu (bear bezala gordeta), eta berrogei eta zortzi ordu ondoren, bein oparotu ondoren, azkia amaren ume-ontzira itzuli eta bederatzi illabete itxoin. Ikusten danez, emen ez da ez-zillezko gauzarik.

Ona, bada, emen emazte askorendako itxaropen argi bat. Emendik aurrera, beren aurrak izateko nai eta gogoak bete ditzakete, naiz Españan oraindik bide oiek eziñezkoak izan.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1978, 404, iraila, 21. or.

Ikastolak

Euskalduna orain arte ezjakiña izan dala esan genezake. Gogorra da ezjakiña dala esatea; lotsagarria da, baiñan egi galanta. Azaldu dezagun.

Ezjakiña izatea, idazten eta irakurtzen ez dakiena da. Eta zenbat euskaldunek zekiten orain arte irakurtzen eta idazten bere izkuntzan, euskeraz? Oso gutxi? Eta zergatik ori: nai etzutelakoz, ezin zezaketelakoz? Bai nai zutela, baiñan etzieten uzten, debekaturik zeukaten. Eta nork egin dezake orrelako astakeria, nork etzion uzten? Guztiok dakigu: etsairik aundiena joan diran berrogei urte auetan izan genuen. Joan zan gizajoa, eta bai ongi joana ere... Ori errialde atzeratuetan egin zezatela ezta arritzekoa, baiñan Españañan ori egitea oben edo pekatu larria da. Ekiñaldi guztiak egin zituzten euskera eta euskal oiturak ondatzeko, iltzeko; baiñan alperrik izan dira ekitaldi guztiak. Egiak, berez, argi egiten du bidean. Euskera etziteken il, bizirik zegoalako. Eta or dugu gure euskera maittea supetik berriz piztutzen. Or dauzkagu ikastolak onttoak bezala barra-barra nun-nai sortzen. Or dauzkagu gure umeak euskal gosez euskera ikasten. Oiek izango dira euskeraren oñarri, piztuera eta etorrera. Oiek guk baiño geiago egingo dute euskeraren alde, gu baiño jakintsuagoak izango diralako. Lagundu ditzagun artu duten bidea aurrera eraman dezaten.

Euskalerritik urrun bizi geranoi biotza bigundu eta xamurtzen zaigu karrikan eta etxeetan aurtxoei euskeraz izketan entzutean. Ori bai dala gauza polita!

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1978, 407, urria, 2. or.

Euskalerritik kanpo bizi diran euskalduneri deia

Naiz Euskalerritik urrun bizi, zu eta ni euskaldun gera. Gure etxea Euskalerrria dugu eta Euskalerrria maite bear dugu beti osoki: bere kondairan, bere eskubideetan, bere izkuntzan, bere oituretan, bere izaeran, bere nortasunean, bere buru-jabetzan. Guztiok batera jo bear dugu, guztiok bat izan bear dugu, ez bakarrik zañ-odolean baizik eta aberzaletasunean, Euskalerrriari dagozkion onura guztietan. Gure bizitz-izarra Euskalerrria da, eta izar orreri begira egin bear dugu gure bizitz ibillaldia. Euskalerrria gure Ama da, eta Ama jarraituz nolaz galdu gaitezke? Bide zuzenetik gabiltza Ama magalean. Arriskueta, etsaien burrukaldietan, Amak zaindu, gorde eta babestuko gaitu. Amaren biotz ondoan bagaude ez dugu ez otz eta ez goserik izango; alai eta bizkor biziko gera, beti geren buruaren jabe izango gera. Munduan diran bazter guztietatik ikusi daitezke Aralar mendi ttonttorrean Mikel Goiaingerua eta Arantzazuko Ama. Nun-naitik ara begira dezagun. Ez dezagun geren Ama bakarrik utzi. Gure Ama gabe nora joko dugu? Umezurtz, zer izango gera? Txiro besterik ez. Eta badakigu: txiroak dirudi intxausti, guztiak arrika beti.

Euskalerrriaren etsaiak orain ere lengoko otso berberak ditugu, naiz beste larru batekin jantzita agertu orain, beti atzaparkaka, Euskalerrria larru gorrian utzi naian. Len Espartero, gero Franco eta orain Suarez. Itz leun eta goxoak; eskeintz asko eta egitasun gutxi, beti maltzurkerietan. Bein eta betikoz begiak zabaldu ditzagun. Ez ditzagula siñistu beren eskeintzak, armiarma saretan sarezteko lakioak besterik ez bait dira. Etsitu gaitezen. Ez naiz aspertuko gauza berbera bein eta berriz esango badut ere. Azpi-lana besterik ez dakite egiten, satorren antza; eta sugeak bezala, zirritu guztietatik sartzen zaizkigu. Eta, bein etxean, ozka egiten digute eta pozoia geren errietan utziko digute gu iltzeko.

Oso ederki iduritzen zait Goiz-Argiren deia Konstituzioari buruz. Konstituzioa ezta gure Konstituzioa, beraiena baizik. Beraiei konbeni zaie eta ez guri, gu Erri berexi bait gera geren izaera, Lege zar eta nortasunarekin. Korapillo guztiak lotu arte ez dute esango noiz izango dan garai eta ordua, auteskundetan, Konstituzioari baietza edo ezetza emateko. Guk, euskaldunok, badakigu zer egin: autespen egunean,

EZ 'BAI' ETA EZ 'EZ'
BOTORIK EMAN EZ!

Konstituzioa ez dijoa gurekin. Ez bero eta ez otz: epel. Ori ez egitea geren buruaren aurka jotzea da, gure etsaia indartuz. Ondorengo negar malkoak alperrikako negarrak izango dira. Errua orain zuzendu bear da eta ez gero, garairik ez danean. Garaiz gaude orain.

Madrid-tik Ezkerra'tar S.

Goiz-Argi, 1978, 410, azaroa, 3. or.

Aur galtzea, Herodes berri bat

Guztiok dakigu -Jesukristoren Berri-Ona irakurri ondorean- izan zala garai artan -Jesukristo jaio zan egunetan- Herodes izeneko gizon ospetsu bat. Judutarren errege zan. Arroa zan eta aginte-gogo izugarria zuanez (gaurko egunetan bati baiño geiagori gertatzen zaio gauza bera), nolaz utzi zezakean zedukan erregetza kendu zezaioten? Etzuan inguruan bere gaiñekorik ikusi nai (oillotegei batean bi oillar nekez izango dira pakean).

Belengo estalpean judutarren erregea, Daviden semea jaio zala jakin zuan alako batean Herodesek. Bere erregetzan itzal egin zezaiokean. Zer egingo zuan, bada, bere erregetza zaintzeko? Biderik ziurrena, bere ustean, iru urtez beerako aurrak iltzea zan. Eta asmatu bezala, ala agindu eta egin zuten. Baiña goi-argia zala bide, Jesus Aurtxoa erailtzatik irten da.

Herodesen ekintza ori iraitzgarria da, benetan.

Esaerak dion bezala, kondaira berrizten ari da. Leen, aspaldi batean gertatu zana ari da orain gertatzen. Gaur-egun ere bada aur-erailtza. Gaur ere bizi da, gure artean da, orduko Herodes ura. Nun eta nolaz jantzirik? Aur-galdu (“aborto”) itxuran.

Zenbait naziotan, agintari eta legegilleak aur-galtzea legezatzeko lanetan dabilta. Garai artan Herodes gorrotagarria baldin bazan bere ekintzegtatik, are gorrotagarriagoak dira erailtza ori legezatzeten dutenak. Guk ezin dezakegu onetsi egikera ori. Gurekin ere ori bera egin zezaketen, eta ez genduan nai izango. Guretzako nai ez duguna, bada, ez dugu nai izan bear besteendako ere.

Sendia gizartearen oiñarria da. Sendia galtzen bada, ez da gizarterik, munduaren azkena izango litzake. Eta zer da aur-galtzea sendiaren ondarena besterik? Aur-galtzea oben-larririk aundiena da.

Lizunkeritan, arinkeritan dabiltzan gazteek (eta bat baiño geiago ezagutzen ditut nere inguruan) irrist egiten badute eta aurdun gelditzen badira, lotsagatik, gurasoek beren etxeetatik botako dituzten beldurragatik, aur-galtzeko bideak artzen dituzte.

Bai, badira alabaren batek orrelako aztaporen bat izan baldin badu, ostikoka etxetik kanpora botatzen dituzten gurasoak. Guraso oiek ere badute beren erru eta utsa. Beren alabaren bati, zoritxarrez, orrelako gauzaren bat gertatzen bazaio, alaba orren zorigaitza begiratu bear lukete eta ez bakarrik aien obena. Eta ez beartu alaba orrelako zentzugabekeria egitera. Une ortan laguntza bearrean daude alaba oiek; ez utzi bakarrik; lagundu. Eta nork obeki lagundu lezaieke gurasoek baiño?

Gaiñera, lotsagarri al da umea izatea? Ez al da ume ori beren zati bat, beren bizitza luzapen bat? Zergatik, ordea, bere bizitzaren luzapen ori moztu ume-galtzeko bideak artuz? Arduragetasun ori izan badute, ez lukete geiago ondatu eta loitu bear beren bizitza, errua zuzendu eta ume ori aal dan obekien azi baizik.

Baiña ez bakarrik gurasoak; sendagilleak ere badira, dirua dala bide, ortara eskeintzen diranak. Eta oiek errudunagoak dira, sendagaia gaitzak sendatu eta bizitza zaintzeko jarria baidago, eta ez bizia kentzeko.

Aur-galtzea geuren buruaren aurka jotzea da.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1978, 410-411, azaroa, 18. or.

Indarkeria eta demokrazia

«Mientras haya violencia no habrá Estatuto», esan du Suárezen ordezko dan Abril Martorellek. «Mientras haya violencia no habrá democracia», zion beste batek.

Egi borobillak biak. Bañan aztertu dezagun pixka bat. Norentzat esanak dira itz auek? ETarentzat, bere indakeriarentzat bakarrik? Ez al da Euskalerrian ETaren indarkeria besterik? Zergatik asi zan ETA indarkeri ortan? Nun da indarkeri orren iturri, sustrai eta arrazoia? Ez dut esan nai nik indarkeria onartu bear dala. Bañan bakoitzari dagokiona eman bear zaio. ETAk dionez «ez dago ezer lortzerik pake-bidez eta giza-legez».

Zer eratakoa da indarkeria? Su-izkilluz egindakoa bakarrik? Baditu beste adar batzuk ere. Ez al da indarkeria errialde garailleak errialde menderatuerei geiegizko zergak jartzea? Ez al da indarkeria errialde bateri (Euskalerriri) bere buru-jabetza kentzea? Ez al da indarkeria Euskalerriri, bere izkuntzan, aldizkari, eguneroko eta izparringiak argitaratzen debekatzea? Ez al da indarkeria euskaldunei beren izkeran izketan debekatzea? Ez al da indarkeria ikas-tetxeetan euskera erakusten ez uztea? Ez al da indarkeria, erri-pakea billa dabiltzalako aitzakiz, su-izkilluz, makilka eta zigorrez euskaldunak zigortzea, Iruñan, Donostin eta beste ainbeste lekutan gertatu oi dan bezala?

Eta orrela ainbeste eta ainbeste indarkeri... Indarkeri guzti auek euskaldunak bere biotz barruan, erraietan dauzkate; ez dira nola-nai aztutzen.

Orduan, norengatik esanak dira ote dira goian esandako itz aiek? Ez ote esanak, uste gabeen, beren kontra? Nork egin ote du erru: su-izkilluz egunero erailtzen dutenak edo ortarako bidea eman dutenak? Egia da, eta egi borobilla gañera, ori ez dala gauzak konpontzeko bidea; indarkeriak, edozein klasetako indarkeriak, indarkeria dakar: naiz itzezko eta egitezko indarkeria izan ala su-izkilluzko indarkeria. Eta onez konpondu ez ditezken gauzak askotan indarrez konpondu bear. Eta zer egin du orain arte Madrیدهko Gobernuak Euskalerriko gora-beerak konpontzeko, euskal diputaduen eskaerak entzun eta bear liraken erabakiak emateko? Entzungor egin, eta onenetan geroko utzi, azkenean uko egiteko. Ori al da demodrazia iristeko bidea?

PNVek indakeriaren aurka antolatu zuan agerpena Euskalerrriaren etsai diranak ETaren aurka bakarrik balitz bezala artu zuten, España guztiak ETA gorrotarazi naiez, agerpen ortan beren errua estaliz, guztiek ETA gaitzetsi dezaten. Baña Garaikoetxeak eta Anasagastik garbi itz egin zuten zein zan agerpen are jomuga: «alde guztietako indakeriaren aurka jeiki-arazi nai dugu

erria, eta ez aker aldekoaren aurka bakarrik; batez ere bestearen aurka, errudunik aundiena Gobernua bera dalako», esan zuten.

PNVek antolatutako indarkeriaren aurkako agerpena ederki etorri zaie euskal etsaiei PNVren etsai nagusia ETA dala sinistuarazteko. Abertzaleok ordea, ez gaitezen itxutu.

Ezkerra

Göz-Argi, 1978, 412, azaroa, 2. or.

Aurraren nazio-arteko urtea

ONUK dionez, datorren urtean *Aurraren Nazio-arteko Urtea* ospatuko da. Eta zergatik ez, bada? Ez al dituzte aurrek ere beren eskubideak? Bai, alajaiña! Joan zan urtean *Emakumearen Nazio-arteko Urtea* izan zan, emakumearen eskubideak eskatuz. Aurrak, beste edozeiñek bezala, baditu bere eskubideak.

SORTZEKO ETA JAIOTZEKO ESKUBIDEA

Txinan, gai ontan, guk baiño zorrotzago jotzen dute. Bein batean, zortzi urteko txinar neskato bati zera galdegin zioten:

- Zenbat urte dituzu? Eta ona emen aurraren erantzun zorrotza:
- Zortzi urte ditut; baiña bederatzi.
- Nolaz izan daiteke ori?, bergaldegin zioten. Eta neskatoak:
- Bai. Zuek aur batean edo beste edozeiñen adiña amaren sabeletik atera orduko asten zerate zenbatzen; baiña Txinan ez da orrela. An, amaren sabelean sortu orduko asten gera zenbatzen. Orregatik, zuen eran zortzi urte ditut, baiña gure eran, bederatzi.

Zer ikaskai atera daiteke txinarren urte zenbatze ontatik? Aurrak ere, sortu orduko, badituala bere eskubideak. Orregatik, gaur egun nazio askotan dan aurgaltze edo aborto oitura ez da zillegi. Sortu dan aur orri ezin dezaioke iñok bizitzeko eskubidea kendu, ori egitea erailta baida. Sortzeko eskubidea gaiñerako eskubide guztien ate eta oiñarria da.

AZIKASPEN ESKUBIDEA DANENTZAT BERDIÑA

Bigarren, aurrak azikaspen eskubidea du. Eta emen bai dala ezberdintasuna! Azikaspen eskubide ori aur guztiena da: bai aberatsena eta bai beartsuena ere. Zenbat adimen argi eta zorrotz ez dira galdu munduan ikasbiderik etzutelakoz izan edo ikasketak egiteko dirurik etzutelakoz!

Bear bada aur oiek, ikastunak izan zitezkean, beren gizaroan gauza aundiak egin zitzaketen, sendagille, injeniero-edo izan zitezken, eta ez beso-lan-gille; bizimodu ohea izan zezaketen eta ez orain daramaten bizitza estu eta gorria. Eta ori noren erruz izan da? Ez beren erruz. Estaduak ordaindu bear

lituzke ikastaroko zor guztiak gurasoen gain utzi bearrean. Baiña oraiñ arte ez da orrela izan, beste aldera baizik. Eta urtean eta garestiago izan dira ikastarok. Eta zeren eskubidez debekatu orain arte aur bakoitzari bere izkuntzan jakituna izatea, Euskalerrian gerta oi dan bezala? Ori bai dala astakeri galanta!

OSASUN-BABES ESKUBIDEA

Eta irugarren, aurrak osasun-babes eskubidea du, batez ere adimen gutxidun edo subnormal dan aurrak. Zer egin da orain arte aur gaixo oien alde? Ezer ez. Gizartearen ondarrak dirala badirudi; aldenduta uzten zaie. Zenbat ikastetxe dira españar estatu guztian adimen gutxiko aur oientzat? Gutxi eta oso garestiak. Baditut nik lagunak adimen gutxiko aurrak dituztenak eta beren umeak ikastetxe berezi oietara eramatea ogei eta amar milla pezta kostako litzaike gutxienez illeko. Guraso oiek, langille oiek diru-ordaintza orri aurre ezin egiñez, aurrak etxean edukitzera bearturik daude. Nun da aur oiengana-ko Estatuaren laguntza eta babesa. Zer erraztasun ematen ditu? Dakidanez, erraztasun gutxi eta buru auste diru ori erdiesteko.

Ona emen Estatuaren utsik aundienetako bat. Ea ezagun izaten dan datoren urtean ospatzeko dan "Aurraren Nazio-arteko Urtearen eragiña".

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1978, 412, azaroa, 24. or.

Oitura ezetsigarriak

Ez da oñaze gabeko zorionik, ez ere arantz gabeko larrosarik. Ezin bat beste gabe izan; beti biak batean. Bizitza eta eriotza gauza berberaren asiera eta amaia. Bizitzen asi orduko iltzen asten gera; biek batean dijoaz mundu ontako ibillaldian. Negargarria eta nekezkoa benetan maite duguna, geren kuttuna, betikoz galtzea; gure begiek egunero ikusten zutena beñere geiago ez ikustea. Ezin betezko utsunea da eriotza.

Badira gure bizitza alaitzen duten oiturak, baita naigabetzen dituztenak ere, lotsagarritzko oiturak. Aipagarritzkoa eta eskertzekoa da illetetan batzuetan gerta dana, bañan baita lotsagarria ere beste batzuetan gerta dana. Aipagarria eta eskertzekoa, norbait il danean, gure adiskide illa, maite genuena eta il danaren sendia inguratu eta beren naigabea lagundu eta beren oñazea arintzea. Bañan lotsagarria eta negargarria illeta batera ezteietara, jai batera balitz bezala joatea. Il danaren sendiak badu naiko naigabe bere biotzean beren arteko batek betikoz utzi ditualakoz; ezin nola-nai aztu egunero naikide izan zuten arpegia. Erri bertakoak eta erritik kanpokoak biltzen dira illetara. Eta gorputz-illari lur eman ondorean, guztiak il danaren etxean bazkaltzera. Eta otordu orduan, amikide artean, zer izketa eta zer izkirimiri askotan, irriparrak lagunduz! Samintasuna bearrean, alaitasuna. Bidezkoa deritzait kanpotik datoztenak beren aideen etxean jatea; bañan errian bertan bizi diranak zer? Zergatik ez joan oiek bakoitza bere etxera?

Oitura au erabat aientzeko maian, orain dirala ogeiren bat urte, Arbizuko apaiz dan Arbizu'tar Juan jaun ospetsu, euskalzale jator eta adiskideak erabaki bat artu zuan. Irugarrendar anaigoei onela mintzatu zan bere asmoa agertuz: «Arbizun norbait iltzen danean, erritar norbait illaren etxera jatera biltzen danari amar duroko diru-nekea jarriko zaio». Eta Irugarrendar anaigoko guztiak ontzat artu zuten apaiz jaunaren erabakitz. Eta ortan jarraitzen dute ere.

Aipagarria da arbizuarren erabakia eta erri guztiendako irakaspen ederra.

S. Ezkerra

Goiz-Argi, 1978, 413, azaroa, 2. or.

Gaurko irakaspenaren egi-eza

Aspaldiko urte auetan or dabilta ikastetxeetako irakaskintza gaietan zili-purdika, itsuak bezala, nora jo ez dakitela. Beti ikaspideak aldatzen dabilta. Ez dute irakaspen iraunkorrik. Batean au dala, bestean ura dala. Eta aurtxo gizarajoak zoratu bearrean darabilzkite.

Nik uste, gure gaztaroan, liburu gutxiagorekin geiago irakasten zigutela irakasleek, eta geiago genekiala. Amabi-amairu urterekin bagenekizkian "regla de tres", "regla de interés" eta abar, matematika gaietan. Eta beste gaietan ere berdintsu.

Baiña orain ikus ezazu aurtxo koxkor ori ikastetxerako bidean... Asto bat balitz bezala, or doa bizkar gaiñean ezin jasozko liburu sortarekin. Eta ori gutxi bada, ez dakit zenbat eginbear dakarkiten etxera, urrengo egunerako egiteko.

Ez dute izaten jolasteko betarik ere. Adin ontan ez badira jostatzen umeak, noiz egingo dute? Eziera txarra daramate gaurko aurrek. Eta gaiñera, nolako liburuak darabilkitela eta nolako eginbearrak agintzen dizkietela...! Gai batzuk zer esan nai duten ez dakitelakoz, zenbat aldiz nere umeek eska-tu ote didate beren eginbearrak egiten laguntzeko! Eta neroni ere arrituta gelditzen naiz. Nolaz jakin ditzakete adin ortako aurrek neronek ulertu ezin ditzakedan gauzak? Adin ortan aurrek ez dute orrenbesteko ezagutzarik, ezta orrenbesteko gaitasunik ere.

Ori ez da irakasteko erabilli bear litzaken psikologia. Orain irakatsi eta eskatzen dizkieten gauza askok zertarako balioko diete aurreragoko bizitzan? Alperrik izango zaizkie. Obe lukete gero, aurrerago, bearrezko izango zaizkien gaiak irakastea, izan ere oraingoa eta putza berdintsu. Eta gero diote baietz, ori dala gaur erabiltzen dan irakasbidea, erabiltza ori, beste larrietan, alde batera utzi dutenean, irakas-gaietan bide makurretik zijoaztela oartu diralakoz. Jakiña da, besteek txartzat uzten dutena guk ontzat artzen dugu. Eta orrela, beti, beste nazioen parean berrogei eta amarreko atzerapena daramagu gauza guztietan.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1978, 413, azaroa, 19. or.

Berriz, Konstituzioari buruz

Azkenekoak eta datozten auteskunde orokorrak berdiñak dira; eta ura eta au, ez-bidezkoak eta adimengabeak. Leengo auteskunde orokorretan gai askori eman bear zitzaion baietza ala ezetza. Bat, gai baten alde egon zitekean, baiña beste gai baten aurka. Orduan nolaz eman autarki berbera gai guztien gain? Gauzak ongi egitekotan, eta ala izan bear litzake, banaka-banaka, gai guztiendako, bereziki, erriaren autarkia eskatu bear litzake.

Eta oraingo Konstituzio auteskunde orokorretan zer gertatuko da? Zer bide daramagu? Bide berbera. Konstituzio onek gai asko biltzen ditu bere baitan: autonomia dala, ezkontz-austea dala, aur-galtze legea dala, eta abar. Ni, esate baterako, autonomiaren edota ezkontz-austearen aldeko izan naiteke, baiña ez aur-galtze legearen aldeko.

Orregatik, datozen auteskunde oietan Konstituzioari 'baietz' autarkia ematen badiot, Konstituzioak dakarzkina gai guztieri baietza ematen diet, eta ori nere buruaren kontra jotzea izango litzake. Eta 'ezetz' autarkia ematen badiot, berdin.

Ori ezta, bada, auteskunde bat egiteko era egokia. Konstituzioko gai bat erriari ezagutzera eman, eta gai orren baietza ala ezetza, bere iritzia, erriari eskatu. Ori bai litzakela auteskunde demokratiko bat: erriak onartu dituan gaiak berezi eta Konstituzioan sartu; eta erriak uko egin dion gaia, alde batera utzi, eta ez sartu Konstituzioan.

Baiña joan ziran auteskunde aiek Francoren garaikoak, diktaduraren garaikoak ziran, eta oraingoek ere margo berbera dute: ez du erriak antolatzen legea, baizik eta erri-ordezkoek. Eta erri-ordezkoek antolatu duten legea erriak onartu ala utzi bear.

S. Ezkerra

Goiz-Arri, 1978, 415, abendua, 3. or.

Errusiako urrea eta Euskalerriko fueroak

Bakoitzak berea eskatzen du. Joan zan Españako guda denboran (1936-1939ko urteetan) Españako urre geiena Errusiara eraman zuten. Eta an dago. Españako Gobernuak bein eta berriz eskatu du urre ura bere sorlekua itzultzeko, baiña alperrik. Errusiarrek erantzun izan dute beti, etzaiela ajola urrea Españara itzultzea, baiña Españako gudan izan zituzten diru-kalteak (su-izkilla, egazkin eta emen il ziran gudarien diru ordaintza) jaso ondorean. Españako Gobernuak zion, ori 'gorrien' kontu-garbiketa zala. Baiña gorriak ere ez al ziran espānarrak? Orduan noren gain jarri daitezke kalte eta zor aiek?

Españak ere Gibraltar itsas-mearreko malkorra bein eta berriz eskatu dio Inglaterrari, Espānarena dala agertuz. Eta or dago malkor ori Inglaterraren mendean.

Bakoitzak berea dana eskatzen du. Eta Euskalerriak zer eskatzen du? Berea dana besterik ez: FUEROAK. Esparterok eta gero Francok kendu zizkion Fueroak. Ez du besteen gauzarik eskatzen, lapurtu ziotena baizik. Eta oraingo Gobernuak, leengoak bezala, ez du ezer jakin nai, ez dizkigu Fueroak bereman nai; ukatu egiten dizkigu.

Lapurrak ostutako gauza, norbaitek beregan gordeta badauka, eta bere jabeari eman nai ez badio, nolaz deituko dugu? Lapurra. Eta zer esan dezake Euskalerriak, Esparterok lapurtu zizkion Fueroak beregan gordeta dauzkana-ri eta bere jabeari itzuli nai ez dizkionari? Lapurra ere.

Gero, Martin Villak onela esan du: «lapurketa, indarkeria, erailtzak eta nastuketak ETak egiten dituala». Baiña ez ditu begiak geiago zabaldu nai, ez du zorrotzago aztertu nai beren errua agertu ez dadin. Gainka eta azalez bakarrik begiratzen ditu gauzak.

Zenbait euskaldunek itz egin lezakete poliziengandik beren bizkar gainean artu dituzten makilkadaz; eta il diran zenbait euskaldunek, itz egin balezate, zenbat gauza esango lituzkete! Ori ez al zan indarkeria? Indarkeri aiek oraingo indarkeri dakarte. Gauza bakoitza bere lekuan, eta bakoitzari berea dana eman.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1978, 415, abendua, 16. or.

Euskalerraren garaikundea

Gabonillaren 6garren eguna, Euskalerraren garaikunde eguna izan dala esan genezake. Egun ortan, España guztian, Madriden antolatutako Konstituzioari buruzko auteskunde orokorrak izan genituan. Aurreko egunetan burugarbiketa bikaiña egin nai izan ziguten, batez ere urrutikuskiñaren bidez. Itz egin zuten geienak, baiezko autarkia eman nai zutenak ziran: UCDkoak ainbeste, PSOEkoak beste ainbeste. APkoak beste orrenbeste..., eta ezezko autarkiaren aldekoak bat edo beste, erriak esan etzezan baietzaren aldekoak bakarrik itz egin zutela. Eta gero, demokrazia billa dabiltzala diote! Bai, putza!

Zergatik etzieten arkuntza berdiña eman ezezkoaren aldekoeri? Bakoitzak zeuzkan arrazoiak agertu zitzala. Baiñan ori etzezaketan egin. Ori egiten bazuten, beldur ziran, geienek ezezko autarkia emango zutela; eta nai eta nai ez, Konstituzioa aurrera eraman nai zuten.

Eta Euskalerrian zer gertatu zan? Gertatu bear zuana: arrotzak, Gobernu aldeko partiduak, odolez eta sentimentuz euskaldun garbi eta zintzoak ez diranak bakarrik urbildu ziran auteskunde maietara beren autarkia ematera, batez ere baiezko autarkia ematera. Bañan Euskalerriak, euskaldun garbiak, ez dio ezta begiratu ere Konstituzioari. Ez du parterik artu Konstituzio ori ez dalakoz euskal-legedia, baizik eta Madridetik ezarri nai diguten legedia. Eta Euskalerriak bere autarkirik ez ematea, muturreko gogorra izan da Konstituzioarendako. Garaikunde eder eta ospagarria izan da Euskalerrarendako gabonillaren 6garren eguneko auteskunde orokor eguna.

Bañan egun ortako ekintzarekin bukatu al da Euskalerraren eginbearra? Ez... Bada oraindikan zerbait geiago eginbearra. Suarezen jarraipena eskatuz gure autarkia eskatzen badigute, ez-ajol ager gaitezen; ez dezaiogula gure laguntzarik eman, badakigu zenbat eta nola 'maite' duan Euskalerria eta.

Datorren urtean udaletarako auteskundeak izango ditugu. Auteskunde oietan euskaldun eta abertzale diran alkateak bakarrik autatu bear ditugu. Ontan ere begi-zorrotz ibilli bear. Baliteke euskalzale agertzea, eta gero euskal-itxura eta antza bakarrik daukan alkatea autatzea, Madriden aldeko alkatea autatzea, euskal arazoan ajolarik etzaiona.

Eta GOIZ-ARGI onen orrialde auetatik oarpen bat agertu nai nioke Euskalerrari osoari:

Leengo egunean, urrutikuskiñatik ezagutzera eman zuten Madridedo Gobernuari agertuko asmoa: «Gabonillaren 6garren eguna España guztian jai ospatu dadilla». Eta nik diotzat: zergatik ez autatu Euskalerrian ere egun ori jai gordetzeko eguna, baiñan ez Konstituzioa onartua izan dalakoz, baizik eta Euskalerriak Konstituzioaren kontrako garaikundea izan dualakoz.

Españako konstituzioa eta euskera

Konstituzioari buruz naiko gauza esan eta idatzi dira bai aldizkari ontan eta baita beste aldizkari, eguneroko, irrati eta urrutikuskiñean ere.

Orain ez noa azalgai aiek nastutzeraz; ez dut itz egingo bere mamiaz, baik zik bere eraz. Badakigu ondar ustelak zenbatenaz geiago nastu eta usai txarrago botatzen duala.

Irarkolan sartu eta argitaratu baiño leen, neronek zuzendu nituan (zuzendu eta aldatu esan baleike) euskerazko Konstituzioaren akatsak. Nere lantegiko buru gertueneri ezagutzera eman nien oso euskera itsusia zekarrela eta ea baneukan euskera txukun eta berezkoan itzak jartzeko eskubidea. Eta erantzun zidaten uzteko zegon bezala, ori etzala gure lana; irarkolako utsak bakarrik zuzentzeko. Eta ala egin nuan. Baiña dakarren euskera, erdi-ipurdiko euskera, erdi erdera erdi euskera da, erderaz esaten dan bezala "euskera macarrónico". Zertan egon da Gobiernua ain garrantzi aundizko idaz-lana ongi euskerara itzuli zezaken gizonen bateri ez emateko, eta ez lenen topoz egiten duan gizonari? Ontan, nik uste, ariñegi jokatu dutela. Konstituzioa euskal kondaira, euskal lege, euskal izaera, euskal Fuero eta gaiñerako eskubideak kontuan artu gabe egin dute, eta gaiñera gure izkuntzara itzuli eta aurpegira bota digute esanez: «Torizute... Etzenduten nai? Ba or daukazute».

Euskerara itzulitako Konstituzioa bezain itsuki zetorren gallegoz. Baiña telebistaz itz egin zuan Galizi Izkuntz Akademiaren lenenburuak izkuntz urdurikeri ori gaitzetsiz. Eta gu zertan gaude? Zergatik ez dute agirian itz egin eta idatzi gure idazlari ospetsuenak, Euskal Izkuntz Akademia lenenburuak gai ontaz?

Santiago Ezkerra. Madrid
Goiz-Argi, 1979, 421, urtarrila, 3. or.

Berriz baserrira

Gabon-eguneko abestiak dio: «Ator, ator, mutil, etxera; gaztaña zimela jatera...». Gaurko egunetan, Eguerriko kanta polit onek bere asieran diona ausartuko nintzake esatera baserritarrentzat esana dala.

Bai; orain arte, esan genezake baserri bizitza asper bizitza izan dala, bizitz latza, bizitz zalla, bakar bizitza, bizitz neketsua, bizitz atzeratua. Len, oso gogorra zan lur-lana, langai egokirik etzualakoz. Etzuan askotan auzotasunak ematen duan alaitasun eta laguntza, etzituan oraingo aurrerapideek ematen diguten laguntza, erraztasuna eta lasaitasuna bizitzeko. Orregatik, baserritarrak bere baserria, bere buru-jabetza, bere sagardia, bere soro eta abereak utzi eta errialdera jotzen zuan bizitz arin eta obeagoren billa. Errietako lantegiko lana baserriko lana baño errazagoko lana arkitzen zuan: ordu gutxiagoko lana, irabazkin garbiagoko lana, aixagoko bizitza. Eta barra-barra, batez ere gazteak, errietara.

Bañan bizitzak jira-bira asko ematen ditu. Errietako bizitza ez da orain len ikusten genuan bizitzaren antzekoa: lantegiak zilipurdika dabilta, neketuagoa da ongi-bidea, ez gera geren buruaren jabe, egunean eta zallago da bizitza errietan, gauza guztiak garestiago, aizea ustelago, bizitza galtzeko arriskuak aundiago, naspillak ugariago, eta ainbeste eta ainbeste oztopo gure bizitzan...

Orregatik, gure guras eta senideek, bi bizitzak parean jarrita, darabilten bizitza obeagoa dalako ustean, deadar egiten die beren seme-alabei esanaz: «Ator, ator, mutil, etxera... Emen ire buruaren jabe aiz. Ez dek iñoren pean bizi bear. Ez dik iñork aginduko. Emen aize garbia duk. Emengo bizitza paketsu eta osasuntsua dek, ez or arnasten duken aize ustela. Oraingo langaiak ez dituk lengoak; or dauzkaken aurrera-bideak emen ere badizkiagu: badiagu tximist-argia, badiagu urrutizkiña, badiagu urrutikuskiña, badiagu berebilla. Orain erriek eroso zeudek edozein gauzetarako. Or ez daukak txori abeslerik; emen bai. Zer nai dek geiago? Ator, ator, mutil etxera; gaztaña zimela jatera; aitareta amaren ondoan; pake eta zori onean...».

Alaxe da: arrazoi aundia daukate baserrietan bizi diranak. Iñun baño obeki bizitzen da gaur-egun baserrietan. Baserrietako bizitza lengoa baño ariñago da edozein alderdietara begiratzen badugu ere. Baserrietako salgai eta emaiak len baño errazago eraman ditezke saltzera; len asto gañean eraman bear, orain berebilletan eta azkarrago eraman ditezke. Eta nun pake aundiago baserrietan baño? Auxe da gaur gerta dan arrigarrizkoa: irietan, batez ere iri

aundietan bizi geranok, aize garbi eta pake billan, erri koxkor eta mendietara jo nai dugu; eta erri txiki eta basetxeetan bizi diranak berriz uri aundietara joateko naia dute.

Euskalerrian, bizi-leku eredu-gaiak baserriak ditugu. Gorde ditzagun euskal baserriak, geren buruaren eta euskeraren onerako. Baserriak dira euskeraren kabi, seaska eta gorpuzkontzi ("relicario") oberenak. Or gorde eta zaintzen dira euskaldunen garrantzizkoen gauzak: izkuntza garbiena eta euskal oitura eta izaerarik garbi eta sendoenak.

«Ator, ator, mutil etxera, gaztaña zimela jatera... aitaren ta amaren ondoan».

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1979, 421, urtarrila, 17. or.

Berriz ere, auteskundeak

Berriz ere auteskunde zurrumbille artean aurkitzen gera. Oraingoak Españar lendarakaria autatzeko, eta urrengoak udal-auteskundeak. Azkeneko auteskundeak garrantzi aundikoak izan baziran euskaldunendako, oraingoak ez dira gutxiago, batez ere azken egingo diran auteskundeak, au da, udal-auteskundeak. Eta azkeneko auteskundeetan Euskalerrria eta euskal abertzalea erne egon bazan eta bere naia agertu bazuan, oraingoan azkeneko bultzada eman bear dio euskal-ekiñaldiari azkeneko uko-aldi indartsuagoa agertuz. Emen datza gure bizitza ala eriotza.

Orain ere, len bezala, eta bear bada gogo biziagoarekin, gartsuago, bertaratu eta urbilduko zaizkigu Euskalerrriaren etsaiak euskaldunen biotza, gogoa, laguntza eskatuz beren asmoak betetzeko. Berekoiak dira, maltzurak dira; ez dute begiratzen Euskalerrriaren onura, Euskalerrriaren ondarena baizik. Berriz ere, euskaltzale itxuran, itz goxo eta eskeintzaleak ekarriko dizkigute euskaldunon belarrietara; berriz ere, anaitzat urbilduko zaizkigu, atzetik ezpata zorrotza biotzean sartzeko. Erne berriz...! Ikusi dugu orain arte zertan gelditzen diran betiko eskeintzat... Ori: eskeintza besterik ez; egiazko asmorik ez. Ez dute agertzen egiazko damua, obetzeko damua, egin diguten kalte guztia-gatik. Eskeintzak, itzak, aizeak arin arin eramaten ditu, egintzak berriz or gelditzen dira. Orregatik, euskaldunak egintzak nai ditu eta ez eskeintzak. Suarezek dionez, «eskeini dezaket eta eskeintzen dut». Baiña eskeintzea erraza da, ez ordea eskeintzen dana betetzea.

Euskalerrrian udaletarako antolatutak izango diranak begi zorrotzez begiratu ditzagun itxurazko euskaldunak ala euskaldun abertzaleak diran. Egiazko euskaldunak euskal odoleko eta biotzezko alkate eta ordezkioak nai ditu bere udaletan, Euskalerrriatik begiratzen duten alkateak eta ez Madrileko esnedun beiazen errapetik zinzilika dauden alkate eta ordezkariak. Oiek beia-ri jatera eman nai diote Madrilen esnea ian dezaten. Euskaldunak ere geren beia jetzi nai dugu.

Goiz-Argiren 42Igarren zenbakian 'Astekari'k dion bezala PSOE eta UCDDkoak «ez dira egiazko euskaldun agertu, ez euskera-dun eta ezta euskoradun ere» Euskalerrrian. Jaime del Burgo eta UCDDtarrek Naparroari ziri galanta sartu diote, Araban Viana eta UCDDtarrek egin duten bezala. Emendik aurrera napar eta arabar bakoitzak diru geiago ordaindu beariko diote Madrileko Gobiernu zentralistara.

Orreri deitzen al zaio Euskalerrriaren onura izatea?

Begira, bada, udal auteskundeetan PSOE eta UCDDkorik autatu ez dedin alkate eta buruzagietara, euskaldun jatorra baizik.

Indarkeria

Aspaldi ontan or gabiltza gora eta beera, ezker eta eskubi, jo eta ke, indarkeriari buruz itz egin eta idazten. ETak au eta ura egin dituala, indarkeria gaitzetsi bear dala, ETak Euskalerrian galera eta ondarena dakarrela, indarkeriak demokrazia ankaraz gora bota nai duala, eta nik ez dakit zer gauza geiago.

Orain oroitzen naiz, aserre zegonean, nere galderari: «Abuelo, ¿qué hay en el Congreso?» aitonak esan zidana: «Hablar por no callar».

Oraingorako esanak dirala itz oiek esango nuke. Barra-barra itz egiten da, gauza asko esaten da; baiña, arinkeri geiegi da gaur egun. Azalez bakarrik, gaitzetsi, begiratzen dira gauzak, beren barrunbeak, gauzen sustraiak aztertu gabe, aien iturburuetarara jo gabe. Onela uste al dute gauzak zuzendu aal ditza-ketela? Ez, arraioa, ez!

Batzuetan, gaitza berbera gorputzera ziztatuz sendatzen da gaitza. Kostoma (“catarro”) aurkako ziztakoa artuz sendatzen da; oiñ edo besoen bat elur eta izotz artean izoztu badira, astakeri galanta egingo genduke kendu beso edo oiñ izoztua su ondora gerturatuko bagendu. Oztasun ori otzarekin kendu bearko dugu. Ortarako elur eta izotz beraiekin igortzi beso eta oiñ izoztuak.

Bañan onekin ez dugu esan nai gaitza guztiak sendagai berberarekin sendatzen dirala, ez. Badira sendagai berexia bear duten gaitzak. Eta gaitz oieta-ko bat indarkeria da. Indarkeria sendatzeko ez da naiko itz egitea, ez da naiko aurrez aurre indarkeria jartzea. Askotan okerrago da.

Lendik ere polizi eta zibil gutxi zirala eta, Euskalerrian (len, zortzi milla lagun), iruren bat milla geiago ekarri dituzte. Noski, Euskalerrria auldurik, indarge, lurrean erorita aurkitzen eta indar asko bear da dagon lekutik jasotzeko; eta euskaldunak ezinkorrek dira Euskalerrria jasotzeko; atzerri indarra bear ortarako.

Ainbeste polizi alde ontara ekarri bearrean, zero aztertu bear lukete nork erakarri duan indarkeria, zergatik diran ainbeste indarkeri, nun dagon bere etorburua, eta errotik asi lanean. Zugaitzpean arra jalea bada, alperrik da zugaitz adarrak moztea; arra il bear da lenbizi. Ortik asten ez bagera, alperrik izango dira gure ekiñaldiak.

Euskaldunak badu biotza jaten dion arra, eta ar ori bizirik dagon bitartean, azkaka ibilliko da "per saecula saeculorum".

Terrorismua

Beldur-jaurkera... edo terrorismua. Ona emen mundu guztiko egunkari, astekari, izparringi, urrutizkin eta edozein idazlanetan erabilli oi dan itza. Liburu mardulak ere idatzi dira gai oni buruz. An-emenka sortzen dira beldur-jaurkerako saillak. Sail oiek ikaraturik gauzkate. Gaur an, biar emen, batean aberats bat dala, bestean lege-gizon, lantegi-nagusi, polizi edota ministro bat dala..., aien etsaiak, su-izkilluz, banaka-banaka, bide berdiña daramate, au da, illerri bidea.

Aurreneko urte auetan, bein illundu ezgeroz, Madrیدهko karrika guztiak jendez beterik ikusi genezazken, batez ere udan, gabe-erdi ondoren arte. Zer gertatu da, zergatik aldaketa au? Debekatu egin ote dute? Ez, alajaña... Jendeak beldurra ezurretaraño sartuta dauka. Egunez gauza arrigarriak gerta badira, zenbatenaz geiago gabaz? Eta bakoitza bere etxean obeki dago karrikan baño. Beldur-jaurkerak beldurra eta ikara erein du munduan.

Kaltegarria da benetan beldur-jaurkera errialde betendako. Erri-agintariak itsuturik gauzkate, buru-garbiketa bikaiña egiten digute erri xeari beldur-jaurkera gaur eguneko minbizia baliz bezala jakin nairaziz. Baiña ez ote da okerragoko gauzarik bizi geran gizaldi ontan? Beldur-jaurkeraren atzean ez ote da estaltzen errialdea geiago ondatzen duan beste minbizirik? Nik esango nuke baietz. Eta minbizi ori diru beldur-jaurkera ("terrorismo económico") deituko nuke. Arrisku denboran dirutzak erbestera eramatea, lantegi aundi eta diru-etxetan diru-ebasteak ("estafas"). Onak bai izugarrizko kaltea egiten diola laterriari!

Francok zion: «Ni, ala komunismoa». Martin Villak dio: «Terrorismoa-ekin ala poliziarekin», euskaldunak dio: «Ez bat eta ez bestea».

Gauzak ez dira bi ertzeakoak bakarrik. Gauzak badute ere tartea. Eta euskaldunak gauzaren tartea nai du, ez gauzaren ertzak. Tarterik gabe ez du ertzik. Jaiotza eta eriotza ez dira ezer bizitzarik gabe.

Egia da terrorismoa gorrotagarria dala eta gaitzesten dugula guztiok. Bañan terrorismoa ez da erailketa bakarrik; terrorismoa da ere "Cristo Rey" tarrak egiten dituzten gogorkeriak eta lerkariak, terrorismoa da ere Gasteizen, Iruñan, Errenderin, Donostin, Zumarragan eta Euskalerrri guztia barna, joan diran berrogei urte auetan, zibillek eta poliziek egin dituzten astakeriak, aiek egin dituzten joaldi eta makilkadak, eta su-izkilluz egin dituzten ainbeste eta ainbeste zauri eta erailtza. Eta ez esan gero: «ETAk egiten ditu erailtzak. ETAk egiten ditu lapurketak. ETAk antolatzen ditu naspillak». Ez

ote dira ere terrorista GRAPO, Triple A, Cristo Rey eta beste sail batzuk? Ez ote dira terrorista errialdearen diru gauzetan egiten dituzten lapurketak (eta ez bost milla peztakoak bakarrik, baizik gaztain morkots gurdikaldiak bezala, milloi askoka lapurtzen dituztenak). Eta nun dira aiek? Aiei etzaie neurri berdiña jarri.

Begi garbiz begiratzen baditugu gauzak, beste era batera itz egingo genuke. Bañan or da koska. Konbeni zaiguna bakarrik ikusi nai dugu, eta ori ez da pakezko bidea. Euskaldunak ez gaude ez Franco eta ez Martin Villarekin; euskal-izaerarekin gaude.

Lizarrusti. Madrid

Goiz-Argi, 1979, 427, otsaila, 3. or.

Iñauteriak

Badakigu zer diran ñauteriak... Erri askoetan ospatzen dira. Europan, Erroman Saturnoren omenez egiten ziran jaialdietan dute bere sorrera. Garai artan udaberrian etorrera ospatzen zan.

Iñauteri egunak janaldi eta edaketa ugariak egiteko egunak dira. Egun oietan antz-aldatzen da, bai jantzi eta soñekoetan, bai arpegi estalgaietan ere. Batzuetan atso baten antza, beste batzuetan abere baten antza, edota beste edozein antza artzen da. Iñauteri jai egunetan ñauteritarrek beren nortasuna utzi eta beste norbaiten antzan agertzen zaizkigu. Itxura ortan karrika barna dabiltzanak ez dira itxura ortan agertzen zaizkiguna, baizik beste era batekoak; gezurrezko gizonak dira eta ez egiazkoak; ez digute egiazko arpegia agertzen, gezurrezkoa baizik.

Badator udaberria, bañan udaberri aurretik auteskunde orokorrak, ñauteri politikoak. Bai, auteskundeak ñauterizko auteskundeak ditugu. Udaberri onen atalean urbilduko zaizkigu politikoek egiazko arpegia estalita, eskeintza onekin bañan asmo txarrekin. Au eta ura egin bear dirala, au eta bestea egingo dutela... Bañan oituak gera. Itzak, itzak eta itzak utsak... Itzak aizeak egaka eramaten ditu, egintzak ordea irauten dute. Agintaritzza iritxi arte, asto edo mando gañean jarri arte eskeintza asko egingo dizkigute. Bañan bein asto gañean, aixa dijoazte eta agur egiten digute, egin zizkiguten eskeintzaz oroitu gabe. Zer egin dute orain arte asmo on oiek agertzen dituztenak? Konpondu al dituzte langilleen-sariak, langilleen lange arazoak; konpondu al dituzte bizitz-etxe, jaki eta beste gauzen diru jasoera; moztu al dute dirua erbesteko diru-etxeetara eramatea, eta ainbeste eta ainbeste gauza? Zer egin dute orain arte? Ez al dute denborik izan? Eta orain arte ez badituzte asmo oiek bete, siñistuko ditugu gero beteko dituztela? Bi arpegiko gizonak dira oiek, ñauteri-gizonak: orain beren itzaldietan erakusten diguten ñauteri-arpegia eta berezko arpegia, arpegi maltzurra. Gure autarkia, gure laguntza eskatuko digutenak, batzuek euskalduntzat (Euskalerrian jaiok) agertuko zaizkigu; beste batzuk atzerritik etorriak, bañan guztiak ñauteri-politikoak.

Euskaldun, entzun: bein eta berriz ere erne, begi zorrotzez; entzungor izan itz goxo eta eskeintzallei. Egintzak aurretik eramán ditzaztela; ondoren itz egingo dugu. PNVeri ez diote uzten urrutikuskiñean bere zabalkunderako itz egiten. Ori al da Euskalerriko arazoak konpontzeko bidea? Oiek al dira Suarezén Gobernuak agertzen dituan asmo onak? Ori al da ezarri nai diguten demokrazia? Orain esan: UC Dtarrak Euskalerraren lagunak ala etsaiak?

Langillearen Sindikatua

Frankoren urteetan ez genuen langilleak Sindikato bat besterik, au da, Gobernu Sindikatua. Franco il ondoren aukera ezin ohea izan dugu langilleak geren Sindikatua izateko, Sindikato bakarra, Langille Sindikatua; bañan geok putz egin dugu. Sindikatu auteskudeetan oraingo Gobernuaren naia bete dugu. Orain Sindikato asko ditugu, eta ez dugu aleik ere. Asko dauzkagu, bañan ez bagenuzke bezala. Bakoitzak bere alde jotzen du Elkarte Politikotatik zintzilika daudelakoz. Zenbat Elkarte Politiko, ainbat eta Sindikatu.

Sindikatu guztien arazoa ez al da barrunbean arazo berbera, au da, langilleen arazoa? Zergatik, bada, ainbeste Sindikatu? Zergatik naastu politika langillearen arazoarekin? Orrela ez goaz iñora ere. Begira nola lantegi nagusiek bateatu diran... Sindikatu bat bakarra dute, eta nagusi guztiak buru bat bakarrik balitz bezala, ezaupide berdina dute guztiendako: guztien arazoa zaindu eta sendotu.

Batasunak indarra ematen du, banaketak berriz aultasuna eta indargea. Erdal esaerak dionez «divide y vencerás». Eta zer nai du au besterik daukagun Gorbenuak, zer nai du kapitalismoak? Arrazoi asko dauka esan zuanak: «Bakoitzak merezi duana dauka». Eta zer merezi du Españako langilleak? Españako langilleak, elkartu eta Sindikatu bat bakarra antolatzen ez badute, ez dute beñere ezer egingo, beti oinperatuak eta zanpatuak izango dira kapitalismoarengatik.

Esaidazu, irakurle, nolako indarra izango genuen langilleak Sindikatu bakarra izango bagenuke... Orduan ez ligukete burutik beera txis egingo lantegi nagusi dirudun eta diruzaleek, kapitalistek. Orduan giza bizitza izango genuke eta ez morroi edo abere bizitza. Langille bakoitzak illabetero ainbateko dirua ordainduko bagenu Sindikatu ortara, esaidazu zer diru pilla bildu genezaken... Geren diru-etxea izan genezake. Langille guztiak, beste edozein diru-etxera eramanean bearrean bere dirua, langille diru-etxe ortara eramanean lezaketete. Eta geren diru-etxea izan ezgeroz, indar aundia izan genezake langilleak. Diru ori etxegintzarako, bear bada opor egunetan irauteko, eta beste edozein langille-beartasunetarako erabilli genezake.

Euskalerrian garen gixan bizi bear giñake, atzerritarrak, nolaz bizi diran begiratu, au da, Langille Sindikatua. Orain dauzkagun politikazko Sindikatuetak utzi, aztu, eta *Euskal Langille Sindikatua* antolatu. Orduan bai indartsuak eta erbesteko beste langilleen eredu izango giñakela...

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1979, 429, martxoa, 3. or.

Auteskundeak

Kristauak, eliza buru dugula, eliza inguruan, apaiza buruzagi eta artzai dugula, siñismen bideak egiten ditugu.

Errialdeak ere alaber erri-etxe edo udaletxe inguruan bizi gera. Erri bat urrundik begiratzen badugu, bi etxe lenengoz agertzen zaizkigu etxe guztien gain: eliza eta udaletxea. Oiek dira erri biztanleak gogoan, bere bizitzan izan bear dituan bi ipar-izar bearrezkoenak.

Euskalerrian batez ere beti garrantzi aundia eman zaio erri-etxeari; euskaldunaren bizitz-muiña izan da beti. Edozein erri-arazotarako erri-gizonak erri-etxean bildu eta antxe artzen ziran erabakiak: auzo-lanak eta abar.

Orregatik egun auk garrantzi aundikoak dira Euskalerrarentzat; egun auetan dago Euskalerraren etorkizuna; bizi ala il. Jorraillaren 3garren egunean erri-gizonak autatzeko udal-auteskundeak ditugu. Badakigu, ikusten dugu egunero Madrileko Gobernuak bazterturik gauzkala, azpi-jana egiten diola Euskalerrari, etzaizkiola ajola Euskalerraren kondaira, izaera, izkera, legeak eta oiturak. Bere mendean izan nai gaitu morroitzat, gure etxeko nagusitza eta agintaritza goitik ezarriz, andik eman nai dizkiguten legeak betearaziz. Euskaldunak, euskalduna danetik, beti bere agintari, lege eta oiturak izan ditu. Zergatik orain atzerri-legepean bizi bear dugu? Gure baitan, gure eskuetan daukagu gure etorkizuna.

Euskaldun, udaletxe inguruan bildu gaitezen, geren erri-etxea sendotu dezagun. Eta ori iristeko zer egin? Ona emen, euskaldun, bakoitzaren bete-bearra. Guztiok (Naparrar, Gipuzkoar, Arabar eta Bizkaitar bakoitzak) auteskundeetara joan bear dugu. Eta guztien autarkiarekin Euskalerrri eta euskaldunen kondaira, izaera, lege eta oituren zaindari eta maitale izango diran alkate, ziñegotzi ("concejales"), jaurlari eta ordezkariak autatu.

Udal garia zikiriotik bereizten dugun bezala, orain ere berexi bear ditugu euskaldun garbiak euskaldun zikin eta sabel-zuriengandik, euskaldun zintzo eta leialak euskaldun ustelengandik. Orain dugu ortarako unea.

Len esan nuan joan diran auteskundeak baiño garrantzi aundiagokoak dirala guretako datozkigun auteskundeak.

Bizia ala il. Gure eskuetan dago.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1979, 432, martxoa, 3. or.

Udal-uteskundearen ondoren, danok lanera

Aurreko zenbaki batean eta atal ontatik esaten nuan udal-uteskundeetan zegoala Euskalerrriaren etorkizuna: bizi ala il. Gaur esan dezaizueket ber-bizitzaren asi generala. Bizi-bidean jarri gera, bañan orain bide ortatik ibilli bear dugu.

Euskal erritar bakoitzak zentzu onez jokatu du oraingoan, jorraillaren 3garren eguneko udal-uteskundeetan euskal gizonak berexi eta autatuz. Bide zuzenean gaude. Bañan ez dugu bukatu erabat gure lana. Euskalerrriari dagozkion erri-gizonak autatu ditugu. Bañan ez ditzazkegu bakarrik utzi. Bakarrik, erritar bakoitzaren laguntzarik gabe, nekez jarriko dute Euskalerrria bere lekuan. Zallena egin dugu, bai. Baditugu orain geren gidariak, geren udal-etxeak. Bañan alperrik zaizkigu gidari oiek gu bakoitzak geren alde jotzen badugu, bizkar konkorrak leporaño jaso eta ajola gabeko agertzen bagera erri ekintzetan. Orain bakoitzak geren bizkarra bestearen bizkarrarekin jo bear dugu.

Orain arte, joandako berrogei eta geiagoko urte auetan, udal-"monopolioa" izan dugu: udal-etxeak Madrیدهko Gobernuaren ordaingo ("sucursal") batzuk besterik ez dira izan. Etzezaketan errialdera begiratu Madrid aldera baizik, andik ematen ziran legeak betez. Euskal udal-etxe guztiak lur jota zeuden; ez genduan udal-etxerik. Orain, berriz, gureak dira, eta gure onerako erabilli ditzazkegu. Udal-etxea euskaldun bakoitzaren eta euskaldun guztien etxea da. Lanean asi gaitezen, elkartu gaitezen gure ordezkarien inguruan, guztiak bat jo dezagun Ontan saiatzen bagera, berriz betiko Euskalerrri izango gera; berriz ere gallenduko dira Aralar, Aitzgorri, Ori eta Gorbea euskal mendiak; bereiz ere euskal izena eta izaera mundu guztia barna zabalduko da. Berriz ere abestu dezakegu Iparra-girreraren ereserkia: «Eman ta zabal zazu munduan frutua...».

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1979, 435, apirila, 3. or.

Gizadiaren etorrera

Ezta beñere gaur aña jardukitua izan gizadiaren etorrera. Batzuek ez-bai aundikoa da; beste batzuek, berriz, itxaropengarria.

Bizi geran ludia egunean eta nastuago, egunean eta estutasun aundiagoan arkitzen da. Jakintza gaian, ekonomi gaian, politika gaian, erri eta uri gaian, gaztedi gaian, eta beste edozein gaitan, estutasun eta larri-aldi aundiak dauzka gaurko gizadiak. Nun-nai eta egunero gudak, ilketak, indarkeriak; errialde batzuk besteak menderatuz bizi dira; gaitzak, goseak eta zoritxarrak, arrak zugaitzak bezala jaten gaitu. Pakea, berdintasuna eta zuzenbidea itz utsak besterik ez dira. Eta guzti au zorigaitz txikia balitz, aize eta jaki-edaketa usteltasunak, neurri gabeko biztanle ugartzeak, bizibide gutxitu eta aitutzeak, arriskugarri aurrerapideen neurri gabeko azikerak dardaratu eta arriskuan jartzen dute orain arte gizadia bizi izan dan eta bizi daiteken ludia. Irakurri dugu orain aste batzuk zer gertatu zan Ipar-Amerikako Harrisburg errian, an ezarri duten nuklear indar lantegian. Ez da gauz aundirik gertatu, bañan dei bat izan da; gerta daiteken jakiñaren gañean jarri gaitu. Badira ere bizidunak bakarrik ondatu dezazketen su-izkilluak. Eta nor ukatu dezake ez daitekela txo-txoloren bat, eroen bat sortu, eta alako erokeriren batean leka bat estutu beartzekin eta lerkaria lertuarazi ludi guztia puskaka barratu dedin?

Gaurko izatasuna eta oraingo gaitasunak begiratzen baditugu, ikusi dezakegu gure ludia bide arriskugarri batean sartu dala (edo obeto esateko, guk sartu dugula).

Gure ludiak eman lezaizkigukuen baño ondasun geiago andeatzen ditugu, eta ortik ludi onen aultzea eta agortasuna. Geiegi nastu dugu gure biziera. Osasuntsuago, lasaiago, paketsuago bizi nai badugu, bearrezkoa zaigu beste neurri batzuk artzea. Ez dugu begiratu bear gauzen ugartasuna, baizik beraien iraunkortasuna eta nolakotasuna. Bizibideak azkendunak dira; ez dira betikoak eta neurri gabekoak.

Len gizadia izadiarekin egokitzen zan, baña orain izadia gaindu nai du. Alik eta indar geien gordetzeko bidea arkitu bear dugu; biztanle ugartzeari neurri jarri bear zaio; uri aundiak egin bearrean, erri txikiak egin bearko ditugu obeki bizi nai badugu. Erri txikietan gizona ezta bakarrik arkituko eta ezta ez-ezagun izango ere, iri aundietan gerta dan bezala. Iri aundietan gizaki bakoitza, ainbaten artean, edozein da.

Zein ausarta ezjakiña

Askotan amorrazitzen naute... Eta guztia ez jakiteak egiten du. Lankideekin elkarrizketan asten geran askotan gauza berbera diote: «Naparra ez duk Euskalerrria; naparrak ez dituk euskaldunak, naparrak baizik...».

Eta nik erantzun diot: «Orduan esaizak: Ni Naparroan jaioa nauk. Amaren titia edaten asi orduko euskera besterik ez nian itz egin amar urte arte. Nere abizenak Ezkerra-Beltza-Lazkoz-Etxarri dizkiat (nik uste, abizen oiek ez ditukela Errusi aldeko abizenak edo beste nunbaitekoak). Nere guraso eta nere aurreneko guztiak, lau alderdietara jo nai baduk ere, an jaiokak dituk. Orduan, ik diokanez, ni ez nauk euskalduna Naparroan jaiok nintzalakoz. Zer nauk, ordea?».

Eta erantzun dit: «I naparra aiz, eta ez euskalduna».

Eta nik berriz: «Orduan nortzuk dituk euskaldunak? Gipuzkoan jaiokak ez, euskaldunak baño len gipuzkoarrak ditukelakoz; Bizkaian jaiokak ere ez, euskaldunak baño len bizkaitarrak diralakoz; Araban jaiokak ere ez, euskaldunak baño len arabarrak diralakoz. Orduan nortzuk ditugu euskaldunak: Andaluzian jaiokak ote? Ire iritiz ez».

Eta jarduten du: «Gipuzkoarrak, bizkaitarrak eta arabarrak euskaldunak dituk, bañan naparrak ez».

«Begira zak -esaten diot-. Oiek politikaren txotxolokeriak dituk; Madrideko agintari eta Madridzaleen gauzak nastutzeko gogoak besterik ez dituk. Politika aldetik begiratzen badituk gauzak, esango nitek balitekela alako arrazoi arrastoren bat izatea. Bañan kondaira, Euskalerrriaren kondaira sakonki begiratzen baduk, esango diat naparrak gipuzkoar, arabar eta bizkaitarrak baño euskaldunagoak dirala (naiz napartar askok, zoritxarrez, euskera aztu eta galdu eta itz egiten ez jakin), Naparroa izan zalakoz Euskalerrriaren kabi eta eser-leku (Vasconia)».

Eta erantzuten dit: «Nik etzekiat ori».

«Bada, ikas zak, eta ikasi ondoren itz egin dezakek. Garbi zeok edo?».

Zein ausarta ez-jakiña!... ("Qué atrevida es la ignorancia!").

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1979, 442-443, ekaina, 3. or.

Euskera

Atzerritar euskera ikasten eta zaintzen... Eta guk, euskaldunok, euskaldunak gerala diogunok, zer? Jorraillaren 2Igarren Goiz-Argin ikusi eta irakurri genduan alemandar emakume eder bat. Amar urte daramazki Euskalerrian. Sei izkuntza dakizki, eta sei oietako bat euskera da. Bi urte buruan ikasi du euskera. Bere iritziz, euskerak adierazpen aundia omen du, oso aberatsa omen da. «Gazteak euskeraz itz egiten badute, euskera kalera ateratzen badute, euskera salbatuko da».

Holandar langille bat ere ezagutzera eman zitzaigun bein batean Goiz-Argiren orrialdeetan. Bere izena Win Jansen. Bi udaldietan Euskalerrian izan eta euskera ikasi du. Badut nik Pragan jaio zan Tauer'tar Norbert izeneko politikoko bat ederki itz egiten duana eta euskal liburutegi ederra daukana. Suezian ere baditut Malmoeoko Ikastetxe Nagusian irakaslari dauden Nils M. Holmer eta Abrahamsondar Vania euskal berriak. Nils M. Holmer-ek naparruko Yanzi errian ikasi zuan euskera.

Zaragozako Ikastetxe Nagusian, Tokioko Ikastetxe Nagusian, Tubingako (Alemania) Ikastetxe Nagusian (españar Tovar'tar Antonio egon zan erakusle) erakusten da euskera.

Arritzekoa da batez ere azken berri au... Euskalerrian, itz egiten dan lekuan, debekaturik genuen euskera erakustera, eta itz egiten etzan lekutan, berriz, euskera erakusten zan. Orain bai (bazan garaia), orain legez euskera erakutsi daiteke Euskalerrian. Orain arte aitzakitizat artu genezaken euskera erdi debekatua zala, zalla zala ikastea zeuzkan oztopogatik. Orain ez daukagu aitzaki ateratzerik; orain ikasi dezakegu gure guraso eta aurrenekoen izkerra zarra; orain geren umeak ikastoletara eraman dezazkegu gure izkuntza ikasi dezaten; orain ez gaitzke lotsatu (ez giñake beñere lotsatu bear) euskeraz itz egiteaz; orain jarri ditzakegu Euskalerraren oñarri sendo eta iraunkorrek euskera landu eta zabalduz. Atzerritarrak zaizkigu ispillu. Aiek, euskal-berriek, ainbeste maite badute euskera; aiek ainbeste goraiatzten badute euskera; aiek ainbeste maite badute euskera, guk, euskaldunok, zergatik ez? Lotsagarri izango litzake guretzako ori ez egitea.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1979, 444, ekaina, 3. or.

Euskera batua

«Garaitu nai badek, berexi zak» (erdal esaeraren eraz: «divide y vencerás»).

Eta bai mamitsua dala esaera... Batasunean datza indarra. Euskera sendo eta indartsu gorde nai badugu, euskera eder eta aberatsa ikusi nai badugu, guztiak batera jo bear dugu, eta ez bakoitza bere alde: jo batera izketan eta jo bestera idazten. Zenbait aldizkari irakurri ditut euskeraz, eta aspergarri izan zaizkit idazkerarengatik. Eta baztar batean gorde ditut geiago irakurri gabe. Ez naute siñestarazten aietan idatzita agertzen diran ainbeste **h** eta **a**-ek. Idazkera oiek euskera zaildu egiten dute eta ez gaude euskera zailtzeko garaietan, euskera ikasi nai dutenei erraztasunak emateko garaietan baizik. Berez, euskerak badu naiko zailtasun guk geiago zailtzeko.

Edozein izkuntzetan izkuntz-iturririk garbiena errian dago. Izkera idazpena baño len da. Idazpena sortu edo asmatu baño len, itz egiten zan. Orrengatik erri euskera artu bear genduke euskal-idazkietan. Euskera erraza erabiltzen badugu itzaldietan eta idazkietan, entzule eta irakurle guztiek ulertuko digute; zailki eta berexiki idazten badugu, berriz, goi-maillekoak bakarrik ulertu dezakete. Eta guk geienendako idatzi eta itz egiten dugu (eta egin bear dugu) eta ez gutxienendako.

Ona emen Euskaltzaindiaren lana: Euskaltzaindia izkera garbitu, zuzendu, erraztu, orraztu, indartu, edertu eta gordetzeko antolatua da, eta ez zikindu, zaildu, nastu eta ondatzeko.

Euskera batua, bai; bañan nolako batasuna? Zer neurri eta bide artu bear dira batasun ori lortzeko? Nork eman bear ditu neurri oiek? Euskaltzaindian arkitzen diran izkeran oituenak edo. Oiengan izan bear da euskerarenganako ardura.

Nik uste, batasun ori izkeran eta idazkeran egin bear litzakela. Izlari eta idazlari guztiak ortan saiatu bear giñake. Onura izugarria egingo genioke euskerari. Orain dugu aukera bikaña, euskera erakusteko legeak gure alde ditugula.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1979, 447-448, uztaila, 3. or.

Lan-saria

Alako egun batean, urrutikuskiñaz eta egunkarietan ezagutzera eman zitzaigun Españako legegilleen erabakia lan-sariari buruz:

«Emendik aurrera lan-sari txikiena seireun eta berrogei eta bost (645) laurleko izango da» (Onelatsu gutxi gora-beera).

Bañan nik diot: legegille oiek ez al dira lotsatzen orrelako erabakia artu eta guztiei ezagutzera ematen? Zer uste ote dute? Esku zabalak, emankoiak izan dirala? Zer uste ote dute: beste munduko gauzen bat esan dutela? Piku tximur antzeko biotza dutela bai agertu dutela. Bizi geran garaietan nor bizi daiteke diru orrekin? Zer egin dezake lau, bost edo sei laguneko sendiak diru orrekin? Ortik jan, jantzi, ikastetxeak ordaindu, etxeko gastu guztiak (argi, ur eta beste gauzak) ordaindu. Nork egin dezake orrelako miraria? Neurri-jantziren bat egin bearrean arkitzen bazera, aste osoko lan-saria bearke duzu. Eta jan, zerekin?

Lege ori antolatu dutenei esango nieke ni: «seireun, ez; milla laurleko emango dizkizut lan-sarizat egunero. Diru orrekin, or konpon zu; ea zer mirari egin dezazkegun, Jaungoikoa ezpazera beintzat. Beste nunbaitetik beste diruen bat etxeratzen baduzu ETARI ezagutzera emango zaitut su-izkulluz txakurraren ipurdira bialdu dezaitzaten».

Bañan bost ajola zaie ori. Berak bapo bizi dira. Beren lan-sariak ez dira gure lan-sariak bezelakoak. Eta gañera, ogibide bat bakarra izan bearrean, or daukazu iru edo lau ogibiderekin, diru moltso ederrak etxeratuz.

Norbaitek esango du ori dala langille eta lantegi nagusi artean itundatuko lan-saria, eta orregatik lan-sari zuzena dala ori. Bañan nik esango nioke bearrak beartu duala, langillea itun ori izenpetzeko. Eman dezagun langille bat lange dagoala; eta jateko, bizitzeko, bere umiei jatera emateko, nai eta nai ez, lan egin bearrean arkitzen dala, diru piska bat etxera eramateko etxekoak bizi ditezten... Lantegi nagusiak, langillearen beartasuna ikusirik, eta beartasun ortaz baliatuz, lana eskeintzen dio txanpon batzuen orde. Eta langilleak baietza ematen dio. Bañan ori zillegiztia iduritzen al zaizue? Ezin esan olakorik... Len, orain eta beti, eskugeia ("inmoral") izango da ori.

Langillea eta langillearen lan-saria ez dira sal-gaiak.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1979, 452, iraila, 3. or.

Gaiztakeriak

Mundu guztia beldur dardaraz bizi da... An emenka gauza arrigarri eta izugarriak entzun oi dira.

Ainbeste gertakizunen artean, bi bakarrik ezagutzera emango ditugu gaur.

Madrid inguruko Alkorkon errian gertatuak biak, illabete bat tarteko dala batetik bestera.

Lenengoz, bi urteko aurtxo bat izan zan. Bada erri artan "Longo" izeneko mutiko kozkor talde bat. Amasei inguru urteko mutikoak guztiak. Uztailan bi urteko aurtxo artu bere etxe-aurrean eta karkaba ("alcantarilla") batean utzi zuten. Andik bi edo iru ordutara, andik igaro zan norbait oartu zan eta umea bizirik aurkitu zuan, aurpegi guztia arramaskaturik zeukala.

Orain azken, iru urteko beste aurtxo batekin gertatua. Lau mutiko koxkorrek aurtxo indarrez eraman zuten berekin berrogei eta amar milla pezta trukean eskatzeko asmoz. Aurtxoak negar egiten bait zuan, oial batekin aoa lotu zioten, eta aurtxo ito egin zan. Orduan mutiko arrapariak aurtxo artu eta putzu batera bota zuten. Andik bi ordutara edo, norbait joan zan putzura berebilla garbitzera eta an ikusi zuten urpean aurtxo jantzita illik, eta polizien ezagueran jarri zuten. Aurtxoen gurasoek beste bost ume dauzkate eta larri-xamar bizi dira ainbeste umeri jatera emateko.

Eta onela, beste gertaera askoren berri eman genezake. Baiña berri eman bearrean, azterketatu ditzagun gertaera gaizto oien sustraiak.

Nun dute sorrera, zergatik gertatzen dira ainbeste gaiztakeri?

Ona emen gaiztakeri oien iru erro.

I) *Urrutikuskiña* lenengoz. Gaur eguneko umeak ikusi eta jakin bear ez lituzketen gauza asko (geiegi) ikusten dituzte urrutikuskiñetan; begiak erne dauzkate.

Oroitzen naiz orain dirala ogei eta bosten bat urte Irunen gertatua, Bergaretxe lengusuen artean. Oietako baten aitak bazuan bere etxean su-izkillu bat eta lerkaria barruan zuala. Utsik zegoalako ustean, artu zuan su-izkillua eta onela mintzatu zan bere lengusuari:

- Adi zak. Pelikuletan bezala egin bear diat.

Estutu zuan beatzarekin su-izkillu maratillatxoa eta ankaz gora bota zuan lengusua.

Aur onek, pelikuletan ikusi ez balu poliziek nola erabiltzen dituzten izkilluak, ziur etzala orrelako joku arriskugarrietan ibilliko.

Pelikuletan, eta batez ere urrutikuskiñean ez lukete orrelako gauzarik jarri bear. Gobiernuek debekatu egin bear lukete orrelako gaiak antolatu, egin eta jartzea. Gai oiekin aurtxoeri begiek geiegi zabaltzen zaizkie. Urrutikuskiñean ikusi eta ikasi dutena gero egin nai dute.

Ni beti, ortan nago... Nunbait eraillen bat, lapurketaren bat, indarkerien bat egin bada, zeazki ezagutzera ematen zaigu urrutikuskiñan nun gertatu dan eta nolaz baliatu diran txarkeri ori egiteko: nolaz jazten diran, zer neurri artu dituzten iges egiteko polizi atzaparretan erori ez daitezen, eta abar.

2) *Gurasoak*. Bigarren, gurasoak. Gure gaztaro garaian beste begirune eta lotsa genduan zaarragokoengan. Gauzaren bat gaizki egin ondoren zaarragokoren batek asarratzen baginduzten, ixil eta apalki alde egiten genduan. Orain ez. Orain aurtxo gaizkilleren bat asarratzen badugu, saminki erantzungo digu: «Eta zuri zer ajola zaizu?». Eta alako lotsagabekeria ikusirik, zer egingo dugu? Beste alde batera begiratu eta jarrai zeramagun bidean.

Eta nundik dator lotsagabekeri au? Askotan gurasoengandik. Guraso geranok ez ditugulakoz begiratzen, zaintzen, azitzen eta ezitzen geren umeak bear bezala. Lasaiegi dabilta gaurko ume eta gazteak. Garai batean, illundu orduko, etxean egon bear izaten genduan, eta bestela... bagenekian zer zetorkigun geren gurasoengandik. Gaur egun, berriz, or dabilta, bakarrik edo bere kidekoekin, gabe erdian eta beranduago ere, dantza-etxeetan edo beste nun-nai. Eta gurasoak zer? Nun dira gurasoak begiratzeko nun dabilta beren umeak garai oietan eta adiskide oiekin? Gaurko gurasoen artean ardurage aundia da umeengan eta ortik gero ondorengoak, ortik gero ume biurrak, ortik gero negarrak... Alperrik dira orain negarrak... Landa gazte danean zuzendu bear da eta ez erro gogorak dauzkanean. Zer gauz on ikasi dezakete ikastetxetara joan bearrean, egun guztiak erriko baztar guztietan dabilta aur oiek?; zer gauz on ikasi dezakete ez-orduetan, lagun txarrekin, joku-etxe, dantza-etxe eta beste lekuetan dabilta mutiko eta neskato kokkor oiek?

3) *Lo-belarrak* ("estupefacientes, drogas"). Gaurko gaztediaren usteltasunaren irugarren erro eta sustraia lo-belarra da. Goiz-Argiren aurreneko zenbaki batean zerbait idatzi nuan lo-belar gaiaz. Au da gaurko gizartearen plaga aundienetako bat. Esan genezake gaurko gizartea errotik usteldurik dagoala. Ontan ere gurasoak ardura eta kontu aundia izan bear dute beren umeekin. Oartu gabe oitu daitezke lo-belarrera. Lagunen batek edo ikastetxe atean edo errekiñen bat, goxoen bat eskeñiko diete noski. Baiña kontu goxo eta errein oiekin... Lo-belardunak izan daitezke. Gaurko gaztedia oituegia dago lo-belarrretara, "porro" geiegi erretzen du. Lo-belar oiek garestiak dira. Eta porroretara oitu ezgero, nolaz konponduko da pozoi ori erosteko? Karriketan aurki-

tzen diran urrutizkin eltxetxoetako dirua ostu edo beste nunbaitetik dirua artu, edo karrikan dabilzan andre eta emakumeeri besoetatik zinzilika daraman zorroa indarke kenduko dio. Eta andik eta emendik biltzen duten diruarekin badute lo-belarra erosteko. Eta badakigu zein kaltegarria dan lo-belarra, zer ondore dauzkan.

Ona emen, nere iritziz, gaurko gaztediaren eta gaurko gizartearen usteltasunaren erro eta sustraiak.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1979, 455, urria, 20. or.

Ez atzeraegi, ez aurreraegi

Atzeraegi begiratzea askotan kaltegarri da, baiña aurreraegi begiratzea, arriskugarri. Egia da ez gaitezkeala zaartasunean bizi; berritu bearra, gaurkotu bearra dadukagula. Baiña ortan datza gaur eguneko gizadiaren ondarena: bat-batean zaar-berritu naia.

Aldaketak ez daitezke bat-batean egin. Izadia irakasle ezin-obeia dugu ortan. Erdal esaerak dionez «la naturaleza no da saltos». Izadia, izadia danez, beti aldaketan ari da, ez da geldi egoten. Eta aldaketa ori ez du bat-batean egiten, baizik piskaka-piskaka. Beste era batean erabiltzea, izadia autsi eta barratu, puskaka leertu eta ondatu egingo litzake.

Gelditasunean, usteltasuna; ibilleran, berriz, bizitza. Begira zer gerta dan urarekin. Putzu batean geldi-geldi, bare-bare dagon ura, azkenerako usteldu egiten da eta usai txarra botatzen du. Malkor tartean antxumeak bezala saltoka eta arri kozkor artean an-emen joka dabillen ura garbi eta bizigarri gordetzen da.

Ala ere gizadi bizitza. Egia da ez dugula utzi bear erabat alde batera aintzin bizitza eta izaera; egia da ez ditugula bide baztarrean utzi bear gure aurrekoen oitura eta legeak; egia da ez dugula aaztu bear euskal kondaira... Ori geren izadi zatiren bat utzi eta galtzea izango litzake. Baiña ez gaitezke aintziñako lege, oitura eta izaerarekin bakarrik gelditu. Bizitza kaxkarra eta koxkorra izango genduke. Beti aurrera begiratu bear dugu atzerakoa aaztu gabe. Ez daduzkagu begiak sudur muturra begiratzeko bakarrik, aurrerago dadukaguna begiratu eta ikusteko baizik. Gure aurrekoen bizitzan gauza asko eta onak aurkitu ditzakegu. Artu oiek, bada, eta gorde. Eta bear bada, berri-tu eta obetu; baiña ez aaztu eta alde batera utzi. Gauza onari eutsi eta txarrari edo gaurko balio ez duanari alde egin, utzi eta aaztu. Baiña gauza bat utzi baiño leen, bere ordekoa izango dana asmatu eta prest eduki. Eta ez nai izan aldaketa ori bat-batean egitea. Egitera orrek ondoren kaltegarriak dakarzki.

Egia da aldaketa orren egin naia ez dala geren artekoa bakarrik, Euskalerrian, euskaldunen artean gerta dana; bai eta mundu guztiko errialdeetan gerta dana. Gaurko gaztediak prisa daduka gauza guztiak erabilli eta bere gixan aldatzeko. Eta ori arriskugarria, ondoren txarrak ekarri litzakean gauza da.

Baiña nik Euskalerrira bakarrik begiratu dut, Euskalerrian, euskaldunen artean gerta danaz itz egin nai dut.

Oroitzen naiz Españako anai-arteko, iritar arteko gudan emandako gertakizun batez. Or zebiltzan Irungo Fuerte San Marcialen malda gora eta malda beera, su eta ke, su-izkillu, eskuleerkari eta laban aundiak esku tartean zituz-

tela txuri eta gorriak, Naparroako erreketek txapel gorriak, Beorlegui buru zutela, alde batetik, eta euskal gudariak beste aldetik. Ene, ura ilketa...!, ura odol-ixurtzea...!

Eta bitartean, Bidasoa ibai-muga alde artatik Frantzia aldekoek urrutikusgai edo katalajeoen bidez ikusten eizean egaztiak bezala, edo eultxoak bezala, anaiak elkar nola iltzen zuten. Eta zioten bere izkeran: «Déjalos que se cuezan en su propia salsa».

Eta ori ez al da negargarria? Anai arteko burrukak ez al du ondatzen etxea? Eta zer ari gera orain gertaera ura berritzen baizik? Zer ari gera geren etxea, Euskalerrria ondatzen baizik? Edozein eraz, ezin uka dezakegu gaurko egunean euskaldunak elkarren aurka berriz jokatzeko ari gerala. Ez ote dugu, beraz, gaurko askoren jokera aiena bezala ikusi bear. Anaiak bezala jokatu bearrean, etsaiak bezala elkar artzen ari gerala. Eta euskaldunen arteko jokera onek gure etsaia poztutzen du. Geren oitura zaarrak, geren lege zaarrak aaztu ditugu; biziera zaarraz ez gera oroitzen, eta biziera berria, gurea ez dan biziera eta oiturak artu nai ditugu. Eta ortarako atzerritarren bizitza, legea, oitura eta izaerak artu nai ditugu, bear bada indarkeriz. Ori ez da bidea. Euskaldunok geren bidea, gure aurrekoen bidea ibilli dezagun pakean, lanean eta elkarrengoa maitasunean. Isildu daitezela su-izkilluak, baiña ez maillu eta aitzurrak... Isildu daitezela gorrotoak, baiña ez barkapen eta elkarrengoa maitasuna... Isildu dadilla lange eta alperkeria, baiña ez euskaldunak lanerako beti izan duan zintzotasun eta leialtasuna... Euskalduna euskaldun izan dadin, eta ez atzerritar bizitzaz eta oituraz.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1979, 457-458, azaroa, 30. or.

Aurak eta pelikulak

Aur eta aurren pelikula gaietaz itz egin edo idazten danean bi puntu ikutu eta begiratzen dira: gaiak eta zillegitasuna.

Gaiari buruz, beti esaten da gai egoki gutxi eta ez ondo egiñak dirala. Bai, ala da. Aurrentzako ez da bear añako pelikularik. Ez al dituzte aurak ere ortan beren eskubideak? Aurten, Aurraren Nazioarteko Urtea da. Eta zer egin da aurren alde? Ez asko, batez ere pelikula gaietan. Zinegilleak ez dira ausartzen beren dirua ortarako aurreratzen; arriskugarria iduritzen zaie. Ori egitea dirua galtzea, dirua botatzea dala uste dute. Bañan nik uste oker jokutzen dutela ortan. Diru gaiari begiratu, pelikulak onak baldin badira beintzat, diru asko irabazi lezakete umiendako gaiak antolatuz.

Eta bigarren, zillegitasuna. Ona emen muga. Zenbait urtetaraiño iritxi arte, zenbait gai ikustea debekatzen zaie. Ondo dago aurretaz begiratzea eta gaitz egin lezaieken gauzak aiengandik aldentzea. Bañan, nere iritiz, motx gelditzen dira, gauza erdibituta uzten dute. Ez bakarrik biliskorri gaiak, neska-mutillen arteko besarkada eta musuak, lizunkeriak, ezkontz-auste gaiak, eta abar, kalte egiten diete aurrei; baita lapurketa, indarkeri, guda, su-izkillu erailtzak ere kalte egiten diete, eta ez gutxiago. Or dago gaurko gaztedian ereiten dan gaiztakeri guztien azia. Azi ori urteekin gazteen biotzetan azitzen da eta gaiztakeri guztietarako adarrak zabaltzen ditu. Bañan ontan ez da jartzen mugarik aurrendako. Eta gero arritzen gera ainbeste gaiztakeri ikusiz.

Zertan daude umiendako gaiak begiratzeko antolaturik daudenak? Zergatik emen ere ez dute muga jartzen? Zergatik agintariak ez dute debekatzen orrelako gaiak urrutikuskiñetan jartzea? Bestela, alperrik izango lirake alperkeria, gaiztakeria, lizunkeria, gaztediaren usteltasuna urratu eta kentzeko alegin guztiak.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1979, 460, abendua, 3. or.

Txarretik okerragora, ez!

Menperatuak menpetasunetik ateratzeko aalegin guztiak egiten ditu, askotan nola geldituko dan begiratu gabe. Bere alegiñean, zanpatzen duan bere etsaia lepo gaiñetik bein kendu ezgeroz, aske izango dala uste du. Eta ortarako ez du kezkarik etsai txarragokoa izango zaionen laguntza artzeko, lenengo etsai garaitzeko.

Ori gertatu zaie errialde askori, adibidez, Vietnam, Kanboya eta abarrerri. Kapitalismoaren atzaparretatik iges egin naian komunismoaren atzaparretan erori dira. Nor txarrago? Lenengoa ala bigarrena? Edozein alderdietara begiratuta ere, biak zein baiño zein txarragoak. Erdal esaerak dion bezala «salir de Málaga para entrar en Malagón», au da: okerretik okerragora.

Txarra da zentralismoa, txarra da agintari batzuen menpean, jauntxo batzuen menpean egotea; txarra da burges gobernu baten esanetara eta agintzetara egotea. Baiña kontu! Leze batetik iges egiteagatik beste leze sakon eta illunagoko batean erori gaitzke. Ortan dago arriskua. Geren etxean, geren buru gaiñetik, geren bizitzan ezagutu dugu (eta ortan gaude oraindik) estatu burgesaren, kapitalistaren joera. Badakigu zer asmo dituan. Baiña galdera bat egingo nuke: Ba al dakizkigu komunismoaren edo marxismoaren asmoak? Ezagutzen al ditugu talde oien ondorioak? Beste batzueri gertatu zaienagatik, bai zerbait, noski, baiña ez naiko. Bai marxismo eta bai komunismoa ere oso maltzurak dira. Ardi larruz jantzita agertzen zaizkigu, baiña otso arrapariak dira. Itz goxo eta leunak, eskeintza onak egingo dizkigute; esango digute etsaipean ez egoteko, eta erakutsi eta lagunduko digute etsaipetik ateratzen. Baiñan oso maltzurak dira. Pildora borobil goxoaren barrenak pozoia dauka. Komunismo eta marxismoak diotenez, burgesia eta kapitalismoa dira gaurko langillediaren etsairik aundienak, lan-tresnak (zartariaren kirtena) bere eskuetan dauzkatelako. Eta zirikatzen gaituzte lotzen gaituzten uztarri ori askatu eta kentzeko. Esaten digute tresna oiek langillediaren eskuetan izan bear lira-kela, langillea izan bear litzakela tresna oien jaun eta jabe, langillediak Estadua artu bear duala. Eta ori iristeko bide klase-borroka, klase-naastuketa da.

Baiña kontu! Ortan dago amua, irentsi dezakegun amua.

Argi dago baldintza onek menpekotasun berri bat sortzen duala, au da, klase-borrokarenganako menpetasuna. Argi dago oker batetik iges egiteagatik beste oker batean erori gaitzkeala.

Euskalerrriak, euskaldunak, abertzaleak ez dauka atzerritarren esaetara jo bearrik, ez dauka beste soiñekoekin jantzi bearrik. Euskaldunak badu bere

txapela. Euskalerrriak badu bere kondaira. Euskaldunak beti izan ditu bere lege zarrak, bere oiturak, bere izaera... Orain atzerritar izaera artzea, komunismo eta marxistarren izaera artzea, euskal izaera, euskal nortasuna uztea izango litzake. Bakoitza bere nortasunaz bizi dadilla. Euskaldunak ez daukagu ez kapitalismo eta burgesen bideetatik zertan ibillirik; ezta marxismo eta komunismoaren bideetatik ere. Ez bat eta ez beste. Guk geren nortasun, izaera, oitura, lege zar eta kondairari eutsi eta jarrai bear diogu. Orrekin naiko dugu pakean eta anaitasunean bizitzeko euskaldun guztien artean sendi bero, goxo eta zoriontsua bat egiñez. Euskaldunen oiturak oso garbiak dira; euskaldunen legeak, zuzenki; euskaldunen lan-zaletasuna, aipagarria; euskaldunen biziera eta nortasuna, zintzoa eta garbia. Euskaldun guztien artean erri berexi, erri aurrerakoi, erri aundi, beste erri guztien ispilli eta eredu egin dezakegu. Orain da garaia. Euskal araudia oñarritzat dugula, euskaltasunean, jaso dezagun Euskalerrria.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1979, 461, abendua, 17. or.

Eztabaidak argia dakar

Ala da. Erdal esaerak dionez «eztabaidatik argia dator».

Euzko araudiari buruz izkar asko izan da bai auteskunde aurrean, bai auteskunde ondorean ere. Euzko araudia, Gernikako araudia, Suarez-Garaikotxea araudia dala, Madrid eta euskal Madridarren araudia dala, burges-kapitalisten araudia dala, euskal-burujabetzaren araudia dala, eta abar...

Eta bi aldetarako arrazoiak dakarzkitenak, noski, Euzkadi eta Euskalerriaren ontasuna begiratzuz, abertasuna gidari dutela.

Ongi dago, bearrezkoa da eztabaida. Badakigu suak erdoia garbitzen duala, oñazeak atsa eta gogo bezala.

Bañan okerrena, itsutzea da. Ori da eztabaidan askotan gertatzen dana: trikuen antzera geren arrazoietan buruz sartzen gera, itsutzen gera, eta geren itsutasunean ez dugu ikusten gure leikideak bere arrazoietan ematen digun argia.

Geienetan, eta asmo on eta zuzenetan ibilli ezgeroz beintzat, erdi itsututa dagonak bere okerra ikusten du eta zuzen bidera etortzen da. Eta, naiz eztabaidan edo auteskundeetan galdu, arrazoidunaren eta irabazlearen aldetik jartzen da irabazlearen ekiñaldia aurrera eramateko. Ala egiten dute jakintza aundiko errialdeak, Ipar Amerika, Ingalterra eta orrelako erri-aldeak.

Eta Euskalerrria, euskalduna, jakintza gutxiagokoa ote da? Euskalduna besteak baño jakintsuago, zentzu obeagokoa eta aurrerakoiagoa izan da beti. Ontan ere aurrerakoitasun aundiagoa agertu bear dugu mundu guztiaren aurrean. Euskaldun guztiok, edozein talde edo pentsakerakoak, Erri bat bezala agertu bear dugu besteen aurrean, eta bakoitzak bere indar guztiakin Euskalerriaren onerako lan egin bear dugu, geren gerekoitasun eta gorrotoak alde batera utziz. Gure bakoitzaren irizpide edo ontasun gañetik Euskalerriaren ontasuna dago.

Guk euskalduntzat bizi bear dugu. Bakoitzak badaki ongi nolaz bizi dan bere etxean, zer beartasun dauzkan eta nolaz zuzendu eta eraman bere etxea. Alperrik da geren beartasunak, geren gaitzak, beste batzuek beren gaitzak sendatzeko erabiltzen dituzten sendagaiekin sendatu nai izatea. Sendagaia ez da gaitz edo gaxotasun berberarendako, naiz beste edozein lagunetan izan. Bakoitzaren gorputza ez da berdiña bestearen gorputzarekin; eta neri ongi datorkiten sendagaia, bestearen gorputzaren kaltegarri izan daiteke. Orregatik utzi ditzagun alde batera beste errialdeen biziera, lege eta oiturak, eta gure lege, oitura eta izaerak ezarri ditzagun gure bizitza eran.

Esaten dugu beti ipar-amerikarrak inperialistak dirala. Eta errusiarrak zer ote? Nork uka lezake oiek ez dirala inperialistak? Eta ez nuke esango nor baño nor dan okerrago...

Guk, euskaldunok, ez ditugu bear ez bat eta ez beste; arrotzak zaizkigu biak. Gurea ez dan beste edozeiñen biziera gureganatzen badugu, arrisku bidean, onda bidean, eriotz bidean jartzen gera.

Onda gaitezen, alde egin dezagun gaitz-bide oietatik, aztertu ditzagun gure erru eta akatsak eta bat izan gaitezen euskaltasun eta aberzaletasunean.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1979, 463, abendua, 3. or.

Zergatik orain?

Javier Ruperez jauna, UCDko ordezkaria ("diputado") ETAk arrapatu eta estali zuala eta zer nastuketa sortu zan mundu guztian. Aita Santutik asi eta Gobernu guztiek ardura artu dute, Ruperez askatzeko zin-ziñez eskatuz. Danek salatu dute egipen ori giza-eskubideak oinpetzea dala esanez.

Bai, zerbaiten arrazoia badute ori esatean. Nik ez dut esango ezetz eta ez dut onartuko beñere egipen ori. Gaizki dago.

Bañan... orain arte ez al zan giza-eskubiderik? Ruperez jaunak bakarrik al ditu eskubide oiek? Itz egin dezatela... ez batek, ainbeste eta ainbeste euskaldunek... Eta itz egin badute... aiei egin zaizkien nardak, aiei eman zaizkien makillkada, ostiko, zigor eta iraiñak jakin diranean, zergatik ixildu dira, zergatik etzuten orduan ardurarik izan? Zergatik orduan etzuten gaitzetsi Euskalerriri egiten ari zitzaion aberetasuna? Zergatik ez dute salatu españar poliziek egin dituzten ainbeste astakeri? Euskalerrian gauz asko eta zakarrak gertatu dira joan diraneko urte auetan. Eta gaur-egun ere egiten dira. Eta orduan ez al du iñork ezer ikusi? Ez al da gauz salagarririk izan? Euskalerriak ez al ditu bere eskubideak? Aspaldiko urte auetan ain zanpatua, ain zigortua ikusi dugunean Euskalerria eta euskalduna, ainbeste erailketa eta odol ixurtze izan danean, ainbeste euskaldun giltzapean izan diranean, nun egon dira erri-agintariek, gotzaiak eta Aita Santua gaizkin aiek ikusi, salatu eta eskatzeko Eспаñako Gobernuari uzteko, lagatzeko gaizkin aiek, esanaz egintza oiek giza-eskubideak alde-alde zulatzen dutela?

Okerra edonun eta beti okerra da. Bañan askotan, erdal esaerak dion bezala, "la ley del embudo" artzen dugu guretzat. Konbeni zaiguna bakarrik ikusten dugu, eta begi ninietan urratzen gaituena berriz aldentzen dugu. Eta ori ez da zuzen bidea, ori ez da pakean ibiltzeko eta bizitzeko era. Orrela ez daitezke beñere gauzak konpondu; ori su-izkillueri su emateko bidea da, eta suizkilluak ez dira ixilduko.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1979, 463, abendua, 3. or.

Abertzale naiz

Egia da. Ez dezaket ukatu, eta lantxo onen atalean orrela aitortzen dut.

Abertzalea naiz, eta nere bizitzan, nere egintzetan, orrela agertzen naiz. Euskaldun jaio nintzan, euskalduntzat bizi naiz eta euskaldun iltzeko asmoa dut. Euskal-odola daramat odol-zañetan, eta odol oneri esker daukat daukaten bizitza. Euskaldunak ziran nere aurrenekoak eta euskaldunak nai nituzke izatea nere ondorengoak, nere seme-alabak eta nere umeen umeak. Abertzale-tasuna ezurreko muiñetaraño sarturik daukat.

Abertzalea naiz, eta abertzalea naizelakoz nere bizitzak abertzaletasuna ixuri dezan nai dut. Orregatik nere biotzak, nere begiek euskal edozein gauzetara naramate. Naiz Euskalerritik urrun bizi, biotzarekin Euskalerrian bizi naiz; nere umiekin euskeraz bakarrik mintzatzen naiz; nere etxean euskal usaia usaitzen da (ikurriñ, edergaillu, eta abar); berebillean noala Euskalerriko berebillen batekin topos egiten badut, poztutzen naiz eta pi...!, pii...! ezaugarri ematen diot aberritarrari. Kiroletan, euskal kirolen eta euskal kirolarien maitetasuna agertzen dut, eta euskal kirolariek oberenak izatea nai nuke.

Eta abertzalea naizelakoz alegintzen naiz, al dan eran, idazkiaren bitartez, euskera eta euskal gaiak gorde, sendotu eta zabaltzen... Badakit ez naizala idazlari iaioa, badirala ni baño obeki euskeraz itz egin eta idatzi dezaketena, bañan bakoitzak al dezakena egin ezgeroz, bere gogo ona agertu ezgeroz, uts guztiak barkatzen zaizkio. Eta guzti au gutxi dalako ustean, geiago egin nai nuke, al izan ezgeroz. Goiz-Argiren orrialde oietatik dei bat egin nai nuke:

Erdal-euskal iztegi bat antolaturik daukat eta argitara nai nuke, euskerraren onerako balio badu beintzat. Eta ortarako diru laguntza bear nuke. Lan au bere gain artu lezaken abertzale eta euskalzalaren bat bada, emen nauka al dudana egiteko.

Euskaldunak euskaldun gera (edo izan bear giñake), Euskalerrri abertzaleak, eta ez beste edozein gauz. Eta diotana azaltzeko, argitzeko, ona emen erdal asteroko batean irakurri dezakeguna:

«Que yo ostente una ciudadanía equis es un factor de tipo legal en mi vida, es contingente; pero mi nacionalidad es algo inseparable de mi yo, es algo necesario para mí y para todo ser humano. Mi nacionalidad es lo que integra mi herencia racial, mis creencias, mis costumbres, mis afectos, mi idioma; todo esto tenido en común con quienes coincido en esos factores y que tenemos por nuestros o inseparable los mismos antecedentes históricos. Por eso mi patria y nación son conceptos inseparables. Mi patria: mis padres (mis

antepasados), mi patrimonio material e inmaterial; todo ligado a la historia de mi nación».

Eta ez dezaigutela esan Euskalerrria ez dala Aberri bat, Euzkadi ez dala gure Aberria, beste aberri artean Aberri berexi bat. Euskalerrria, Euzkadi, euskal Aberria da, eta euskaldun guztiak eta euskaldun bakoitza euskal abertzalea izan bear litzake.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1980, 467, urtarrila, 2. or.

Ezkongaiak

Batzuk emakumearen edertasunari begira itxutzen dira; beste batzuk, neskaten diru-zorroari begiratzen diote; gutxi buru eta biotzari. Eta ille arren azpian zentzun gabe txepetxburu, txoriburu asko izan oi da. Andregaia artzean, lenengoz begiratu bear da biotz oneko neskatoa dan, apala, langillea, etxeckoia, ez ariña, arroa. Ondoren, diruduna eta ederra bada, obe. Edertasunarekin bakarrik ez baida jaten, eta diruak ez du zoriona ematen, zoriontasunean lagundu baizik.

Neskatoak, berriz, mutil galanta, begi urdin, bekain beltz, abots oretsuduna ikustean txoratzen dira, burua galtzen dute, begiak beregana joaten zaizkie; ez da alakoa besterik... Eta ez dute begiratzen nolako gizakia dan biotzez, sentimentuz, langillea al dan ala alperra; mozkorra al dan ala edaketan neurtua; okerra, emakoia al dan ala zintzoa eta etxeckoia.

Bai, askotan arinki erabili oi da gai au. Begiak ez dauzkagu sudur punta ikusteko, urrun begiratzeko baizik. Aurren begiratu bear litzakeana azken begiratzen da, eta gero gerokoak... Ezkondu ondorean, negarraldiak, asarrealdiak, tresnakadak, infernua etxean... Orduan damua, ikusi ez naia, bakoitzak bere alde jotzea ezkontza-austea...

Bi eratako ezkontzak ezagutu ditut. Baiña geien biotz ukitu ninduana auxeda: mutilla, etxe onekoa, diruduna; andregaia, berriz, diru gabea, baiña oso polita eta ezin ohea. Etzezaioken ezer eskatu, gutzia bazeukan: polita, alai, apala, langillea, maitekorra. Mutillaren gurasoek etzuten onartzen emaztegaia, neskato beartsua zalakoz. Ezberdintasun aundia zan bere artean. Nolaz ezkondu beren semea neskato beartsu batekin? Zer esango ote zuten auzokoe? Neskato arekin ezkontzen bazan, semea ondorengabetua utziko zuten.

Baiña etzan ori mutillaren joera; etzuan begiratzen neskatoa gainki, bere izaeran baizik; etzuan nai egun baterako andrea, betirako emaztea, betirako laguna, baizik; zoriona eman zezaioken emakumea nai zuan eta ez bizitza naitzabetu lezaioken emaztea.

Ezkondu ziran, bada; ume eder bat izan zuten, eta elkar maitez zorionekoak dira.

Ori da gaztediak jarrai bear duan bidea ezkontzeko asmoa badu, eta zoriondun eta iraunkor ezkontza izan nai badu.

Ezkontza ez da nolana eta arinki artu daiteken gauza; daukan garrantzia eman bear zaio.

Naparroa Fuegoekin Euzkadin

"Fuerza Nueva" astekarian irakurri dezakegunez, Naparroak, laterri denez, XII-XIIIgarren mendean dakar bere sorrera. Kastilla sortu baño len, Naparroa laterri berexi bat zan. Eta Granada, Fernando eta Isabel erregeak afrikarrei kendu arte, Amerika agertu arte, etzan erantsi Españara.

Naparroak bai duala kondaira eta erritartasuna! Naparroako Erreinua mende askotan aske izan zan.

Onela, gutxi gora beera, dio aldizkari orrek.

Eta dio ere Naparroak betidanik agertu duala bere españartasuna. Diote ere euskal abertzaleak, Euzkadi sendo eta bakarra antolatu nai dutenak, Naparroa bereganatu, Euzkadiri erantsi dutela, Naparroa gabe, bere ontasun gabe, bizi ez daitekelakoz.

Badakigu "Fuerza Nueva"koak ez dutela iñolaz ere nai Naparroa Euzkadin sartu dadin. Orren etsai amorratuenak dira. Eta Naparroaren españartasuna gorai patu eta txalotzen dute nun-nai. Bañan nik, aurrera joan baño len, oar bat egingo nuke emen: eman dezagun Naparroak jo eta ke bere askatasuna, Naparroa berexi izatea, Españatik bereixtea iristeko lan egiten zuala... Orduan zer esango lukete "Fuerza Nueva"koak? Ziur naiz Naparroa zilipurdika jarriko luketela. Orain besteen aurka esaten dituzten astakeri guztiak eta geiago esango lituzkete Naparroaren aurka. Orrelako txori-buruak dira; txotxolokeriak besterik ez dituzte esaten.

Bañan itxituta al daude? Ez al dakite Euzkadi bat egin nai badugu ez deza-kegula alde batera utzi Naparroa? Ori egiteak esan nai luke naparrok ez gera-la euskaldunak; egiazko euskaldunak gipuzkoarrak, bizkaitarrak eta arabarrak bakarrik dirala. Zer ikasi dute orduan edo zer erakutsi diete Naparroaren kondaira ikasi badute beintzat? Nun da euskal-kondairaren eser-leku eta sor-lekua? Naparroa izan da euskeraren seaska, eta andik zabaldu zan beste errialdeetara. Ez du ezer esan nai orain Naparroa geienean euskera itz egiten ez bada. Orain dirala berreun edo irureun urte arte ez al zan itz egiten euskeran Jaka, Hueska, Logroño eta zabalago ere? Orduan naparrak euskaldunak ziran (euskeran itz egiten zutelakoz), bañan orain ez (euskera itz egiten ez dutelakoz) Arraioa! Orrela idazten da kondaira...

Naparroa da, bada, Euzkadi zugaitzaren zaña, Euzkadi etxearen oiñarria. Naparroa gabe ez daiteke Euzkadi izan, ez daiteke deitu Euzkadi, Euzkadi ez dalakoz (nai duten Euzkadi) Euzkadiren zati bat besterik.

Eta zer korapillo edo zer aztapo arkitzen dute Naparroa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabarekin Euzkadi bat egiteko? Naparroak bere Fueroak galduko lituzkela? Ori aitzaki bat besterik ez da. Naparroak bere Fueroak oso-osorik gorde dezazke Euzkadi izanda ere, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabak bere itun edo konziertoak izan dezazketen bezala. Bakoitzak bere legedia izan dezake, eta lau erkiak lege berberak gañera izan dezazkete. Erri batean erritar guztiek lege bana dute, eta gañera etxe bakoitzak badu bere biziera. Alaber ere Euzkadin.

Nork maite du geiago Naparroa: euzkaditar naparrak ala monkloatar naparrak? Madrid aldera begiratzen duten jauntxo naparrak, beren etorkizuna bakarrik begiratzen duten jauntxoak, Madriden menpean Naparroa eduki nai dutenak ez dira egiazko naparrak, egiazko euskaldunak, sasipeko naparrak, sasipeko euskaldunak baizik.

BERE FUEROEKIN, NAPARROA EUZKADIN.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1980, 469, otsaila, 2. or.

Kezkak eta amurrazi-aldiak

«Euskera geiegi erabiliko ote dugun Euskalerrian eta... gaztelera baztertuko ote dugun» da, noski, PSOEn kezkarik aundiena. Eta 'ofizial' gaietan bi izkuntzak erabiltzeko eskatzen dute.

Irrigarrikoa deritzait PSOEn kezka au. Oilloak baratzan bezala aztarrika egin dezagun, aztertu dezagun joan diran urte auetako euskal kondaira.

Orain arte, Francoren agintean (eta orain ere), nagusitza 'ofizialetan' sartzeko guztiz bearrezkoa zan frankotarra izatea (edo UCDkoa izatea). Ori etzan kezka-bidea, zillegia zan, ondo zegoan, bidezkoa zan.

Orain, Euzko araudia dugularik, ez al da bidezkoa kargu beroietarako autatuak izango diranengatik euskera jakin dezaten eskatzea? Geiegizkoa iduritzen al zaie euskaldun eta euskotar ez diraneri? Orain arteko euskeraren aurkako joera ez al zaie iduritzen geiegizkoa zala? Orduan gutxietsi egiten zan euskera, ez zitzaion bear zan babesema ematen. Zergatik arritzen dira, bada, orain bear dan babesema ematen bazaio? Zergatik arritzen dira kargu oietan sartzeko euskera jakitea bearrezkoa dala eskatzen bada? Leen Euskalerrian euskera baztatu egin zuten (etzuten baztatu euskera Andaluzian). Arritzekoa al da orain euskera dagokion lekuan jartzea?

Beste amurrazi-aldia "Fuerza Nueva"rena da. Karriken izenak aldatzea kondairaren aurka joatea omen da. Lerreiten daude Madrilen, Kataluñan eta Euskalerrian zenbait karrিকা eta erriren izenak aldatu dituztelakoz.

Baiña au esango nuke nik: zer egin zuten berek ori berbera besterik emengo anai-arteko guda ondorean? Madrilgo "Paseo San Vicente"ri "Onésimo Redondo" izena ezarri zioten; "Castellana" karrikari berriz "Calvo Sotelo", eta "Generalísimo"; "Gran Vía" karrikaren zati bati "José Antonio" izena eman zioten (falangista izenak guztiak), eta "El Ferrol" erriari "El Ferrol del Caudillo" izena jarri zioten. Eta orrela ainbeste eta ainbeste karrিকা eta erri-ekin. Orduan ori egitea etzan kondairaren aurka joatea. Eta orain gauzak bere lekuan jartzea, gauzeri bere leengo izenekin deitzea kondairaren aurka joatea omen da. Nola jaten da ori? Maltzurak eta biurriak dira gero e! Berek egiten dituzten gauzak ongi daude guztiak; baiña gauza berbera ori beste edonork egiten badu, gaizki egiña dago.

"Fuerza Nueva"koak ere diote ETArrak terroristak dirala. Yolanda González neskatoa eta Ballekas Madril errialdean il zuten Vicente Cuervo Calvo mutikoa etzuten il ETakoek, eta ezta Madrideko Atotxa karrikan il zituzten

lege-gizonak ere etzituzten il ETArrek, baizik, dirudienez, "Fuerza Nueva"koek.

Orduan nortzuk dira terroristak: ETArrak ala besteak? Utzi ditzagun alde batera biozkadak eta buruarekin esan, idatzi eta egin ditzagun gauzak. Bioztzak askotan txarkeriak egiten dizkigu.

Eta demokraziari buruz, bai ezkerrekoek, bai eskubikoek diote ETA, bere eginkizunekin, demokraziari oztopoak jartzen ari dirala. Karrillok zionez, «ETA ondarazten ari da Euskalerrriaren demokratizazioa, eta Euskalerrriko ez demokratizazioak España guztiaren demokratizazioaren ondarena dakar».

Baiña jarri ditzagun gauzak bere lekuan. Zer egiten du Suarezzen Gobernua demokraziaren alde? Itz onak eman, bai; asmo onak agertu, bai. Baiña gero zer? Araudi bidean jarri, bai; baiña gero zer? Alde guztietan oztopoak besterik ez ditu jartzen. Itz ematen bada, itz ori bete egin bear da, bear dan gizatasuna baldin badugu, beintzat. Begira zer gora-beerak dauden Andaluzian, Kataluñan eta Euzkadin... Esate baterako, atzerrian bizi diran andaluzeri etzaizkie bear zirakean erraztasunik eman araudi auteskundeetan korreoz edo autarkia bialtzeko. Eta diru laguntza, urrutizkiña dala bide zabalkundea egitea eta bakoitzaren izkuntz irakaspenerako bear diran legedi almenak zer?

Euskalerrrian badugu gure araudia. Baiña zertarako dugu? Garaikoetxea'tar Karlosek ausarti eta ederki dionez, daukagun Euskal araudiak ez du ezertarako balio; paper bustia besterik ez da. Noizko uzten du Suarezzen Gobernuak dagozkigun aalmenak ematea? Zergatik ez dizkigu eman oraindik? Garaikoetxea'tar Karlos euskal lendakariak ez dauka ezertarako indar eta aalmenik. Orduan zertarako jarri dute dagon lekuan: iñauterietako zomorro bat bezala? baratzen txoriak izutzeko jartzen dan emagizontzat?

Gauzak, egitekotan, ongi egin bear dira; bestela, geldi egotea obe da.

Erraza da uts guztien errudun beti besteak jartzea. Geok ere, gu bakoitzak, geren utsak izango ditugu, baiña «errazago da bestearen begi barrenean zugaitz enborra ikustea, geren begietan izpia ikustea baiño».

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1980, 474, martxoa, 9. or.

Real Madrid - Real Sociedad

Epaillaren 23garren arratsaldean, Madrileko Bernabeu ostikalari zelaian, Real Madrid eta Real Sociedad ostikal-kirol taldeek izan zuten beren arteko saioa. España guztiak eta baita Benezuelakoak ere ikusi genduan. Garbi dago gauza. R. Sociedad taldeak Donostin jokatu ziranean, 4-0 sartu zizkion R. Madrideri. Oraingo txandan 2-0 irabazten zuan R. Sociedadek Madridenten. Eta ori nolaz jasan? Inolaz ere ez. Madrid eta madridtarrak etzezaketan jasan orrelako garaitza. Zerbait egin bear zan. R. Sociedad taldeak etzuan oraindik jokaldi bat ere galdu, eta esan daiteke egun ortan, bi talde artean, erabakiko zala nor izango zan azken garaile.

Bañan an sortu ziran istilluak, iraiñak, arrikadak eta zirikaladiak. R. Madrideri Juanito ostikalariak, ostikalari baño akerra bazirudian R. Sociedadeko Gorriz ostikalariari buruarekin joaz; beste batzuk aizkolariak edo burrukalariak ziruditen. Madridtar ikusleak zirika eta zirika zebiltzan bi aldetarako ostikalariak borrokarazteko. Eta Zamorak zionez, ostikoka jo zituzten («me han cosido a patadas más que a un carné de identidad»). Arkonadak zion berriz: «Nazka ematen du onuntz jokatzera etortzea». Eta García Carrión autarkia ixil eta itxu. Madrideri egunkari batek zion bezala, Juanitori askoz lengo txartel gorria erakutsi eta kanpora bota bear zuan; baña Madrideri zion.

Nere ondoan Zumarra eta Apaolaza'tar Jon nuen. Eta esaten nion: «Ez nintzake arrituko besapetik edo kolkotik García Carriónnek penaltiren bat Madridenten alde ateratzen badu...». Eta esan eta gertatu. Eta Satrustegi Benitok besarkatu eta lurrera bota; Satrustegi zutitu eta segi pillotarekin, berriz bultzatu, eta alaz ere gol egin. Bañan ezer egin ez balu bezala. Etzuan balio. Satrustegi Madrid taldekoa izan balitz, García Carriónnek erraztasuna eman-go zion eta balioko zuan. Bañan...

Eta gero ondorengoak.

Ostikalariak garbitu eta jaztera sartu ziranean, R. Sociedad taldeko sendagillea buruan jo eta ankaz gora bota zuten, zentzurik gabe utziaz. Eta R. Madrideri Rincón ostikalariak: «Merecáis que os fusilaran», eta beste itz zikin asko ere entzun ziran. Eta ori zergatik? Puntu bat kendu ziotelakoz?

Lantegian ere izan nituan lankideekin itz beroaldiak Madridtarrekin. Eta azkenean, beren itxutasuna eta arrokeria ikusirik, txakurraren ipurdira bialdu nituan.

Benetan lotsagarria Madridtarren gizabidea. Zirudinez, Madridtarrak euskaldunen aurka zuten borrokaldia. Eta galdu egin zuten. Madridtarren

jokabidea onuragarria izan zan euskaldunentzako. Ostikalari leiaketa ikusi zuten ikusle guztien (itxuena ez) biotzak euskaldunen alde jarri ziran, esanaz leiaketa Real Soziedaderi ostu egin ziotela, Real Soziedadek irabaztea merezi zuala.

Orregatik, igande ortan Real Soziedadek bi puntu irabazi zituan: bat, ostikalari taldearendako, eta bestea Euzkadirendako, ikusleen euskal adiskidetasuna piztuaraziz.

Eta, gañera, Real Soziedadek ikaskai ederra eman zien nola jokatu bear dan erakutsiaz, eta gañera etxeko jendeekin, ez diru asko, diru pilla aundiz ekarritako atzerritar ostikalariekin.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1980, 478-479, apirila, 3. or.

Euskeraren alde

San Jose egunean, amabost milleko jendetzaren agerkundeak izan zan Iruñean euskera Naparran ofizialki jarri dadin eskatuz. Agerkunde au abertzale eta ezkertar taldeak antolatu zuten. Agerkunde buruan, oial aundi bat zabalik, ziona: «Euskara, Naparraren izkuntza».

Ikurriñ eta beste 'pankarta' asko ere deikunaz zear esaten zuten. Eta agerkunde buruan Garaikoetxea'tar Karlos eta bere emaztea.

Baldin badira arrazoidunezko agerkundeak, auxe da oietako bat benetan. Beste aldien batean idatzi det Goiz-Argi asteroko onen orrialdeetan zerbait gai ontaz. Eta berriz ere esango det, buru askotan ontaz argi egin dadin: euskeraren seaska Naparra da. Ez du ezer ikustekorik Naparra geienean orain euskera itz egiten ez bada ere. Euskal kondairak dionez, emen, Naparran ezagutu genuen orain euskera itz egiten ez bada ere. Euskal kondairak dionez, emen, Naparran ezagutu genuen lenengoz euskera, eta emendik beste oraingo lurraldeetara zabaldu zan. Orregatik erromatarrak izkuntza oneri "lingua navarrorum", napartar izkuntza deitzen zioten.

Bidezkoa eta legezkoa da, bada, euskera Naparroan ofizialki jarria izan dedin eskatu eta alegiñak egitea. Au da Euskal Gobernu eta Naparruko Diputazioaren lenengo eta bearrezko ekitaldirik aundiena: Naparrari bere sort-arpegia itzultzea; Naparra eta napartarren biotzetan euskal zaletasuna erein euskal ikastola, idazki eta beste edozein bidez.

Donostiko gobernadoreak Erreteriko uri-batzarraren zazpi urizai antolatzeke deia ezeztu egin du. Erreteriko uri-batzarrak zionez, agin-bide oietarako autatuak izango ziranen artean euskera dakitenak eta Erreterin jaiok izango zuten aurretasuna ("mérito preferente").

Donostiko gobernadoreak bere arrazoitzat au dakar: «Konstituzioak dionez, erdera da Estaduko izkuntza ofiziala, eta españar guztiak berdin dira lege aurrean».

Ona emen zer dion Konstituzioak: «Art. 3.1. El castellano es la lengua española oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerla y el derecho a usarla. 2. Las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas, de acuerdo con sus Estatutos».

Bañan nik azalpen au egingo nuke: españar laterrian izkuntza ofiziala erdera da, bai. Baiña ona emen galdera: euskaldunak españarrak dira ala eus-

kaldunak? Zein da bere izkuntza: euskera ala erdera? Españarrak badira, bear-turik daude erdera ezagutzea, eta erdera erabiltzeko eskubidea dute.

Bañan, noski, aztu egin zaio edo ez du bear bezala irakurri edo ez du jakin nai edo etzaio konbeni esatea Donostiko gobernadoreari konstituzioak bigarren puntuan diona.

Konstituzioaren bigarren puntuak dionez, Euskalerrian euskera da izkuntza ofiziala, eta ontan deritzait Errenteriko Uri-batzarrak daukala arrazoia.

Irakurle, irakur zazu Goiz-Argiren azkeneko zenbakietan gai ontaz niona: orain arte naiko oinpetua, zapaldua, zigortua eta debekatua izan da euskera. Garaiak aldatu dira. Orain arte, Madrileko agintariek inkisidoreak izan dira euskerarentzat. Bañan orain demokrazian gaude, euskaldunok badugu geren Euskal araudia, bagera or eta geren nortasuna miatu, gorde eta zaindu bear dugu. Garaia da euskera dagokion lekuan jartzeko euskerari dagokion babeseta eta laguntza emateko. Garaia da euskerari bear zaion zuzentasuna egiteko. Ez da beste munduko gauza euskal gidari eta zaintzalletara autatuak diranengandik eskatzea euskaldunak izan ditezen eta bere izkuntza jakin dezaten. Gañerakoa euskera eta Euskalerria urduritu eta porrokatzea izango litzake, orain arte egin oi izan dan bezala.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1980, 480, apirila, 3. or.

Jaungoikoaren eskubideak

Azken urte auetan, munduan giza-eskubideetaz asko itz egin eta idatzi da. Eta eskubide urteak ospatu dira: Emakumearen Urtea dala, Aurraren Urtea dala, eta abar. Giza-eskubideak gora eta giza-eskubideak beera.

Bańan Jaungoikoaren eskubideetaz zer? Ez da ińor oroitzen; Jaungoikoa baztarturik daukagu, ez da agiri gure artean, ez-ikusia da, ez dezaiguke kalterik egin..., eta orregatik ez daukagu gogoan artu bearrik.

Bańan ona emen gure errua.

Gizonaren baitan badira bestaldeko bi indar: gogapea ("conciencia") eta lizunkeria ("concupiscencia"). Batek goruntz bultzatzen gaitu, Jaungoikoagan. Besteak, berriz, beeruntz, aragikeriatarara, etsaikerietara, gorrotora, gudetara, erailzetara: itz batean, gerekoitasunera.

Gizona gogapen bideetatik, zuzen-bideetatik dabillanean, besteen eskubideak begiratzen ditunean, ondo dabil; pakea eta zoriontasuna bere baitan ditu. Bestalde, berriz, urkoaren eskubideak begiratzen ez ditunean, Jaungoikoa eta bere legeak aaztu ditunean, dana zilipurdika, naasturik dabil. Ez da ez pake, ez baretasun, ez askatasun eta ez zorionik ere; nun-nai zoritxarra, gaitza, naigabea eta eriotza besterik ez.

Jaungoikoa eta bere legea gizonaren gidari ez badira, esan dezakegu ez dala gizadiarik. Gizadia, oińarri gabe, itsas barrenean, urolde aundiaz dardaratutako ara-ona eta gora-beera dabillan itsas-ontzia dirudi; zańa auldun, azalezko zańak dituan zugaitza dirudi: aize gogorrek dinbili-danbala, alde batetik bestera zear-mearka darabil, eta azkenerako lurra jotzen du.

Jon Pablo Aita Santu I Igarrena Afrikan izan da. Eta bai garbi, sakonki eta kementsu itz egin ere...

Aita Santuak begi zorrotz ikusten du gizadiaren ondarena... Gizadiaren oińarria sendia da. Eta nolaz dabil gaurko sendia? Zer nolako sendotasuna du? Zań gutxi eta txikiko baba landarea dirudi. Egunean eta ezkontz-auste geiagoren berri ematen zaigu. Arinkeri geiegi da gaur-egun gai ontaz; ezkontza zirtzilkeri aundiz erabil oi da; etzaio bear ańako garrantzia ematen. Ezkongai asko, bear bezala ezkondu bearrean, elkartuta, senalduta bizi dira.

Orregatik, Aita Santua Afrikan senar-emazte askodunaz mintzatu da. Eta ez da Erroman mintzatu, baizik Afrikan. Esan genezake ots kabian sartu dala. Badakigu Afrikan oitura dala emazte asko izatea. An ezta ińor arritzen. Eta antxe mintzatu da Aita Santua bein-senartuaz. Ortan bait dago gizadiaren sendotasuna, osotasuna, pakea, zuzentasuna, egiazko askatasuna, ongi egone-ra, baretasuna eta zoriona.

Beldur-jaurkera

Beldur-jaurkera ("terrorismo") gora, beldur-jaurkera beera... Gaur egun gai ontaz besterik ez da idazten eta itz egiten. Egunkari, izparringi, erradio eta urrutikuskiñak gaur bai eta biar ere bai ontaz itz egiten digute.

Baiña ez dute bereizten zer nolako beldur-jaurkera dan. Guztiendako beldur-jaurkera bat besterik ez da: gorputz-jaurkera eta beldur-jaurkera.

Badira beste beldur-jaurkera batzuk ere, eta ez txikiagoak, obeak, agertzen ez diranak, ixillean kalte geiago egiten dutenak: gizarte-jaurkera ("terrorismo social"), oikor-jaurkera ("terrorismo moral"), jakintza-jaurkera ("terrorismo jurídico").

Lan-sari errukarriak, langeak, sal-neurriak egunetik egunera arrotzea, zergak egunean eta geiago ugaritzea, egunean eta lege estuagoak ematea... Ainbeste eta ainbeste lokarri eta estutasun jartzea ez al da beldur-jaurkera egitea? Euskerari esiak jartzea ez al da beldur-jaurkera egitea?

Eta Euskalerrian, aspalditik gaur arte, beldur-jaurkera mota guzti auek jasan izan oi ditugu. Eta Madrilako azpi-lan onek, sator-lan onek zulapatu, naastu, zikindu, ondatu eta zilipurdika jarri du Euskalerrri guztia. Asmakari guztiak asmatzen ditu Madrیدهko Gobernuak Euskalerrriaren aurka. Eta neurri oiek naiko ez badira, polizi eta zibillen bidez, zanpaketa ezartzen du.

Nork egiten du orduan beldur-jaurkera? ETAk ala Madrیدهko Gobernuak? Batak bakarrik ala biek?

Zergatik ez dira orain arte aztertu eta azaldu beldur-jaurkera guzti oiek? Zergatik etzaizkio erri xeari ezagutzera ematen? Euskal aldizkari, egunkari eta izparringi guztiak gai auek ezagutzera eman bear lituzkete.

Badakizute zer gerta dan ustel-eridunen lekuetan? Ustel-eridunak berexita, lekukurik aurkitzen dira. Etzaie ñorengana urbiltzen uzten, eta ez daiteke ñor aiengana urbidu.

Aberri Egunean eta bezperan ala zirudin Naparra guztia poliziaz esiturik aurkitzen zan, etzitzaion ñori uzten Naparran sartzen Aberri Eguna ospatzeko.

Urbiola'tar Joxeba Andonik zion bezala, «todo vasco tiene derecho a celebrarlo (Aberri Eguna) donde quiera, y solamente el pueblo vasco tiene autoridad para desconvocarlo». Eta dio geiago: «Cuando la vía de la legalidad que ellos han inventado se cierra, es lógico que cualquier vasco pueda utilizar otras vías, incluso la vía armada».

Eta are geiago: Iruñan ospatu bear zan Aberri Eguna debekatu zuten, batez ere, «por el deseo gubernamental de impedir que Navarra pueda incor-

porarse al resto del País Vasco. Esto viene a demostrar una voluntad del Gobierno de seguir usando y abusando de su poder».

Eta zer gertatu zan Iruñan bertan, orain dirala bi urte, San Fermiñetan? Zer gertatu zan alaber urte bereortan Errenterin? Esaidazute au beldur-jaurkera ez dan. Eta gero diote demokrazia billa dabiltzala? Au al da demokrazia aurkitzeko bidea? Indarkeriaren bidez? Orrela ez, jauna; beste batzuk dira bideak.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1980, 487, ekaina, 17. or.

Absurdoak

Beste aldi batean ere gai ontaz zerbait idatzi nuan orrialde auetan.

Zerbait esan nuan berebil eta urrutikuskiñaz. Auexek dira Españan diran bi egige agirienak. Zertarako ditugu orduan berreun kilometro artzen dituzten berebillak? Ezertarako ez. Lenengoz, bideak ortarako antolatuak ez daudelakoz. Eta bigarren, lasterraldia neurtzen digutelakoz.

Zertarako nai ditugu amairu bidetako urrutikuskiñak? Ezertarako ez. Batekin naiko eta geiegi ere badugu. Erbestean bezala balitz... An urrutikuskiña ez da Gobernuarena, landun bakarrezkoena baizik. Edonork urrutikuskiña piztutzen du, eta lenengo bidean ematen dana atsegin ez bazaio, beste batean jartzen du urrutikuskiña. Eta orkoa ere ez bazaio atsegin, beste batean jartzen du, eta kito. Baiñan emen, alperrik zaizkigu orrelako ibillaldiak. Beti gauza berberarekin topo egiten dugu.

Baiña gaur beste egige batez itz egin nai nuke: Aziendarako guztiok eta bakoitzak ontasun agerpena egiteko daukagun bete-bearraz, edo artara beartzen gaituanaz. Zertarako bear du Aziendak bakoitzaren agerpen ori? Ez al daki zer daukan eta zer irabazten duan bakoitzak? Ez al daki itsas-ontzien bat edo udal-etxeren bat edo berebillen bat edo landareak edo abereak edo lantegiren bat edo beste ontasunik badaukagun? Ez al digute ontasun bakoitzak oiengatik ainbesteko diru bat kentzen? Zertara dator orduan orain beartzen gaituzten agerpen au egitera?

Gaiñera, zenbatek ulertuko dute nolaz egin bear dan? Esatekotan nago eunetik larogei eta emeretzik ez dutela ulertzen zer esan nai duan, nolaz egin bear dan idazkiak azaltzen dituan gauzak. Ziur nago bat baiño geiagok, amurrazita, paper guztiak txakurraren ipurdira bidaliko dituztela eta ontasun agerpena egin gabe geldituko dirala. Eta gero... zigorra ez egiteagatik.

Zergatik ez dituzte egin erraxagoak, erri xeeak ulertu ditzan, azalpen oiek? Ala apropos egin ote dituzte ain zaillak, ain ulergaitzak, geienak, aspertuta, egin ez dezaten?

Bada beste gauza bat ere... Gauza guztietan zergaz josita gaude: bai jakietan, bai soiñekoetan, bai lan-sarietan, bai edozein eros-gaietan (etxeak, berebillak, urrutikuskiñak, sukaldeak, sendagaiak, arri-olioa, eta abar.). Eta, gaiñera, dirua eskatzen zaio erri xeari. Baiña etzaio garbiketarik ematen erri xee orreri zertan erabiltzen dituzten diru oiek. Batzuen sakelak egunean eta geiago betetzeko?

Zergatik sindikato guztiak ez dira bateatzen erri xeari ontasun-agerpen ori ez egiteko esanaz? Zergatik ezker politiko taldeak ez dute gogor egiten esanaz agerpen ori putz egitea dala? Zergatik egunkari, aldizkari eta izparringi guztietan ez da gai ontaz idazten esanaz erri xeari agerpen ori ez egiteko?

Zer gertatuko litzake ontasun-agerpen ori inork egingo ez balu?

Kutsapena

Or dabilta atzera eta aurrera, gora eta beera, ezker-eskubi, izketa, idazten eta agerpenak egiten aize eta bizi-gaien usteltasunaren aurka, kutsapenaren aurka. Loreillaren 25garren egunean, mundu guztian, nuklear-indar aurkako agerpenak ospatu ziran. Tortosan, Santiago de Compostelan, Iruñan, Cartagenan, Castronuden (Burgos) eta abar egin ziran agerpenak. Aizea, bizigaiak, ibai eta itsaso urak pozoitzen dituztela eta arrisku oiek ontzeko neurriak artu bear dirala. Pozoitasun guzti oiengatik gizadia arriskuan omen da. Uri-batzar askoetan, bear diran garbiketak egiteko erabakia artu dute.

Aipagarria, arrigarria, txalogarria iduritzen zait gizadiaren ekiñaldia arrisku ori gure buru gaiñetik aldentzeko.

Baiña erne egon... Gizadiaren ondamena nun dago: aizearen, uren, arraien, bizigaien pozoitasunean bakarrik? Gorputz ondamena, bai. Baiña daukagun gogoaren ondamena, ez. Nik esango nuke badala okerragoko gauza bat, eta ez du iñork ezer esaten, ez du iñork ezer egiten. Gizartea bai dagola, usteldurik, pozoiturik erroan, zañetan. Ez da iñor konturatzen edo ez dio iñork gizartearen kutsapenari garrantzi aundirik ematen. Eta or da arriskurik aundiena gizartearendako.

Orain arte bazituan bere esiak, bere oztopoak. Baiña Olandako itsas-baztarrean bezala, urolde zikin ez oikor eta gaiztoak zeuzkan esiak autsi eta barra-barra gizarte guztiaz jabetu da, loi zikin eta pozoituaz estaliz. Alderdi batetik edozein motako lo-belarrak dirala, eta bestetik aldizkarietan erakusten zaizkigun aragikeriz betetako larrugorritzko neska-mutillen gorputz irudiak. Esan dezakegu gaurko gaztedia lizunkeriz aseta dagola: Gaur-egun, agirian, lotsaz beterik, arrituta, ikusi dezakegu besarkadak, musuak, mingaiñak aoetan sartuta eta beste nolana ere nolaz dabilzan gazteak. Ikusten dugu zer nolako ondore kaltegarriak dakarzkiten lo-belarrak gaurko gaztedian: gorputz aultasuna, indargea, gaitzak, lapurketak eta beste nolanaiko lotsagabeak. Gaurko gizaldian gizarte maitetasun eta begirune gutxiago ageri da.

Gizarte kutsapen au ez al da bestea baiño kaltegarriagoa, arriskugarriagoa? Ala izanik, zer neurri artzen dira minte ("plaga") ori gugandik aldentzeko, zer agerpen egiten dira orren aurka?

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1980, 488-489, ekaina, 3. or.

Erri abeslaria, erri bizia

Betidanik ala izan da. Erri baten bizitza-arnatsa olerkia eta eresertia izan dira. Ori ez dezake inork ukatu. Nork uka lezake au izan dala Euskalerrriaren bizitza-arnatsa? Arrigarria izan da Euskalerrriari beti izan dan olerki zaletasuna. Sagardotegiak izan dira beti olerkarien (bertsolarien) kabia, andik egaka erriko enparantzetara joateko eta agertzeko, erritarren aurrean, erriko jaiak alaitzen, txapelketetan. Eta nolako arrera ematen dio erriak bertsolariari! Ikusi besterik ez dugu nola biltzen dan erriko jendea, gazte eta zaar, edozein adine-takoa, erri batean bertsolari sariketa antolatzen danean. Bertsolariak bizirik eta indartsu gordetzen dute Euskalerrriari izkuntza eta euskal izaera. Eta arrigarria dala esan dut, aipagarria dalakoz bertsolari oien joera. Geienetan, olerkariak gizon jakitunak dira. Euskalerrriari, berriz, zenbat bertsolari ez ditugu izan erri-gizonak, ez-jakiñak... eta, ala ere, nolako bertsolari bikaiñak izan dira, ez bakarrik itzak neurtzen, bear dan puntua ematen, baizik eta gogai sakon eta jakinduri aundiak agertuz! Ez al da ori aipagarria? Orregatik, ez litzake beñere galdu bear Euskalerrriari bertsolaria. Eta ortarako erri agintariak saiatu bear lukete olerki zaletasuna zaintzen eta pizten euskera eta euskal izaera gorde eta bizkortu daitezen, erri guztietan bertsolari sariketak antolatuz.

Eta erri baten bigarren auspoa eresertia da. Ontan ere badu zer esan bearra Euskalerrriari. 'Euskalerrri kantari' esan oi da. Eta ala da benetan. Erri koxkorrenak ere esan genezake baduala bere eres-taldea. Eta bi euskaldun batean biltzen badira, eres-taldetxoa egingo dute. Baita bertsolari sariketek ere badute bere doina edo eres-neurtizkia. Txoria, sortzez eta izatez, kantaria da. Orrelako zerbait esan genezake dala euskalduna ere. Baiña gauza batek arritzen nau. Ara eta ona begiratzen badugu, nun-nai ikusi eta entzungo ditugu ereslariak, bakarka edo taldeka, batzuk era batekoak, beste batzuk beste era batekoak; batzuk protesta ereserkiekin, beste batzuk erri xearen gora-beerak agertuz, beste batzuk amodio ereserkiekin. Eta nolaz sartzen da belarrietatik eresia! Eta nola ikasten ditugu gauzak eresiarren bidez! Ez al zera oroitzen, irakurle, gure aurtzaroan, ikastetxean, nolaz ikasten genituan ikasgaiak? Orra, bada, abeslarien lan bikaiña Euskalerrriari abeslari bikaiñak, baiña nai baiño gutxiago. Geiago izan bear lirake, ori bait da biderik erraxena eta alaiena euskera ikasi, sendotu eta zabaltzeko. Euskal kantak, langillediaren eskubide eta eginbearrak, Euskalerrriko oitura, nai eta biziera zintetan eta diskoetan irartzen badituzte, zabalkunde ederra egingo dute Euskalerrriaren onerako, euskal nortasuna atzerritarren eta etxekoeri agertuz.

Ona emen bertsolari eta abeslarien lan eder eta onuragarria. Ekin eta jarrai.

Eziera

Lengo egunean, senar-emazte batzuk batzartu giñan illun nabarrean askari-afari elkarrekin egiteko. Bero zegon arratsaldea. Txixarrak kanta kantari zeuden gure buru gañetan zugaitz adarretan. Garagardo eta beste edari otz txurrut egiñaz, musean ari giñan. Garaia egin zanean, afaltzen asi giñan, gabako amarrak aldean. Adiñekoak mai batean jarri giñan eta umeak beste mai batean. Guziak amalauren bat lagun.

Izketaldian, gaurko umien aziera eta eziera gaia sortu zan. Bakoitzak bere iritzia ematen zuan.

Zalla da beti umien eziera, bañan garai auetan noski zallago. Guk ez dugu gure umien biziera izan. Gure aurtzaroan esan genezake amar edo amabi urte arte ez giñala argiak, erneak. Gaur berriz badirudi jaio orduko begiek zabalik dauzkatela. orain, guk baño erraztasun aundiagoak dauzkate, jakiñagoak dira, beste era batera gogaltzen dute, askatasun geiago nai dute, ajolagabeakoak dira, beren gixara bizi nai dute... Ortik dator guraso eta umien artean nekez elkar ulertzea.

«Ez gaituzte ulertzen», diote gaurko umiek beren gurasoei.

Eta nik galdegingo nieke: «Zuek ulertzen al gaituzte adiñekoei?».

Esango nuke gaurko gaztedia zerbaitxo berekoia dala. Berengan besterik ez dute begiratzen. Besterik etzaie ajola. Zarragokoak gazteak ulertu ditzaten nai lukete. Bañan ezta ola ori; ori ezta zuzena. Gurasoak ere orixe bera nai izan lezakete: umeak gurasoak, zarragokoak, ulertu ditzaten.

Baliteke guk gure umeak bear bezala ez ulertzea eta ortan saiatu bear giñakela. Bañan bai umeak ere saiatu bear lirake beren gurasoak ulertzen. Gure aurtzaroan itzal geiago gengan zarrengan orain baño. Gauz okerren bat egiten bagenduan, eta zarragokoak asarre egiten baginduzten, burua kuxkurto, eta ixil eta apal alde egiten genduan. Oraingo umeak berriz erantzungo dizute: «eta zuri zer ajola zaizu?» Eta olako lotsagabekeri asko ikusi eta entzun dezazkegu.

Bai, egia da ez dezazkegula ezi gure umeak gu ezi ginduzten bezala, beste garai batzuk dirala, beste era batera bizitzen dala gaur, beste pentsakera batzuk dituztela, guk izan ez genituen beste erraztasun batzuk dituztela... Egia da gure umeak ezitzeko, lenengoz gure umeak ulertu bear ditugula, berengan jetxi bear gerala, beren bidean jarri bear gerala..., bañan geren bidea utzi gabe; gauz berriak erakutsi, bañan gauz zarrak alde batera eta erabat utzi gabe.

Nere lagun oietako batek zion bezla: «nik lasaitasun pixka bat emango diet, bai, bañan ez erabateko lasaitasuna. Nere baitan bizi diran bitartean

beintzat nere agintzetara egon bearco dute. Ezkonduko diranean edo beren bizitzeko era artzen dutenean, orduan nai dutena egin dezatela. Etxe batean ere batera bizi bear da eta nausitasun bat izan bear da. Alderantziz, bakoitzak nai duana egingo baluke, etxe galdua izango litzake».

Nik -zion beste batek- izketan uzten ditut. Barra-barra gerta zaien guztia esaten didate. Nik entzuten ditut, eta bear danean irri egiten dut aiekin batean... Eta guztia aitortu dutenean, esaten diet: «bai alaitu zeratela... bañan kon-turatu zerate zer ondorio kaltegarriak ekarri zezazken ekintza orrek? Nik uste, etzenuketela ori egin bear».

Ni ere ortan nago. Gaurko umeak ez dira motx lotu bear, bañan ez erabat aske ere; bi alderdietara jo bear da... Bizitza berria artu, bañan orain arteko oiturak erabat alde batera utzi gabe. Erdiko bidea deritzait dala oberena. Aldaketak ez dira bat-batean egiten. Guztiok bateatu bear gera: gaztedia, zarragokoen bidean jarritz, eta zarragokoak, gazteen bidean jarritz. Batzuk eta besteak beren aldeko zerbait utziz guztien onerako.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1980, 497, iraila, 3. or.

Gizadiaren ondamena

Gizadia bi mailletan jarriko nuke nik. Lenengoz, maitetasun maillan.

Gauza guztien oiñarria maitetasuna da. Bizitza guztia maitetasunaren inguruan dabil. Gure ekintza guztiak maitetasunean dute beren sorrera. Begiratu besterik ez dugu. Nork eragiten gaitu edozein gauza egitera? Maitetasunak. Nork eragiten gaitu lanera, mendietara igotzera, kirola egitera eta abar? Osasun naiak, bizitza maitetasunak. Nork beartzen gaitu buru opaltzera? Andregaiarenganako maitetasunak, gure ume eta sendiarenganako maitetasunak.

Bai, maitetasunaren berotasunak mugiarazten gaitu.

Baiña maitetasuna gizadiarendako dan eran, itzala ere gizartearendako. Gizartearen maitetasuna elkarrenganako itzala izatea da. Elkar itzala izatea gizartearen oiñarria da. Orrek eusten du gizartea. Zenbat arrazoi du eta zenbat mami dauka erdal esaerak: «Si quieres que te respeten, empieza respetando a los demás»!

Bakoitzak kopetan eta biotzean idatzita euki bear genduke erdal esaera ori. Esaera ori gogoan izango bagendu, esaera ori gure ekintzetan erabilliko bagendu, obeki izango litzaizkigukete gauzak, obeki biziko giñake. Baiña gizarteak aaztu egin du esaera ori, eta orrela dijoazkio gauzak. Gizadiak burua galdu du, eroturik dago, mozkortu egin da; badirudi erauntsiz azitako ibaia: inguruan arrapatzen duan guztia narratzen du. Ez du ezer begiratzen, oker-bide guztiak leunak zaizkio. Eta ortik dator naasketa, erailketa, odol ixurtzea, lapurketa, elkar joka, elkarren eskubideak oinperatzea, ezer ez begiratzea, berekoi-tasuna; bere burua besterik ez du begiratzen. Eta ortik ondamena.

Nora goaz? Buruz galkuntzara. Era ontan, berriz artzulo eta leizeetara goaz. An basatiak bezala biziko gera.

Norbaitek esango dit askatasuna, dauzkagun gauzetatik oberena, goralgarriena eta ederrena dala; askatasuna orain arte erdi moztuta, mugatuta euki izan dugula. Eta askatasuna bere zabalera guztian erabilli bear dugula.

Bai, egi borobilla da ori, egi galanta. Zerbaiteko eman zigun Jaungoikoak askatasuna. Baiña kontu! Jaungoikoak askatasuna bear dan bezala erabiltzeko eman zigun. Ba al dakizu zer dan askatasuna edo zer mugak dauzkan?

Begira: gu bakoitzaren askatasunak urkoaren askatasun asieran dauka bere muga.

Orregatik, ez dezakegu nai duguna egin. Bakoitzak nai duana egingo balu, ludia ero-etxe aundi bat izango litzake, ez luke iñork askatasunik izango; elkarren artean indar almena izango litzake nagusi. Orduan beteko litzake Rousseau idazlariaren esaera: «Gizona gizonarendako otsol!».

Pakea eta zoriona izan nai baditugu, elkar maite dezagun, elkarrenganako itzala izan dezagun, bakoitzak bestearen askatasun eta eskubideak gorde ditzagun.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1980, 507, abendua, 18. or.

Euskera aberastu

Ludi ontan gauza guztiak obeagotu eta aberastutzen dira. Gu bakoitzak egunean eta aberatsago izan nai dugu, egunean eta obeki bizi nai dugu... eta al baldin badaiteke gure gurasoak baiño aberastasun geiago eukitzeko bidea arkitu nai dugu. Beti zerbait geiago eta obeagoa izan nai dugu.

Gure etxean, gure gaztaroan, ez genituen orain dauzkagun aurrerapideak. Orduan idi pare bat eta gurdi bat genuen, orain berriz berebilla. Orduan, noski, gure amak erri iturrian edo ibai edo erreka ertzean garbitzen zituen gure galtza, ator, sudur-zapi, arpegi-zapi, maindire eta gañerako soñekoak, orain berriz etxe geienetan badugu geren garbikia. Orduan, aragia, esnea eta arraia leio saretuan gordetzen genuen, orain berriz badugu gure izozkiña. Orduan, berun-arrizko erradioa genuen, orain berriz urrutikuskiña dugu, eta margozkoa gañera.

Gure baserrietako ikulluak illunak, estuak, erakaitzak, osasun-kalteak, erabiltzeko zallak ziran, orain berriz ikullu txukunak, garbiak, argiak, lurgaiñ zorubeltzdunak dauzkate.

Lantegi eta olak ere egunean eta geiago obetzen dira. Len malluz eta eskulanez egiten ziran gauzak orain lankai berri eta aurreratuenekin egiten dira. Egunean eta aurrerapide geiago da, eta aurrerapide oiek narraztutzen gaituzte.

Orregatik, izkuntzak ez daitezke atzean gelditu; obeagotu, aberastu egin bear dira, itz berriak sortu bear ditu. Eta izkuntza guztien artean, gure euskera kuttuna ez da berexia. Gu ere, bakoitzak al duan eran, gure izkera aberastu, obetu eta indartzen saiatu bear gera. Nik, egia esan, ez dut ongi itz egin eta idazten nere amaren titietan edan duan euskera; urte asko daramazkit etxetik kanpo. Bañan ala eta guztiz ere noizean bein eta bakanka GOIZ-ARGIN, len ZERUKO ARGIAN bezela, zerbaitxo idazten dut; nere umiekin beti euskeraz itz egiten det; eta euskaldunen bat topos egiten badet, bai arekin ere euskeraz itz egin.

Emen da, nere ustez, euskaldun askoren uts eta okerra: etxean eta lagunekin bere izkuntzan ez egitea. Edonun eta edozeñekin euskeraz itz egin bear genduke. Dakigun euskeran: bai bizkaieraz, bai giputzeraz, bai naparraz, edota bai prantzieraz. Guztiok bat gera. Ez lotsatu euskera traketsean besterik itz egiten ez badakigu ere... Beintzat itz egin, eta erakutsi gure umiei.

Eta gero aberastu gure izkuntza. Ama magalean bizi dan aurrak ez du etsitzen an ikasitako itzekin. Geiago ikasi nai du, bere izkera aberastu eta zabaldu nai du. Eta arrazoia dauka.

Eta nolaz aberastu eta ugaritu dezakegu gure euskera? IRAKURRIZ. Irakurri egunero zerbait; irakurri astero GOIZ-ARGI. Liburuetan dago jakintza. Beti itzen bat edo beste ikasiko duzu liburuetan. Eta erdal esaerak dion bezala «nunca te acostarás sin aprender algo nuevo».

Emen daukagu aberastasun geiago eukitzeko bidea.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1980, 502, azaroa, 3. or.

Jesukristo

Jesukristo, garai artan, il zuten, gurutziltzatu zuten, gari artako zuzenbidegabekeriak gaitzesten zitualakoz.

Garai artako erri agintariei etzaizkien konbeni Jesukristok salatzen zituan gauzak, diruzaleak, berekoiak, lapurrak, erri-xee zanpatzalleak, legeak bestendako antolatu eta jartzen zituztenak baitziran. Aiendako Jesukristo matxinar bat, erri naastutzalle bat zan. Orrexegatik aientzeko erabakia artu zuten. Eta orduan gaizkilleendako erabiltzen zan oñazea gurutziltzatzea zan. Gurutziltzatu zuten bada, eta beren gogapea bare eta lasai egon zaiteken.

Orain dirala berrogei eta hamarren bat urte erabiltzen zan oñazea 'txeka' zeritzana zan; orain berriz esan genezake su-izkillua, laspel-alkia ("cámara de gas"), lepaietza ("guillotina") dirala.

Gaur egun gure artean Jesukristo sortuko balitz, orain ikusten diran zuzenbidegabekeriak, gaurko lapurketak, erailtzak, langille zapalketak, gose lan-sariak, gaurko zigorrak, ebasteak ("estafa") gaitzetsiko lituzke. Belarri batzueendako itz gogorrak, ondamen itzak izango lirake, ez lukete entzun nai izango ere. Esango lukete Jesukristo komunista eta matxinarra zala, erriak eta langilleak naastutzen zituala, etzala konbeni orrelako gidaririk; esango lukete burua galdu zuala, ero bat zala... Eta ertzaiñak bereala giltzapetuko lukete, eta espetxean kristorenak (barkatu) eman ondorean, su-izkilluz edo laspel-alkian bizia kenduko liokete. Etzieten orduan beatzarekin esango edo onako aukerapegira botako: «Zuek zerate gaizkilleak, errudunak, erri galtzalleak, lapurrak, maltzurak, suge miztundunak, ardi jantzalle otsoak... Zuen sakela eta ondasuna besterik ez dezute begiratzen; etzaizue besteen ajolarik. Zuzendari eta gidari madarikatuak zerate. Badi-rudizute odol edale zizaiñak. Ainbeste zergarekin erria odol gabe uzten dezute zuen onerako, erria gose dezute zuek jateketa bikañak egin eta bapo bizitzeko. Zuek, aberatsak, etzaitezket gaizkatu, diru-zaletasunarekin biotza usteldurik daukazutelako, biotz gogorrak eta arroak zeratelako...».

Eta zer esan nai du *Kristo* itzak? Erderaz "ungido" eta euskeraz 'autatua' esan nai du. Itz ori gerkeratik dator: *jristos* itzetik.

Esan zuan bein Jesukristok: Ni ondorean sortuko dira anti-kristo asko, izango dira ere beste *kristo* batzuk, beste 'autatu' batzuk. Gaurkoak ditugu Stepinak, Mindszenty eta orain dirala illabete Erdi Amerikako San Salvador late-rrian il zuten Marzelo gotzaiburua.

Oiek ere, Jesukristok bezala, zuzengabekeria, beartsuen zampaketa, gose lan-saria, erri-gidarien eta aberatsen maltzurkeriak salatu zituzten. Eta orrexegatik lepoa moztu zieten, bizitza kendu zieten, itzaldtu egin zituzten.

Euskalerrian euskeraz

Euskalerrian dauden apaiz eta erlijiosoek euskera ikastera bearturik daude, ez baldin badakite.

Ez ditu inork beartzen; ez da ori agintzen duan legerik.

Gezurra da askotan entzun izan oi dana: «Euskalerrian, euskera ez daki-tenak baztartzten dituzte; gaizki ikusiak dira; berezituak dira...».

Ez, ez du inork beartzen ortara (gizonen artean esan nai dugu). Bañan bada beartzen duan nor: Eliza Ama Santaren eta Jesukristoren berri eramale diran apaiz eta erlijioso izateak, nor bakoitzaren gogapeak ('konzientziak'). Gogape au ez duan apaizari gogo-artzai batek izan bear luken egimen bearezkoenetako bat falta zaio, eta ez litzake gogo-artzai izan bear; obe luke beste bide bat artzea, gogo-artzai zaletasuna ez dualako.

Artzaiak bere artaldea eta bere ardiak ezagutzen ezpaditu, alperrik eramango ditu belardi goxo eta iturri garbietara bazkatzera.

Zenbatenaz obeki jakin bere artaldearen izaera, pentsakera eta bide ona erakusteko era, orduan eta obeki eta errazago beteko du ortarako jarrita dagon bete-bearra.

Ardiak etzazkio beregana joango artzaiak bereganatzen ezpaditu. Eta ortarako jakin bearke du nola ekarrarazi, nola erakutsi on-bidea. Eta zer esan nai du onek? Nola dazkio beregana ekarrarazteko era orreri? Gogo-iztia ("psikologia"). Apaizak, gogo-artzaiak, gizonen gogo-iztia, gizonen ostetasuna ("reacciones") ezagutu eta jakin bearke ditu.

Mixiolariak Txinara, Afrikara, Indietara edota beste nora-nai lekuetara joan bear izan dutenean, zer egin dute lenengoz? Ango izkuntza ikasi, angokondaira, oiturak, bertakoen izaera ikasi. Nolaz bestela erakutsi lieke Berri-Ona? Ortik asiko ez balira, denbora galduko lukete.

Bidezkoa da bakoitzari bere izkeran erakutsi bear zaizkiola gauzak, eta ez erbesteko izkuntzan.

Eta zer gertatu da Euskalerrian? Zer gertatu da euskerarekin? Erri askotan euskerak atzera egin du, eta batzuetan iltzeko zorian gelditu da. Eta guztia, erriko apaizaren erruz. Apaiza euskalduna zan, bazekien euskeraz; bañan eliz-itzaldiak etzituen euskeraz egin nai. Erraxago zitzaion, noski, erderaz egitea... Eta ortik euskeraren galera. Ez errudundu atzerritik etorri diran apaiz eta erlijiosoak bakarrik. Okerragokoak dira etxeko zenbait.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1981, 516, apirila, 3. or.

Euskalerrria eta bere mendiak

Euskalerrria bezalakorik nun? Emengo mendiak, emengo oianak, emengo belardiak... Emengo orlegitasunean aurkitzen dute ikusle-begiekin ezin esan alako atsedean gozo eta zoragarri bat; biotzak alako zorion eta alaitasun aurkitzen du...

Oianetan, adarrik adar, egaka eta saltoka, txoriak kanta-kantari... Nun-nai zorion eta poztasuna ageri da.

Baiñan ai... Mundu ontan ez da zorion osorik, ez da zorion beterik. Zugaitzek ere badituzte beren etsaiak; aizkorak, arrak, sua eta abar. Mende ontan, izugarrizko kaltea egin diete zugaitzei.

Lenengoz, atzerritar etsaiak izan dira, mendiak ondatzeko naian.

Aritz zaarrak:

- Ai ene. Aundia da nere arazoa, aundia da nere naigabea... Bakarrik gelditzen ari naiz. Bart, etsai batzuk sortu ziran eta nere auzoko bat ebaki, kristorenak eman, eta, lotuta, arrastaka, inbuluzkaka eramane zuten. Zulo batean sartu zuten, eta ez dakit zer izango dan gaxoaz...

Beste batean, nere inguruan ttennte zeuden izpi, belar eta sasitxo batzuk zanpatu zituzten.

Gaztain-ondoak:

- Bai, elbarriturik nago. Leengo egunean makilkada ederrak eman zizkidaten, arrika jo ninduten. Ezurak puskatuak dauzkat, errairik gabe utzi naute.

Pagoak:

- Nik ere badut zer esan bearra. Nerekin egur egin dute; gorputza bakarrik utzi didate. Ume oberenak, umerik beartsuenak, umerik maiteenak kendu dizkidate. Noiz ikusiko ditut ume oiek nere inguruan, nerekin batean, nere bizitzatik bizitzen, nere alaitasuna eta zoriona osotzen pakean? Ez da nere baitan leengo berotasuna, leengo maitetasuna.

Eta neroni ere otzaz daldalka nabil. Ez daukat nere baitan baretasunik. Uste ez dudanean nere billa etorriko zaizkit. Zer egingo duten nerekin ez dakit. Bilbur naiz. Eta nere bakardadean negar egiten dut. Bizigaiak (aizea, eguzkia, euria) urritzen ari zaizkit. Orain arte osasuntsua, ikusgarria nintzan. Itzal gozoa ematen nuan, nere umeak (adarrak) sasoitsuak azitzen nituan. Eta orain berriz...

Piñuak ere ikustekoak dira. Zauriturik daude, negarra darietela...

Loreak, pitxiak, alaitzen zituzten orain arte mendi eta zelaiak. Baiña ia ez da irripar ura ikusten eta entzuten.

- Ekaitzak, uroldeak, aize boladak gure gain etorri zaizkigu eta zaiñetatik atera eta ankaz gora bota gaituzte. Orain ondarena besterik ez da gure inguruan.

Txori abeslaririk ere ez da entzuten. Guztiak ixil daude.

- Arranoak, txori-jaleak egunero gu arrapatu naian dabilta, eta gu sasipetan izkutu bear. Ez daukagu emendik ara lasai, egaka, ibiltzeko askatasunik.

Belarrak:

- Bai, guri ere su eman digute.

Ori diote, gutxi gora-beera, Euskalerriko mendi biztanle guztiak.

Baiña ez dira atzerritar etsaiak bakarrik... Etxean bertan ere, geren artean, sortu zaizkigu etsaiak. Zoriona eta pakea ekarri bearrean, gure aurka dabilta oiek ere. Arrak, ozkaka, zaiñetatik ondutzen gaituzte. Geren artean indartsuenak, azkarrenak diranak, gaiñerakoak menderaturik gauzkate; itzal geiegi egiten digute, eta ez daukagu bear aiñako argi berotasuna. Eta ez dira konturazten gu gabe ez daitezkeala bizi, guztiak ondatuak gerala; guztiak bear gerala; aiek eta gu, gauzak ongi joatekotan.

Batzuen eta besteengatik, gure basoak, gure oianak, gure mendiak, zugaitz ustelaz, adar igertuz, zain gabekoz, lurrian luze-luze etzanda, ezkur gabe, itzal gabe, belar gabe, euri eta eguzki gabe, legor-legor, arritsu gelditzen ari zaizkigu.

Gure artean negarra, naigabea, zoritxarra, illuntasun eta oztasuna besterik ez dugu ikusten. Ondarena besterik ez digute ekarri.

Baiña esaerak dionez, «ekaitzaren ondoren, baretasuna».

Badirudi argitzen ari dala, gudaketak amaia jotzen duala. Bakoitzak bestearen itzala badu, guztiok guztien bizitza eta ontasuna nai badugu eta orren billa saiatzen bagera, elkarrenganako gorroto eta ezin ikusi naiak alde batera uzten baditugu, guztien pake eta zorientasuna iritxi nai badugu, asi gaitzen lanean. Landa berriak landatu ditzagun. Begira dezagun, oroitu gaitzen zer izan giñan leen eta zer izan geran azken urte auetan... Beti borroka, elkarrekin ozkaka ibilli nai al dugu? Auldurik, indar gabe, iger, elbarri, negarrez, usteldurik, zauriz beterik, odola dariogula, gaitzaz beterik egon nai dugu, ala irrika, alai, askatasunean, sasoiu eta zorientu? Ortarako, guztiok bearrezkoak gera. Elkar lagun dezagun, guztien artean saia gaitzen aintziñako egun aundiak irixten. Pakea izan dezagun. Guztien artean sendi bat egin dezagun, eta guztiak begirune ona izango digute. Berpiztu gaitzen.

Lizarrusti

Goiz-Arri, 1981, 516, apirila, 21. or.

Pillota

Len-ikusiak potot egiten ezpadute, Madridek munduan diran pillota lekurik oberenetako bat izango du. Gaur egun Ipar-Amerikan daude pillotalekurik oberenak; Ipar-Amerika da pillotaren eser-lekua. Bereala asiko dira lanak, eta aurtengo garagarrillan bukatuta egongo dalako itxaropena du. Gutxi gora beera bosteun milloi laurleko gostako da.

Madrid ondoko San Sebastian de los Reyes erri ondoan egingo da, Jarama berebil laster-zelai beste aldean, Madridetik Burgoserako bide berri ondoan, 26 kilometro bidean.

Arrigarria dirudi, baiña ala da. Ori egiteko dirurik geiena jarriko dutenak Ipar-Amerikarrak dira. Eta zertan ez dira nagusi diru arazoetan Españan? Esan genezake aiek dirala emen jaun eta jabe. Baiña, pillota euskal joku eta kirola izanik, nor ez da arritzen?

Aga luze (pala), erremonte eta zesta-puntako jokuak izango dira, oiek bait dira pillota era ikusgarrienak. Orain arte, Madriden pillota leku bat besterik ez da, eta an, pillota-leku txikia dalakoz, aga eta sarezkoak bakarrik erabiltzen dira.

Baietz-ezetzak (apostuak) zarragotzen du pillota kirola. Ori da euskal kirolen salxa (pillota, aizkora, sega, soka-tira, igitai, arraunkari, arri-jasotze eta beste euskal kiroletan). Orregatik, nolaz ez izan emen ere apostuak? Bai, izango dira apostuak. Ostikalari eta zaldi txakur lasterketan bezela, emen ere kiniela deritzanak izango dira.

Pillota-lekuak eramango duan izena oraindikan asmatu gabe dago. Bi milla berebillendako geltokia izango du bere inguruan. Jatetxe bat, edategiak, salosketak, izozkiñak eta abar izango ditu. Eta guztia amerikarren asmamen eta diruari esker.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1981, 517, maiatza, 3. or.

Demokrazia

Demokrazia gora, demokrazia beera... Demokrazian gaudela, demokrazia lortu nai dugula, demokrazia iristeko au eta ura egin bear dala... Demokrazia nai eta nai ez lortu bear dala esan oi da bein eta berriz. Egia ote? Bildur naiz. Demokrazia itzarekin begiek ixten dizkigute. Arin xamar artzen dute askok demokrazia itz ori. Nere ustez, sakonago begiratu bear genduke, eta ortarako, jakin eta ezagutzera eman bear ligukete zer dan berezko eta egiazko demokrazia.

Zertan datza demokrazia? Berez, demokrazia billa dabiltzanak demokrazia orokorra nai al dute? Ez-bai nago.

Ni demokraziaren aldeko naiz, baiña bear bezalako demokraziaz, ez itxurazko demokraziaz. Konbeni zaizkigun gauzetan esaten dugu demokrazian gaudela; gaiñerakotan, ezta aipatu ere.

Demokraziaren bi zutarriak auexek dira: Askatasuna eta zuzenbidea.

Baiña askatasuna eta aixakeria ez dira berdin. Askatasuna gauza bat da eta aixakeria beste bat. Bata zuzentasunean dabil, bestea berriz oker bidean. Askorentzat berdiñak dira; ez dute bat bestetik bereizten. Askatasuna ematen bazaie, uste dute berendako bide guztiak zabal-zabalik dauzkatela, nai dutena egin dezaketela, beren eginkizunei muga eta oztoporik jarri gabe. Uste dute beren buruen aurka jo dezaketela lo-belar eta beste batzuk artuz; uste dute besteen gauza eta onbideak bereganatu ditzaketela ostuz edo indarrez kenduz; uste dute beren gogai eta gogaikiak zabaltzeko, urkoaren gogamenak indarrez edo bildurrez bereganatu ditzaketela, bear bada zergak jarriz, zigorrrak eman eta bizia kenduz. Baiña tenk or! Askatasunak ere badu bere muga. Nere askatasunaren muga urko askatasunaren asieran dago.

Egia da eta arrazoi guztia eman bear zaigu askatasuna eskatzen dugunean; gaiñerakoan alperrik dugu salmen ori, alperrik eman zigu Jaungoikoak. Askatasuna eskubidea dugu baiña ez gauza baterako edo besterako bakarrik, bai zik gauza guztietarako.

Orain arte ez dauka iñork askatasun orokorrik; gauza askoetan mugak jartzen zaizkigu; eginkizun batzuetara, izaera batzuetara bearturik gaude. Demokrazi orokorra izatekotan, askatasun orokorra izan bear genduke. Baiña au agintari askori (edo guztiei) etzaie konbeni, beren ontasunak eta beren etorrera ankaz gora joango lirakelakoz.

Esate baterako: monopolio eskubideak askatasuna mugatzen du, eta ortik atzerapen eta kalte asko datoz. Baiña nor ausartuko da monopolio eskubide ori kentzen?

Demokraziaren bigarren zutarria zuzenbidea da. Gizakia ez daiteke oin batekin bakarrik ibilli; bi oiñak bear ditu ibiltzeko; gaiñerakoan, elbarri dago eta beti inbuluzkaka ibilliko litzake lurrean.

Orobat demokrazia ere. Alperrik zaio askatasuna izatea zuzentasunik ez badauka. Eta ez bat eta ez beste ez badauzka, okerrago oraindik. Orduan, demokrazi izena besterik ez dauka, gezurrezko demokrazia da.

Eta zer da daukagun demokrazia? Itxurazko eta gezurrezko demokrazia besterik ez, izena besterik ez daukana, itxurazko demokrazia. Badauka bere zuzentasuna eta bere askatasun, baiña biak ustelak dira, biak elbarriak; ez dute ezertarako balio. Bada zuzentasuna, baiña gauza batzuetan bakarrik, batzuen-dako bakarrik, ez zuzentasuna orokorra eta guztiendako. Badirudi legeak batzuetako bakarrik egiñak dirala. Esan genezake (konstituzioa) laterkerakalte dala. Laterkerak amalaugarren idazkian dio: «Españarrak berdiñak dira lege aurrean». Ala izan bear, baiña egunero ikusten dugunez, ez da ala. Badirudi legeak batzuetako bakarrik eman dirala, eta ez guztiendako.

Nun dira Matesa gertaketan sarturik zeudenak? Nun daude Iberia ebaste-an sarturik zeudenak? Eta nun dira ainbeste eta ainbeste kontu zikiñen egille-ak? Ez da beñere ezer garbirik jakingo. Ortarako al dira legeak, ori al da zuzentasun orokorra?

Zuzengabekeriak artean beste gauza asko ere aipatu litezke.

Pakea

Askatasuna eta zuzenbidea duten demokraziek, pakea izango dute alaber, pakea aurren esandakoen ondorioa dalakoz. Baiña goian esandako bi zuta-riendakoren bat falta bazaio bi zutarri oiek orokorrak eta osoak ez badira, alperrik esan dezakegu demokrazia dugula; itxurako demokrazia.

Bai zutarri oiek (askatasuna eta zuzenbidea) gizakiaren eskubiderik aundienetakoak (bizitza eskubidea ere bai) eta bearrezkoenak dira.

Bi eskubide oiek gabe gauden bitartean, ez da pakerik izango munduan.

Aixakerian eta zuzengabekeria dabillen gizadi au nora dijoa? Ainbeste okertasunak; ainbeste lizunkeriak, ainbeste gorroto eta ezin ikusi naiak, ainbeste lapurketak, ainbeste erailtzak, ainbeste indarkeriak, ainbeste urdurike-riak nora garamate? Nora goaz? Zer ikusiko dugu oraindikan? Gauza guzti oien larritasunak begiak itxiazten dizkigute.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1981, 520, ekaina, II. or.

Zalapartak

Gizadi kondairaren zalapartarik aundienen artean bizi gera.

Kondaira danez, beti izan dira zalapartak gizadi artean. Gizadi bakoitzak bere zalapartak izan ditu. Orregatik ez gaitezke arritu gaur diran zalapartak ikusita.

Txinan, Mao-Tse-tung ango agintari zalarik, 'jakintza zalaparta' ("revolución cultural") zeritzana egin zan. Errusian ere egin zan 'erri zalaparta' ("revolución rusa"); auzoko Prantzi laterrian ere izan zuten beren zalaparta ("revolución francesa").

Zalaparta oietako bakoitzak bazuan bere indarra gizadia bultzatu eta beste bide berri batean jartzeko.

Joan diran mendeetan aurrerapide aundiak izan dira. Esate baterako, irarkola.

Jakintza gaietan esan dezakegu irarkolak bultzada aundia eman diola gizadi osoari alderdi guztietara. Irarkolari eskerrak, jakintza iñoiz baiño geiago zabaldu zan gizakume artean. Jendea leen baiño jakintzuago zan, ezaungai geiago izan zezaken. Ordu arte gutxi ziran jakintza ikasi zezaketenak, jakintza berxiena bakarrik zan. Arrezkeroz, jakintza erri xeearendako erosoago jarri zan, erraxago. Izugarritzko aurrerapidea izan zan irarkola.

Baiña bizi geran mendean ez dakigu zer aurrerapide dan garrantzitsuen. Oraingoa bai dala gizadi berria. Geok ere, gerta diran gauzak ikusirik, arrituta bizi gera. Gaurko gizadia erabat berritzen ari da, ez ezaguna da.

Industri gaietan ikaragarritzko aurrerapideak egin dira, izugarritzko zalapartak.

Gure aitonen aitona biziko balira, orein ber-piztuko balira, ikusten ditugun gauzak ikusirik, txoraturik geldituko lirake, izututa, bertan illik geldituko lirake. Eman dezagun:

Urrutizkiñ txirriñ soiñua entzuten da. Aitona urrutizkiña eskuetan artuta, urrutizkiñ txuloetatik ateratzen dan abotsa entzutean, bereala esango luke:

Zer arraio dek ori? Nork itz egiten dik? Or etziok iñor; ez dek iñor agiri; ez diat iñor ikusten... Zer duk bada ori? Deabrukeria duk, noski; sorginkeria.

Eta larri eta izaturik, ezurak otz daldalka eta beldur-kaka dariola, urrutizkiña bazter batera lurraren kontra puskatzeko asmo indarrez bota eta anka egingo luke esanaz: aldegin zak, madarikatu ori...

Zer egingo luke eta zer pentsako luke alako batean sukaldeko alki batean, su ondoan egur adartxoak puxkaka puxkaka sutara botatzen ari dan bitarte-

an, sukalde baztar batean, mai txiki baten gainean arkitzen dan urrutikuskiñean gizon batek itz egiten diola eta berari begiratzen diola, bere begiek ikusiko balute? Noski, aizkora edo maillua artu eta muturretan joko luke esanaz:

- Zer nai dek? Nor aiz i? Ez aut ezagutzen... Aldegin zak nere etxetik zerri ori..

Eta esango baliote egazki batean illargiraiño joan dirala gizon batzuk, zer pentsatuko luke? Ez luke siñistuko. Ori, txotxolokeria dala, gezurra dala esango luke. Ori erokeria dala esango luke...

Eta belarra, olua, 'pipiriya' edo garia segaz edo igitaiaz ebaki bearrean, arrolioz indartutako berebildun mozkin batzuz egiten dirala lan oiek, zoraturik geldituko litzake.

Ez ditugu aurrerapide guztiak aipatuko; gainakoak, noiz bukatu jakin gabe asiko gñake.

Gizarte gaietan ere zalaparta aundiak izan dira, batez ere azken urte auetan. Oraingo oiturak, oraingo izaera, gizarte elkar artu-emanak, gizarte arazoak, oraingo biziera, ez dira orain artekoak bezelakoak. Nastuketa, aldaketa aundiak izan ditu, bai jantzietan bai jakietan, bai beste mota guztietako gauzetan ere.

Eta azkenez, gizadi izaera beñere ez bezelakoa da orain. Badirudi gizadi berri bat sortzen ari dala. Geren inguruan begiratu besterik ez dugu.

Gure gaztaroa eta oraingo gaztaroa berdiñak al dira? Ez dakit uts egin-go dudan edo oker joko dudan baiezten badet oraingo gaztedia usteldurik dagoala esanaz. Ez nuke iñor mindu nai au esatean. Badakit badirala, eta ez gutxi, gazte sendo, oso, bizkor eta eredugarriak. Baiña zer esaten digute anemena gerta diran berriek, guztiok ezagutzen ditugun berriek? Lo-belarrak dirala, lapurketak dirala, guraso eta sendiaz aspertu eta gabe bizi diranak. Gaztedia gizadiaren etorkizuna da; oiek dira geroko gizadiaren gidariak.

Eta bizi geran gizadi onek onelako oiñarriak baditu, zer nolako etorkizuna izango da gurea, zer itxaropen izan dezakegu?

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1981, 523, abuztua, 19. or.

Errusiatik iges

Lituania, Errusiaren mendean dagon katoliko laterri txiki bat da. Errusia eta Finlandia artean dago.

Badakigu nola dauden eta nola bizi diran Errusiaren mendean dauden laterri guztiak: lotuta, menperatuta, askatasun gabe. An bizi diranak ez daukate noranai joaterik; debekaturik daukate. Ez dezakete nai dituzten edo al dituzten aberastasunik izan. Ez dezakete nai dituzten gauzak erosi. Ez dezakete nai duten edo konbeni zaizkien lantegietan lan egin, eta abar. Nork ez du oroitzen Pragako 1956garren urteko Udaberri zampaketa, Berlingo burniesia eta Errusiatik iges egin naian tiroka il zituztenak? Nork ez ditu oroitzen Soljenitsin eta beste jakintsu batzuen erberestaratzeko eta Siberiako izotz arteko espetxeetara askatasunaz idazteagatik eramanak? Errusian espetxeei ez die espetxe izena ematen, baizik buru-sendakin etxeak (edo ero-etxeak).

Lituandar batek, errusiar atzapparretatik igeska, seireun (600) kilometro egin ditu oiñez. Vladas Sakalys-ek ogei eta emezortzi (38) urte ditu. Bizitza latza izan du eta gogorrak ikusi ditu. Bere jaioterririk irten da, ibai aundi eta zabala igaro igerika, ta, Finlandia zear, Sueziara eltzen da.

Vladas, joan zan garoillan, Washingtonera eldu zan eta an, Lituaniar Askatasun Agintz Nagusian azaldu zizkien bere gora-beera eta nekeak.

Finlandiar gizon zar baten laguntzarik gabe, neketan iritxiko zuen bere iges-aldia. Finlandiarren mapa bat eta jakia jarri zituen bere eskuetan. Amar egunen buruan ogia eta gantza besterik ez zituan jan. Errusiar ertzaiñak eta finlandiar uriak zearkatuz, Sueziara eldu zan eta politiko zainpea eskatu zuen.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1981, 523, abuztua, 21. or.

Gogamenak

- I.— ‘Laterri jaiotzan bukatzen da gizona’ (Nietzsche).
- 2.— ‘Guztien askatasuna iritxi duanean, orduan bukatu ditu late-
rriaka bere elburuak’ (Kant).
- 3.— ‘Ez da erraz gizonei biderakustea; bultzatzea bai, erraza da’
(R. Tagore).
- 4.— ‘Erriek dagozkien jaurkera dute’ (Jovellanos).
- 5.— ‘Jaurkerarik okerrena askatasun eta zuzentasunaren izenean
nagusikeria erabiltzen duana da’ (Montesquieu).
- 6.— ‘Zillegiztian txarra dana, baita politikan ere’ (Rousseau).
- 7.— ‘Gudaren artezia gizonak ondatzeko artezia da; politikaren
artezia, gizonak atzipetzea’ (D’Alembert).
- 8.— ‘Samalda beti jakingea da. Emaiozute askatasuna, bañan ez
almena’ (Flaubert).
- 9.— ‘Aburua bere arrazoi beraekin jazartu bear da; gogaiak ez dira
su-izkilluz ixiltzen (iltzen)’ (Rivarol).
- 10.— ‘Erri-zaintza gogapea baño len da’ (Sakespeare).

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1982, 529, urtarrila, 10. or.

Zer dio laterkerak? (Constitución)

«Art. 39. Los poderes públicos aseguran la protección social, económica y jurídica de la familia (apartado I)».

«Art. 35. Establece al trabajador una remuneración suficiente para satisfacer sus necesidades y las de su familia».

«Art. 47. Atribuye el derecho a una vivienda digna y adecuada».

Laterkian irakurtzen dugunez, sendi diru-laguntza enparatzen du. Eta langillearen eta bere sendiaren beartasunak estaltzeko aña diru enparatzen du.

Eta zenbatekoa da langille legedian agintzen dan lan-saria? Ogei eta amabost (35.000) mille, berrogei mille (40.000) laurleko?

Eman dezagun berrogei mille laurleko dirala... Gaur egun zer sendik estali dezazke bere beartasunak diru orrekin? Jarri dezagun bost laguneko sendia... Nik uste ez dugula sendi aundia artzen, bere uneko sendia baizik.

Etxe bateko beartasunak ez dira bakarrik jateko beartasunak. Badira ere beste beartasunik: soiñekoak, oiñetakoak, etxe-ordaintzak, tximist-argia, laspela ("gas"), ikastetxeak eta abar...

Badakigu gurasoak ez dutela ainbeste soiñeko eta ainbeste oiñetako bear. Oiñetako pare batekin badute bolara baterako. Baiña aurrek? Zenbat oiñetako ez dituzte austen? Edota txikiegi gelditu zaizkiela... eta urrengo illean edo beste oiñetako pare bat erosi bear. Eta zenbat balio du oiñetako pare batek: bi, iru mille laurleko? Eta soiñekoak: bost, sei mille laurleko?

Orain erantsi itzazu illabeteko jakiari esandako beartasun guzti oiek... Berrogei laurlekorekin beteko dituzu illabetean etxeko beartasun guztiak? Ziur nago ezetz. Zer mirari egin bear. Ditu etxekoandreak beartasun guzti oiek betetzeko?

Lan-sari ori jarri dutenak pikuetan ziran noski. Ziur dira lan-sari ori naiko dala sendi bat eusteko?

Lan-sari ori antolatu dutenei, lan-sari ori eman bearrean, berrogei eta amar mille (50.000) laurleko emango nizkieke. Eta or konpon. Ea zer mirari egiten dituzten beren etxekoandreak. Bañan beste dirurik sartuko balitz etxe ortan, lepoa moztuko nieke.



Dio ere laterkerak bizitz egoki eta erazkoaren eskubidea ematen diola langillari.

Legeak ongi antolatzen dira, bañan bete? Nolaz dago bizitza? Edozeinek erosi dezake? Merke edo eroso daude langillearendako? Lan-sariekin erosteko eran daude? Zenbat ezkon-berrik erosten dituzte etxeak eta urte askotarako zorretan leporaño gelditzen dira? Zenbat ezkongai ez dira ezkontzen etxea erosi ezin dezaketelakoz! Eta zenbat sendi txerriak zotoletan bezela bizi dira, ez argi eta ez ur ere ez dutelarik!

Nun daude, bada, laterkerak esaten dituen bizitz egoki oiek? Nun da, orduan, langillearen eskubidea?



Gero diote Europako laterrien parean gaudela... Zertan?

Ona emen berdintza:

Auek dira Españan eta Alemanian langillari ematen zaizkion ume-laguntzak:

Etzaizue iduritzen laguntza au irrigarritzko eta lotsagarritzko laguntza dala? Edo uste dute 250 laurleko naiko dirala aur bat illabetean azitzeko? Esate baterako, zenbat balio du "Pelargon" deritzaion jaki oietako batek?

Gañera ume-laguntza ori jarri zutenetik, orain dirala amabi urte gutxi gora beera, ez dute jaso. Eta zenbat jaso da bizitza amabi urte auetan?

Esaidazute au ez al dan lotsagarria.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1982, 530, otsaila, 21. or.

A la vejez, viruelas

Zer egi galanta erdal esaerak diona...!

Aurtengo 1982 urtean ZARREN LATERRI ARTEKO URTEA ospatzen da.

Aurtengo egunetan barra-barra, nun-nai, erradio, urrutikuskin, aldizkari eta egunkarietan gai ontaz itz egiten da. Badira itzaldiak, biotz-agurrak eta batzarrak zarren alde.

España-laterkerak, bere 50garren idazkian dionez, goi-agintariek zarrei dagozkien diru laguntzak enparatzen dizkiete.

Eta beinka-beinka diru laguntza oiek berrituko dituztela.

Itz politikak, benetan, gure legedikoak. Bañan itzak aizeak egaka daramazki arrastorik utzi gabe. Egi gordiña ikusi bearako.

Badira milloi bat zar ezerezko diru-laguntzarik artzen ez dutenak. Oietatik, milloi erdi batek, bost milla laurleko besterik ez dute artzen.

Beste zar asko ikusten dira ere Madrilen gabaz ingi lodi (“cartón”) biltzen, gero saldu eta diru zerbait ateratzeko jateko.

Gaiñerakoak, nekez bizi dira, beren umiekin edo eskean (badira eunen bat eskale). Eta lau milloien artean, eunetik irurogeita amarrek, illabetean, amai-ka eta ogei milloi laurleko artzen dute.

Orain dirala bi urte, bat-beste, amabi milla laurleko zan diru-laguntza ori.

Egun batean, Madridko Chamartin tximist-gurdi geltokian irurogeita amabost urteko gizon bat topo egin nuen. Eta, izketan izketan, esan zidan ogeita amar urtez lan egin zuala goxo lantegi batean. Eta zortzi milla laurleko diru-laguntza artzen zuala.

Oietatik, iru milla laurleko ostatu-etxean ordaindu bear zuala. Eta Algezi-rasera joaten zala noizean bein errekin piska bat eroatera Madrilen saldu eta diru puxka bat ateratzeko. Bestelaz, nola bizi?

Zar askok Aranokoak bezela esan lezakete: pitiri aundia gaukagu. ITZAK MERKE ETA POLTXAN DIRU GUTXI.

Edonork galdegin lezake: laguntza orrekin nor bizi leike?

Gure aurrenekoak, gure gurasoak, adiñekoak, zarrak, lanari loturik egon dira beren bizitzako urterik oberenak; lantegian utzi dute beren sasotasuna, beren osasuna, beren izerdiak. Eta lan orreri esker daukagu gaur dugun ongi-aldia, daukagun aurrerabideak eta daukagun ontasuna.

Eta ordañez zer itzultzen die gure agintariek? Nekea, beartasun gorriena, zimurkeria, eskargaiztoa.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1982, 532, maiatza, 11. or.

Euskalerria

Erri polita da... ez oso aundia, txiki xamarra. Belardi, zelai eta mendietan... ardi, beor, bei, txerri eta beste abere asko korroxxk-korroxxk belar eta sasi-ostok jaken. Zelai eta mendiak beti eze daude. Ez dakigu noiz sortu zan erria. Esan genezake ez daukala sortzerik. Erri zaarra baiña berria.

Ikusgarria da mendi maldetan, zinzilikan bezala, zearka, an-emenka, zugaitzetan txori kabiak bezala, etxe txuriak, ogi labetako su-ke txuria zerurontz igotzen dala ikustea. Etxe atean, gauerdiko illargiari zaunka egiten, txakurra, eta argi sentian, oillarra kukurrukuka. Egunez, or dijoa etxe-jauna asto gainean naiz idi pare batekin nekazaritzako lanak egitera. Bertako sasoitsuak ditugu, langilleak, zuzenak, elkartasun aundikoak, bere erri-maitaleak. Beren erria bezelakorik ez da mundu guztian euskaldunendako. Beren oiturak, ezin garbiagoak. Sendi nagusia, aitona naiz amona, itzal aundikoa da. Eiek diotena egiten da etxean.

Erri paketsua, berea, beste iñoren gauzarik nai ez duana, iñorekin borrokarik nai ez duana. Auzoko erriek gudetan zapaldu, oinpetu eta lapurtu nai badiete, erriko mugaraño lekutzen dituzte eta or bukatzen da gudaketa. Naiz aal izan, ez dituzte zigortzen. Erria pakean gorde nai dute. Eta erriaren onerako beartasunik bada, erriko biztanle guztiek, bateratuta, auzolan egiten dute. Badirudi erri guztia sendi bat bakarra dala.

Bañan sendi guztietan gertatzen dan bezala, noizean bein erri ontan ere asaraldi, ezin ikusi, elkarren arteko gorroto eta zenbait gauza zikin gertatzen dira.

Au ikusirik, auzoko erriek konponketan sartu nai dute; baiñan laguntza aitzakiarekin, zanpatu eta agindu nai dute, beren agintaritza jarri nai dute.

Orduan, errikoek, maltzurkeria nabaiturik, auzo-errikoak txakurraren ipurdira bialdu nai dituzte, esanez, nor dirala euskaldunak beren etxea zuzendu eta bear bezala eramateko. Ez dute nai iñor Euskalerriko gora-beeretan sartu dedin. Nork dakizki etxe bateko beartasunak, etxe bertakoak baiño?

Au da gutxi gora-beera, gertatu dana azken auteskundeetan Euskalerrian. Utzi gaitzatela Euskalerrian euskal dugunoi gure etxea garbitzen, garbitu bear bada; gure etxea zuzentzen, zerbait zuzendu bear bada, eta gure etxea argitzen, illun bada, gure etxea indartzen, auldurik badago. Ez daitezela sartu lan ontan euskal sustraien itxura eta arpegia bakarrik dutenak, euskaldun garbiak dirala, Euskalerria iñork baiño geiago maite dutela diotenak; baiñan beren itzak alako zerbait illun eta maltzurra estaltzen dute, sator-lana egin nai dute, dago-kien joera begiraturuz eta ez Euskalerraren onura.

Oiek, nai duten muga iristeko, ez dira motz gelditzen eskeintzak barra-barra egiten, naiz gero ez bete eskeintzak eta oztapoak jarri eskeintza oiek bete ez ditezen, gauzak atzera eta geroko utziz. Ez da ori euskaldun garbien izaera. Euskaldunak, itz ematen duanean, gauza guztien gaiñetik itz emana betetzen du; ez du kontratu eta paperetan azpian izena jarri bearrik.

Orregatik, azken auteskundeetan, gertatu bear zuana gertatu zan eta irabazi bear zuanak irabazi du.

Lerro auetatik, Garaikoetxea'tar Karlos lendakariari eta bere lankideei nere zorionik gartsuenak; eta osasuna, indarra eta buru garbia izan ditzatela Euskalerrria sendotu eta aberastu dezaten euskaldun guztien laguntzarekin.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1984, 537, ekaina, 16. or.

Euskaldunak Madriden

Ziriza'tar Agustin donostiarra da. Gizon jatorra, sasoitsua, arrai arazoetan ondo jarria, batez ere bakallau gaietan. Badauzka iru bakallau saltetxe: bat Donostin, beste bat Logroñon, eta Madriden irugarrena. Madridedeko saltetxea Doctor Fleming karrikan zeukan, baiñan ura erre egin zan eta joan zan aza-roan José Caballero Palacios karrikan zabaldu zuan.

Saltetxe au zabaltzean, alako egun batean, Agustiñekin topo egin nuan, eta euskalduna zala jakitean eta ni nere umekin euskeraz izketan ari nintzala, elkarren arteko adiskidetasuna sortu zan.

Eta bakallau gaiaz izketan genbiltzanean, galdera asko egin zizkidan:

- I, Xanti, ik uste al duk emen bakallaua salduko dala? Merezi al du emen saltetxe bat jartzea?

Eta nik:

- Bai, gizona. Emen jende asko zebillek. Auzoko saltetxe ontan jende asko sartzen duk ogi eta beste gauza batzuk erostera. Eta emen, aurreko zelai ontan, ikusten duk zenbat berebill uzten dituzten: larogei edo larogeita amar. Ez bildur izan. Segi ezak sartu aizen gora-beera ontan. Nik ere lagunduko diat aal dudana jendea ekarrarazten. Nik gora-beera au nerea balitz bezela artzen diat; euskal gauzak neretzat artzen dizkiat.

Eta aal dudan guztia laguntzen dut Agustin, bear dituan tresnak utziz, saltetxean zerbait egin bear duanean.

Bakallau asko saltzen dute Madriden; bai etxeko-andreek erosten dute, bai jatetxe askotara ere saltzen dute. Esate baterako, Meliá Castilla, Madridedeko etxerik ospetsuenetara saltzen dute bear duten bakallau guztia. Meliá Castillara ostatu billa etortzen dira atzerriko laterri guztietatik: Ipar-Amerika, Ingalaterra, Alemania, eta abar. Eta jende guztia diruduna. Lo egitea bakarrik, bost edo sei milla laurleko gusta oi da. Emendik atera kontua bazkari eta gañekoekin zenbat gostako dan. Eta bakallau asko jaten dute Meliá Castillan. Jaki kaxkarra izango balitz, Ziriza'tar Agustiñek saltzen diena, ez lioteke erosiko. Orrekin dana esanik dago.

Amiano eta Txintxurretar Iñaki da Madriden bizi dan beste euskaldun bat. Gizon koxkorra, baiñan argia, ernea, bixi-bixia, xugandillaren isatsa bezala, beñere geldi egon ez daitekena. Injeniero gaztea, euskaldun eta euskalzale jatorra, abertzale sutsua, euskaltasuna ezur-muiñetaraño sartuta daukana. Beti

gora eta beera dabil bere lan-bearretan, gizon ezin-egona. Atxurdirin (“mármol”) gaietan eta beste langai batzuetan buruz aurrera sartuta dabil. Malagan daukan atxurdirin-arrobia, munduan, olako beste atxurdirinik ez dan arrobia da. Eta or dabil Ipar-Amerika, Alemania eta Japonekin artu-emanetan atxurdirina saltzeko. Oso atxurdirin polit eta garestia esku artean darabilena.

Orain sagardotegi eta bakallau bazkari jatetxe batzuk idekitzeko asmoetan dabil. Euskaldun eginzalea da.

Leen esan bezala, euskalzale gorria da. Larunbatero badakigu zer daukan bazkaltzeko bere etxean: babarrun gorria, Euskalerrian balego bezala. Euskal oiturak ez ditu nolanaiz aztuta utziko.

Agustin eta Iñaki dira bi irudi eta ixpillu euskaldun guztientzat. Oiengan begiratu bear genuke euskaldun guztiok euskaldun garbiak izateko: gizon langille, zintzo eta itzekoak.

Madriden euskaldun asko gera, baiñan sakabanatuta gaude, ez dugu elkar ezagutzen, ez dugu elkarrekin artu-emanik. Euskaldun bat bizi dan lekuan, Euskalerria agertu bear genuke. Denen arte gure Aberria zabaldu bear genuke, bakoitzak aal duan eran. Euskaldunendako Euskalerria bezalako txoririk ez luke izan bear mundu guztian.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1985, 542, otsaila, 16. or.

Orkoyen - Ororbia

Bakoitzak badu bere zaletasuna: batzuek, zezen lasterketak; beste batzuek, arrantza; beste batzuek, mendigoizaletasuna; beste batzuek, arraunketa, beste batzuk, eizea, eta abar.

Udazkena garai ona da erbi-eizera joateko. Eiztari onek beren eize zorrotan, illuntzean, iru edo lau erbi ekarri oi dituzte etxera urrengo egunean otordu bikañak egiteko.

Alako egun batean, Iruña inguruan, urtero oi zuten bezala, bi eiztarik su-izkilluak garbitu zituzten, gerrestunak lerkariz bete zituzten, zatoa ardoz bete zuten, gazta, ogia eta urdaiazpikoa artu zituzten eta eizera joan ziran. Txakurra ere eraman zuten berekin.

Malda gora, malda beera..., ibilli eta ibilli, eta etzan erbirik agiri inñun ere. Etsita zeuden ia. Eiztari batek alde batetik jotzen zuan eta besteak beste aldetik. Bazeramazkiten iru ordu eta su-izkillua bizkarretatik jetxi gabe. Bañan ara nun ezponda batetik bietako eiztari batek nun ikusten duan erbi bat lasterka, izuturik, txakurraren zaunka entzun dualakoz. Eta beste eiztaria deitzen du esanaz:

- Iñaxio..., or erbia! (Ororbia).

Beste eiztariak etzuan ikusten inñun ere erbia eta galdegin zion:

- Nun?

Eta besteak:

- Or goyen (Orkoyen).

Iñaxio izkutatu zan eta bere ondoko bidexka batetik erbia lasterka zetorrela, pun!, pun! bota zuan su-izkilluarekin, eta erbia ankaz gora joan zan. Ori izan zan egun artan arrapatu zuten erbi bakarra.

Orain diotsat: gertaera ontan ote dute Iruña inguruko bi erri oiek (Ororbia eta Orkoyen) beren sorrera?



Bada Naparruko Auñamendietan Otsagabia izeneko erri bat. Beti nere baitan galdezka ari izan naiz: zer esan nai ote du erri onen izenak? Nundik ote dator erri onen izena?

Ez da erraz ontaz argi egitea. Bi aldetara jo genezake. Otsagabi erria mendi arteko zulo batean aurkitzen da. Leku ixilla, otsik entzuten ez dana. Ortik artu zezaken erriak bere izena: otsa gabea = lotsagabia (sic).

Zulo baten antza daukanez erriak, leku egokia da otsoek beren kabiak egiteko. Garai batean otso asko zan mendi aietan. Ortik ere artu zezaken erriak bere izena: otso kabia = lotsagabia (sic).

Izen zuzenena zein...?

Baserriak, larri

Askotan entzun izan dugu aurrerapena gizakiontzat galgarria dala. Au ez daiteke erabat oroentzakotu. Alde batera, aurrerapenek gizadia lagundu egiten dute obeto, erraxago, zoriontsuago bizitzeko. Aurrerapenei eskerrak, giza-kiak lan gogor eta neketsuak, eta eguneroko bizitza latza, arindu ditzake etxean irratikuskiña ikusiz; urrutizkiñaren bidez, urruti joan bearrean eginbearren bat egiteko, urruti itz egin dezake eta itzez gauza konpondu; oñez naiz zaldiz bide luzeak egin bearrean, berebil, tximist-gurdi naiz egazkiz bide luzeak egin dezazke. Leen etxe berri bat egiteko lagun asko bear ziran, etxegaiak, au da arria, area, orea eta abar gertutzeko. Gaur egun berriz gauza guzti oiek gizon batek bakarrik egin dezazke makina batekin.

Bai, egia da aurrerapenak gizonaren bizitza erraztu duala. Baiñan aurrerapideak badakar beste erro gogor eta kaltegarri bat ere.

Aspaldi ontan gertagi au ikusten dugu: erriko jendea barra-barra erria utzita, iri aundietara bizitzera joaten da, eta erriak utsik, jende gabe gelditzen dira.

Auxe da gertatzen dana baserriekin ere. Baserritar gazteek ez dute baserrian bizi nai eta irietara joaten dira bizitzera, an bizitza erraxago dala eta, naiz lan-bidea obeto aurkitzen dalakoz. Eta baserrietan adiñezkoak bakarrik gelditzen dira.

Eta len amabi edo geiago bei esnedun zituztenak, berrogeita amar ardi edo auntz zituztenak, orain ez dute ez ardi, ez auntz, ez beor eta ez bei ere. Esan genezake orain ez dala baserrietan ez ollo eta ez txerririk ere. Leengo belardiak piñuz naiz beste zugaitzez beterik daude. Aza, babarrun, piper, tipula, porru eta beste barazkiak ez dira erein edo landatzen. Soroetan ez da ez arto, ez arbi eta ez txerri arbirik ereiten.

Len, baserrietan, illunabarrean, sendi guztiak su inguruan bildurik, erro-sarioa errezatzen zuan, eta oitura au ere galdu da. Gipuzkoan eta Naparroan baserri asko baserritar gabe gelditu dira, basarri inguruak larrak jan ditu, baserri-tellatuak zaartu eta usteldu dira, baserri-ormak lertu dira eta puskaka erortzen dira.

Negargarria da euskaldunendako, euskaltasuna ezur-muñetaraño sarturik daukagunondako, euskal sustraia onen galera. Baserria Euskalerrriaren oñarria dala esan genezake. Baserrietan gordetzen dira izkuntza eta oitura garbienak. Irietan ats artzen dugun aizea usteldurik dago; baserrietan gure bularrek aize garbia artzen dute. Sasoitsu bizi nai badugu, begiratu ditzagun, zaindu ditzagun, gorde ditzagun baserriak. Baserriak dira euskaldunen odol eta bizitza. Baserririk gabe gelditzen bagera, galduak gera; orduan agur esan dezaiokegu Euskalerrriari.

Santo Domingo de La Calzada

Santo Domingo de la Calzada Logroñoeko erri bat da, eta Europa guztian ezaguna. Europako laterri guztietatik Santiago de Compostelara zetozen bidazti guztiak an gelditzen ziran ibillaldi luzeen atsedena artzeko.

Santo Domingo alaztuntzat ("milagroso") zeukaten kristau guztiak. Bein, Santo Domingok goterki-txadon ("catedral") eder bat jaso nai zuan eta ortarako egurra bear. Erritarrek ez zioten egurrik eman nai. Eta berak bakarrik egurrik ezin egin zezakealako ustean, ala esan zioten: igitaiaz ebaki zezazkean pago guztiak artu zezazkeala. Artu zuan Santo Domingok igitaia eta pago bat beste ondoren asi zan botatzen eta errira ekartzen.

Erritarrek, arriturik, ez zuten siñisten igitaiarekin bakarrik pagoak ebaki zezazkela; uste zuten norbaitek laguntzen zaiola. Joan zan, bada, Santo Domingo erritarrekin mendira eta aien aurrean asi zan igitaiarekin pagoak moztutzen. Igitai zartako bat, eta pagoa ankaz gora joaten zan. Ordu ezgeroz, erritarrek santutzat zeukaten.

Leen esan bezala, Santo Domingo Santiago Compostela bidean aurkitzen zan. Milla eta laureun urtean Frantziko senar-emazte batzuk beren seme mutiko koxkor batekin Santo Domingon arroztetxe artu zuten. Arroztetxeko alabari atsegin zitzaion mutiko arrotza eta lizunkeria egiteko eskatu zion. Mutikoak ezetz esan zion, eta urrengo goizean Santiago bidean jarri ziran. Baiñan neskatoak zillarrezko edal-ontzi bat sartu zion mutikoari bere bidezorroan.

Bidez zijoaztela, zillarrezko edalontzia aurkitu zioten mutikoari bere bidezorroan eta orregatik burdin-sardean il nai zuten. Mutikoaren aita eta ama ostatuan gelditu ziran bazkaltzera. Mai inguruan aurkitzen zan ango "corregidora" ere. Beste gauza batzuen artean, olloa eta ollarra erreta zuten bazkaltzeko. Mutikoaren gurasoek esaten zuten beren semea bizirik zegola, eta Santo Domingok gaizkatu zuala: «Mi hijo vive, como el gallo y la gallina que, después de asadas, cantan».

Au esan ondoren, mai gañean erreta zeuden ollo eta ollarra, egazki jantzirik, mai gañean xutik, kukurrukuka asi ziren.

Mirari au ikusirik, maikideak, eliz nagusiko atean olloa eta ollarra eta pago bat igitaiarekin jartzeko erabakia artu zuten. Orregatik, gaur-egun, Santo Domingo de la Calzadako eliz nagusi ate gañean pago eta igitaia eta olloa eta ollarra ikusi dezakegu.

Mirari onen oroimenez urtero, erritarrek ollo bat eta ollar bat eramaten zituzten elizarako. Urte askoren buruan, ez zituan inork azi nai olloa eta ollarra, lan asko ematen zutelako.

Errojas eta Abaitua'tar Antoniok irurogei eta amabi urte ditu. Margolaria da eta Santo Domingoren anaikidea. Ez zuan elizarako ollo-aziketa galtzea naita eskeindu zan lan ortarako. Bee ollotegian baditu zenbait ollo eta ollar. An ikusi dezakegu Antonio egunero olloei jaten ematen eta ollotegia garbitzen.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1985, 549, urria, 16. or.

Egiatzko euskalduna

Ez naiz politikoa. Politika gezurra da. Politika, politikatik bizi diranendako da. Politikoeak gaur gauza bat esaten dute, eta atzo esan zutena biar ukatzen dute. Politikoak gezurtiak dira. Eta zenbat bizi dira politikari eskerrak...? Eta nola bizi ere...!

Ni ez naiz gixa ortako politikoa. Nik beste politika bat daukat. Eta bakoitzak politika au izan bear genduke geren bizitzan. Nik, dagoki danari eutsi, jarrai eta eltzen diot. Ez dagokitenari, ostiko ematen diot, eta baztar-tzen dut. Eta onelako zenbat politika bear dugu gaurko gizartean bizitzeko...!

Askotan nere baitan zerbait oldozten dut; badut nere gogaikia, nere oldiz-kaia; bañan kontu izango dut nori agertu nere ideak. Ez daiteke edozeñekin elkar-izketan sartu, eta biotza zabal-zabalik agertu. Ontan maltzurkeri piska bat izan bear dugu, ardi-larruz jantzitako otso askok inguratzen gaituztelako, atzaparrekin larrutu naian.

Ni euskalduna naiz eta abertzale sutsua. Euskaldun jaio nintzan, euskaldun bizi naiz eta euskaldun ilko naiz. Euskal odola daukat gorputz guztiko zaiñetan, euskal abizenak daukat, eta nere aurreko guztiak euskaldunak izan ziran. Ez nuke pentsatuko beñere euskal saltzalle eta azpi-sugea izatea. Ezta beñere orrelakorik, alajaña!

Ez dut beñere siñistu eta ezta siñistuko ere nola izan ditezken zenbait, Euskalerrian jaio eta euskaldunak dirala diotenak, ain gezurti eta ain saltzalle. Neretako, Euskalerria bezelakorik ezta mundu guztian. Txoko ortan jaio nintzan, eta naiz gorputzez urrun bizi, gogoz Euskalerrian bizi naiz, eta langarrapean, ango belardiz, aritz eta pagoz inguraturik ilko naiz.

Euskalerria, aal dutan eran, ezagutzera emango dut Iparragirre altsuari jarraituz: «Eman ta zabal zazu». Neretako, orrelako abertzalea, besterik ezta. Bere Aberriaren ontasuna nai eta billatzen ez duena, ez da egiatzko abertzalea. Euskalduna dalako aitzakiarekin Euskalerraren kontra eta Euskalerraren etsaien alde lan egiten duanak bere nortasuna, bere burua ukatzen ditu; gezurti, etsai, saltzalle eta nazkagarri bat da. Bere egiñekin, bere guraso, senide eta aurreko guztiak saltzen ditu; bere aita eta ama, bere egiatzko aita eta ama dirala ukatzen du.

Orduan, nor da? Sasipekoa. Ez dira naiko itzak; egiteak bear dira. Itzak aizeak daramazki, eta ez dute arrastorik uzten; egiteak ordea arrastoa egiten du. Eta Jaungoikoak ez ditu itzak onartzen, egiteekin batean ez badijoaz.

Ni lotsatu egingo nintzake, esango banu, euskalduna naizela, euskera jakin gabe. Zer? Euskalerrian jaioa naizelako? Euskal abizenak dauzkadalako? Euskal abizenak izan dezaket, euskal odola ere izan dezaket nere gorputz-zañetan; bañan euskeraz ez badakit, nere ustez beintzat, ez nintzake euskal osoa izango, euskal sustrai bearrenezko bat falta zaidalako.

Badira asko, Euskalerrian jaioak, beren aita eta amaren izkera ez dakitenak. Damu dira orregatik, bañan askotan ez da izan beren erruz. Orregatik barkagarri zaie. Oraindikan garaiz dira; badira ikastolak ikasteko.

Goiz-Argitik deitzen dizuet Euskalerrian jaio zeraten guztioi, gure izkuntza maitea ikastera. Ekin eta jarrai!

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1986, 550, urtarrila, 3. or.

Gertaera

Badira urteak gertatu zala... Patxi denboran zan.

Mikel Goiangeru Euskalerraren zaindaria da, eta Euskalerra guztian guztik maitatia.

Aralar mendi gallurretik Euskalerra guztia zaintzen du.

Irailaren 29garren egunean, Gurutze egunean eta Berpizte igandean ikus-tekoa da an biltzen den jendea; gutxienez iru mille lagun, batzuek oñez joanak eta beste batzuk berebilletan, bai Uarte Arakiletik bai Lekunberritik. Zenbat aldiz, gazte denboran, joan gera oñez Uarte Arakiletik malda gora...! Orduan ez zan bide berririk berebillez joateko eta.

Ala joan zan ere Bakaikoa'tar Joxe Mari, Etxarri Aranazkoa jaiotzez, bañan Iruñan, Estafeta karrikan dan 'Barrankesa' jatetxean bizia. Garai artan bazan "Fuerza Nueva" politikoko taldea. Eta guztiok dakigu zer nolakoak ziran. Zeuden leku guztietan "Cara al sol" abestia abestiarazten eta makil eta beste tresna batzuekin zirti zarta jotzen ibiltzen ziran.

Aralar mendian, Berpizte igande batean, an arkitu ziran Bakaikoa'tar Jose Mari eta "Fuerza Nueva"koak. Amurrazita zeukaten Jose Mari "Cara al sol" kantatuaziz. Nai eta nai ez, an arkitzen ziran guztiak "Cara al sol" abestu bear. "Fuerza Nueva"koak etsaitzat zeuzkan eta ezin ikusi nai.

Baña ara zer gertatu zan... illunabarrean. Etxeruntz jetxi bear menditik eta biderik jakin ez; eta galdegin zioten Joxe Mariri zer bide artu beariko zuten Uarte Arakilen su-gurdia artzeko:

- I, esan dezaigukek zer bide artu beariko dugun Uarte Arakilerara jexteko su-gurdia artzera?

Eta Joxe Marik bere baitan: Au dek nerean...

- Ikusten dezute orko bide ori? Jarrai bide ortatik... Gero, kilometroren bat edo ibilli ondorean, bi bide egingo dituk. Utzi eskui aldera jotzen duan bidea eta artu ezkerretarakoa. Orduen batean edo, ortxe, Uarte Arakilen zaudete.

Jainkoak daki nora aterako ote ziran... Ataun aldera, noski.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1986, 550, urtarrila, 16. or.

Umeak

Orain dirala berrogei-berrogeita amar urte, sendi geienetan ume ugari izaten ziran: amar-amabi ume izatea etzan arritzekoa. Umerik etzuten edo ume gutxi zituzten sendiak etziran ongi begiratuak.

Gaur egun berriz beste aldera begiratzen dira gauzak. Ume asko dituzten sendiak urrikarriak dira, eta bi, iru edo lau ume dituztenak aipatuak dira.

Zer esan nai du aldaketa onek? Zer ondore dakarzkite bi egipen oiek?

Garai artan obeki azi zitezken umeak. Eta zergatik ori? Orain baño errazago lan egin zeitekealako. Etzan orain bezin ainbeste oztopo lan egiteko. Nun-nai eta nai zan lekuan lan egin zeiteken, eta, lanari eskerrak, etzan falta dirua etxetan. Orain, berriz, lana exkax dabil. Orain lana izatea Eguerritan Loteria izatea bezala da. Norbait lan gabe gelditzen bada, nekez arkituko du beste leku bat lan egiteko. Eta lanik ez bada, zerekin jan, zerekin jantzi, zerekin beste utsak bete? Orregatik, gaur egun ume gutxiago izaten dira. Alde batera, obe da ume gutxi izan asko baño. Umeak azitzea asko gusta da. Eta umeak erdi gosez, gaizki jantzita, gaizki irakatsita azitzeko, obe da umerik ez izatea edo ume gutxi izatea, au da, ongi azitzeko eran. Umeak ongi jan, ongi jantzi eta ongi ikasiak izateko eskubidea daukate, eta eskubide oiek ez baldin bazaizkie eman, zertarako ekarri mundura umeak?

Zer esan nai du aldaketa onek? Len baño okerrago bizi gerala. Aurrerapide geiago izango dira orain, bai, bañan aurrerapideak gizadia iltzen du, gizadia ito egiten du.

Zer esan nai du gaur ume gutxiago izateak? Alde batetik, gaur diru gutxiago dala eta ez ditezkeela ume geiago izan, eta beste aldetik, etxeoandreak lan egiten bearturik daudela eta ez lezakete umeak ongi azi, ortarako denborik ez daukatelako.

Zer ondore dakarzkite egipen oiek?

Berdintza bat jarriko nuke nik. Beti esan oi det okerrago dala guda baño guda ondorea. Guda garaian, obeto edo okerrago, jan deiteke guda baño len bildutako jakiekin; bañan guda garaian lan guztiak: nekazari lanak, lantegietako lanak alde batera uzten dira jenderik ez dalako lan egiteko.

Orregatik, lan ez egiteagatik gauzak artu egiten dira eta ezin ditezke erosi, eta okerrago bizitzen da.

Gaur egun, gaztedi geiena lan gabe dago eta larri dira beren etorkizunaz, eta arrazoia daukate larri egoteko. Orain, gazte diran bitartean, ala-ola bizi ditezke, eta, jostatzeko, gutxi edo asko, zerbait diru izan dezakete beren gura-

soei eskerrak. Bañan gurasoak zartuko dira, etxean ezta dirurik izango eta orduan nolaz bizi?

Ondore txarra ere gizadiarendako datorrena. Adiñeko jendeak lana uzten du. Eta nor dator atzetik lan egiteko beren orde? Nork egingo ditu lanak? Iñork ez, oraingo gaztediak beintzat ez; ez dute arkuntzarik izan lanean ikas-teko eta ez dute jakingo lan egiten. Eta langillerik ezpada, nolaz biziko da gizadia? Emendik urte batzuetara gorrik ikusiko ditu gizadiak.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1986, 555, uztaila-abuztua, 21. or.

Ezkongaiak

Ezkongaien artean, batez ere aurrenetik, nai auek erabiltzen dituzte gogotan: neska naiz mutilla, ederrak ote diran... dirudunak... au da, aberatsak ote diran.

Eta azkenik begiratzen dutena, lenengotik begiratu bear luketena da: neska naiz mutilla, biotz onekoak diran, oitura onekoak, langilleak ote diran, eta abar.

Zertarako nai dugu edertasuna, ezkondu ondoren etxean beti burrukan bagabiltza, beti aserre, inpernuan bizitzeko? Ortarako, obe da ez ezkondu eta kito.

Diruak ez dakar zoriona, naiz lagundu zoriona aurkitzen. Baiña zertarako nai dugu dirua, zertarako aberastasuna, ezkondu ondoren, bear bezala elkar maite ez badugu, beti burrukan bagabiltza? Zertarako dirua, emaztea esku-zabalegia bada, edota ille mozkinetan, bitxietan, adelakaietan (“cosmética”) diru guztia ondatzen badu, eta etxea apaintzen eta jakiak egiten ez badaki?

Emazteak ez badaki jakiak ongi ipintzen, eta jatetxeetan bear baldin badute baraua autsi, bazkaldu eta afaldu, senar orrek zertarako nai du emaztea etxean? Edertasunak ez du jatera ematen.

Zertarako nai dugu dirua, senarrak jokuetan mozkorakerietan eta abarretan dirua galtzen badu? Zertarako dirua, senarra emakia balitz, alferra eta lana egin bearrean, denbora ardandegietan igarotzen duana balitz, edota emagalduekin dabillena balitz?

Orregatik, ezkongaiak lenengo begiratu bear dutena, au da: ea bestea biotz oneko dan, ea etxekoia dan, ea langillea eta oitura onekoa dan... Eta ondoren, ederra bada obeto; eta diru asko badu, baita ere obeto.

Ezkongaien kontuetan ez da nolanai sartzekoa. Ezkongaiak, izan ere, «artzen duten zaliarekin jan bearco dut», artzen duten kutxareekin jan bear, alegia, esaera zarrak dionez. Arriskugarria da ezkontza-arazo oietan sartzea. Eta ezkontzagille izatea ez da ona: ezkontza oiek autsi izan oi dira zenbaitetan.

Ezagutzen ditut zenbait ezkontza, alde bateko eta besteko gurasoen artean apainduak, eta gero autsi egin diranak.

Gaur egun badirudi modan dagola ezkontza austeia. Eta ejenplu ederra ematen diegu geuron umeei, ezkontza austen badugu.

Lizarrusti

Goiz-Argi, 1986, 558, abendua, 6. or.

Gutunak

Honela zenbatuak:

- [1]etik [24]ra Santiago Ezkerrak Norbert Tauer jaunari idatzitako 24 gutun.
- [25] Norbert Tauerrek Santiago Ezkerrari emandako erantzunetako bat.
- [26] Santiago Ezkerrak Jose Mari Satrustegiri idatzia.

agur Maria!

Inuitatik 1956'ko azaroak 11'garrena.
Ene quetis agurgarri ori: Pate ta on.

Orainsakeros, bat baino geiagotan erango
zenuen urte baitan zular artu naisela.

Arrazoi aundia daukazu onela pentra-
tatek. Loka-gabeko bat nauzu. Egia da lan
aundia izaten dutela, baino ala ere orain
bako leu idatzi nerarizuten. Ajolagabete-
ria ere izandu da.

Ikusten duzu, ba, ez zaitutela artu. Itz-
zer berri emango diezait? Nik baino obete
jakingo duzu zer gertatu zan eta nolakoa
izanduzan Paris'go Batzarre Nagusia.

Jugavari ebitza izandu onen zan "Zaitzigit"
rionka. An egondu onen zan Martin Artajo,
emango "Min. de Amigos Est." Batzarre ori
ondabeteko amdan.

Itailan "Arantzazun" izandu zan Eur

Itaundiarren iru eguneko bakarra. Euz-
ta ozei liltzu ziran. Urteko Zeruko Argian
ikusi dezakezu. Urteko Arantzazun bertan
izandu zan urte sukak idarlarren liltzabat.

Nai da duzu, emango diezait elkar idarreteko
izen bat. Auda: Jesus Artakoa

Moskato, 8

Motricis (Guzp)

Orko ipuial eukotatuek noir biabuko die-
kibaru Zeruko Argian argitarabete? Nai
dauzuan biabuko.

Erusia-erak eukotatuek rigotken Hungria?
Noi lizela? Ez alda orren liltzurrik? Euz-
eliktirun edereak egin dira Hungria'baran
alde. Baita ere liltzaba arte liltzu ozi lagun-
teko. Or Katoliko arte al zerate?

Euzen beste eukoteko berri aundirik ez da

Orregatik, liltzabera noa.

Euzen wantzuna zar, bedierkatzen zaituz
liltzaba

Elxari Arantzazun Amigos Est.

3.0. 1956'ko martaak biabuko amidanke orko
Komitatek seileak, prete gurietatik (emiliak) agur.

[I]

Jhs

Iruñatik (Panplonatik) 1955'ko garillak 3

Norbert txit agurgarria: Pake eta zorion.

Zeruko Argia'ren zuzendaria Lekarotz'en dago, baño aldizkaria emen (Iruñan) argitaratzen degu. Ni emen bizi naiz Zeruko Argia'ren lanetan (edertzen eta abar). Lekarotz'tik bialdu didate zure eskutitza. Oso atsegiña izan zait. Asko poztu naiz zure izena ikustean, bai ta ere zure lanak ezagutuz. Nik ere idazten det Zeruko Argia'n LIZARRUSTI eta AITONA izenekin. Ikusten dezunez ipuiak argitaratzen ditut; baño zuk bialtzen ba dituzu alde ortako ipuiak euskeraturik, eskerrak emango dizkizugu. DANOK BAT izan bear gera euskaldun guztiak, elkar lagunduz, euskera gorde eta zabaldu dedin.

Emen bialtzen dizkizut aurtengo Zeruko Argia'k, baño guztiak ez. Ilbeltzakoa eta otsaillakoa ez dizkizut bialtzen, ez bait-dauzkagu. Emendik aurrera, illero bialduko dizkizugu.

Eskerrak biotz-biotzetik emanaz, bedeinkatzen zaitut zure adiskide

Etxarri-Aranaz'tar Aita Aurelio
Lizarrusti-Aitona

[Gutunaren atzeko aldean hau idazten du:]

Orain arte zure Zeruko Argia'k Dantxarinean dagon Elso'ri bialtzen genion. Baño ikusten dutenez, ez dizkizu bialdu. Orregatik bialtzen dizkizut guztiak batean. Agur.

[2]

Iruñatik 1955'ko Abendu'aren 'an

ZERUKO ARGIA'ren ordeko, laguntzalle ta ongille maitea:

Jesukristo gure Jaunaren jaiotza dalata kristau guziak poztutzen dira eta zuek ere poztu egingo zerate noski. Zuen poza oso aundia izatea nai genduke zuk eta zure etxeko ta adiskide guziak ta orretarako zuetzaz otoitz egingo diogu Jesus aurtxo maitagarriari.

Eta gero esker biotz-biotzekoak eman bear dizkizugu ZERUKO ARGIA'ren alde egiten dezun lan ederraz. Zu eta zu bezelako beste askoren lanai eskerrak ZERUKO ARGIA'k millaka etxetara eramango du Erlijio-azia.

Alegiñak egin ditzagun Belengo Jesusen alde aldizkari onak egiñez ta zabalduz. ¡Aurrera beti! ¡Ea aurten, 5.000 artzalle edo suskritore izatera iristen geran.

Urte berri ona dizula Jaunak.

Otoitz egin ta nai aña agindu egiaz maite zaituan oneri.

Etxarri Aranz'tar Aita Aurelio
Lizarrusti

[3]

Jhs
AGUR MARIA

Iruñatik, 1956'ko ilbeltzak 22.

Tauer'tar Norberta'ri
PRAGAN

Ene txit agurgarria: Pake ta zorion.

Ba zan garai zureari erantzuteko... Beti erantzuteko nengon, eta beti lanpeturik. Gagon-egunetan bialdu nizun Gabon-agurra, baño ura etzan neiko. Orregatik orain idazten dizut.

Zure azkenekoan galdegiten zenuen ZERUKO ARGIAN idazten duten izen-ordekoen egiazko izenak. Izen-ordeak jartzen ditugu, jendeak jakin ez dezaten nortzuk geran. Orregatik ez da konbeni emengoei esatea...

IRUMUGARRIETA lengo INTZA'R DAMASO AITA da. Len ZERUKO ARGIA'ren zuzendaria izan zana, eta orain TXILEN dagona. ELIZALDE ta ALDAPETA len ARBELAITZ jartzen zuena (Oyeregi'tar Aita Buenabentura, ZERUKO ARGIA'ren zuzendaria idazkitan). OIARTZUNA len izen ori idazten zuen Oyarzun'go Aita Joxe Mari. Orain Donostin dago. IBARRETXE len ZERUKO ARGIA'ren banakaria izan zan Yurre'tar Julian, Txinan urte askoz egon zana, ta orain Ondarribin bizi dana. TXORI-TOKI buruiurdun (kaputxino) berria da. AGIRREZABAL ta ARITZONDO kaputxino ez diranak dira. ANDONEGI'tar XIRIAKO Motriko'tar joskiñ (sastre) bat da.

Egun auetan KARAKAS'tik 36 arpidedun berri bialdu dizkit Tejada'tar Sandaliok. Onek asko poztu dit. Ba ditugu 3.540 arpidedun. Aurten, nik uste, 4.000 arpidedun izatea iritxiko gerala. Emen euskeraren gauzak ongi-xamar dijoaz. Arrauts-pean sua bada.

Azkenekoan uste det esan nizula nai dezunean bialtzeko ZERUKO ARGIA'rako ipuiak. On artuak izango dira.

Beste esatekorik ez oraingoan. Nai aña agindu egiaz maite zaituan oneri

Etxarri Aranz'tar Aita Aurelio
Lizarrusti

[4]

Jhs
AGUR MARIA

1956'ko otsaillak 19.

Tauer'tar Norbert
PRAGAN

Ene txit agurgarria.

Gaur, bazkal-ondorean, artu det zure eskutitz maitagarria. Poz aundia artu det ikustean zurea dala eskutitza.

Arriturik nago atzeko illabete auetan ZERUKO ARGIA joan etzaizulakoz. Illero bialdu det zuzenbide onekin:

Norbert Tauer
Stalinova, 126
PRAGA-12/Checoslovaquia.

Ala dala ta, emen bialtzen dizkizut illabete auetako zenbakiak. Urrilako zenbakian agertzen diran bi neskax oiek nere errikoak ziran.

Emen dijoakizu Aita Polikarporen zuzenbidea:
M.R.P. Policarpo de Iráizoz,
Secretario General
Curia Generalicia
Piemonte, 70

ROMA

Oso lanpeturik egoten da; baño ala ere, poz aundia artuko du zure eskutitza ikustean. Onek ba daki itz egiten: euskeraz, erderaz, italianoaz, franzesez, alemanez, eta abar. Xiriako Andonegik ere poz aundia artuko du. Biei esaiezu nere ordeaz idazten diezula. Xiriako euskalzale purrukatua da.

Zure lana poz-pozik argitaratuko degu bere garaian. Eta len esan nizun, nai dezunean, bialdu ipuiak ZERUKO ARGIA'n argitaratzeko. Nere ipuiak argitaratzen diran bezela, zureak ere argitaratuko ditugu. Atariak zabal-zabalik dauzkazu nai dezunerako.

Alde ontara etortzeko asmorik ez daukazu? Asko poztuko nintzake zu arpegiz ezagutzeaz. Ezagutzen al dezu IRUÑA?. Emen san FERMIN festak oso ikusgarriak izaten dira. Egun oietan emen izaten dira norteamerikanoak, inglesak, eta batez ere frantsesak. Ea aurten emen ikusten zaituten. Festa auek garillako (julioko) 7'garren egunean asten dira. Aste bat irauten du. Egunik ederrenak igandeak izaten dira. Ea uste-gabean "sorpresa" bat ematen didazun.

Jakin nai nuke ea zu jaiotez orkoa zeran ala ez. Eta nolaz ikasi dezun euskera... Inguru ortan zu bakarrik zera euskaldun?

Jakin nai nuke ere ea zenbaki auek joaten zaizkizun edo ez. Ortarako, on litzake, au artu ondorean, neri eskutitzxo bat bialtzea jakiñaraziz artu dezula.

Zure erantzuna itxoiten bedeinkatzen zaitut zure adiskide

Etxarri Aranz'tar Aita Aurelio

Lizarrusti

[5]

+
AGUR MARIA

Iruñatik 1956'ko azaroa'k II'garrena.

Ene guztiz agurgarri ori: Pake ta on.

Orainezkeroz, bat baño geiagotan esango zenuen zure baitan zutaz aztu naizela.

Arrazoi aundia daukazu onela pentsatzeko. Lotsa-gabeko bat nauzu. Egia da lan aundia izaten dutela, baño ala ere orain baño len idatzi nezaizuen. Ajolagabekeria ere izandu da.

Ikusten dezu, ba, ez zaitutela aztu. Eta zer berri emango dizkizut? Nik baño obeki jakingo dezu zer gertatu zan edo nolakoa izandu zan Paris'go Batzarre Nagusia.

Izugarri ederra izandu omen zan 'Zaitegik' zionez. An egondu omen zan Martín Artajo, emengo "Min. de Asuntos Ext." Batzarre ori ondatzeko asmotan.

Iraillan Arantzazun izandu zan Euskaltzaindiaren iru eguneko batzarra. Eun ta ogei bildu ziran. Urrillako Zeruko Argian ikusi dezakezu. Urrillan Arantzazun bertan izandu zan ere euskal-idazlarien billera bat.

Nai ba dezu, emango dizut elkar idazteko izen bat. Au da:

Jesús Arkotxa
Moscardó, 8.
Motrico (Guip.)

Orko ipuiak euskeratuak noiz bialduko dizkidazu Zeruko Argian argitaratzeko? Nai dezunean bialdu.

Errusia'rarak etzaituzte zigortzen Hungria'koei bezela? Ez alda orren bildurrik? Emen elizkizun ederrak egin dira Hungria'tarren alde. Baita ere limosna asko bildu oiei laguntzeko. Or katoliko asko al zerate?

Emen beste esateko berri aundirik ez da.

Orregatik, bukatzera noa.

Zure erantzuna zai, bedeinkatzen zaitut biotzez.

Etxarri Aranaz'tar Aurelio Aita
Lizarrusti

I. O. Poztuko nintzake bialduko zenidazke orko korreetako selloak, prezio guzietatik (erabiliak) Agur.

[6]

Jhs
AGUR MARIA

Iruñatik 1956'ko abenduak 18'garrena.

Tauer'tar Norbert'ari
PRAGAN

Ene guztiz agurgarri ori: Pake ta on Belen'go estalpean bezela.

Artu ditut zure azkeneko eskutitzak. Eskerrik bizienak zure zintzotasunagatik. Ikurratzak oso polita dira. Azkeneko eskutitzan, zionez, iru ikurratz jarri zenituen, baño bidean bat kendu zioten noski; onera bi bakarrik etorri ziran.

Zure eskutitz oietako batean esaten zenuen ere Aita Legardarentzat eskutitz bat bialtzen zenuela, baño ezta allaatu onera, gaur arte beintzat. Bidean galduko ote zan?

Joan zan illabetean Euskal-erriko erri batean egondu nintzan, eta an berri bat jakindu nuen. Orain esango dizut. Ba dakit zuri euskal-idazlarien arkibideak atsegin zaizkizula, eta zutaz oroitu nintzan. Erri ortan nengola, Suezia'tik euskeraz idatzitako eskutitz bat etorri zan erri artara. Ori ikustean arritu ta poztu nintzan. Galdegin nuen nolaz izan ziteken ori, eta onen berria eman zidaten. Ziotenez, Sueziako bat ARANAZ errira etortzen omen zan noizean-bein, udan, denbora purrusta bat igarotzera. Eta euskera ikasi omen zuen. Orduezkeroz, euskeraz idazten die erri ontako etxekoei. Azken bialdutako eskutitza nere baitan daukat. Gaur berean oni idazten diot zure arki-bidea emanaz eta esanaz zuri idazteko. Onen arki-bidea emen jartzen dizut:

Nils M. Holmer
Casilla de Correo, 40
LUND (Suecia)

Abenduko Zeruko Argian Andonegi'tar Xiriakoren antzerkitxo bat ikusi dezakezu. Oso antzerki polita da. Datorren ilbeltzan zuk azken bialdutakoa argitaratuko degu. Esker mille onengatik ere, eta nai dezunean bialdu zure idatziak Zeruko Argiarako.

Iruñako Diputazioak 250.000 laurleko eman ditu Naparrun euskerari laguntzeko. Orain esku artean lantxo bat daukat: Santuen Bederatzi-urren bearrezkoenak eliz otoitz bearrezkoenekin. Ez dakit noiz argitaratuko deten. Nere asmoa datorren urte ontan argitaratzea da. Argitaratzen ba det, bialduko dizut zenbaki bat.

Oraingoan beste berririk etzait gogoratzen.

Gabon egun ta Urte berri zorionekoak opa nai dizkizut biotz-biotzez.

Bedeinkatzen zaitut zure adixkide nauzun

Etxarri Aranz'tar Aurelio Aita

[7]

[Datarik gabekoa, baina edukiaren arabera 1956koa.
Hortaz, Iruñetik idatzia]

Jhs
AGUR MARIA!

Ene txit agurgarria: Pake ta zorion.

Xiriakok eta nik egun berean jaso genuen zure eskutitza. Zurea artu ta bereala idatzi zidan neri Xiriakok. Joan zan illean ez genuen argitaratu gure aldizkarian Xiriakoren lanik. Lore-illa ontakoan argitaratu degu Xiriakoren ta zure eskutitza. Bialdu nizkizun epailla ta jorraillako zenbakiak. Baita ere joan dakizu loreillakoa. Epaillatik asi-ta, azalak txukunagoak ikusiko dituzu. Baita ere bialdu nizun nik egindako MIKEL GOIINGERUARI BEDRATZI-URRENA. Artu al dezu onezkeroz?

Orain bi egun Arbizon egondu nintzan meza berri batean. An itz egin nuen ango Bikario Jaun Goikoetxea'tar Juanekin. Esan zidan zuk idatzi zenio-la. Esan zidan ere azkar erantzungo zizula.

Zeruko Argiak ba ditu 3.700 arpidedun. Ongi goaz.

Ez al zera joan bear aurtengo udan Paris'en egin bear dan Euskal Batzarre Nagusira? Eta ipuiak noiz bialduko dizkidazu?

Esan al dezadakezu zerbait orko bizitzaz? Edo bildur zera? Neurrian idatzi bear ba dezu, utzi gauz ontaz idazteaz.

Zure urrenekoaren zai, bedeinkatzen zaitut

Etxarri Aranz'tar Aurelio Aita
Lizarrusti

[8]

Jhs
AGUR MARIA

Iruñatik 1957'ko ilbeltza'k 29'na.

Tauer'dar Norbert'ari
PRAGAN

Ene guztiz agurgarri ori: Agur t'ardi.

Artu ditut zure azken iru eskutitzak: atzo urtarrillaren 20 ta 22'koak. Baita ere lotazillaren 29'koa. Legarda'tar Anselmo Aitari ta Ziganda'tar M^a Paz'i eman nien bakoitzari bere eskutitza, zuk aientzat bialitakoak. Montoro jaunari esan nion ere beretzat ba neukala zure eskutitz bat, eta esan zidan neregana etorriko zala. Emen ematen dizkizut iru auen zuzenbideak:

P. Anselmo de Legarda
PP. Capuchinos
Colegio de LECAROS (Navarra) España

Srta. M^a Paz Ciganda
Navas de Tolosa, 23
PAMPLONA (Nav.)

J. Montoro Sagasti
Arrieta, 5
PAMPLONA

Iru oietatik M^a Paz Zigandak bakarrik daki euskeraz, eta onek ere erdiska.

Aztu gabe zure barkamena eskatu bear dizut. Oartuko zera ilbeltzako ZERUKO ARGIAN uts bat egin detala zure gaian. Moldiztegian lan egiten dutenak aztu egin ziran jartzen nundik euskeratua zegon zure lana. Eta ni egiñ ondorean oartu nintzan. Urrengorako kontu aundiago izango det.

Alde ortan zu bakarrik al zera euskeraz dakiena?. Ez al dezu ezagutzen iñor euskeraz dakienik? Beste gauzen batzuk galdegingo nizkizue, baño bildur naiz orko zensuragatik. Barkatu nere ausardia egiten dizkizuten galderetan. Ezkondua al zera zu? Eta zenbat urte dituzu? Zenbat izkuntza dazkizu? Zer-

tan lan egiten dezu? Ezkondua ba zera, zenbat ume dituzu? Euskeraz bai al dakite? Zenbat zerate or? Noiz uste dezu etorri zaitzekela alde ontara? Egunen batean ezagutuko al gera elkar? Orko berririk jakin al diteke?

Atzo artu nuen ere Aita Piliperentzat bialtzen zenuen eskutitza. Jakingo dezu, noski, nola illabete onen lenengo egunetan Donostin omenaldi bikaña egin zitzaiola donostiar Aita Joxe Antonio (Aita Donosti) kaputxino musikarari ospetsuari. Oso gauz ederra izan omen zan. Bilbon ere egiteko asmoa zuten. Baimen guztiak emanik zeuden, baño Azkue Jaunaren omenaldi egunean gauzen bat gertatu zalakoz, Aita Joxe Antonioren omenaldia debekatu egin zuten, gauzak geiago nastu ta zabalduko ziran bildurrez.

Emengo Diputazioaren bitez asmo on eta aundiak betetzeko naia daukagu. Nik uste emendik egun batzuetara jakingo degula zer erabaki artzen duen Diputazioak. Urrengo eskutitzan jakitera emango dizut ontaz berrien bat baldin ba-da.

Oraingoan beste esatekorik gabe, biotz-biotzez bedeinkatzen zaitut zure adiskide

Etxarri Aranaz'tar Aurelio Aita

[9]

Jhs

AGUR MARIA

Iruñatik 1957'ko epailla'k 18'na.

Tauer'dar Norbert

PRAGAN

Ene guztiz agurgarri ori: Agur t'ardi.

Lotsa-gabeko bat nauzu. Jaso nituen zure otsaillako II'garreneko ta epailaren 2'garrenekoak. Baita ere Jesus Aurraren irudiak.

Beti erantzuteko nengon, baño beti lana sortzen zitzaidan. Onek lotzen nau. Orain ere ez det geroko utzi nai, zallago izango dalakoz.

Orain, bada, zure eskutitzak erantzuten ditut.

Pragako Jesus Aurraren irudia pozik argitaratuko det ZERUKO ARGIAN. Nai ba dezu, bialdu dezakezu idazki-gaienbat irudiarekin batean argitaratzeko. Gai au orrialde batekoa edo izan diteke, eta onela bi irudiekin ZERUKO ARGIAren orrialde bat egin dezake.

Luzaide'ko Satrustegi'tar Joxe Mary koadjutorea nere adiskidea da. Neonek esan nion zuri idazteko. "Luzaide" aldizkaritxoaz ezagutzen det. Datorren illabeteko ZERUKO ARGIAN ontaz zerbait esaten det.

Urrillako zenbakiaren "Danok Bat" saillean argitaratu zan "Erronkari'ko txokoa"ren egillearen izena jakin nai dezu. Apaiz bat da. Ona emen bere arkibidea: Dn. Marcelino Garde.- GARDE (Roncal) NAVARRA. Pozik idatziko dizu onek, nik uste. Nai ba dezu, or dijoakizu ere beste apez gazte baten arkibidea. Au nere erri ondoan bizi da: Dn. Felipe Santesteban.- UNANUA (Navarra).

Ez arritu Legarda'tar Aita, Ziganda'tar Paz eta Montoro'ren erantzunik ez dezulakoz. Ziganda'tar Paz urte geienean Fatiman egoten da, edo etxetik kanpoan beintzat. Montorok eta Legarda Aitak ez dakite euskeraz; egitekoz erderaz egin bearko luke.

'Basarri' bertsolaria ezagutzen al dezu? Nai ba dezu onekin ere elkar idazten asi ona emen bere arkibidea: Dn. Ignacio Eizmendi- Ntra. Sra. del Pilar, IO.- ZARAUZ.

Lengo batean ZERUKO ARGIAN zure irudia argitaratu nuen, baño klixen ori galdu zan. Orregatik, nai bazenuke zure irudien bat bialdu...

ZERUKO ARGIAN aurrentzat "tebeo" antzeko gauzen bat argitaratzeko asmotan gabiltz. Or ba al dituzute onelako gauz politen batzuk? Ala izatekoz, nai ba zenuke onera bialdu euskeratu-ta ikusteko argitaratu ditezken... Gai au marrezkiekin izan bearko luke.. Italiatik ekartzeko asmoa daukagu.

Eta orko gauzak noiz konponduko ote dira? Emen orko paketasunerako egunero otoitz egiten degu. Orko zensuran bildurrik ezpadezu, jakin nai nituzke or gertatzen diran berri guztiak.

Oraingoan beste esatekorik gabe, eta zure erantzuna zai biotz-biotzetik bedeinkatzen zaitut

Etxarri Aranaz'tar Aurelio Aita
Lizarrusti

[10]

Jhs
AGUR MARIA!

Iruñatik 1957'ko garagarrilla'k 2I'na.

Tauer'dar Norbert
PRAGAN

Ene guztiz agurgarri ori: Agur t'erdi

Noiznai da garaia zuri erantzuteko. Ba dira egunak zure eskutitzak artu nituela, eta oraindik erantzun gabe. Lotsa-gabeko bat nauzu. Barkatu, Norbert.

Artu nituen zuk bialdutako Praga'ko Jesus Aurtxoaren irudia, bere aldare irudia ta Praga urikoa ere bai. Illabete ontako zenbakian argitaratu ditut iruak batean zure idazkiarekin batean. Nik uste atsegin izango zaizula. Erdiko bi orrialdeak eman dizkiot ortarako. Esker mille zure laguntzagatik!

Ainbeste denboraz zuri erantzun gabe egon naiz ez dakitela bialdu ote nizun eskatzen zenidazun jorrailleko zenbakia. Ezpazaizu joan, gaztigatuko didazu, bialtzeko. *Kristoren Antz-bidea* liburuaren egillea apaiz bat da, baño ez du jartzen bere izena. Bialdu nizkizun bi apaizen erantzupena ez artzeak ez nau arritzen. Dn. Marzelino Garde erriz aldatu zuten. Orain GENEVILLA (Navarra) errian arkitzen da. Eta bestea: Unanuko apaiza (Pilipe Santesteban) illabete auetan gudari apaiz dago. Bere zuzenbidea: CARRASCAL (Navarra), Capellán izena jarritz. Fagoaga'ren zuzen-bidea au dezu: Dn. Blas Fagoaga. - Seminario Conciliar. PAMPLONA.

Pentekoste egunean eta atzo (Korpus egunean) emengo erradioz bi olerki irakurri ditut euskeraz. Orain eskatu degu Madrid'era baimena euskerazko itzaldien bat egiteko. Ba-da illabete bat baimena eskaturik. Orain erantzuna itxoïn bear. Tolosan ere euskerazko eskola jarri dute. Eta erri ontan euskerazko antzerkiak egiten dituzte. Bilbon liburu berrien argitaraldi bat sortu da: LEN ETA ORAIN du izena. Bi liburu argitaratu ditu. Or dijoakizu illabete ontako zenbakian orritxo bat ori ezagutzera emanaz.

Oraingoan beste esatekorik gabe, eta zure erantzuna zai, bedeinkatzen zaitut

Etxarri Aranaz'tar Aurelio Aita

[II]

Jhs
AGUR MIREN!

Lekarotz'tik 1957'ko dagonilla'k 20'na.

Tauer'tar Norbert'ari
PRAGAN

Ene guztiz agurgarri ori: Agur t'ardi.

Jaso nuen zure garagarrillaren 26'koa. Oartuko zeranez, ez dizut Iruñatik idazten, baizik Lekarotz'tik. Joan zan illabetean onera erabat aldatu nintzan. Zeruko Argia ere utzi bearra izan det. Nere ordeztu beste bat jarri dute. Onen zuzenbidea: Yurre'tar Julian Aita. ALTSASUN - Kaputxinoetan. Nai ba diozu oni idatzi, egin dezakezu. Zeruko Argiarako gaiak nai ba dezu neri bialdu, ta ni konponduko naiz.

Zure azkenekoan esaten zenuen etziñuzela artu, jorrailla ta loreillako zenbakiak. Bialdu nizkizun berriz; baita ere Praga'ko Jesus Aurtxoia agertu zan zenbaki'tik bost. Nik uste onezkeroz zure eskuetan izango dirala. Ala ezpaltz, gaztigatu berriz bialtzeko.

Gaur berean idazten diot Nils Holmer jaunari. Agindu det Iruñara oni ere bialtzeko Zeruko Argia.

Galdetzen zenuen ere zure azkenekoan nor zan "Iturrondo" izenordearekin idazten zuena Zeruko Argian. Bere zuzenbidea emango dizut: Joxe Mary Etxaburu, Garramiola, I3-3. ONDARROA (Vizc.) Ondarruko ordezkaria degu. Oso euskalzalea da.

Arrituko ziñan ez nizulako erantzuten ainbeste denboran. Lan asko izan detelakoz izan da. Orain, ba, Legarda'tar Antselmo Aitarekin ikastetxe berean nauzu. Zuretzat goreintziak agintzen dizkit.

Beste berri bat ere eman nai dizut. Aurrerago eman nizun Izetar Marianoren arkibidea emen Elizondon. Mariano au erriko alkate egin dute. Pozez lertzen dago zure eskutitzarekin. Emendik aurrera maiz-xamar idatziko du Zeruko Argian. Onen lenengo lana datorren urrilan aterako da noski.

Nils Holmer etzait etorri ikustatzera, ez Iruñara ta ez onera ere. Nitaz aztuko ote zan...? Kulpa nerea da. Urte erdi luzez ez diot idatzi. Baño ezagutu nai nuke arpegiz.

Oraingoan etzait beste esatekorik gogoratzen. Zure berrien zain, bedinkatzen zaitut

[I2]

Jhs
AGUR MIREN!

Lekaroz'tik 1957'ko iraila'k 14'na

Tauer'tar Norbert
PRAGA'N

Ene guztiz agurgarri ori. Agur t'erdia.

Orain dirala egun batzuk, jaso nuen zure azkeneko tarjetatxoa (dagonillaren 19'koa)

Garagarrillako Zeruko Argiaren bost zenbaki bialdu nizkizun zuk eskatu ta bereala. Noski bidean galdu ziran (edo orko "gorriak" ez utzi?). Berriz ere agindu det beste bost zenbaki zuri bialtzeko.

Nere azkeneko eskutitza artuko zenuen, noski. Zurearekin bidean topo egin zuten.

Oartuko zera oraingo auetan ez Iruñatik, baizik Lekarotztik idazten dizutela. Garillaren azkeneko egunetan onera erabat etorri nintzan. Illabete onen zenbakian, "Nagusi berriak" gaian, ikusi dezakezu nere aldaketa eta nortzuk diran Zeruko Argiaren zuzendari berriak.

Zure tarjetatxoan eskaera bat egiten didazu "Baita Inghaterran ere" irakurgaitxo ori neonek idatzi nuen. Emen jartzen dizut neskato onen arkibidea:

Paquita Martinez
60 Sandleigh Road
Leigh-on-Sea
Essex (Inghaterra)

Baño oar bat egin nai dizut. Neskato au Gabon egunetarako onera itzuliko da berriz (asmo au zeukan, beintzat). Orregatik al-bait len idatzi iozu. Esaiozu nik eman dizutela bere zuzenbidea; eta goreintziak (eskumiñak) eman nere aldetik.

Oraingoan etzait beste esatekorik gogoratzen.
Zure berrien zai, bedeinkatzen zaitut

Etxarri Aranaz'tar Aurelio Aita
Lizarrusti

[13]

+

AGUR MIREN!

Lekarotz'tik, 1957'ko abendua'k 20'na.

Tauer'tar Norbert
PRAGA'N

Ene guztiz agurgarri ori: Agur t'ardi.

Aspaldi-aspaldi ontan zuri idatzi gabe nauzu. Jaso nituen zure azkeneko bi eskutitzak, bata agorraren 13'koa, eta bigarrena illabete onen 6'koa. Beti idazteko nengon, baño beti lanpeturik. Ba dakizu zer gerta dan Ikastetxe batean. Orain asi ditugu Gabon egunetako lan-artearen (bakazioak).

Lenengoz, nere zorionik oberenak opa nai dizkizut Gabon-egun auetan; eta Belen'go estalpean jaio zan Jaungoiko Seme Aurtxo egiñak ugaritsu bedeinka zaitzala Urte berri on bat izan dezazun.

Orain berri pozgarrien bat eman nai dizut. Ba dakizu Naparruko Aldundiak, joan zan urtean, 250.000 laurleko eman zituela euskera gordetze lane-tarako. Illabete ontan nere erri aldean -"Barrankan"- amabost errietan euskerazko azterpenak izan dituzte aurtxoaren artean. An zan Aldundiaren ordezkoren bat, erriko alkatea, erriko apaiza eta erakusleen bat. Aurtxoetan obeki itz egiten zuenari ematen zioten "kartilla" bat 250 laurlekorekin Naparruko Aurrezki-Etxean (Caja de Ahorros) gordetzeko.

Azterpen oiek izugarri ongi egin dira. Erri oietan 600 aurtxo bildu ziran.

Beste berri bat: Bilbo'ko Gotzaia euskeraz ikasten ari da. Erri batzuetan euskeraz itz egin du. Eta Kristau-ikasbidea Bizka'i'ko euskeraz argitaratu dute. Baztar guztietan euskal zaletasuna oso sutsu dago. Nik Ikastetxe ontako batzuei euskerazko ikaskaiak ematen dizkiet. Ba dira ere euskeraz ikasi nai duten asko, baño nik bakarrik ezin guzientzat. Nik uste ba datorrela guretzat argia. Euskera piztu ta bizkortuko da. Jaungoikoak emana degu eta ez dezakegu ondatu Naparruko Aldundiaren euskeraganako lana euskal-Naparru guzira zabalduko da. Etzi, Naparruko Leiza errian, "Orixe"ri omenaldia dute. Oso gauz ona izango da. Eta datorren ilbeltzan, Iruñan, (Aldundian) Bonaparte ospetsuari.

Aurten Naparruko Aldundiak urteko euskal-ikaskaiak asi zituenean, erde-raz eta euskeraz egin zuen itz-aurrea. Orain arte etzan beñere olakorik egin.

Au da esan nai nizun guzia.

Bein eta berriz Eguerri zorionekoenak eskeñiz, bedeinkatzen zaitut.

Etxarri Aranaz'tar Aurelio Aita

I.O. Azkaratez Zeruko Argian "Idoya" izen ordearekin idatzi zuena ni nintzan, eta baita "Aitona" ere. Agur! Ondo bizi ondo iltzeko.

[I4]

[Datarik gabekoa, baina edukiaren arabera
Zeruko Argian ardura zuenekoa.
Hortaz, 1958 baino lehenagokoa, Iruñetik idatzia]

Eman zidaten zure azillaren 29'ko eskutitza.

Eguerri ta Urte berri zoriontsuenak opa nai dizkitzut. Jesus Aurtxoak Belen'go estalpetik goi-esker eraunsi bat zuregan ixuri dezala!

Alakoen batean bialduko dizut ere Euskalerrriaren Zaindaritzat degun Mikel Goiaingeruaren estanpatxo bat. Irudi au nere erri ondoko mendi gallur batean arkitzen da.

Beste bat arte agurtzen zaitut, zure lagun ta adiskide

Etxarri Aranz'tar Aurelio Aita

[15]

Jhs

Lekarotz'tik, 1958'ko garagarrilla'k 2'garrena.

Tauer'tar Norbert
PRAGAN

Ene guztiz agurgarri ori. Agur t'erdi.

Jaso nuen zure orrillako 7'garren eguneko eskutitza.

Egun auetan oso lanpeturik naukazu. Garai ontan ikastetxetan ikastola azterpenak izaten ditugu ta. Illabete onen I4'garrenean bukatuko ditugu. Ala ere, denbora tarte bat nunbaitetik ere atera, ta erantzuten dizut.

Eta lenengoz, zorion beroenak zure egunean. Berandutxo joango zaizu nere zoriona, baño ba dakizu zergatik dan. Egun ortan, batez ere, gogoan izango zaitut Meza santuan Jaungoikoari zuregan bere babesa eskatuz.

Illabete bat eskax zurea baño len da nere urte betetzea: loreillaren 6'an. Aurten 33 urte bete ditut.

Loreillaren I4'an Lourdes'en izan nintzan, eta Andre Mariaren txoko artan zutaz ere oroitu nintzan. Garagarrillako Zeruko A. zenbakian nere lan-txo bat ikusi dezakezu LAZKOZ izenpetuta. "MOTXOGANE" izen-ordezkoa ez dakit nor dan. Euskal idazlari baten izena eman nai dizut. Oso euskal-zalea da: Gregorio Pedrorena. GARRALDA (Navarra). Onek Garraldako berriak emango dizkizu, eta pozik. Bera zurgina da.

Eta orain mesedetxo bat... Riezu'tar Jorje Aitak ematen dit zuretzat: "7- 13 oct. 1928"

Congreso Internacional de Artes Populares, Praga.

El P. Donostia presentó una memoria sobre "La Musique Basque", que fue leída por J. Subiza.

¿Habrà algún rastro de dicha memoria en algún anuario o publicación parecida?

Aita Jorje A. Donostiren gauz guztiak biltzen ari da; eta ori ere bildu nai luke. Onen berririk ba-da, bada, mesedez, bialdu onera.

Aspaldi ontan ez diot idatzi Nils Holmer'i. Lotsaturik nago. Egunen batean egin bearko.

Oraingoan etzait besterik gogoratzen. Ar itzazu berriz ere nere zorion goxoenak zure egunean eta nere bedeinkazioa.

[16]

Lekaroz'tik 1958'ko abendua'k I2'garrena.

Tauer'tar Norbert
PRAGAN

Aspaldiko adiskide ori: Agur t'erdia.

Atzo jaso nuen zure eskutitz maitagarria, EGUERRI onak emanaz.

Esker mille! Nik ere berdin opa nai dizut zuri. Belengo estalpetik Jesús Aurtxoak ugari bedeinka zaitzala; eta URTE BERRI zorionsu bat izan dezazula.

Arrazoi aundia dezu, esanez aspaldi ontan nere berririk ez dezula izan. Artu nituen zure azkeneko bi eskutitzak ere. Eta beti, gaur idatziko, biar idatziko, ara joan zait denbora. Orain ez det geiago berandutu nai. Dana alde batera utzi, ta erantzuten dizut.

Nere berri jakingarririk ez dizut emanen. Nere bizitza, beti bezelatsukoa da. Orain dirala illabete t'erdia, liburu bat argitaratu nuen. Bere izena: BEDERATZI URREN ETA ELIZ OTOITZ BATZUK. Dauzka eun ta ogei ta bi orri-alde. Mille ale atera nituen. Nik uste, erdia saldurik egonen dala. Ale guztiak Donostiko liburu-banatzalle bateri eman nizkion saltzeko, eunetik berrogei (40%) bereztat emanez. "Basarrik" "La Voz de España'ko" ATALAYA MONTANERA'n, Miguel Angel Astiz'ek LA GACETA DEL NORTE'n eta Joxe Artetxek LA HOJA DEL LUNES'en zerbait liburu oni buruz idatzi dute, txalo ederrak joaz. Idaztegiatan, 18 peztetan salgai jarri dute. Iruñako Aldunditik berreun ale eskatu zizkidaten. Eta erantzun nien ez nuela ale bat ere; eskatzeko Donostira.

Orain beste liburu bat antolatzen ari naiz: Igandetarako Eliz-itzaldiak. Erdi prestaturik daukat. Ikusiko degu noizko bukatzen deten. Emen ere lan asko daukat eta.

Jakiñen dezu aurten argitaratzeko dala euskerazko T.B.O. bat, izenez XABIERTXO. Polita aterako omen da. Beste berririk ez naiz gogoratzen. Zure laguntza guziagatik eskerrak emanaz, bedeinkatzen zaitut biotzez

Aurelio Aita

[17]

+

AGUR MIREN!

Lekaroz'tik, 1959'ko garagarrilla'k 20'garrena.

Aspaldiko nere adiskide ori: Agur t'ardi.

Zertan ari naizen edo bizi naizen pentsatuko zenuen, noski, ain denbora luzean idatzi gabe egoteko. Urte erdi bat, beintzat, izanen da ez dizutela idatzi.

Joan zan aste ontan joan zaizkigu mutillak lan-arteaz, eta guk ere orain lan-arteak (bakazioak) dauzkagu. Uda ontarako ba daukat nik zer egin-bearra. Euskerazko liburu bat antolatzen ari naiz, igandetako homilien gañean. Ba daukat 470 orrialde makinaz idatzirik, eta beste eunen bat egin bearke oraindik. Nai nuke aurten argitaratu liburuia. Joan zan urtean beste txikixoko bat argitaratu nuen: BEDERATZI URREN BEARREZKOENAK ETA ELIZ-OTOITZ BATZUK (122 orrialde zituen). Gañera, beste bi mutiko euskal-frantzesari espainola erakutsi bearke diet, joan zan urtean egin nuen bezela.

Ba dezu or zuk norekin itz egin euskeraz edo espainolaz? Emendik entzun oi izaten dute orko erradiotik espainolaz egiten dituzten itzaldiak. Ez arritu ZERUKO ARGIA joaten ezpazaizu... Gobernuarekin bueltaka gabiltza argitaratu edo ez argitaratu. Baita aurrentzako euskerazko T.B.O. (Xabiartxo) bat ere argitaratzeko asmo ta ekiñaletan gabiltza. Orain asi gera umiek berak idatzitako orritxo bat argitaratzen. Emen dijoakizu oieko orri bat.

Nere liburuia argitaratuko dutenean, bialduko dizut ale bat, ortik azalpen bat egin dezazun liburuari buruz, emengo aldizkarietan argitaratzeko.

Bitartean, zure berrien zai, bedekintzen zaitut bioz-biotzez

Etxarri Aranaz'tar Aurelio Aita

Lizarrusti

[18]

+

AGUR MIREN!

Lekaroz'tik, 1959'ko azaroa'k 14'garrena.

Norbert Tauer'i
PRAGARA

Ene guztiz agurgarri ori: Agur t'ardi.

Atzo jaso nuen zure eskutitza. Begiratu det ea zertifikatu-ta bialdu ote nizun nere liburu BEDERATZI URREN BEARREZKOENAK, baño ez det arkitu; noski, zertifikatu gabe bialdu nizun. Liburua bialdu nizun garagarrillaren azkeneko egunetan. Besteren bat bialduko dizut.

Emen dijoakizu ere UMIEN DEYAREN azkeneko orritxo. Or ikusiko dezu-nez, Nils Holmer'ek eskutitz txiki bat bialdu zidan emengo umientzako. Nai nuke zuk ere orrelako eskutitzen bat bialtzea, euskal-umeak euskal-zaletasuna izan dezaten. Orritxo au asko ari da zabaltzen; alderdi guzietan oso txalotua da.

Uste det baimena eman duela emengo Gobernuak ZERUKO ARGIA eta euskerazko T.B.O.'a argitaratzeko. T.B.O. onek "JUNIPERO" izango du izena. Soka-tira bezela ibilli izan gera baimen au iristeko.

Joan diran 6, 7 ta 8'garren egun auetan EIBAR'en euskal festa aundiak egin dira. Egun oietan egin da Gipuzkoa guziko bersolarien txapelketa; egin dira ere euskal-antzerkiak, dantzak, kantuak, eta abar. Bizkayan ere egin zan Bizkai guziko bersolarien txapelketa. Eta datorren udaberrian Naparrun egiteko asmoa da. Orain bersolariek biltzen ari gera. Bidenabar ere egiñen da Lekaroz alde ontan umien arteko euskal azterpena, sariekin. Eta datorren urtean, Gipuzkoan, EUSKALERRI guziko bersolarien txapelketa egiteko asmoa da. Alde artan baldin bada aurtxoan bat euskeraz dakiena (gurasoak euskaldunak dituelakoz) euskeraz zerbait idatzi dezala UMIEN DEYARAKO.

Antolatzen ari dira ere Beljikan izkuntza berezien ikastaldi BATZARRE bat. Izkuntza oien artean garrantzi aundienetakoa EUSKERA da. 50 nazioetako jakintsuak bilduko dira Beljikan.

Orain dala gutxi, Mikel Aingeru Astiz'ek LA GACETA DEL NORTE'n zutaz idatzi zuen, zure argazkiarekin apainduz bere lana.

Emen bialtzen dizut ere Mikel Aingeru Astiz'en idatzi bat Eibar'ko euskal festari buruz.

Oraingoan etzait beste esatekorik bururatzen. Artu itzazu nere agurrik xamurrenak, biotz barrundiko bedeinkazioarekin batean.

Etxarri Aranaz'tar Aurelio Aita
Lizarrusti

[19]

[Datarik gabekoa, baina edukiaren arabera 1959koa.
Hortaz, Lekaroztik idatzia]

+

AGUR MIREN!

Norbet Tauer
PRAGAN

Ene guztiz agurgarri ori: Agur t'erdí.

Artu nuen irailaren 3'ean bialdu zenidan tarjeta KLENCI'tik . Egun aietan bialdu nizun joan zan urtean argitaratu nuen liburua (BEDERATZI-URREN BEARRREZKOENAK); eta barruan bialdu nizkizun ere UMIEN DEYA orri bat, eta beste erderazko paper bat orko erradorako.

Eta orain arte zure erantzunaren zai egondu naiz. An esaten nizun erantzuteko artu zenituen nik bialdutako liburua eta bi paperak. Eta erantzun ez didazulako, bildur naiz bidean (emengoak) arrapatu ote nauten. Arritzen naiz erantzun ez didazulako, beti aiñ txintxua bait-zera.

Jakin nai nuke, bada, artu zenituen liburua ta bi paperak. Bildurtasun onengatik, Españatik idatzi bearrean (bada-ezpada) Frantzitik bialtzen dizut eskutitz au. Eta zure erantzunak (nik esan arte) nai nuke ere ez bialtzea Españara, baizik azalean jartzen dizuten Frantziko zuzenbide ontara. Itz egin det Domingo Epalza'rekin, eta ortan gelditu gera. Onek ba ditu bi seme Ikastetxe ontan ikasten; eta onera etorriko danean, zure eskutitzak ekarriko dizkit.

Emen barruan bialtzen dizut UMIEN DEYA'ren beste orri bat.

Aurten edo beste euskerazko liburu bat argitaratzeko asmoa det (URTE GUZIKO OMILIAK = Ebanjelioaren azalpena). Egiñik daukat; orain zensuran dago. Nik uste izango dituela 400 orrialde bezelatsu.

Auxe da oraingoan esan nai nizuna.

Beste bat arte, bedeinkatzen zaitut

Etxarri Aranaz'tar Aurelio Aita
Lizarrusti

Rte: Domingo Epalza
Villa "Maiti-Baita
Rue Coursik
S. Jean de Luz (Francia)

[20]

Lekaroz'tik, 1960'ko jorrailla'k 30'garrena.

Tauer'tar Norbert
PRAGAN

Ene guztiz agurgarri ori: Agur t'erdi.

Aspaldi ontan, elkarren berririk eztakigu. Ni oso lanperaturik egondu naiz orain arte; ez dut ezertarako betarik izan. Orain ere naiko lan badaukat, bañan ez len aña.

Joan zan aste-artean Ikastetxe ontako Ama Birjiñ Patronaren eguna izan genuen: Aolku Oneko Ama. Eta egun ortarako, emengo mutikoei euskaldantzak erakusten naiko lan izandu det.

Lengo aldi batean, bigarren aldiz, bialdu nizun joan zan urtean argitaratu nuen liburua: BEDERATZI URREN BEARREZKOENAK ETA ELIZ OTOITZ BATZUK. Eztakit artuko ote zenituen. Bialdu dizkizut ere UMIEN DEYAREN orritxoak. Emen dijoakizu azken argitaratua.

Orain, orritxo oneri buruz, zerbait eskatu nai nizuke. Datorren jorraillan UMIEN DEYAREN urte betetzea da, eta atzerriko euskal gizon ospetsuek idatzitako zerbait jarri nai genuke. Suezia'ko Nils Holmer eta Vania Abrahamsengandik zerbait iritxiko det; idatzi diet. Zuk ere zerbait idatzi zenezake. Orko idaz-lan txikiak nai genituzke: UMIEN DEYAN aurtxoak idazten dituzten neurrikoak. Eta ez eskutitza antzekoa, baizik beste edozein idaz-lan baten zati balitz bezela. Zure gaia au izan leike: "Euskaldunak ain ospetsuak egin dituzten aurrenekoen izkuntza zarra au gorde nai duten aurrak goraiapatuz".

Lan ori albait-len bialtzen badidazu, obe.

Aurten Baztan'go ibar ontako errietan dabilta Iruñako Aldundikoak euskal aurtxoak esaminatzen. Uda ontan izango da ere Elizondon ibar ontako bersolarien nor-geiagoka; baita Lekunberrin ere izango da Naparruko beste bersolarien txapelketa. Eta Naparruko bersolari oberenak, Donostin egingo dan Euskalerra guziko bersolarien txapelketara joan dira.

Zeruko Argia arrastaka dabil: batzuetan debekatu, beste batzuetan baimena eman..., or gabiltza soka-tiran bezela. Nik uste artuko dezula euskerazko tebeoa (PAN PIN); beintzat esan nien bialtzeko zuri. Ateratzen ditugu 4.000 Gipuzkoako euskeran, beste ainbeste Frantziko eskuan, eta beste ainbeste erderaz.

Auxe da oraingo z esan bear nizuna. Beste bat arte agurtzen zaitut, zure adiskide zar

[21]

Sanguesa'tik, 1961'ko ilbeltza'k 18'garrena

Tauer'tar Norbert
PRAGAN

Ene guztiz agurgarri ori: Agur t'ardi.

Aspaldi ontan elkarren berririk jakin gabe gaude. Bañan ez zan nere erruz, ezin bait nuen idatzi. Oraingo, beintzat, ba dezaket. Orregatik idazten dizut.

Ikusten dezunez, etxe-bizitzaz aldatu naute. Ez naiz bizi Lekarotz'en, baizik Sanguesan. Nere zuzenbide berria, bada, auxe da: PP. Capuchinos.- SANGUESA (Navarra).

Nere liburu BEDERATZI URREN BEARREZKOENAK ETA ELIZ OTOITZ BATZUK Lekarotz'en utzi nituen; bañan agindu nuen ale bat zuri igortzeko. Eta illabete onen 7'an edo 8'an bialdu zizutela gaztigatu zidaten. Onezkeroz, baliteke zure eskuetan izatea. Artu orduko gaztigatuko didazu joan zaizun ala ez. Orain beste liburu bat daramat esku artean. Bere izena: URTE GUZIKO HOMILIAK. Eztakit illabete ontan edo otsailan argitaratuko ote didaten. Nere kontuz argitaratu nai nuen, bañan oso garesti gusta zitzaidan: 100.000 laurleko gutxienez; eta nik ez nuen ainbeste diru. Orregatik, erabaki nuen etxe argitaldari bateri ematea, neri zerbait emanaz. Onek oso pozik artu du bere gain lan ori. Liburuak 600 orri-alde, beintzat, izango ditu; eta, gutxienez, 200 laurleko gostako da bakoitza. Zai nago noiz asiko ote diran argitaratzen. Badaukat gogoa. Ba da urte t'ardi liburu prest daukatela, bañan zensurako gora-berak dirala, diru kontua dala... atzeratu zait. Itxoin egin bear.

Jakiñen dezu ZERUKO ARGIA eztigula uzten argitaratzen. Euskerazko TBO ere asi gain argitaratzen. Eta au ere ala ola dabil. Uste det UMEEN DEYA Iruñatik bialduko dizutela; ala beintzat agindu nuen.

Emen, nere bizitza buru austeko aundirik gabekoa da. Ez det Lekarotz'en ainbesteko lana. Au Nobiziado etxea da; pralle gaiena.

Eta zuk, zer bizimodu daramazu alde ortatik? Nik uste, emengo berriak andik edo emendik jakingo dituzula.

Auxe da esateko naukana. Oraingo etzait besterik gogoratzen. Zure berrien zai nauzu zure adiskide zar

Etxarri Aranz'tar Aurelio Aita
"Lizarrusti"

[22]

Madrid'etik, 1965'koren azaroak I'na.

Tauer'tar Norbert
PRAGA'N

Nere aspaldiko adiskide maite ori: Agur t'erdii!

Eskutitz au artzean esango dezu zure baitarako: Norena ote da eskutitz au? Nik ez dut ezagutzen...

Bai, urteak dira ez dizutela idatzi. Ona nor nauzun... Gogoratzen zera Etxarri Aranaz'tar Aurelio Aita kaputxinoaz? Neroni naiz. Kaputxino izatez utzi nuen. Orain Madrid'en bizi naiz. Ezkondu nintzan eta bi aurtxo ditut: bat bi urtekoa (Begoñi neskatilla) eta zazpi illabeteko mutiko (Santi izenaz) bestea.

Askotan gogoan izan zaitut, bañan utzi ta utzi, orain arte zuri idatzi gabe egondu naiz. Oso lanpeturik nabil. Irarkola batean lan egiten det. Goizeko zazprietan lanera sartu eta arratsaldeko bederatziatan ateratzen naiz. Nekaturik etortzen naiz etxera. Eta bearko ainbeste lan egin zer jana irabazteko...

Eta zer da zure bizitzaz? Ez dezu alde ontara etortzeko asmorik?

Eguerri egunak gertu ditugu. Orregatik, Eguerri zoriontsuenak opa nai dizkitzut.

Zure berrien zai nauzu zure aspaldiko adiskide.

Ezkerra'tar Santiago

[23]

Madrid'etik, 1972'ko ilbeltzak I7'na.

Tauer'tar Norbert
PRAGAN

Nere aspaldiko adiskide agurgarri ori: Agur t'erdii!

Ez dakit zenbat urte diran ez dizutela idatzi, eta ez det zure berririk. Ikusten dezunez, Madrid'en bizi naiz. Joan diran Eguerri auetan Tolosa ta Donosti aldean egon naiz. An ikusi nuen Abenduko 23'ko Zeruko Argia. Zenbaki ortan zure idazkitxo bat irakurri nuen. Ez nizuke neiko esango artu nuen poztasuna. Andik jakindu nuen Artetxe'tar Joxe il zala (G.B). Ikusten detenez, zure 73 urteekin sasoitsu zaude. Urte asko ta osasungarriak izan ditzazula. Eta, naiz berandu, Urte Berri zoriontsu bat izan dezazula!

Asko poztuko nintzake, aspaldi batean bezela, Madrid'era etorriko baziña; orrela elkar ezagutuko giñake; bañan ezta erraz ori.

Nik irarkola lantegi batean lan egiten det. Idazkietako utsak zuzentzen ditut. Goizeko zortzietan sartu eta gabako amarretaraño lantegian nago. Bederatzireun bezelatsu gera. Nolabait ere bizitzeko, ordu asko lan egin bear, nai eta nai ez. Umeak ere gora dijoazte. Neskato zarrenak (Begoña) zortzi urte ditu; mutikoak (Santiago) sei, eta txikienak (Ana Mari) lau.

Nai badezu zuzenbide berri bat elkar idazteko, ona emen:

P. Bautista Lasa

PP. Capuchinos

Oquendo, 22

S. Sebastián (España)

Nere illoba da au⁵. Neri bezela idatzi dezaiozuke.

Gañerakoan, emendik berri aundirik ez. Euskalerriko berri gutxi dakizkit esateko, urrun xamar bizi naiz eta.

Zure berrien zai, artu nere besarkadarik beroena.

Ezkerra'tar Santiago

"Lizarrusti"

⁵ Bautista Lasa, Santiagoren Lizarragako ilobaren sortetxeak ere *Xantubaan* izena du.

[24]

Madrid'etik, 1977'ko urrilla'k 20'na.

Tauer'tar Norbert
PRAGA'n

Nere aspaldiko adiskide zar ori: Agur t'ardi!

Uste izango dezu, noski, aztu zaitudala. Bañan ikusten duzunez ezta ala. Urte askoren buruan emen dituzu nere berriak. Esango duzu Guadiana ibaia nabari dutala: emen izkutatu ta an agertu.

Ez dakit esan nizun eskutitzen batean buruñurdun izateaz utzi nuala, orain dirala amasei urte. Madrid'en bizi naiz eskutitz azal-atzean ikusi deza-kezunez. Etzerala gogoratzen nor ote naizen? Oraintxe gogoratuko zera esaten ba dizut aspaldi bateko Etxarri-Aranaz'tar Aurelio Aita buruñurduna naitzela, izen ordeztu "Lizarrusti". Ezkondu nintzan eta lau ume eder ditut: zarrenak amalau urte ditu, eta besteak amabi, amar eta lau urte. Irarkol batean lan egiten dut uts zuzentzalle bezala. Eta lantegian, tarteka-tarteka, erdal-euskal iztegi bat antolatu dut. Gutxi gora-bera, seireunen bat orrialde aundi izango ditu, ogei ta bost mille itzekin. Berreun orrialde aundi garbian jarri-ta dauzkat. Argitaratu nai nuke; ori litzake nere pozik zoragarriena, bañan ez daukat ortarako bear litzaken dirurik. Begiratzen ari naiz ea nork argitaratu lezaken.

Ez dakit ezagutuko duzun Donosti'n argitaratzen dan "GOIZ ARGÍ" aldizkaria. Aldizkari ortan noizean beinka argitaratu izan oi ditut lantxo batzuk "Lizarrusti" izen ordearekin.

Eta zuk zer bizitza daramazu? Aspaldiko ontan ez dut zure berririk. Onezkeroz euskeraz liburuen bat argitaratuko zenuen. Ez al duzu asmorik ere?

Zure berrien zai, artu itzazu zure adiskidearen besarkadarik beroenak

Ezkerra'tar Santiago

[25]

[Norbert Tauer jaunak Santiago Ezkerraren
1965-II-01eko gutunari emandako erantzuna]

Praga'tik 1965'gko azaroaren 29'ean.
Eskutitz au 2.251'garrena da.

Ezkerra'tar Santiago jaunari
Madrid'era.

Nere adiskide maitea:

Egun batzuek dirala zure eskutitz maitagarria artu nuen eta gaur azkenik noa zuri zerbait idaztera. Egia da Madrid'etik datorren zure eskutitzak eta idazten didazunak arritu nauela. Urte zenbaiten bidean ez det zure berririk izan. Zure azkenekoa /1961'gko Ilbeltzan artu ezker, iru aldiz idatzi nizun, baiñan nere eskutitzak erantzupenik gabe gelditu ziran. Nere euskaldun adiskideen bitartez zure billa ibilli naiz, baiñan alperrik. Eta orain azkenik badakit, nun bizi zeran eta pozik berriz zurekin eskutitzezko artu-emanetan sartzen naiz.

Madrid ongi ezagutzen det; or amabi urte egin ditut. Baiñan ez dakit nun dagoen Misterio izeneko kalea. Kale berri bat izango da. Orain Madrid'en euskaldun asko bizi dirala uste det.

Ni beti euskaltzale sutsua naiz eta len bezela euskal-idazle ta jakintsu askorekin eskutitzezko artu-emanetan arkitzen naiz. Asko poztutzen naiz orain Euskalerrian euskaltzaletasuna bizkortzera dijoala. Euskal-idazti berriak ugari agertzen dirala, batez ere "Auspoa" eta "Kuliska" izeneko sailletan. Zeruko Argia izeneko asterokoa ere gogotik irakurtzen det.

Nik aurten 67 urte bete ditut. Baiñan, Jaungoikoari esker, beti osasunez ongi nabil. Jubilatua nago, zoritxarrez Euskalerrira joateko ez daukat dirurik.

Emen gazte bat, Ikastetxe-Nagusiaren ikaslea, asi da euskera estudiantzen. Ona emen euskaltzale berri bat izango degu nere Aberrian.

Zure etxeko guziei Gabon paketsua ta Urte berri zoriontsu bat opatzeko. Ar itzazu, nere adiskide ona, agurrik bizienak.

Badakizu, nun daukazun adiskide zintzo bat

Tauer'tar Norberta

Nere zuzenbidea:

Norbert Tauer
Vinohradská 126, Prague-3
Tchecoslovaquie

[26]

[S. Ezkerrak J. M. Satrustegiri hiztegi bat argitaratzeko asmoa azaltzen]

Santiago Ezquerria
José Caballero Palacios, I4-I-izq
Madrid 20

Madrid'etik, 1978ko uztailak, 29

Satrustegi'tar Joxe Mari
Urdiañ'n

Nere adiskide agurgarri ori: Agur t'ardi!

Ez dakit lengo eskutitzen batean zerbait esan nizun. Antolatu-ta daukat Erdal-Euskal Iztegi bat. Gutxi gora-bera, seireunenbat orrialde aundi izango ditu. Berreun ta ogei ta amabost orrialde garbian jarri-ta dauzkat. Lantegian, tarteka-tarteka egiña det. Saiatu naiz gaur erabiltzen diran erdal itzak ere jar-tzen, euskera gaurkotzen. Argitaratu nai nuke; ori da nere asmoa. Bañan ez dakit zer irarkoletara jo eta nola argitaratu ere. Nik ez daukat dirurik argita-ratzeko. Etxe auek begiratu ditut, bañan iñun ere baietzik ez: Auñamendi, Itxaropena, Ediciones Guipuzcoanas, Leopoldo Zugaza (Durango), Cinsa.

Zuk mesede au egin dezakezu, begiratzuz argitaratu lezaken etxeen bat? Ala baldin bada, esaidazu.

Artu besarkada aundi bat, Agur!

Ezkerra'tar Santiago

